

TXILLARDEGIREN BORROKA ABERTZALEA

ezta
baida

Pako Sudupe

031

elkar

Bildumaren diseinua: Borja Goitia

© Pako Sudupe Elorza

© Elkarlanean S.L. 2016

L.G. SS. 118-2016

ISBN 978-84-9027-544-3

Elkarlanean S.L. Argitaletxea

Portuetxe kalea, 88 bis

20018 Donostia

Tel. 943 31 02 67

liburuak@elkar.eus

www.elkarargitaletxea.eus

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Olatz emazteari

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	11
SARRERA.....	17
LEHEN PARTEA. OINARRI IDEOLOGIKOAK.....	25
0. Oinarri ideologikoen finkapenaren eta bilakaeraren jarraipena.....	27
1. Euskal arrazismoari ez.....	29
1.1. Espainiako trantsizio demokratikoan.....	36
2. Klerikalismo erreakzionariorik ez: “Euskera eta Lege Berria”.....	43
3. Errepublikanismoa: karlismo berria.....	53
3.1. Karlismoaz zabalago.....	57
3.2. Euskal Fronte Nazionala behar zen, ez Klaseko Fronte Espainola.....	62
4. Euskadi estatua Euskal Herriaren zerbitzuko.....	65
4.1. <i>Hizkuntza eta Pentsakera eta Euskal Herritik erdal herrietara</i>	74

4.2. Alderdi abertzaleetako buruek eta euskal erakundeetakoek euskaldunak behar.....	78
4.3. Pertsona-eskubideak eta lurralde-eskubideak	84
4.4. Euskararen eta klase borrokaren arteko sartu-irtenak	88
5. Nazio-estrategia klase-estrategiaren gainetik herri nazionalki zapalduetan.....	91
5.1. ETAREN IV. Biltzarra baino lehen.....	92
5.2. ETA utzi ondotik	98
5.3. 1968ko udaberria Parisen eta Pragan	111
5.4. Euskal manifestuaren proiektuan, eskuineko eta ezkerreko sozialismoa bereizten	122
5.5. Beste polemika bat.....	129
6. Erreformismo iraultzaileak beharrezko zuen kontrabortxa	137
6.1. ETA frankismoaren erregimenpean.....	140
6.2. Trantsizio demokratiko delakotik hona.....	147
6.2.1. <i>Gandhi edo bortxarik gabeko borroka</i>	150
6.3. Atzoko eta gaurko gudariekiko harremanak	154
6.3.1. <i>Eustakio Mendizabal eta Txomin Iturbe</i>	157
6.3.2. <i>Atzoko eta gaurko gudariei egindako elkarrizketak</i>	162
7. Intelektual konprometitua	169
7.1. Lortu al zuen euskal intelektual konprometitua izatea?	173
7.2. Polemikaren beroan	178
7.3. Idahoren esangura	187

BIGARREN PARTEA. UNEAN UNEKO HAUTU POLITIKOAK.....	191
1. Ekin-etik ETAr.....	193
1.0. Lehen jarduera politikoak	193
1.1. Ekin-Eusko Gaztedi-ETAre sorrera	194
1.2. Errelatoaren afera.....	199
1.3. Laburbilketa.....	212
2. ETA erakundea uztea	213
2.1. Zuzendaritzari bidalitako lau txostenen edukiaz	215
2.2. Zuzendaritzarekin harremanetan zen garaiko idatziak eta aurrez aurreko solasaldia.....	223
2.3. V. Biltzarraren bigarren parte, eta erakundea uztea	229
3. ESBtik HBra	239
3.1. ESBren alderako hautua	241
3.2. Espainiako Kongresu eta Senaturako 1977ko ekainaren 15eko bozen ingurumarian	252
3.3. ESBtik HBra independente gisa, edo erreformismo ezinezkotik haustura nahira.....	257
3.3.1. ESBtik kanporatzea	261
3.3.2. Bi urte giltzarri: 1978 eta 1979.....	263
3.3.3. EAJren saldukeria, klase interesengatik	272
4. Herri Batasunan.....	279
4.1. HBko senatari eta Mahai Nazionaleko kide independente	282
4.1.1. Sozialismo errealearen krisia.....	286

4.1.2. <i>Vitoria-Gasteizko Eusko Jaurlaritza delakoaz</i>	290
4.1.3. <i>1992ko krisian, autodeterminazioa eta independentzia ardatz zituen programa politikoa aldarrikatzen</i>	296
4.1.4. <i>Elkarriren hirugarren bideaz, eta 1997ko urte amaieran ETAn infiltrazioa zegoen susmoa</i>	305
5. Lizarra-Garazi; Aralar alderdian (2002-2007), eta berriro ezker abertzale ofizialean	313
5.1. Lizarra-Garaziren eta meniaren alde	319
5.2. Ibarretxeren plana, eta zuzendaritza aldaketa EAJn	327
5.3. ETAREN 2006ko su-etena; Aralarren baja ematea; EAE-ANVrekin agertzea	333
5.4. Gai funtsezkoenak argi uzten	344
KRONOLOGIA POLITIKOA	349

HITZAURREA

Azken hamarkadetako Euskal Herriaren historia hurbilaz ezer taxuzkorik esan eta idatzi ote daiteke Txillardegiren testuak eta lekukotasunak irakurri gabe? Izan ere, Joxe Azurmendik ondo asko dioen bezala, historiaren parte hori ehuntzen duten bidegurutze gehienetan ageri zaigu haren izena. Hasi euskararen batasunaren aldeko saio eta euskal literaturaren lehen urrats modernoak ematetik, euskal nazioaren zer-nolakoak zehaztetik igaroaz, pentsamendu politikoaren inguruko gogoeta landuak burutu zituen donostiar euskaltzale handiak.

Txillardegi politikoaren ekarpena ez dugu behar hainbat balioetsi. Txillardegi politikoaren irudia gutxietsi egin dugu, haren ibilbide politikoan ageri zaizkigun sigi-saga batzuen-gatik. Edota beste esparru batzuetan, intelektualean adibidez, distiratsuagoak izan direlako haren fruituak. Hala ere, pentsamendu politikoaren alorrean bertan ere egundoko gogoeta kritikoak egin zituen, garaiko joera teoriko eta espe-rientzien argitan oraturik. Euskal mamiz oratutako pentsamendu politikoaren oinarriak ezarri zituen, inor gutxi ezarri dituen maila jaso eta mamitsuan.

Sistema sozialaren eta nazionalaren arteko dialektika nork hauteman du Txillardegik egin zuen modu egokian? Nork uztartu ditu gurean nazio arazoa eta arazo soziala ho-

rrren gisa osagarri eta orekatuan? Nork lehenetsi du nazio arazoaren kontraesan nagusia sistema sozialaren barruko kontraesanak gutxietsi gabe? Nork jo du begiz Euskal Herriaren ikuspegi orokorra berak egin zuen modu zorrotzean, gure herriaren euskalduntasuna azkenetan zegoela iritzirik, eta, aldi berean, langile klasearen aldeko aldarriak alde batera utzi gabe? Nik ez dut ezagutzen halakorik egin duenik Txillardegik bezain egoki: alegia, klase arazoei eredu sozialista humanista batetik so eginik, euskalduntasun nazionalaren helburuak argi eta garbi iltzatuak zeuzkan buru-bihotzetan. Pentsamendu hori ehundu duenak Euskal Herriaren egoera gutxik bezala ezagutu behar zuen nahitaez, eta hori Txillardegiri zor diogu beste inori baino areago.

“Ez daukat ezer etorkinen aurka etorkinak direlako” zioen, baina PSOE ederki baliatzen da Euskal Herriaren nazio izaeraren aurkako espainiartasuna sustraitu eta euskalduntasuna erauzteko. “Euskalduna da, Euskadin bizi eta lan eginez, gure herria bere egiten duena”. Tokitan dago ezker abertzaleko buruzagi politiko askoren definizio txepeletik: hots, sistema nazionala sistema sozialaren mirabe bihurturik, euskalduntasuna merke-zurrean saltzen duen ideologia da gailen gaurko abertzaletasunean. Auzi honetan ere gauzak modu orekatuan aztertzeke irizpideak eman zizkigun Txillardegik.

“Euskadi euskaldun bat nahi dugu, euskara hizkuntza nazionala izango den Euskadi, helburu horretan amore eman gabe”. Euskal Herriaren bizkarrezurra euskara zen Txillardegiren begietara, euskararen komunikazio-sareak mendez mendez jositako herria. Euskalduntasunaren matrizea euskara da euskaltzaleontzat; orobat, espainiartasunarena espainiera eta frantsestasunarena frantsesa. Horretan ere bide

erakusle aparta izan dugu; gaurko abertzaletasun eta independentzia zale askok badute zer ikasi berarengandik.

Euskal Herriaren zori gaiztoak erro historiko sakonak dituenenez, atzera begira jartzeko aurreiritzi merkerik ez zeukan Txillardegik. Karlisten jokamoldea ezaugarritzeko orduan, zioen, “beren bizitza aberriagatik emateko adina sentitzen zutela Euskadi”. Baina, orain bezala, orduan ere Espainiaren iparrak gidatzen zituen Hegoaldeko euskaldunen begiradak: horretara, hemengo buruzagi politikoek ez zituzten gauzak Espainiaren gainetik planteatzen, Espainiaren bidez baizik. Euskal nazioaren heteronomia egoerak zabaltzen zituen eta dituen atak, orduan bezala orain, Espainiatik ateratzeko baino gehiago, Espainian sartzekoak izan dira. Karlista haien euskalduntasuna ez zuen zalantzan jartzen Txillardegik, baina, damurik, ez zen euskalduntasun politikoa, etnikoa baizik. Kontzientzia etnikoa, izatez, nazio burujabearen beharra sentitzen ez duen kontzientzia mota bat da.

Estatu burujabearen gainak bakarrik berma dezake, bermatzekotan, Euskal Herriaren geroa. Hortik behera, ez dago etorkizunik: hortik behera, euskotarren aberria dago, hortik behera baskoen identitate arrotua dago, hortik behera betiko erregionalismoa edo etnoerregionalismoa besterik ez dago. “Erresuma-hizkuntza ez diranak oro, galtzekotan dira; eta alderantziz: diranak oro, loratzen eta hedatzen”. Euskal Estatu independentearen hizkuntza euskara izango bada, estatugintza hori euskaraz gauzatu beharko da. Gainerakoan, Irlandako patua datorkigu. Puntu honetan ere hamar mila buelta ematen dizkie Txillardegiren pentsamoldeak eta praxiak gaurko euskal estatuzale gehienei.

“Abertzale batzuk, askok, gehiegik, genoziden lana osatu dute etxe-barnean bertan” zioskun donostiar euskaltzale handiak. Hori irakurrita, “gaur egun ideia horiek ezagunak egiten zaizkigu, beharbada, baina duela mende erdi bat?” galdetzen du Pako Sudupek. Esana dugun arren, berresan dezagun: orain guk esan eta idazten ditugun oinarrizko gauza eta kezka nagusiak ordurako onduak zeuzkan Txillardegik buruan. Ordurako jabeturik zegoen herri honen patua markatu dutenek nora ekarri gaituzten, eta espainiar eta frantses estatu etnoziden aurrean zer-nolako jarrera txepelak agertzen dituzten gure abertzale kartsuenek. Are gehiago, etnozidio horren irakurketa kritikoa egin beharrean, gertakari latz hori gutxiesteko joera gero eta nabarmenagoa da mundu abertzalean eta euskal intelligentsiaren hainbat esparrutan.

“Guk Euskal Herriaren arazoa garbiago ikusten dugu gure aurrekoek baino (...) gure aurrekoek, ia danek, Leizola'gandik hasi eta beheraino, oso oso eskas jokatu dute”. Martin Ugalderi zuzendutako gutun-zati hau deigarria egin zaio Pako Suduperi. Deigarria eta azpimarragarria erantsi dezakegu guk geure aldetik. Izan ere, adierazpen horretan Txillardegi jabeturik dago zeinen makurra den kontzientzia etnikoa edo etnoerregionala Euskal Herriarentzat. Oharturik dago garai hartako abertzale askoren euskal kontzientziak ez ziola euskarari hizkuntza nazionalaren estatusik eta erabilerririk opa. Euskara ez zela Euskal Herriaren hizkuntza nazionala euskal mentalitate harentzat. Larreko hizkuntza zela batez ere, euskalduntasun etnokultural bati zegokiona, ez zinezko nazio hizkuntza bati. Gaur ere ez gaude urruti mentalitate etnokultural horretatik. Gaurko euskaldun askorentzat ere euskara ez da nazio-arazoaren zaina eta gaina, erabili behar

bada erabiliko du, baina ez bere nortasunaren oinarrizko zutabe gisa. Euskalduntasuna problematizatzeko gaitasunik ez daukan ideologiak bizi gaitu.

“Inoiz ez da garaia euskararetzat”: horra abertzale euskotarren betiko leloa. Besteak beste, Txillaregik ESB alderdi politikoan ezagutu zituen abertzale baskoen jarreratik hasi eta oraindik amaierarik ez duen leloaren biktimak gara euskaraz bizi nahi dugunok. Orduan bezala orain ere aitzakia berbera nagusitzen da mundu abertzalean. Euskaraz bizi nahi dugunok itotzen gaituen soka ez da espainolismoaren eta frantsestasunaren eskuak bakarrik estututakoa. Esku etnozida nagusi horien esku konplize asko dago orduan bezalaxe orain ere gure artean. Euskalduntasuna bigarren edo enegarren mailan uzten duen abertzaletasuna jasanezina bihurtzen ari zaigu. Aski da! oihukatzeke garaia dugu euskaltzaleok.

Nolanahi ere, Txillardegiren gaitasun intelektualak ha maika gai gehiago ere jorratu zituen, aurreko paragrafo horietako auzi nagusi horietaz gainera.

Bada, imajina ezazu Txillardegiren jakinduria hori guztia, lekukotasunez eta datuez jantzita, aldian aldiko eztabaida politiko eta intelektualen olatua hartuta, Euskal Herriaren funtsezko auziak berak bakarrik zekien euskara noranahikoan onduta. Bada, irakurle, hori guztia Pako Suduperen liburu honetan daukazu bilduta, tolestuta, harilkatuta. Eta ez nolana. Modu irakurgarri eta atseginean, hitzari hitza eta letrari letra era gozagarrian dariola. Jakin-min batek bestera zaramatza, Euskal Herriak azken hamarkadotan izan duen gidaririk handienaren eskutik. Pentsamenduaren emariak ez zaitu gogaituko, irakurle, liburu honetan dagoena irakurri gabe

ezin baitugu gure herriaren iraganaren, izaeraren, egoeraren eta etorkizunaren zentzua hauteman. Eta zentzurik gabe, nora goaz?

Joxe Manuel Odriozola

SARRERA

Aurreko abertzaleek baino garbiago ikusi zuen Euskal Herriari zerk ematen zion kohesio soziologiko-kulturala, Iparrean eta Hegoan, eta zerk izan behar zuen oinarri etorkizuneko euskal estatu independentean: gure hizkuntzak. Hala adierazi zion duela mende erdi bat Martin Ugalderi.

Ez arrazak –euskaldunok berezitasunen batzuk izan arren, arraza-nahasketa bat, azken buruan–; ez erlijio katolikoak, klerikalismo deitoragarriaren tema zen hori –geraondoan faxismoarekin bat egiteagatik galdua zuen erlijio katolikoak izen on guztia, euskal apaiz batzuen salbuespena salbuespen, eta sekularizazioa atarian zen–; ez iragan demokratiko idealizatuak –foruak indarrean zirenean, ez ginen hobeto eta askeago bizi euskaldunok–; aitzitik, ez jakin arren denok ikas dezakegun hizkuntzak, euskarak bereizten gintuen, eta euskal estatu euskalduna eraikitzeke nahiak definitzen.

Lehen Biltzarrean ETA sozialista gisa definitu zen, eta lehen biltzar hartan garrantzi handia izan zuen Txillardegik. Faxismorik eta komunismorik ez, sozialismo humanista. Aberriaren baliabide ekonomiko garrantzizkoenek herriaren esku behar zutela zioen, ekonomiaren nazionalizazioaren alde, beraz; baina inoiz ez alderdi bakarraren, sindikatu bakarraren eta prentsa bakarraren eta ikuspegi bakarraren alde,

faxismoa eta komunismoa aurki eta ifrentzu totalitarioak baitziren, eta ideia eta alderdi-aniztasuna, autogestioa eta federalismoa ziren ezinbestekoak.

Ekonomiaren garrantzia ukaezina bazen ere, linguista, etnologo eta psikologoek frogatua zuten bezala, gizakia ez zen klase batekoa bakarrik, nazio-identitatea, generoa, psikologia hor zeuden, eta klase-borroka ez zen oro; gainera, nazionalki zapaldua zegoen Euskal Herrian kontraesan nagusia abertzaletasuna/inperialismoa zen, eta ez burgesia/langileria; lehentasunak gaizki ezartzeak inperialismo faxistatik sozial-inperialismora ginderamatzan ziurki.

ETAk IV. Biltzarretik V.era bitartean asko zehaztu zituen bere ideologia (1965-1967) eta estrategia. Sozial-inperialista espainolistak alde batera, bi korronte zekuskien ETAn: marxista-leninista abertzalea, bata; eta, sozialista humanista, autogestionario, federalista, bestea –berrea–. Bi korronte horien onarpena galdegiten zuten ETAREN fundatzailerak izan ziren Benito del Vallek, Manu Agirrek eta berak, besteak beste, baina lortu ez zutenek, beste korrontea nagusitu zenez, utzi egin zuten erakundea. Bestelakotua zen bospasei urteetan berek sortu zuten erakundea.

Gertatu berri ziren eta gertatzen ari ziren nazio-askapen mugimenduen arabera, hizkuntzagatik bereziki bereizirik etnia edo herri baten kontzientzia lau fasek salatzen zuten: 1. Folklore fasea; 2. Hizkuntzaren berpizkunde fasea; 3. Fase politikoa, eta 4. Fase militarra.

Folklore ez zegoen arriskuan, azkena galtzen dena da gainera, baina bigarren faseari ekiteko garaia zen, hirugarrena ahaztu gabe. Laugarrenerako goizegi berriz. Hala irizten zion 1967an; ETAREN indargintza 1968. urtean eta ondo-

koetan hasi zen benetan. ETArekin aurreko Ekin erakundeak Euzko Gazteditik bereiztera eta erakunde berria sortzera eraman zuena seigarren adarra izan zen, hots, militarra, baina apenas ezer gogorrik egin zuen 1967ra arte –1961eko tren-deskarrilatze famatua, Bergarako lapurreta-saiakera, ikurrin-jartze batzuk; beste ezer baino gehiago atxiloteta andanak ekarri zituztenak–; hirugarren munduko gerrilla-borrokek AEBen mendeko Europa Mendebaldean kokaturiko Euskal Herrian jai zuten, eta ekintza-errepresio-ekintzaren espirala ez zen onuragarria, gogorregia zelako: begira Biafrako gerra-ra, zioen 1968an, zer-nolako sarraskia eragin duen.

Ezkerkeriaren aurkako erreferente nagusia izan zen hogeihogei-hogeita bost urtean, bereziki 1965-1980 urteetan, eta aldi berean hizkuntza eta pentsaeraren arteko loturaren eta estrukturalismoaren defendatzaile suharra –azken hau hizkuntzaren garrantzia nabarmentzeko axola handikoa zen heinean bereziki–. Franco hil baino bi urte lehenago, Carro Blancoaren aurkako atentatua baino lehentxeago, “Proyecto de Manifiesto Vasco” idatzi zuen, 70 orrialdeko idatzi politiko nagusia. Besteak beste, estrategia aldetik fronte abertzaleak izan behar zuen nagusi Euskal Herri nazionalki zapalduan, identitatea arriskuan zuen herria zenez gero.

Franco hiltzean klandestinitatea utzi, erbestetik aberri-ratzeari ekin, eta politika pragmatiko-posibilista egiteko garaia zela iritzi zion, maximalismorik gabe. HASIk eta ESEIk ere gonbita egin zioten, baina ESB iruditu zitzaion egokiena 1976an, betiere abertzaleen frontea edo koalizioa ahaztu gabe, eta, taktikoki 1931ko Lizarrako Estatutuan oin harturik, aliantza taktiko autonomistak Hegoaldeko lau herrialdeetarako.

Batetik, diktadura ondoko lehen hauteskunde orokorretan –1977ko ekaina– ESBk izandako emaitza kaskarrak; bestetik, fronte abertzalea uzteko joerak eta, halaber, alderdi berruan euskarari zegozkion eskakizunak baliogabetzeak; horrek guztiak eta beste desadostasun batzuek urrundu zuten ESBtik, eta zuzendaritzatik kanporatu zuten, beste bi fundatzaileekin batean. Herri Batasunera igaro zen independente gisa, hura jorik une hartako fronte abertzale bakartzat.

Espainiako 1978ko konstituzioa ezin onartua zitzaion, bereziki autodeterminazioa ukatzen ziolako Euskal Herriari eta gaztelaniaren alderako diglosia sendotzen zuelako; halaber, haren mugen barruko autonomi estatutuak akats larriegi bat zuen: Nafarroa kanpo uztea, Euskadi Nafarroa denean, euskal abertzaletasunak Nafarroarik gabe zentzurik ez duenean.

1980-1981ean bortizki salatu zuen PNVren saldukeria eta Euskadiko Ezkerrarena, eta bakarrik zeudela eta fronte abertzale bakarra Herri Batasuna zela adierazi. Ordurako sendo posizionatua zegoen Txillardegi, Espainiako trantsizio delakoa finkatua zegoen hein bertsuan. Handik aurrera, kontraesan nagusia erreformistak versus iraultzaileak zen, eta bera iraultzaileekin zegoen, ezkerreko iraultzaile abertzaleekin.

1981etik 1982ra, Kaliforniako UCLAn urtebete inguru egin zuen, Andolin Eguzkitza zenarekin batean, Linguistika ikasten. Hango berri eman zigun, baina ondorio politiko garbirik atera gabe guretzat: desderdintasun sozial handiak, teknokrazia gailen, dirua erruz irabaztea axolazkoen, txikanoak eta indioak baztertuak eta ingelesa ikasi eta integratze-ko amorratzen, euskaldunak bezalatsu, espiritualtasun aldetik erlijioaren presentzia nabarmena eta sekta ugari. Hopi in-

dioen artean ibili zen –gogora Whorf, Sapir eta *Hizkuntza eta pentsakera* liburua; hopien egoera negargarria ezagaturik, ondorio hau atera zuen: hizkuntza bizitza duinerako tresna ez bada, ahaztea hobe–; Monte Palomar-en ere izan zen, astronomiaren zaletasunak eramanez. AEBen erraldoikeria ez zen berarentzat –ez guretzat– egina.

1986tik 1992ra bi legegintzalditan senatari izan zen Espainiako senatuan, eta Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kide ere bai. Kargu horiek ematen zioten ordezkariaren izenean eta ardurapean, Irlandara joan zen Sinn Feinen biltzar batera 1986an. Alde batzuetatik eredu izango zen, baina bazuen Eirek akats larri bat: euskara aldetik kontraeredua zen. Hurrengo urtean Txomin Iturberen ehorzketan izan zen Aljerian. Eustakio Mendizabal *Txikia* eta Txomin Iturbe miretsi zituen. 1989an, Madrilen Josu Muguruza erail eta Iñaki Esnaola larriki zauritu zituztenean, haiekin zen.

Ez zion errepikatzeari utzi abertzaletasunak izan behar zuela nagusi Herri Batasunan, bereziki SESB desegitean, zuzendaritzako batzuek dimisioa eman behar zutela adierazte-raino. Garai hartan (1991-1992), Baltikoko errepubliketan eta Eslovenian izan zen; hizkuntza eta independentzia alde-tik haiek ziren jarraitu beharreko eredu. Urte haietan kargu politikoak utzi zituen, eta autodeterminazioan eta indepen-dentzian zentratu beharra defendatu zuen, ezkerreko ideien aurretik, baita fronte abertzalearen ezinbestekotasuna ere.

Ajuria Eneko hitzarmena eta haren ondorioak suharki sa-latu zituen hamaika artikulutan.

ETAkoek, erabat harturik, 1936ko gudarien lekukoa hartua zuten, hots, Euskal Herri independentearen aldeko gudariak ziren. 1970etik 1976ra harreman estua izan zuen

haietako zenbaitekin. 1971n, Fronte Abertzalea antolatzen saiatzeagatik –Txillardegiren arabera, delako frontea ez zen aurrera atera EAJk nahiago izan zuelako PSOerekin elkartu– Frantziatik kanporatu nahi izan zutenean, etakide multzo batek elkartasunez gose-greba egin zuen –Juan Jose Etxabe, Eustakio Mendizabal, Pérez-Revilla “Tomasón”, Garmendia “Korta”, Goikoetxea “Txapela”, Txomin Iturbe...–, eta intelektual ezagunak ere kanporaketaren aurka agertu ziren: Guy Heraud, Vercors, Claude Bourdet, Daniel Mayer, Georges Casalis, Etxeberri-Aintxart.... Ondotik, 1972ko urrian eta 1974ko urtarrilean, berak beste bi gose-greba egin zituen kanporatu nahi zituzten etakideekiko elkartasunez. 1997ko abenduan, Lizarra-Garazi baino lehentxeago, duda egiten zuen ez ote zegoen infiltraziorik erakunde armatuan, hura abertzaletasunarentzat oso kaltegarri ziren ekintzak egitera bultzatzen zuenik.

Lizarra-Garaziren garaiko optimismo laburrari ondoko dezepzio luzeak jarraitu zion, eta Aralar alderdira egin zuen, borroka armatuari kaltegarri iritzita. Ibarretxe Planak erreka jo arte, hortxe nonbait, eutsi zion esperantzari, politika bidez autodeterminazioa lor zitekeen itxaropenari. Ibarretxe Planaren porrota eta abandonua ikusirik, eta katalanak bide baketsuetatik joanez estatutu berriaren kontuarekin nola zebiltzan ikusirik, ostera, etsipen politikoan jausi zen. 2007ko urtarrilean, Bilbon manifestazioa ETaren aurka, eta han, besteak beste, Aralar; eta, handik laster, maiatzeko hauteskundera Aralar Ezker Batua-Berdeekin koalizioan; alde egin zuen Aralarretik.

Herri Batasunera egin zuen berriz; hango lagunek legez aurkez zezaketen aukera bakarraren alde eginez, hots, EAE-ANVren alde, Senaturako hautagaitza onartuz.

Patxi Lopezen gobernua jorratzen eta euskararen eta autodeterminazioren defentsan eman zituen azken urteak.

Aski hurbiletik eta denbora aski luzean ezagutu zuen Patxi Zabaletak Txillardegiz dio suharra zela izaeraz, eta itzalen artean bazuela “anti” izateko joera, baita gidarien aurka joatekoa ere, baina, argiei doakienez, oso argia eta kontsekuentea izan zela bere oinarri eta printzipioetan eta, berrogei urte geroago jaio izan balitz, oso politikari ona izanen zela. Behar baino berrogei urte lehenago jaioa politikari doakionez!

Gutxik bezala ezagutu, maitatu eta aldarrikatu zuen Euskal Herria, Ipar eta Hego; hemengo abertzaleekin bezain etxeko gertatu zen *enbatazale* eta ondokoekin; kultura espainola baino gehiago frantsesa ezagutu zuen, eta Euskal Herriarena oroz lehen eta gain.

Bi hitzetan, hirurogeitaka urteetan, Euskal Herri aske, euskaldun, eta bere baliabideen jabe izango denaren alde eman du bizia, eta borroka horretan aitzindari kontsekuentea izan dugu.

Lanaren antolaketa

Bi zatitan banatu dugu: lehenbizikoan, Txillardegiren oinarri ideologikoak dira xede nagusi, bere bilakaeran. Bigarrengoan, Txillardegiren unean uneko hautu politikoak dira ardatz, haiek garai jakin bakoitzeko egoera politikoan txertaturik.

Lan hau egiteko informazio-iturri nagusi Txillardegiren idatziak izan ditut. Bereziki liburu hauek: *Huntaz eta hartaz*, *Euskal Herritik erdal herrietara*, *Euskal Herria helburu*, eta hamaika aldizkari eta egunkaritan argitaraturiko artikulak, bereziki hauetan: *Tierra Vasca*, *Zutik*, *Jakin*, *Branka*,

(Zeruko) Argia, Anaitasuna, Enbata, Garaia, Punto y Hora, Egin, Egunkaria/Berria.

Izengoitiak ere aipatu nahi ditut. Frankismo garaian, azaldu beharrik ez dagoen segurtasun-arrazoiengatik izengoiti ugari erabili zuen. Hona garrantzizkoenak: Usako (*Tierra Vasca*-n), Jean (*Zutik*-en), Harribizketa (*Enbata*-n), Goihenetxe (*Zeruko Argia*-n), Larresoro (*Zeruko Argia, Anaitasuna*-n)...

Eskerrak ematea

Jone Forkada, Mikel Epaltza, J.L. Elkoro, Iñaki Aldekoa, J.M. Elexpuru, Patxi Zabaleta, Joxe Azurmendi eta Kepa Anabitarteri, emandako laguntza eta informazioaren aldera.

Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Josune Olabarriari; Lazkaoko Beneditarren Fundazioko liburutegiko Miren Barandiarani eta Etxahun Galparsorori; *Argia* aldizkariari, eta *Berria* egunkariari, Juan Luis Zabalari bereziki, emandako laguntzagatik.

Bestalde, lan hau egiterik ez nuen izango Txillardegiren bibliografia hautatua izan ez banu lagungarri, Pruden Gartzia eta Henrike Knörrek egina.

J.L. Ormaetxea “Txipi”ri zuzenketak biziki eskertzen dizkiot, Patxi Salaberria Muñoari ere bai egindako oharak, eta J.M. Odriozolari emandako amore eta laguntza, eta hitzaurrea, jakina.

Eta, jakina, Elkar argitaletxeari, eta Xabier Mendiguren Elizegiri.

Pako Sudupe

LEHEN PARTEA
OINARRI IDEOLOGIKOAK

0. OINARRI IDEOLOGIKOEN FINKAPENAREN ETA BILAKAERAREN JARRAIPENA

Lehen zati honen xedea da Txillardegiren oinarri ideologikoen finkatze eta bilakaera jarraitzea, berak hainbat kartzetatan argitaratutako testuen bitartez. Oinarri horietatik ateratako ondorioak segitzea ere bai, esaterako, euskal fronte abertzalearen beharrarena. Hortaz, oinarri ideologikoen eta haien ondoriozko planteamendu politikoen jarraipena.

Politikari, esan dezagun, 40ko hamarkadako azken urteetan ekin bazion ere, eta 1952-1953an Benito del Valle, Manu Agirre, Julen Madariaga eta beste banaka batzuekin erakunde abertzale berria sortu bazuen ere (*Ekin* deitua), 50eko hamarkadan, zentsura frankistagatik, ez zuen artikulu politikorik argitaratu.

60ko hamarkadan, Martuteneko kartzelatik bigarrenagoz igarota –lehenbizikoz 1950ean, eta berriz 1960an–, erakundeak erabaki zuen zuhurrena Txillardegi erbesteratzea izango zela, eta halaxe, aurrena Ipar Euskal Herrira eta handik laster Parisa egin zuen. Han askoz leku hobea aurkitu zuen ideologikoki bere burua janzteko –Francoren peko Espainian baino askatasun eta informazio gehiago, noski!–, nazioarteko politika jarraitzeko. Eusko Abertzale Ekintzak Argentinan argitaratzen zuen *Tierra Vasca*-n hasi zen artikulu politikoak

plazaratzen, P.M. Irujo zuzendari zela, eta 1962tik aurrera ETArek agerkari ofizial *Zutik*-en, Caracasen argitaratzen zena hasiera batean. 1964an idatzi eta 1965ean plazaratu zuen *Huntaz eta hartaz* saio-bilduma nabarmendu beharra dago, hantxe adierazi baitzituen artikuluetan baino luzazkiago, erlijioaz, neokarlismoaz, eskuin eta ezkeraz, euskararen garrantziaz, euskal intelektualen beharraz eta abarrez pentsatzen zituenak.

60ko hamarkadaren bigarren zatirako Frantziatik kanporatua, Bruselan kokaturik, *Branka* aldizkaria sortu zuen *Ekin*-en sortzaile izandakoekin, hasiera batean Krutwig ere kolaboratzaile zela. Halaber, 1965ean hasi zen *Zeruko Argia*-n era askotako artikulua argitaratzen.

1970eko hamarkadaren lehen urteetan, *Proyecto de Manifiesto Vasco* idatzi zuen –1973ko urrian datatua–, makinaz jotako 70 orrialdeko testua, Txillardegiren testu politikoa eta luzeena. Esan liteke, okertzeko beldurrik gabe, ordurako finkatuak zituela bere oinarri ideologikoak. Sasoi hartan Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian hasi zen kolaboratzen.

Handik aurrera, 16 urte erbestean igaro ondoan aberri-ratua, demokrazia espainiar autonomistapean, unean uneko hautuak egin zituen, aski finkatuak zituen oinarri ideologikoen argitan, une gogorretan ideologikoki hurbileko zituenekin ere desados izateko eta agertzeko askatasuna atxikiz.

70eko hamarkadaren bigarren zatitik hasita XXI. mendeko bigarren hamarkadara arte, aldizkari edo egunkari haue-
tan plazaratu zituen iritzi politikoak: *Enbata*, *Garaia*, *Punto y Hora*, *Argia*, *Egin*, *Egunkaria* eta *Berria*-n, besteak beste.

I. EUSKAL ARRAZISMOARI EZ

Sabino Aranarentzat, labur esanda, herri baten osagai nagusia arraza zen, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den ondare genetiko eta espiritual, eta euskaldunon kasuan bereziki fede kristaua, erlijiotasun sakona, kanpotik neurritsua baina barrutik bizi-bizi sentitua, eta horrekin batera hizkuntza eta historia, euskal zuzenbidea, euskal foruak, eta haien bidez gozatu izan omen genuen askatasun politikoa –independentzia nahiago baduzue, edo kasik, 1839ko Legea baino lehen–, ohiturak.

Garrantzizkoenak? Arraza eta erlijioa, eta hizkuntza ere bai, baina beste haien mendean, maketo euskaldunden herria baino euskotar erdaldunduena mila aldiz desiragarriago, etsi-etsian. Arrazak eta hizkuntzak beste herrietatik bereizten gintuzten; arrazak egiten gintuen gure ondoan “moroak” ziren espainiarrak baino hobeak moralki, eta erlijiosoagoak. Eta indoeuoparretatik arras berezia dugun hizkuntzak ere balio bide zigun beste herrien erlijio-epeltasun edo erlijio-gabeziarekin ez kutsatzeko.

Horiek, Txillardegiren ustez, Sabinoren alde kritikagariak; alde onak, berriz, gure aberria Euskadi dela lehen aldiz argi aldarrikatu eta paratu izana, ikurrak asmatu izana –iku-

rrina, ereserkia–, aberriaren alde bizia eman izana, euskaldunak beren hizkuntzari, historiari eta zuzenbideari begira jarri izana eta, gutxiespenak alboratuta, euskal pizkundeari indarra eman izana. Ez genuen inola ere Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Aitzol eta gainerakorik izango, hura izan ez balitz.

Baina 60ko hamarkadan koka gaitezen, eta ez hirurogei urte lehenago, Sabino Arana Goirenen garaian. Bi jeltzale gailen aipatze aldera, Jose Antonio Agirre¹ eta Manuel Irujo², ez zeuden 50eko eta 60ko hamarkadetan Espainiako eskualde txiroetatik samaldan zetozen “koreanoak” baztertzearen eta haiekin ez ezkontzeko eta harremanik ez izateko eta gisa-koak adieraztearen alde; haatik, bazen artean halako erreze-lo edo goganbeharririk, haiek integratu edo asimilatzekeo euskaldunek aginte eta baliabiderik ez zutela alde batera utzirik ere, funtsean, Sabino Aranaren garaitik zetorren ikuspegi xenofoboaren ondorioz.

Txillardegik horrekin guztiarekin errotik hautsi nahi du, arrazismo eta xenofobia kutsu oro erauzi abertzaletasun berriari, baina ahaztu gabe kanpotik datorrenak integratu egin behar duela gurean, aterpea eta ekonomikoki aurrera ateratzeko modua eskaintzen dizkion (eskaini behar lizkiokeen) lurrean, eta ez alderantziz, hemen kolonia espainiarrak eratu, eta eskubide espainol guztiak galdegitera mugatu, Euskal Herria espainolduz. Baina, hauek azalkiro esanda, eman diezaiogun hitza Txillardegiri berari.

Estatu Batuetako Hegoaldean, zehazki, Alabama estatuko hiriburu Montgomery-n istiluak gertatu berri ziren, zuri

1 Ikus *Obras completas de Jose Antonio de Aguirre y Lecube*. Sendoa. Donostia. 1981, 986-988 orr.

2 “Los coreanos” in *Alderdi* 123, 1957ko ekaina.

zapaltzaile eta beltz zapalduen artean, azken hauek eskubide zibilak lortzeko borrokan hasiak baitziren. Hala zioen Txillardegik:

Hay que decirlo claramente: las actitudes de Montgomery provienen de un racismo modernista y “civilizado” más repugnante aún que el tan criticado de las castas hindúes que, por lo menos, se presenta como cosa extraordinariamente arcaica. Y es curioso que quienes critican, por “cristianismo”, las castas orientales, son los mismos que defienden luego a Rockwell [Estatu Batuetako alderdi naziaren burua garai hartan], el nazismo alemán, las horrosas matanzas del salazarismo en Angola, el “apartheid”, y la destrucción genocida de Guernica (...) Los energúmenos de Montgomery esgrimen, como era de esperar, argumentos de “orden”, para justificar su preponderancia racial y la opresión económica de los negros³.

Handik hamar bat mila kilometrora, garai berean, Aljerian eta Frantzia ere OAS erakundea, Salan jeneralaren aginduetara, lehergailuak eztandarazten ari zen, Aljeria frantsesa atxiki nahian. Zergatik gertatzen zen hori?

¿Qué hay en el fondo? Intereses económicos de los colonos, enriquecidos a costa del sudor, de la incultura y de la degradación forzosa de varias generaciones de argelinos (...) ¿Por qué? Por el color de la piel, poco más o menos. Por razones de origen racial, por prejuicios arcaicos, atávicos tal vez, de “sangre” (todas las sangres son rojas, que yo sepa...) Y, desde luego, porque esas teorías no servían mal a los intereses económicos de los ultras.

Pero, nuevamente, ¿por qué esa voluntad de impedir a los argelinos que accedan a una dignidad humana? (...) Y, como

3 “Ni Argel, ni Montgomery” in *Tierra Vasca* 1961eko ekaina.

siempre, en Argel estamos en presencia de las “fuerzas del orden”, de la “pacificación”, de la “civilización cristiana amenazada”, del “peligro comunista”, etc.

En ambos casos se pretende negar los derechos más elementales a toda una comunidad de hombres, condenada desde arriba a la miseria, basándose en una insostenible “superioridad” de los explotadores sobre los explotados; es decir, de los partidarios del “orden” (¡cómo no!) sobre los partidarios de la revolución (necesaria precisamente para llegar a un orden en la Justicia).

Y se pretexto el peligro comunista...⁴

Baina begi bat Estatu Batuetan, beste begi bat bera orduan bizi zen Frantzian, eta bi begiak Euskadin zituen. Bi borroka horietatik ondorioak ateratzen zituen Euskadirako:

Todos nosotros rechazamos esas pretendidas “superioridades”, y condenamos las enormes opresiones más o menos claramente económico-colonialistas que contienen. Porque estimamos que la Ley no debe estar nunca a favor de ninguna clase, casta, raza o grupo social de privilegiados (...) Quien cree, por lo tanto, que nosotros, nacionalistas vascos de izquierda, vamos a caer mañana (cuando Euzkadi vuelva a estar gobernada por los representantes vascos que elija democráticamente el propio pueblo vasco) en un racismo vasquista; y en indefendibles desprecios o discriminaciones del maketo, **SIMPLEMENTE Y SOLAMENTE** porque lo es por su origen, cree que seríamos capaces, en el fondo, de justificar a los del KuKluxKlan y a los Salan (...) Y es hora de que una publicación nacionalista vasca repita, claramente, con mayúsculas, que **NUUESTRA AFIRMACIÓN ROTUNDA DE LOS DERECHOS DEL PUEBLO VASCO NO IMPLICA**

4 Ibid.

RACISMO ALGUNO, NI IMPLICA PREJUICIO RACISTA ALGUNO⁵.

Gehiago ñabartuz, nazkatuta zeudela zioen, etsaiak bakarrik Euskadin bizi ziren espainiarren eskubideez mintzatzten entzuteaz, eta inoiz ez euskaldunen beren eskubideez:

Si los vascos de origen español nacidos en Euzkadi, y los españoles residentes en el País desde hace largos años, se muestran respetuosos al menos con las realidades y los derechos vascos, ellos serán para nosotros vascos también; y pueden estar seguros de que los nacionalistas no toleraremos que se establezcan tratos preferentes de ningún tipo por puras razones “étnicas”. Sus reivindicaciones serán las nuestras, sus derechos los nuestros, y sus hijos serán hermanos de nuestros hijos.

Ahora bien: los españoles residentes en el País que, lejos de agradecer la hospitalidad ofrecida, se dediquen a conspirar, a hacer labor antivasca o de extranjerización del pueblo, a luchar contra los derechos de Euzkadi, y a convertirse, en suma, en los “ultras” españoles de una Argelia vasca, estos, naturalmente, pueden prepararse a carecer de toda consideración, e incluso a salir del País expulsados violentamente.

En esta exigencia de respeto a los derechos indiscutibles de Euzkadi no hay el menor atisbo racista. Ni lo hay en nuestra firme decisión de cortar las alas a los chauvinistas vascos, si los hubiera (...)

No toleraremos que nuestro País se convierta ni en un Argel, ni en un Montgomery⁶.

Montgomeryn beltzen alde zegoen, eta Aljerian felagen alde. Euskadin euskaldunen eskubideen alde, eta arrazakeriaren aurka.

5 Ibid.

6 Ibid.

Handik urte batzuetara, *Anaitasuna* aldizkarian honako hau irakurri zuen: “Egun salatu beharrezko euskal mitologia, XIX. mendekoa dugu oraindik. Askok, lehen arraza hitzak zuen esangura ematen diote ethnia hitz modernoagoari”. Horrek asaldatu zuen, zeren eta, berak zioen bezala, arraza eta etnia gauza bera baldin badira, etnien aldeko borroka arrazakeria bihurtzen da: “Hauxe da kakoa! Arrazakeriaren kritikaren bidez, etnozidua eta inperialismoa garbitu nahi dira. Hots, etniaren izana azaltzen dugunok ez dugu inoiz osparazi Arrazaren Eguna”⁷.

Eta, aukera hori baliatuz, honela bereizi zituen arraza eta etnia. Arrazaren kontzeptutik hasi, eta etniaren kontzeptuarekin amaitu:

Arraza: 1. Herritasuna, herri nortasuna, BIOLOGIAN dartzu; 2. Herriaren nortasuna BIOLOGIAZKOAK da, eta ODOL GARBIA funtsatzen; 3. Jatorrizko HARMARRIAK eta abizenen GARBITASUNA, ohore bihurtzen; 4. Herriaren nazio-infrastruktura, nolabait esateko, ODOLA da; 5. Pentsakera bera ere ODOLARI dagokio: Ameriketan edo Euskal Herrian, burgesian edo langilerian, izakera bertutetsu berbera beti. Izakera bakar hori, ODOLARI atxikia, herriaren ESENTZIA da; 6. Herriaren soziologiazko nortasuna, horretara, ODOL KATEAZ igarotzen da belaun batetik bestera; alegia, BIOLOGIAZKO bide batez; 7. Hizkuntza (eta kultura osoa) BIGARREN MAILAN gelditzen dira; eta, bide beretik, hizkuntza BAZTERTU egiten da, edo FOLKLORE MAILAN hartzen; 8. Herrien arteko muga, TXARTEL ANTROPOMETRIKOETAN bilatu behar da. Muga hori, horrela, USTEZKOAK da; 9. CHAUVINISMOA ETA XENOFOBIA nagusi. Gure gaitzak KANPOTARREK eka-

7 “Arraza eta etnia” in *Anaitasuna* 1972-10-30.

rri dituzte; 10. Arraza “garbi” atxikiz gero, ohiturak eta abar “garbiak” izango dira; 11. Arrazaren ahalmenak MITIKOAK dira. Zientzi gizonak ez dute horrelakorik sinesten. Eta, gehienez, ARRAZA BAKAR BATZUK ezagu daitezkeela diote.

Etnia: 1. Herritasuna, herri nortasuna, KULTURAN da-tza; 2. Herriaren nortasuna KULTURAZKOA da; eta, hortaz, gaurko zibilizazioan, HIZKUNTZAN funtsatzen da bereziki; 3. Herritasunari buruz ohore eta habe nagusia, bertako KULTURAZ nortzea; 4. Herriaren nazio-infrastruktura, HIZKUNTZA da; 5. Pentsakera HIZKUNTZAREN ESTRUKTUREK BALDINTZEN dute; ez, ordea, kondairazko arazoei buruz erizpide bakar bat emanez (nork dio hori?), baina bai FENOMENOEN TAXUKETA bereziki eginez. Maila hau, zehazki, HIZKUNTZAREN FILOSOFIARENA da; eta Schaff marxistak, esate baterako, zientziazkotzat darduka. Estrukturalistek, zer esanik ez (Sapir, Martinet, eta abar); 6. Herri nortasuna HIZKUNTZAREN bitartez igarotzen da belaun batetik bestera; alegia, KULTURAZKO bide batez; 7. Herriaren arazoa, soziologiako batasun arazo den aldetik, HIZKUNTZAREN MAILAKO BURRUKA bihurtzen da funtsean. Hizkuntza eta folklorea, BEREZI egiten dira; 8. Herrien arteko muga EGUNEROKO BIZIAN topatzen da, bilatu ere gabe. Muga, IZANEZKOA da; 9. ERRELATIBISMOA: kultura GUZTIEK dituzte eskubide BERBERAK. Ez dago kultura HOBEAGORIK edo OKERRAGORIK; 10. Kulturazko eta hizkuntzazko estrukturak INKONTZIENTEAK dira (Sapir, Boas, Levi Strauss), eta funtsezko PENTSABIDE berezia ematen diote etnari; 11. Hizkuntzaren mugabidearen arazoa SEGURUTZAT ematen dute gaur bai Hizkuntzaren bai Soziologiaren Jakintzek⁸.

8 Ibid.

1.1. Espainiako trantsizio demokratikoan

Franco hil zen, eta Espainian trantsizio demokratikoa esan zaiona burutzen hasi. Txillardegi erbestetik itzuli zen, eta 1978an, *Punto y Hora* aldizkariari emandako elkarrizketa batean, etorkinei buruz egin zituen adierazpen batzuek polemika sortu zuten Espainiatik etorritakoen elkarte batekin.

Gorago aldatu ditugun ideia horiek gehiago zabaldu zituen, egoera berrira egokiturik –botoa emateko aukera zabaltzera zihoan 1978an–. Hasteko, ez zuten Euskal Herriaren borondatea ordezkatzeko, klase menderatzaileen ideologia ekarri baitzuten, eta, beraiek errurik ez bazuten ere, PSOE bereziki beraietaz baliatzen ari zen. Etorkinen integrazioa nahi zuen, beharrezkoa zen, baina, Euskal Herriak ba al zituen eskura bitartekoak hainbeste etorkin integratzeko?

Punto y Hora aldizkariak egindako elkarrizketan honela zioen Txillardegik:

No tengo nada contra los inmigrantes porque sean inmigrantes, pero sí mucho en el sentido de que objetivamente no representan la voluntad del país. Han traído la ideología de sus clases dominantes –la burguesía española– y están como están –aunque ellos no tienen culpa de nada– gracias a Franco. Y, además, el PSOE está haciendo su política basándose en estos dos hechos y actuando como un reemplazante del franquismo en el sentido de evitar la integración. Es inadmisibile. Desde luego nuestra voluntad es la de integración (...) Pero la integración presupone una actitud voluntaria y el que no quiera, no tiene más que coger una carta de identidad o lo que sea diciendo, yo me resisto a la integración, yo me considero un señor salmantino hasta mi muerte. Muy bien. Está en su derecho. Pero ese señor funciona entonces como un extranjero

en este país. Y si funciona como un extranjero no tiene voto. Esto me parece evidente y pasa en otros países (...)

—¿Hasta qué punto se dan las condiciones objetivas para que se llegue a producir la integración?

—Pues ahí está... Es el problema de instrumentos. Si el pueblo vasco no tiene instrumentos, entonces la integración se convierte en pura retórica. En Israel todo señor que viene de fuera, pagado por el gobierno, tiene una fase que dura varios meses para ponerse al corriente de lo que es Israel, aprender la lengua... Es elemental. He vivido 16 años fuera y sé lo que es eso. Alguien que lleve a París y se resista a aprender francés no tiene más porvenir que pasar la boina. Y esto pasa en todos los lados, incluso en los países del Este. Conozco casos concretos, personales, de gente de Estetin [Stettin alemanez, Szczecin polonieraz. Berlindik 130 bat kilometrora. 400.000 biztanle inguru], zona del este alemana que hoy es Polonia, que, por no conocer el polaco, no tienen derechos cívicos. Y si nosotros lo decimos somos unos racistas⁹.

Polemika horren buruan¹⁰, beraren erbesterratu izaeraren gorabeherak azaldu zituen: 16 urte aberrik kanpo, Fran-

9 “Txillardegi entre la cultura y la política” in *Punto y Hora* 1978-03-23-29. 15-16 orr.

10 Etorकिन erantzuna: “La Coordinadora de Emigrantes responde a las declaraciones de Txillardegi” *Egin* 1978-04-12. Hona esaldi batzuk: “*A nadie se le escapa, tampoco, que el emigrante ha sido un elemento de activa lucha en contra del fascismo, por la liberación nacional y de clase de Euskadi. Por tanto, tenemos que denunciar los intentos de ciertos sectores, en los que se incluye Txillardegi, que tratan de abogar la personalidad del inmigrante, poniéndole entre la espada de una integración forzosa y la pared de una expulsión*”, eta “Disienten de Txillardegi” *Punto y Hora*-n 1978-06-15-21. Txillardegiren erantzunak ez zituen asebate: paternalismoa egotzen zioten, beraiek ez zutela errurik, estatuko klase menderatzailearen ideiak edukitzeagatik, zioenean. Eta atzera ez egi-tea, integrazioaren edo itzuleraren aukeren artean: “*Su respuesta no sólo no niega, sino que se reafirma en su alternativa de integración o expulsión, y tampoco retira la falsa ecuación de inmigrante=transportador de ideología de las clases dominantes. Por tanto, no podemos retirar el término de racista, aplicado a esas declaraciones y además le decimos que tenga más presente*

tzian, Belgikan... etorkinek oroitarazi zioten gauza bat de-
la erbesteratu politikoa, eta bestea migratzaile ekonomikoa.
Hiru aldiz haizatua bere herritik, eta hiru gose-grebatan par-
te hartua, kanporatze haien aurka egiteko:

Sé que vosotros, los más indudablemente, habéis venido a vivir aquí, como yo a París o Bruselas, por razones exteriores a vuestra voluntad. No habéis venido aquí para luchar contra nosotros, sino para reorganizar vuestras vidas en la dignidad económica y humana (...) Como socialista, como abertzale socialista que lucha para que el control del país pase a manos de quienes lo construyen con su esfuerzo diario, y para que deje de estar en manos de quienes explotan a éstos, soy solidario de vuestros sufrimientos, de vuestra impotencia actual y de vuestro combate anti-capitalista. Pero, esperando que interpretéis correctamente mis palabras: Tan absurda e inadmisible es la idea racista de que todos los vascos son buenos y santísimos varones, como la idea no menos racista de que todos los inmigrantes son, casi sin excepción, un modelo de internacionalismo, de respeto a lo vasco y de voluntad de entendimiento de nuestros problemas (...) la culpa de esto la tienen los responsables políticos que gozan, hasta ahora, de vuestra confianza; y que no han sabido (o no han querido) explicaros, sin complejos antivascos heredados de la derecha española (o francesa), que aquí existe un pueblo aplastado militarmente una y otra vez, negado en su identidad cultural, expoliado y oprimido a todos los niveles.

Y, por supuesto, son culpables de todo, el régimen fascista anterior y la alta burguesía vasca; que apenas han visto en

en sus análisis la lucha de clases (...) Sólo nos queda reafirmarnos ante los sectores de población autóctona que se puedan sentir escépticos, que siempre nos hemos planteado la lucha en una activa solidaridad con el pueblo vasco. Esta es una condición sine qua non?

vosotros otra cosa que elementos útiles a la desvasquización y productores de plusvalía (...)

No es correcto plantear el problema de vuestra influencia lingüística y demográfica de modo individualista, como si fuerais varios centenares en total. No sé si todos sois conscientes del volumen de la presente inmigración: imaginaos 10 millones de euskaldunes por todas partes, en Madrid, en Zamora, en Cádiz; con la administración, la televisión, la escuela, etc. en manos de euskaldunes. Con euskera y vascos desde por la mañana a todos los niveles. El problema os parecería inquietante; y vuestra inquietud sería justa y loable.

Vosotros no tenéis la culpa de lo que pasa. Pero podéis ser utilizados contra las legítimas aspiraciones del pueblo vasco (...)

Atribuírnos actitudes “racistas” es claramente calumnioso¹¹.

Erantzunean, nolana ere, *Punto y Hora*-ri emandako elkarrizketan adierazitako ideietan berresten zen, eta botoa emateko bertan bizitako epe gutxieneko bat galdegiten zuen:

Sin ser jurista, me parece que este derecho individual a la propia identidad es sagrado, y debe ser respetado. Pero me parece que implica, en quien se acoja a él, una voluntad de marginación respecto a la edificación de Euskadi: económica, política, cultural. Y que a esa marginación consciente, voluntaria, debe corresponder la no-ingerencia política en la marcha del país.

Puede ocurrir también que algunos de vosotros, recién llegados o deseosos de regresar a su tierra, desconozcan los problemas del País (...) No me parece un ex-abrupto pensar, por

11 “Respuesta a la coordinadora de emigrantes” in *Punto y Hora* 1978-04-27, 30-32 orr.

esas razones, en un plazo mínimo de residencia para que vuestro voto sea consciente y útil al país (...).

¿Y respecto a los inmigrantes que hayan decidido hacer de Euskadi su patria y la de sus hijos? Una vez más y bien claro: estamos en contra de toda discriminación. Vasco es quien, viviendo y trabajando en Euskadi, hace de nuestro país el suyo. No pedimos otra cosa.

Os diré más. Allí donde os suceda una vejación de tipo racista, allí donde haya que denunciar una segregación por el origen, estad seguros de que quien suscribe estas líneas, hijo de inmigrantes, estará de vuestro lado; y luchará contra toda forma de racismo vasco en la medida de sus posibilidades¹².

Euskalduna da, Euskadin bizi eta lan eginda, gure herria bere egiten duena. Planteamendu horietatik hain urrun sumatu dugu gure herriko iritzi publikoa, ezen irakurtzeak bakarrik harridura sortzen baitu. Nor da “vasco”? EAEn errol-datua dagoen espainiar hiritarra. Estatuak erabakitzen du zein epe jarri behar zaion kanpotarrari, atzerritarrari, esku-bide politikoak aitortzeko, baina estatu baten azpiko lurralde baten barnean horrelakorik? Ez horratik! Planteamendua bera arrazista balitz bezala.

Gehienbat Hegoaldean espainieraz eta Iparraldean frantsesez bizi den gizarte honetan, identitatez euskaldun, espainiar edo frantses sentitzen direnak daude, erabat harturik. Espainol izan daiteke bat espainiera jakin gabe, Espainiaren historiaz eta kulturaz –musika, literatura, artea, prentsa, teledista, irratia– deus jakin gabe? Ez. Baina euskaraz jakin gabe, eta hartaz batere axolarik izan gabe, eta euskal historiaz

12 Ibid.

eta kulturaz deus jakin gabe? Eta halakoak eskubide politiko guztiak izan behar ditu? Bai, Espainiak agintzen duelako.

Gogora ekartzen digu Txillardegik mutuarazitako euskaldun ikuspegia, beste zenbait herrialdetan gailendu dena, esaterako, Baltikoko errepubliketan, bertakoen eta errusiarren arteko bizikidetzan, eskubide zibiko eta politikoen arteko aferari doakionez. Hezkuntza eredu propioaren garrantziaz, euskal kultur identitatearen axola gaitzaz ohartarazten gaitu honek guztiak.

2. KLERIKALISMO ERREAKZIONARIORIK EZ: “EUSKERA ETA LEGE BERRIA”

Gogoan har beza irakurleak 60ko hamarkada hasierako artikulua aztertzen gabiltzala. Orduan erlijio katolikoak garrantzi handia zuen Espainian bezala Euskal Herrian. Zehazkiago, Eusko Alderdi Jeltzaleak bere alderdiaren izenean bertan zuen itsatsia JEL goiburua, Jaungoikoa eta Lege Zaharra, egun duen bezala, bestalde.

Ipar Euskal Herrian edo Parisen zela, Txillardegik *Herria* astekariaren azalean irakurri zuen “Fidel CASTRO erlisioneari aihar”¹³ deritzan artikulua laburra, Kuban ordurako nagusiturik zen iraultza sozialistaren erabat aurkakoa. Artikuluaren arabera, Fidel Castrok Errusiaren mendeko errepublikan gisako bihurtuko zuen Kuba, eta eskoletatik apaiz, fraide eta serorak kenduko zituen irakaskuntza kontrolpean izateko, eta “mila apaiz arrotzez goitik” alde egin beharko zuten uhartetik, Kubako gobernuak ezartzen zizkien eragozpenengatik. Bada, euskaldun izatearen lotsa sentiarazten zion aipatutako artikulua ikuspegiak: “*Nundik itsatsi zaigu euskaldunoi “ultrakeri” nazkagarri hau? Batzutan lotsa*

13 *Herria* 1961-05-11. Sinadura gabe, azalean.

ematen du euskaldun agertzeak, bait dirudi erreakzio guzien aintzindariak garela”¹⁴.

Fidel Castrok, Habanan, 1961eko maiatzaren lehenean egin zuen hitzaldian¹⁵ esan zuen erlijioaren aurka ez zegoe-la, eta Erromako Inperioan katakonbetan eta jazarria jai-zen erlijioak, gero inperio, feudalismo, monarkia absolutu eta errepublika burgesekin akomeatzeko arazorik izan ez ba-zuen, demokrazia sozialistarekin konpontzeko ere ez zuela oztoporik izango. Castro noren aurka zegoen? Kubako inba-sioan inperialismo yankiaren aldeko gerrillariek in bat joan zi-ren hiru apaiz espainol falangisten aurka eta eskoletan iraul-tzaren aurka mintzo ziren erlijiosoen aurka. Eskola pribatuak nazionalizatu egingo zituzten, eta politikan sartzen ez ziren erlijiosoak errespetatuko zituzten, iraultzaren aurka mintzo zirenak ez.

Txillardegik izango zuen Castroren hitzaldiaren berri, eta 1961ean harekin fio zen. Zergatik zuen aiher erlijioa Cas-trok? Txillardegiren arabera: “*Klerikalismoa desegin nai dua-lako? Español apaiz eta pralle fazista mordo bat Cuba'tik bi-dali nai dualako? Argatik ere erlijioarentzat kalterik batere ez dut ikusten, mesede baizik*”.

Lehenago, 1960ko urtarrilean, liskar bat gertatu zen Ha-banan enbaxadore espainiar J.P. Lojendioren eta Fidel Cas-troren artean –*Telemundo* telebistan Castrok AEBetako eta Espainiako gobernuak kontrairaultzaile izategatik salatu, eta Lojendio enbaxadorea telebistako grabazio-estudioeta-ra sartu zen Castrori aurka egitera; eta horregatik Kubatik

14 “Castro, Erlisioneari Aiher” in *Tierra Vasca* 1961eko ekaina.

15 Ikus esteka honetan: <http://www.cuba.cu/gobierno/discursos/1961/esp/f010561e.html>

kanporatua izan zen—; handik laster Kuban egoitza zuten 15 ordena erlijiosoetako buruek agiri bat sinatu eta zabaldu zuten, Francori baldintzarik gabeko sostengua eskaintzen ziona, Franco Eliza Katolikoaren defendatzaile gisa nabarmendu izanagatik, eta arrazoituz Espainiaz eta hango gobernuaz egia esan beharrean zirela.

Horregatik zioen Txillardegik iruzkintzen ari garen artikuluan: “*Eta, joan dan 1960eko Ilbeltzeko izkribu famatu artan ikusi zan bezela, español apaiz eta fraille oiek frankista dira. Izkribu nazkagarri ura izenpetu zutenak Castro’ren kontra daude, Franco dagoen bezela*”¹⁶.

Txillardegiren helburua ez zen Castro babestea, espresuki adierazi zuenez, baizik eta Batista, Trujillo eta Francozale ziren erlijiosoak salatzea, Kubaren inbasioan gerrillariekin batean ibili zirenak: “*Azkeneko desenbarkoan “Viva Cristo Rey” eta “Abajo Castro” oju egiten zutenak oso ondo ezagutzen ditugu. Oietxek dira Urbasa’n jendea amildu zutenak; bedeinkazioa utzi gabe, noski...*”¹⁷.

Zapaldurik daudenen alde borrokatzen ziren apaizak nahi zituen, ez diktadoreak losintxatzen zituztenak: “*Be-te ditzatela kristautasunaren agindu ederrak, utzi ditzatela diktadoreai egiten dizkieten losentxak eta zurikeriak; eta, Cuba’n, edo nun-nai, Castro bat sortzen baldin bada, etzaie ezer txarrik gertatuko*”¹⁸.

Honainokoa ikergai izan dugun artikuluan elizgizon eskuindar faxisten aldekoak salatu zituen; aldi berean aitortu

16 Ibid.

17 Ibid.

18 Ibid.

zuen, baina, kristautasunak agindu ederrak dituela eta haiek bete behar dituztela elizgizonek.

Txillardegiren irakurleek ez dute ahaztua izanen *Huntaz eta hartaz* saiakera bilduma. Bilduma horretan lehen saioa: “Kristautasuna eta mundutar garaitzapena”¹⁹ izenburukoa da, 1964an idatzia.

Bi hitzetan: kristautasuna eta munduan garaitu nahia bateraezinak jotzen zituen, ebanjelioetako Jesukristorengan oin harturik. Elizaren okerrik makurrena Konstantinori baietza emateari irizten zion. Kristau gisa pentsatu nahi izanez gero, munduan garaitu nahi ez izatea da lehen agindua, munduan ez garaitzetik iragaten da gurutzearen bidea. Egiazko kristauak axolagabe izan behar du munduarekiko. Buda eta Kristo parekatzen zituen, Henri de Lubac jesuita frantses eta teologo katoliko eta azken urteetan kardinal izandakoaren il-dotik:

Munduak prezatzen dituen baloreei buruz, nor ibilli da Buda Sakyamuniz kanpo, urrunago Kristo baiño? Mendebaldean nehor ez; zeren-eta nehor ez baita ari izan hain errotik zeruko aginduen arabera, eta mundutar garaitzapenetik bereiziago²⁰.

Era berean, erreakzionarioa eta heresia bikoitza irizten zion kristautasuna, hots, katolizismoa Euskadiren ezaugarri funtsezkoa zela sinetsarazteari:

La pretensión de que el pueblo vasco es, ante todo, cristiano; hasta el punto de hacernos creer que la característica esencial de Euzkadi es el catolicismo, es otra tendencia netamente

¹⁹ *Huntaz eta hartaz*, Elkar. Donostia, 1983, 7-16 orr.

²⁰ 15 or.

reaccionaria. Y lo que nos obliga a criticarla es la pretensión “absoluta” y “apolítica” con que es lanzada contra ETA.

Nosotros respetamos plenamente las ideas religiosas. Y justamente nos extraña ver defender fervientemente a ciertos regímenes del opresor caracterizados por la intolerancia religiosa más total, a quienes son fededunistas radicales. Hacer del cristianismo una característica nacional vasca es una herejía doble: tanto desde el punto de vista vasco como desde el punto de vista religioso.

Así tampoco en la afirmación CONFESIONAL de quienes nos atacan vemos nosotros nada que pueda arrastrar a un vasco de hoy, vuelto más al presente y al futuro que al pasado²¹.

Idea erlijiosoak bai, baina katolizismo eskuindar faxista ez. Sinesmen kristau katolikoa politikariek defendatzea ere ez. “Jaungoikoa eta Lege Zarra”-ren orde, “Euskera eta Lege Berria” aldarrikatzen zituen ETAre izenean:

ETA quiere un orden nuevo, y proclama su perfecto derecho a este contenido POLITICO-SOCIAL que propugna para la futura Euzkadi. Queremos una Euzkadi EUSKALDUN, una proclamación intransigente de NUESTRA lengua como LENGUA NACIONAL (cosa contraria en un todo al “Lege Zarra”); y queremos una Euzkadi DE LOS VASCOS, de TODOS los vascos; una Euzkadi tolerante, aconfesional, no clerical²².

Haatik, erlijioa eta politika ongi bereiziz gero, misterioan sinesten zuen, gure bizitza lurtar honetan gauza materialez

21 “Es preciso hablar del futuro” in ZUTIIK, 1964; *Documentos Y*, tomo 3, Lur, Donostia, 1979, 277 or.

22 “Es preciso hablar del futuro” in ZUTIIK, 1964; *Documentos Y*, tomo 3, Lur, Donostia, 1979, 277 or.

gaindi zerbait badela. Ez da nire xedea lan honetan Txillardegiren fedea edo espiritualtasuna, edo haren misterioaren pertzepzioa zirriborratzea ere. Halere, puntu honetara etorririk, bi idatzi hartuko ditut aintzat diodanaren sendogarri. Bata, 68ko maiatzaren ondotik idatzitako artikulua. Hona zati batzuk:

Erljio gisa siñiskeria-mordo zahar bat aurkeztutzen baldin bazaigu sasi-erlijio hori, noski, gainbehera joango dala, eta ahaztu ere egingo dala, gauza nabarmena zaigu. Erljiozko instituziorik gehienek eta Jainkoak alkarrekin deusik ere ikustekorik ez dutela gauza agiria da. Gure haurtzaroan bertan ziurtzat jotzen ziran gauzarik gehienak ukatzen dituzte. Eta fenomenua hasi besterik ez da egin. Holanda'ko gorabeherak jarraitzea besterik ez dago. Mundu oso bat ari da gure begien aurrean zaharrakatzen eta funditzen. "Ikazkin" famatu haren "fedea" pikutara doa.

Egia ote da, ordea, hori dala bide, deusik zutik geldituko ez danik? Inolaz ere ez, nere ustez. Aitzitik, astia ugaldtu ala, gizonak pentsatzeko aukera izango du; eta gauza nabarmena bide da metafisikazko hutsunea txikitu ez-baiña haunditu eta azkar-tu egingo dala. Batez ere politikazko mitologia baten gezurra agertu da. Izpiritutasun berria etsitako ezkertarren artetik hozituko da. Munduaren misterioa izkutuagoa da gaur inoiz baiña. Joan dan Maiatzeko mogimenduaren aintzindarietan, absolutu-egarria izan da bultzatzaile nagusia; neronek hemen, lerro hauetantxe, bestetan esan izan dudana bezela (...) Erljioa (gaiñerako guzia bezelaxe) gizona zanpatzeko erabilli dute zapaltzaileek betidanik. Zalantzarik ez. Gaurtxe ere gauza bera da. Hori ote da dana, ordea?

Ez, nik uste. Misterioaren illunpeak trinkoegi zaizkit²³.

23 "Eztabaida zahar bat" in *Zeruko Argia* 1969-04-20.

Eta bestea, pixka bat geroagokoa, Euskal Herrian fede-krisia eta erlijiosoen sekularizazioa indar bizian zeudenean idatzia, hain justu zalantzan zebiltzan apaizei zuzendua:

Fede-krisi oso bat baizik. Ez da egia predikatzeko “modua” aldatu beharra dagoela, edo ebanjelioa “gaurko” problemen arabera azaldu behar dela, edo Eliza beste modu batera “antolatu” behar dela; eta, BESTERIK GABE gauzak normal jarriko direla (...) Krisia sakonago delako, bai instituzioak, bai morala, bai dena, koloka daude gure begien aurrean. Eta zu zeu ere bildur zara oso; eta ez zinake gaur inolaz ere ausartuko, esate baterako, kalean zehar, are gutxiago gazte-biltzar batetara, Asis-ko Frantses edo Arseko Apaizari buruzko liburu bat besapean daukazularik agertzera. Herabe zara kristau fedea, edo gelditzen zaizun azken apur hori, erakusteko. Defentsiban zaude osoki. Soluzioa politikaren mailan aurkitu uste duzu. Egia esateko: joera hau konprenitzen dut. Ukatu ezina bait da Elizarekiko urrunera politika-mailan sortua dela askotan. Mendi-gaineko sermoia gidarizat omen duen Eliza, indartsuen morroin agertu da eskuarki; eta indargabeen aldeko nahia, Elizaren kontrako iraultza bihurtzen da errazki. Zuk hau duzu gogo (...) Nik neuk, era berean, neure barneak esaten didana esango dizut. Federik ez baduzu, Jesukristo galaxien egilea dela eta hil ondoren piztu dela sinisten ez baduzu, ongi egingo duzu molde hori hartuz; nahiz hobeki litzakeen aurrerakoan Jesukristoren lekuko gisa ez agertzea. Kristau fedea baldin baduzu, berriz, mundutar moda horietara egokituz gaizki egingo duzu (...) Zure mezuaren indarra honetan dartzatza nik uste: gizonak barne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela. “Apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira” esanez hasi dut artikulua. Baina hau erants liteke ene us-tez: apaizak mundutarrago, eta elizak hutsago. Horretan kausa ondorio bikotea ikusi uste dut. Mintza zaitez zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkizu faltako; Absolutu-egarria ez bait

da gaur inoiz baino apalagoa. Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzei entzungor egiteko kuraia. Izan zaitez ulertu-ezina. Ala konkordismoak utz, eta uztazu dena²⁴.

Polemika piztu zuen, Joan Mari Torrealdaik eta Xarritonek erantzun egin zioten. Hemen aipatu bakarrik egin dugu.

1981eko abuztuaren 16an, igandez, beren urteroko “Rathayatra” ospatu behar zuten Hare-Krisna-zaleek AEBetako Los Angeles alderdiko Venise auzoan, itsasaldean. Orduan han zen Txillardegia, UCLAra linguistika ikastera joana; bada, Rathayatra horretara joan zen. Zergatik joan zen ospakizun hartara, galdera bitartez aditzera eman zuen; eta delako Rathayatra horretan izan ondotik emandako erantzunak ere hor dituzue, Txillardegiren kezka espiritualen lekuko:

Antzinako India alderako joera zaharrak eraginik ote? Estatu Batuetako sekta-zaletasun harrigarria bertatik neurtzeko agian? Denetatik nahasian, nik uste (...) India zaharra, beraz, hor dugu. Krsna-zaleek ez dituzte beren heretikoak begi onez ikusten. Hauen artean, espero zitekeenez, Gandhi jartzen dute. Harrigarriago zaigu Sri Aurobindo ere “okertuen” artean aurkitzea. Baina Vedetan ageri den ikuspegi kosmikoa, budismoan ere nabarmen, baina kristautasunean ez uste bezain urrun, gizonak bere barruan daraman lilura azkarra da. Nietzsche-rekin gertatzen den bezalaxe, mintzo zaiguna ez baita agian filosofoa edo profeta, poeta gaitza eta hilezkorra baizik. Krsna-tarren bidez, usainen mundua, barazki-janariak eta “Veda” zaharren poesia berriz biltzen baditugu, zinez, balio zuen Bhaktivedanta Swami Prabhupada-ren ahalegina.

24 “Zalantzatan dagoen apaiz horri” (71-10-17ko data) *Jakin sorta* 5, 1971, 208-215 orr.

Eta sanskritoak, Linguistikaz gain, bere betekizuna izango du²⁵.

Horretaz artikulu bildumaren azken lau atalak ere, 2007an argitaratuak, kezka espiritual horien isla dira. 50eko hamarkadan existentzialismoarekin hasita, bere bizitza guztian izan zituen sentigai eta hausnargai.

25 “Hare Krsna Venise-n” in Punto y hora 1982-01-15-22.

3. ERREPUBLIKANISMOA: KARLISMO BERRIA

Gauza jakina da Txillardegik fronte abertzalea proposatzen zuela, gure gizarteko kontraesan nagusitzat inperialismo espainola versus nazio-askapena jorik, eta ez, beste batzuek bezala, burgesia versus langileria.

Bost hamarkadatan irmo atxiki zuen ikuspegi horren lehen jendaurreko formulazioa Parisen egindako hitzaldian plazaratu zuen 1961eko urrian, erbesteko Eusko Jaurlaritzak gomita eginik, erakunde haren sorreraren mende laurdenaren karietara.

Hitzaldi horretan adierazi zuenera etorrita, EAJk Espainiako II. Errepublika aldian Estatutuaren alde egindako lana, Aberri Egunen prestaketa, J.A. Agirreren izendapena, eusko gudarien batailoien osaera, burdinazko gerrikoa, *Eusko Gudariak* kantatuz pairatutako fusilaketak; horiengatik guztientatik lehenik burura zetorkion hitza errespetua zen Eusko Jaurlaritzarekiko. Beste aldean, Francoren alde ibili zirenak 1936ko gerran, hartan egindakotik bizi ziren –hala zioen, esaterako, *Diario de Navarra*-ren orrietatik, Raimundo García Garcilaso edo *Amezitia* kazetari famatuak, errepubli-

karen aurkako konspirazioa prestatzen Molaren lagunak²⁶–; baina Ekin-ETAKoek, Txillardegiren iritzian, eusko gudarien jarraitzaile politikotzat zituzten beren buruak:

Son acontecimientos sensacionales, que nos inflaman, que nos hacen vibrar y nos hundem después en la más profunda de las tristezas; cuando comparamos aquel auge nacional con la opresión que no dejamos de ver desde que tenemos uso de razón. Cuántas veces me he reunido en Bilbao y en Donostia, en casa de un amigo que poseía la colección “Gudari”, o el libro “Aberri-Eguna”, u otros de este tipo para ver, admirados y nostálgicos, aquellas masas cuajadas de ikurriñas, aquellas exhibiciones gigantescas de dantzaris, aquel ímpetu reflejado en una simple fotografía con tanto color...

Nosotros vivimos gracias a aquel esfuerzo gigantesco digno del eterno agradecimiento de todas las generaciones de vascos. Porque es GIGANTESCO lo hecho en cinco años por aquellos hombres: recoger un pueblo en estado de inconsciencia general y llevarlo en cinco años a la autonomía e incluso al holocausto del frente, es definitivo a la hora de juzgar una generación. Y nosotros, los de los años 30 y 40, incluso cuando nos quejamos y protestamos, nos quejamos y protestamos gracias a aquello²⁷.

Bi hitzetan: laudorioetan oparo EAJk 36ko gerraurrean eta gerran egindako lanagatik. J.M. Benito del Valle, M. Agirre, J.M.dariaga, A. Irigoien, eta Txillardegik Bilbon, Benito del Valleren etxean, *Ekin* erakundea sortzera zihozela, bostetako batek *Gudari*-ren ale bat –Euzko-Gudaros-teak gerra-denboran fronteko gudarienez argitaratzen zuen

26 Ikus nire: “Nafarroa tradizionalista frankista munduko politikari beha. Nafarroa Garaiko prentsa 50.eko hamarraldian” in *Gerónimo de Uztari* 20, 2004, 218-227 orr.

27 *Euskal Herria belburu*, Txalaparta, 1994, 204 or.

aldizkaria– ekarri zuen, eta haren aurrean zutik egin zuten zin bostok, zer gerta ere, ez zutela erakunde berriaren berri emango. Eusko Gudarostearen segidan ikusten zuten euren burua²⁸. Gipuzkoan beste horrenbeste egin bide zuten beste sei lagunek.

Krutwigek *Vasconia* liburu famatua argitaratu zuenean 1963an, iruzkina egin zion Txillardegik. Bada, liburuari egiten zion kritika nagusia zen, dialektikaren logika erabilita, ez zela zilegi 1936ko gizonak 1960ko hamarkada hasierako parametroetan neurtzea, eta aldi berean liburu-kritika hura baliatzen zuen 36ko gizon haiei bere errespetu eta aitortpena adierazteko:

Yo proclamo aquí, pública y sinceramente, y no es la primera vez, mi respeto y reconocimiento a los hombres que encarnaron la voluntad de Euzkadi en aquellos difícilísimos momentos. Proclamo que “Sarrailh”, yo mismo, y tantos otros de la generación de la postguerra, estamos donde estamos (en sentido abertzale) gracias a la labor ingente realizada por los abertzales de 1931 a 1937. No se puede poner en duda el mérito enorme del Partido Nacionalista Vasco en aquellos años²⁹.

Alabaina, ez zeuden 1936an, baizik eta 1961eko urrian, eta Pariseko hitzaldiarekin jarraituz, XIX. mendea legitimismo karlista-espainolaren mendea izan zen bezala, arriskua zegoen XX. mendea errepublika espainolaren legitimismoarena izateko, hura jadanik Francok uzkailea zuenean, historiari iraganarazia, eta Euskal Herriak inondik ere gaurko es-

28 185 or.

29 “Vasconia” in *Documentos Y*, 2. liburukia, 1963, 379 or.

trategia behar zuen, eta euskalduna, ez espainola eta atzokoa, 36ko gerraurrekoa edo gerrakoa:

Pero hoy, EL FRENTE PATRIOTICO que se propone, no está, ni puede estar, ni en contra ni a favor del pasado, pues se va a ocupar del esfuerzo de hoy y de mañana. No puede estar ni por encima ni por debajo de los pactos y de los organismos que hacen referencia a 1936. Simplemente: es un FRENTE PATRIOTICO, en que sus componentes, sin hacer dejación de su ideología particular, se unen y coordinan, se ayudan y se animan, para la consecución de una meta común: LA LIBERTAD DE EUZKADI (...) Por eso creo que los principales componentes del FRENTE PATRIOTICO deben ser Euzko-Gaztedi y Euzkadi-ta-Askatasuna. El futuro de Euzkadi e incluso la mayor parte de la actividad en el presente depende de ellas, pues ellas agrupan la inmensa mayoría de la juventud abertzale de Euzkadi³⁰.

Txillardegik ez zuen zalantzarik egiten 1833tik 1839ra edo 1872tik 1876ra fronteetan borrokatu ziren euskaldun karlistek euskaltzaletasuna bazutela, baina ahalegin hura antzua izan zen. Zergatik? Ez aski euskalduna ez izateagatik, baizik eta espainolegia izateagatik:

Los carlistas vascos no van a la guerra por un problema dinástico. Van porque UN REY ESPAÑOL les ha prometido la salvaguarda de la libertad que garantiza el Fuero. Es decir: sienten a Euzkadi hasta el punto de dar su vida por la patria. Pero, por culpa de sus dirigentes políticos, no plantean su reivindicación POR ENCIMA de España, sino A TRAVÉS DE UNA FRACCIÓN ESPAÑOLA: la reaccionaria en este caso³¹.

30 *Euskal Herria belburu*, 207-208 orr.

31 “Neo-carlismo” in *Documentos Y*, 2. liburukia, 1962, 265 or.

Barru-barruan, euskaldunaren beldurra sumatzen zuen politika nazionala egiteko: Madrilen liberalak nagusi zirela, Karlos VII.a errege jarri zain, XIX. mendean; XX. mendean, berriz, Franco nagusi zela, Errepublikak nagusitu zain; eta, Txillardegiren pentsamendu-lerroarekin bat eginik, gaur egunera etorritik, 1978ko Konstituzioari men osoa eginik, Rajoy eskuindarra noiz eroriko eta sozialistak noiz helduko berriz boterera zain, haiekin akordio batera heltzeko eta EAEn lau indar politiko handien arteko akordio ezinezkoa lortzeko. Azkenengo asmakizuna, Urkulluk iragarri duen nazio forala, XIX. mendeko espiritua zaharberritu nahian, non-bait. Beti zain, Madrilek zer egingo eta zer onartuko, eta beti Espainiako indar nagusien aldera otzan.

ETAk ulertua zuela zioen, 1962an:

ETA ha comprendido. Sabino Arana comprendió a tiempo lo que había dentro del carlismo. Nosotros hemos comprendido lo que hay en ese neo-carlismo que domina la política “nacionalista” (??), que se llama “legalismo republicano” (...) Lo único que nos falta es tener más valor que nuestros antepasados, y decir: “EUZKADI NO SE SALVARÁ CON OTRO CARLISMO”. Se salvará porque hemos decidido el camino: EL DE NO CONFIAR JAMÁS EN NINGUNA FRACCIÓN ESPAÑOLA. GORA EUZKADI AZKATUTA³².

3.1. Karlismoaz zabalago

Identitatea aintzat hartzeak iragana aintzat hartzea dakar gehienetan, estaturik gabeko nazioen kasuan behinik behin. Ez iraganean gelditzeko; aitzitik, etorkizunerako estrategiak

32 266 or.

planteatzeko. Txillardegiri, XIX. mendeko karlismoa interesatu izan zaio, ez liberalismo espainola –gogora ekar bedi *Putzu* eleberria, 1999an argitaratua–. Eta *Huntaz eta hartaz* saio-bilduman bigarrenak adierazgarriro “Oraindik ere karlismoa nagusi Eskual-Herrian” du izenburu.

Zer izan zen karlismoa XIX. mendean: euskalduna ala espainola? Txillardegiren iritzian:

Karlismoak euskaldunen askatasun-nahia hartu zuen, Espainia-ko bandera antzu bati erantsi zion, eta azkenean gure odola saldu eta hondatu egin zuen.

Valdespina'ko kondeak, eta Berasategi'k, matxiñadaren seinalea eman zutenean, hasieratik beretik, Espainia'ko alderdi bat hartu zuten Euskal Herriaren salbatzailletzat: eskuindarra. Don Karlos ez zan euskalduna, ezta gutxiagorik ere; eta Don Karlos'en programa ere ez. Don Karlos espainola zan; eta euskaldunek hau ba zekiten. Euskaldunen gerizatzailea (eta ez lehenengoz eta ez azkeneko aldiz, ondikotz!) erdalduna zan, ez euskalduna. Garaipidez, taktikaz, hau bai, euskaldunek Espainako “absolutisten” alderdia hautatu zuten laguntzailletzat. Lege Zaharraz kanpo, euskaldunek ez zuten garbiki ikusten zertsu nahi zutekean...³³

Baina iragana interesatzen bazitzaion ere³⁴, orainagatik eta etorkizunagatik interesatzen zitzaion, eta idazten zihar-

33 *Huntaz eta hartaz*, Elkar, Donostia, 1983, 19 or.

34 Karlismoaren interpretazio hori ausartegia iruditzen zitzaion Martin Ugalderi. Txillardegik eta Ugaldek gutun mordoxka trukatu zituzten 60ko hamarkadan, eta J.M. Torrealdaik *Jakin*-en argitaratuak ditu. Horietako batean M. Ugaldek *Huntaz eta hartaz*-en bildutako saio bakoitzaren balioespena jakinarazten dio. Karlismo berriari buruzkoaz, honela diotso: “Oraindik ere karlismoa nagusi Euskal-Herrian»: ez, ez nago zurekin; karlistak ez zuten ez Euskal-Erria, ez Euzkadi'rik, guk bezela ikusi eta sentitu; bide orretan irabazi degu. Bear bada, guk oraindik uste baino geiago. Paraleloak egitea zaitilla da, ansarregia”. *Jakin*, 114. alea, 1999.

duen garaian (1963-1964) EAJn eta Eusko Jaurlaritzan nagusi errepublikanismoa zen, espainiar errepublikanismoa, eta hori karlismo berritza izenda zitekeen:

Egin dezagun alkarrekin gogoeta erraz bat. 1833 jarri dudan lekuan, jar zazu zuk 1936; erregetza absolutuaren ordeztu, jar zazu zuk errepublika liberala (...) Liferentziak ba daude, beharrik; (...) Baiñan funtsean jokabideen sustaiaren muiñean, sakon-sakon hortan, zer aurkitzen duzu? Izenak aldatu, eta Espainia'ri buruz bestela jantzirik, karlismo berri batean ari gerala, nik uste.

Karlismo zaharrak eta karlismo berriak diotenez Euskal Herriaren salbazioa Madrille'tik etorriko da. Oraingoan gure eginbeharra ("taktika hutsez", noski!) Espainia'ko gobernu-mota bat agintzen jartzea da. Ipar-aldeko Euskal Herrian lehengusu-mordo bat ikusi behar dugu gaurkoz, ez Euskal Herriko eskualde bihotzeko bat³⁵.

Idazten ziharduen garaian, Iparraldean, *Enbata* mugimendua sortua zen jada; beste erakunde bat fronte abertzalerako egokia. *Huntaz eta hartaz*-eko saio horretan ez zuen fronte abertzaleaz gorago adierazi dugunaz besterik adierazi. Baina bai *Branka* aldizkarian, 1966tik 1970era, eta halaber, esaterako, Martin Ugalde orduan jeltzalearekin, nahiz heterodoxo, izandako gutun-trukean, 1966-1967 urteetan.

Gatozen Txillardegi eta M. Ugalderen arteko gutun-trukera. Belgikako Waterlootik Caracasera:

Euskaldun Gobernuaren karta alde batera uztea txarra litza ke orain, 30 urte iraun da gero. Baiña, zer egin behar dugu Gobernu horren txanda ez badator? Hau, ba dakit, ez dute bazuk pentsatu ere nahi; baiña abertzale geranok pentsatu beha-

35 25 or.

rra daukagu. Nere ustez 31-ko harek etorkizunik ez du, eta “Frente Nacional” bat sortu beharra dago. Dagoeneko kalte handiak gertatzen ari zaizkigu ABERTZALE-ALKARTASUN bat ez dagoelako. Españolak eskubitatik eta ezkerretatik ari dira gaurdanik (eta noiz ez?) Euskal Herriaren heriotza prestatzen. Zer egin behar dugu guk? Abertzaleok bat egin, nere ustez. Nola bat? Herri guzietan egin dan bezela: Abertzale-alkartasun bat sortuz, abertzale diran guziek osatua. Ez duzu uste hori seriotan bultzatzeko momentua iritsia danik? Orain dala urte asko ari gera batzuk gauza bera esaten. Zer iruditzen zaizu? (...) Abertzale-alkartasun hori sortuko bage-nu –kristau demokrata abertzaleak (PNV), sozialistak (geu, ETA-ko gehienak), komunistak (komunista abertzaleak, Krutwig’en estilokoak esate baterako)–, Alkartasun horrek Euzkadi’ko indarrak gehienak bilduko lituzke EUZKADI’REN ASKATASUNAREN ALDE; eta espagnol kristau-demokratei, espagnol sozialistei eta espagnol komunistei, atea hetxiko lieke Euskal Herrian.

Caracasetik Waterloora arrapostua:

Gaur bertan frente nazional bat egin genezake, eta egin barko degu, baiña sozialistak diran bezela artuta, eta orain arte egin diran politika erremintak kamustu bearrean diran bezela artu eta beraiekin lanean. Ez det uste Baiona’ko paktoa alde batera utzita, Eusko Jaurlaritza orain eratua dagoan bezela alde batera utzita ezer oberik egin litekenik. Ortik asi eta gauzak al dan bezela berritu eta indartzea, ondo dago; nik andik etorritako zuzendari bateri esaten nion orain dala gutxi emen, ETA’k ere or egon bear lukela, alegia zuen indar berrira lengoari crantsi bear geniokela. Au ez da zure asmoa bezin koerentea, lojikoia, bear bada, baiña praktikoagoa dala uste det. Bide onetatik bentaja bat daukagu: gurekin bertan sartu badira, sozialistak gure erri-izateari berea eman barko diote, osorik sentitzen ez badute ere. Guk ori lortzen badegu, gure

erremintekin lanean jarri eta langilleak eta beren arazoak gureganatuko ditugu, errituko ditugu, eta ondoren zure asmoak ondo etorriko lirake.

Txillardegik:

Ni huntara noa, beraz. Ni abertzalea naiz, eta sozialista naiz. Zer proposatzen didazute? P.S.O.E.'n sartzea? Ez dut egingo!! Ni bezelako asko dago gaur Euskal Herria'n: abertzale eta ezkertar. Beharrik! Nondik nora hetsiko digu ABERTZALEEN ESTRATEJIAK mogimendu ezkertar eta abertzale baten indartzea? Alderdia'ren jokabidea ORAINGOZ ulertzen dut: PSOE inportanteago zaio gu baiño. Baiña: 1) ez da guztiz ondo ulertzen taktikarengatik urrunegi ibiltzea helburutik, españazaleak lagunduz. Beste herriek ez dute horrela jokatu. 2) ez dugu ulertzen nola, azpitik bederen, ez gaituzten laguntzen. Ezkertar abertzale mogimendu bat komeni zaio ala ez Euzkadi'ri? Nork esan dezake, abertzale gisa, hobe dala PSOE'ko joera ETA'koa baiño? Zein abertzalek esan dezake nahiago duela Prieto guretako edonor baiño? Ez dut uste, Martin, Alderdia'ren jokabidea arras zuzena danik. Funtsean ez dakit ez ote dagoen ere herra edo gorroto pittin bat. Nik ez dut sekulan esan (nik neuk bederen) Baiona'ko ituna eta horrelakoak alde batera utzi behar diranik. Baiña ez dut SINISTEN ezertara eramango dutenik. Alde batera utzi gabe, beste zerbait ERE pentsatu beharko litzakeala uste dut. Abertzale naizen aldetik, ezkertarren alde bete behar dugula iruditzen zait. Eta ez zait iruditzen abertzaleetan inork horren kontra joka dezakeanik. Uste dut, hitz batez, 1936-eko eta 1945-eko itunak hautsi gabe, beste estratejia bat pentsatu beharko litzakeala, badazpada ere³⁶.

36 "Txillardegi eta M. Ugaldere arteko gutunak" in *Jakin*, 114. alea, 1999, 154-160 orr. Txillardegiren gutunak: 1966-10-10, eta 1967-02-25; eta M. Ugaldere: 1966-11-24.

3.2. Euskal Fronte Nazionalea behar zen, ez Klaseko Fronte Espainola

ETAtik alde egin zuen 1967an, haren V. Biltzarraren ondotik, bi hitzetan marxismo-leninismoak pisu gehiegi zuelako erakundean, eta abertzale sozialista humanistei ildo gisa antolatzen utzi ez zitelako (bera hor kokatzen zen B. del Valle, M. Agirre, X. Imazekin eta batean). 1971n, ahaleginak egin zituen T. Monzonekin batera euskal fronte nazionala sortzen, eta 1973an, T. Monzoni egin ahala pasatzen ziola, “Proyecto de Manifiesto Vasco” burutan atera zuen³⁷. Carrero Blanco erail aurretixean amaitua, testu erabat politikoa eta aski luzea: makinaz jotako 70 orri. IX. atalaren izenburua: “Frente Nacional Vasco, y no Frente Español de Clase”.

Zer zioen, hitz gutxitan? Atzerritar okupaziopean ziren herrietan, Euskadin gertatzen zen bezala, kontraesanik indartsuena kontraesan nazionala zela. Fronte eusko-espainola ezinezkoa zen, euskal dimentsioa alde batera uzten ez bazen. Edozein jendartetako ideia nagusiak klase menderatzailearenak izan ohi direnez eta “Estatua” eta hura zuritzen duen chauvinismoa deserrotzea zailena denez gero, indar politiko espainiarrak, benetako bloke gisa, bateraezinak ziren euskal finkatze nazionalarekin. Ezker espainola euskaldunen aurkako zen, eta, hortaz, klase-frontea ezinezkoa, euskal dimentsio nazionala bertan behera utzi ezean.

Espainia oso ondo legoke bere mugen barruan. Baina handik kanpo ez:

37 Bergarako Olaso Fundazioan badira hogeita bost bat gutun Txillardegik T. Monzoni garai inguru hartan bidaliak. Saiatuagatik, ez dut lortu haiek eskuratzea. Ziur datu interesgarriak badirela haietan.

Nosotros, socialistas vascos, pedimos para Euskadi lo que los socialistas franceses o suecos, por ejemplo, piden para Francia o Suecia. NADA MAS. Queremos lo que Hô Chi Minh quería para el Viet-Nam; lo que Massarycek quería para la Checoslovaquia austro-húngara y “provincial” anterior a 1918; lo que Ben Bella pedía para la Argelia francesa de 1958³⁸.

Ez zuen EAJren politika defendatu nahi, beraiena bestelakoa zelako, baina sozial-inperialismoa EAJ iraintzen ari zen, euskal frontearen sorrera eragozteko.

1973an, euskal mugimenduak ez zuen tentabide eskuindarririk. Karlistek ez zuten indarririk, eta faxismoa arriskutsua zen aparatu zapaltzaile gisa, baina ez tentabide desbideratzaile gisa; sozial-inperialismoa, aldiz, bai, aterabidea euskal sozialismoa zelako; hots, sozialismo ez inperialista.

Botere inperialistek okupatutako herri guztiak euren Fronte Abertzalea osatua zuten, eta euskaldunok berdina egin behar genuen al bait azkarren. Ideia hau unean uneko egoera politikora nola egokitu zuen jabetzeko, ikus bigarren parteko laugarren atala.

38 *Branka*, 2. liburukia, Ediciones Vascas, 1979, 786 or.

4. EUSKADI ESTATUA EUSKAL HERRIAREN ZERBITZUKO

Koldo Mitxelena eta Gabriel Aresti eta beste hainbatekin batean, baina 1964an Baionako idazkaritzan hartutako erabakiekin hasita, Txillardegi euskara batuaren aita izan dugula gaur egun ezagun samarra da, baina, beharbada, ez hain ezagunak euskararen balio politikoaz eta hizkuntza eta pentsaeraren arteko hartu-emanaz egin zituen ekarpenak. Horretaz gainera, euskara zapalkuntza ekonomikoarekin eta klase-borrokaren alderdi batzuekin lotzen ere saiatu zen, beste borroketatik kanpo euskararen aldeko borroka zentzurik ez zuela aldarrikatuz.

Goiz hasi zen euskararen eta politikaren arteko sartu-irtenez. Esaterako, 1961ean, *Tierra Vasca*-n argitaratutako “Alemanak eta gu” deritzan artikuluan –Berlingo harresia eraiki zen garaian idatzia–, aditzera ematen zuen alemanak kezkatu baziren mendebaldeko alemanen eta ekialdekoen artean sortzen ari zen leizegatik, ea euskaldunok zer pentsatu behar genuen Bidasoako mugaz eta Ipar eta Hegoko euskaldunen arteko zatiketaz:

Aldera ditzagun gure egoerak. Aientzako 16 urte dana [1945-1961], guretzat 500: aientzako Pankow eta Bonn dana, alemanak dana-dala, gure itzak YY Paris eta Madrid; haiek 20

milloi eta 50 milloi ba dira, gu 200.000 eta 1.500.000; alemanentzat izkuntza-bereizkuntzarik ez ba dago, guretzat española eta prantsesa nagusi (...) Alemania, bi puzkatan, gaizki ba dabil; zer etorkizun izan lezake Euskalerrriak, Auñemendian muga, eta España'ko eta Frantzia'ko jopu? (...) Orrengatik, gure Aberria il ez dedin, Euskalerrriaren BATASUNA bear dugulako, EUZKADI sortu nai dugu. Eta Euzkadi ori sortze-ra ez daramaten alegiñak eta eginkizunak oro, kaltegarritzat daukagu. Euskalerrri-tik EUZKADI-RA³⁹.

Hitz gaurkoagoetara ekarrita, euskal estatua behar dugu, Euskal Herri erdaldundua berreuskalduntzeko. Gu ez gara separatistak, gu unionistak gara, Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria batu nahi ditugulako –egun EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria esan behar!–; espainolak eta frantsesak dira separatistak, Bidasoaz bi aldeetako euskaldunak banatuak nahi gaituztelako.

ETAren agerkari zen *Zutik*-en, hots, euskal erresistenteei zuzenduriko agerkarian, 1964an, honela zioen:

Un vasco de Bayona y un vasco de Bilbao son hoy RIGUROSAMENTE EXTRANJEROS en todos los aspectos de la vida; y cuando son simpatizantes abertzales sólo tienen en común el deseo de DEJAR DE SER extraños entre sí.

En la sociología actual está unánimemente establecido que la unidad de lengua es el factor de cohesión y conciencia nacional más potente que existe. Esto lo saben todos los sociólogos y todos los políticos. Los únicos que no quieren verlo así son esos estúpidos solemnes del REGIONALISMO vascongado, campeónísimos del españolismo euzkadillero, para quienes la lengua vasca es importante, pero no tanto.

39 “Alemanak eta gu” in *Tierra Vasca* 1961-09.

Sin embargo, la imposición de la lengua del opresor es el abecé de todos los genocidios. Y no ver que la pérdida del euskera equivale a la consumación del genocidio, y a la división REAL de Euzkadi en una porción ESPAÑOLA y otra porción FRANCESA, es una prueba de incapacidad mental neta (...) Pero la desvasquización debe desaparecer de las filas de la Resistencia. Quienes están dispuestos a darlo todo por la Liberación de Euzkadi, deben estar dispuestos a RENACIONALIZARSE personalmente, aprendiendo el euskera, es decir, NUESTRA LENGUA, hasta un punto tal que estén en condiciones de abandonar para siempre el uso de lenguas extranjeras para otros fines que el proselitismo en medios desvasquizados⁴⁰.

Erresistentzian zebiltzan militanteek euskara ikasi behar zuten ez bazekiten, berresuskaldundu behar ziren, eta ardu-renik hura erabili, eta hizkuntza arrotzak soilik erabili behar zituzten euskararik erabiltzen ez zen tokietan proselitismoa egiteko.

Huntaz eta hartaz-eko “Euskotarrak, utikan!” saioan:

Euskal Herria errotik izan da beti euskaldunen herria. Euskera gabeko “Euskal Herria” Erdal Herria zitzaigun. Deserria, Atzerria (...) Nundik kutsatu zaigu guri hizkuntzari axolarik ez eman nahi hori? Hizkuntza bat ez baita folklorearen partetxo bat; hizkuntza bat ez baita inportarik gabeko bitxitasun bat. Ez.

Entzun dezagun Jean Lacroix filosofoa: “... La linguistique contemporaine... montre que chaque langue implique une vision du monde qui lui est propre... Chaque langue structure la réalité à sa manière, et découpe dans le réel des aspects diffé-

40 “La lengua del opresor” in *Documentos Y*, 3. liburukia, 1979, 256-258 orr.

rents". Hizkuntza bakoitzak bere gisara tajutzen du mundua-
ren egia.

(...) Ez dute ez fedeak, ez demokraziak, ez folkloreak, Eus-
kal Herria egin: ez barne-aldetik, ez kanpotik (...) Euskerak ez
bestek elikatu du Euskal Herria. Bere galtzearen neurriak era-
kusten du ongienik Euskal Herriak koloka ote duenez oiña-
rria. Zergatik, edo zertan, hizkuntzaz kanpo, ez dira gaur
Euskal Herria Biarno eta Errioxa? Irakurleak besa (...) Horiek
hola, abertzale izateko eskubiderik ba ahal dugu? Galdera la-
rria; galdera harrigarria beharbada, irakurle hori. Baiña galde-
ra beharrezkoa. Gure aukera ez baita oso zabala: Euskal He-
rri euskaldunari euts eta atxik, eta Euzkadi libro baten bidez
heriotzatik begira; ala Euskal Herri euskalduna hil eta hortz.
Biotatik bat⁴¹.

Lerro horiek idatzi zituen garaian, aldi bertsuan euskara
batuaren oinarriak zehazten ari zen Baionan: euskara baturik
gabe ezin, bada, euskara guztion eta orotarako mintzabide
bilaka:

Euskera gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorroztu, eta aberastu
egin behar dugu. Hau da eginkizun premiatsu bat (...) Euskera
euskaldunen mintzabide nagusi billaka dedin, ordea, Euzkadi
bat behar dugu, bere buruaren jabe; eta Euzkadi hortan erre-
suma-hizkuntza egin behar dugu euskera.

Erresuma-hizkuntza ez diranak oro, galtzekotan dira; eta al-
derantziz: diranak oro, loratzen eta hedatzen⁴².

Euskara batua ezinbestekoa, eta aldi berean estatu bu-
rujabea. Eta politika abertzalean aurrean ibili nahi zuenak

41 Huntaz eta hartaz, 70-75 orr.

42 76 or.

ez bazekien ikas zezala euskara, eman zezala etsenplu, herri xeheak agintarien jarraibideari darraiolako nagusiki:

Euskaldun “abertzale” asko, euskeraz jakin arren, barra-barra ari dira erderaz, behar gorririk gabe; jeneziden hizkuntzaz baliatuz, jenezidioan parte hartuz. Eror bekie horrelakoei be-tiereko laidoa!!! Hori baiño larriagorik ba dugu. “Abertzale” (??) batzuk, askok, gehiegik, jeneziden lana osatu dute etxe-barnean bertan, euskera alde bat utziz, eta haurrei erderaz hitzeragiñez. Horrelako traidoretzarrek (beste edozergatik garai batez, euskaldungoari nagokiola, errespetua merezi izan bazuten ere), Euskal Herriaren aintziñean arras dute galdua; eta, alde hortatik, ukulluko zakarrak baiño kiratsago eta higuingariago zaizkigu. Beren izenak ahalke-bide dira; eta hemen bat ere ez aipatzea onena, liburuaren usaiña kiras eta likis ez dedin⁴³.

Gaur egun ideia horiek ezagunak egiten zaizkigu, behar-bada, baina duela mende erdi bat? Hona aldatu berri ditugun ideia horiek idatziak izan ziren garaian abertzaleen artean nola ikus zitezkeen sumatzeko, ona da Txillardegik eta Martin Ugaldere arteko gutun-trukeari erreparatzea. Horra bi euskaltzale handi, bata ETAKoa garai hartan, eta bestea EAJkoa. Eta Leizaola, Irujo, Landaburu jeltzaleak, eta beste bat Luis Las Heras gasteiztarra, hori ere jeltzalea omen. Hona zati hautatu batzuk:

Txillardegik:

Zuk “imperialismo euskérico” hitzak entzun dituzu; eta, zoritxarrez, nik neuk ere horrelakoak aditu ditut, oso “goian” gaiñera; eta bihotza erdibiturik ibilli naiz urte askotan Euzka-

43 79 or.

di'n, egia garbi ikusi arte. Bilbo'n nik ijeñerutza ikasten nuelarik, astakeria ikaragarriak adittu ditut era hortan; eta Paris'en ere gero, 1961-1962 etan, ez txikiagoak. Azkenerarte ez dut ulertu. Orain baietz uste dut: abertzale gutxi dago, eta karlista eta neo-karlista asko. Guk Euskal Herriaren arazoa garbiago ikusten dugu gure aurrekoek baino. Bidezkoa da, arrazoin da hala izan dedin. Zeren-eta zaharrei esker baikera gure huntan. Ez da dudarik. Nik hau, agerian eta lagunartean, beti aitortu dut. Baina euskerari buruz, gure aurrekoek, ia danek, Leizola'gandik hasi eta beheraino, oso oso eskas jokatu dute. Ez dute antzeman Euskal Herriaren problema sustraiean. Ene ustez ez dago dudarik. Hitz batez, gutxi izan dira abertzale. Ez dakit (nik ez baitut jasotzen "Alderdi") Irujo'k zer erantzun dizun. Bihotzez eskertuko nizuke jakiñaraztea, edo artikulua bidaltzea. Baiña ba liteke zentzugabekeria batzuk botatzeta. Landaburu'ri berari ere gogorak aditu baitizkiot nik; eta Landaburu ongi zan batez beste! Ez duzu etsi behar. Ez dugu etsi behar. Baiña ez dugu ere lasaikeriatan ibilli behar. Gure Aberria geure begien aurrean hiltzen ari da, geure Aberria EUSKAL HERRIA baita. Biharko Euzkadi eta atzoko Nafarroa, ez dira gure Aberria, gure erresuma baizik. Gogor jakatu beharra dago, beraz. Zure artikulua bide hortan dago. Zorionak beraz. Nere liburua (laugarrena) hizkuntzaren arazoaz izango da. Esan beharrik ez: Euzkadi'ren bidez Euskal Herria piztu. Horra izenpurua eta horra ere mamia. Gogorra izango da, eta soziologian eta istorian finkatua. Oso, guztiz, arrunt, beharrezkoa dala uste dut. Bestean ere ("Huntaz eta Hartaz" dalakoan) ba duzu ere, hortaz, saiakera gogor bat: "Euzkotarrak? Utikan!". Poztu egingo zaitu ere irakurtzeak⁴⁴.

Martin Ugaldere erantzunaren zati bat:

44 "Txillardegi eta Martin Ugaldere arteko gutunak (1961-1969) in *Jakin* 114, 1999, 135-136 orr. Gutuna 1965-06-27.

“Abertzale izeneko asko gaur ez dira abertzale” diozu zuk, eta ez nago oso-osoa zurekin. Luis Las Heras ez dala abertzalea, diozu. Zuk badakizu gure arteko diperentziak baditugula; Las Heras’ek eta nik, alegia. Ez degu, ez, aberria era berean ikusten, arraioa! Baiña nik ezin esan Las Heras abertzalea ez danik. Ni bezelakoa ez dala, bai; aspalditik ezagutzen det; baiña abertzalea ez dala ez. Luis Las Heras Gasteiz’en jaioa da; erdal erak kutsatuta, noski; berak ez du euskal erria guk bezela ikusten eta sentitzen ere, egia da; influentzi ezberdiñak izan ditulako, etxea beste gure lurreko bazter batetik ikusi dualako. Luis Las Heras asko eta asko dago gure errian. Luis Las Heras’ek etxea maite du, bere eran, bere begiak eta bere pultsoak ikus eta senti arazten dioten neurrian. Aspaldi izan ditugu diperentziak biok. Nik ez det gizon au aldatu, eta bear bada, ez det beñere aldatuko. Baiña bere eta nere itzak entzuten ari diran beste euskotar asko atzeman nai ditut nik, ia gure arrazoiak eta gure biotzak eltzen dituen. Nitaz nago [sic], ez, Luis Las Heras’ekin konforme! Baiña orregatik, berarekin konforme ez egon arren, ezin dezaket nik abertzalea ez danik esan. Nor da abertzale neurria poltxikuan daukan euskotarra?⁴⁵.

Txillardegik:

Las Heras horrek “abertzale” izena merezi duen ala ez erabaki aurretik, gauza bat egin behar da: Las Heras arabarra da, ez du sentitzen, pena da, oso tristea da hori horrela izatea, eta abar. Ongi da. Las Heras’ek geuk baiño merezimentu haundiagoak ditu, eta kitto. Zer da, ordea, Las Heras? Zer da soziologo baten iritziz, zer da kondairan, zer da zientziaren aldetik ikusia? “Abertzale” hitzak, nere ustez, sentidu be-

45 143-144 orr. Hor aipatzen duen Luis Las Heras delako horrek “Idioma y cultura” izeneko artikulua plazaratu zuen *Tierra Vasca* 1965eko abuztuan. Eta hurrengo hilekoan, Txillardegik erantzun zion: “Luis Las Heras’i erantzunez”. Lehenago Martin Ugalderekin izana zuen eztabaida euskararen balioespena dela eta.

rezia du: abertzale danak Euskal Herria bizi izatea nahi du; eta hontarako Euzkadi'ko erresuma sortzea nahi du. Abertzaleak EUSKAL HERRIA MAITE DU, EUSKALDUN HERRIA. Zeuk ere ongi diozu zure artikuluan: Sabin'ek (eta geuk ere) abertzale bihurtu bezin laister euskera ikasi zuen. Hau iruditu zitzaion lehenengo urratsa. ETA-ko guziok hau egin dugu, eta Krutwig'ek, Lizardi'k, Aresti'k, eta beste askok, hauxe egin zuten. Las Heras'ek ez du Euskal Herria maite. Euskal Herria bost ajola zaio. Nola nahi duzu horrek “abertzale” izena hartzea? Ezin! Jesukristo bost ajola zaion pertsonak, nola merezi dezake “kristau” izena? Zeren-eta dudarik ez dago: euskaririk gabe ez dago Euskal Herririk. Hau ez dugu guk bakarrik esaten. Hau KONDAIRAK ERAKUTSI DU ERRIOJAN, HUESKAN ETA BIARNON. EZ DA TEORIA BAT. Las Heras'en ideiek gure herriaren heriotzara daramakite. Hori beraz ETSAI BAT da; Franco baiño TXARRAGOA, aditzen baititu gure herria HILKO luteken ideiak. Las Heras gure etsaia dan ezker, kaltegarri iruditzen zait berarekin konpondu nahian bigunkeritan ibiltzea. Las Heras Euskal Herriaren etsaia da. Ez dugu guk beraz urruntzen, bera kanpoan eta urruti baitago, guk nahi ala guk nahi ez. Ez dugu ezer galtzen, galduta baitago⁴⁶.

Gutunak berak dira mintzo. Txillardegia eta Martin Ugalde biak euskaltzaleak eta abertzaleak; lehena zorrotzagoa, eta bigarrena bigunagoa besteak juzgatzeko orduan.

Ikaragarri deigarria gutun-zati hau gertatu zait:

Guk Euskal Herriaren arazoa garbiago ikusten dugu gure aurrekoek baino. Bidezkoa da, arrazoin da hala izan dedin. Zeren-eta zaharrei esker baikera gure huntan. Ez da dudarik. Nik hau, agerian eta lagunartean, beti aitortu dut. Baina euske-

46 145-146 orr.

rari buruz, gure aurrekoek, ia danek, Leizaola'gandik hasi eta beheraino, oso oso eskas jokatu dute.

Duela berrogeita hamar urte, euskara batuaren aita ez ezik, kontzientzia abertzale horretan ere Txillardegi aita izan dugula esango nuke. Eta ikaragarri kontsekuente ikuspegi berriarekin.

Ildo beretik, eta testurik politikoenean (*Proyecto de Manifiesto Vasco*, 1973), hona hemen hizkuntzaren eta gainerako arloen arteko sartu-irtenez eta batez ere lau faseez zioena:

Todos los pueblos que han impuesto finalmente su lengua ETNICA, reduciendo la importada por el imperialismo a su estatuto lógico de lengua EXTRANJERA, han pasado, en su concieciación colectiva y en su lucha, por cuatro fases sucesivas: 1) FOLKLORICA; 2) LINGUISTICA; 3) POLITICA; 4) MILITAR...

Y es lógico que así sea; pues el imperialismo también impone su autoridad y su identidad, empezando “por arriba” (por aquello de “arraina burutik kirasten hasten”...) en cuatro fases, que son exactamente la serie inversa: 1) ocupación MILITAR; 2) aparato POLITICO; 3) asimilación LINGUISTICA; 4) cambio de FOLKLORE. Lo último que pierde un pueblo sometido a imperialismo extranjero, es el folklore, que resiste más incluso que la lengua (...) La lengua se pierde más tarde que los instrumentos políticos propios, y resiste así más que la idea de pertenencia a un grupo distinto (...) Las cuatro fases señaladas SE COMPLETAN SUCESIVAMENTE, tanto en el proceso desnacionalizador, como en el proceso de liberación nacional; y lejos de oponerse los unos a los otros, se articulan

como las conquistas anatómicas se suceden y se completan en la evolución biológica⁴⁷.

Horra hausnarketarako bidea: folklorea alde batera, no-la gaude egun hizkuntzari eta politikari dagokienez? Irakurle bakoitzak izango du bere erantzuna. Alde militarri doakio-nez, hobe ez mintzatzea, nik uste.

4.1. Hizkuntza eta Pentsakera eta Euskal Herritik erdal herrietara

Liburu horiek ez ditugu hemen aztertuko, baina oso gaingiroki azaldu bai biak ala biak zein testuinguru politiko-kulturaletan sortu ziren. Euskaldun politikoki kontzientzia-tuenen artean modako filosofia marxismoa zenean ondu ziren biak, eta marxismoak klase-azterketari eta klase-borrokari lehentasun osoa ematen zionez, eta hizkuntzari bigarren edo hirugarren mailako balioa, balioespen hori irauli nahian, aditzera emateko hizkuntzak zer-nolako garrantzia duen pentsamenduan eta errealitatea taxutzeko orduan:

Modako filosofia, gure artean, marxismoa da gaur (berandusko euskaldunak, bestetan bezala...). Gogorazi besterik ez du behar irakurleak Rikardo Arregi zenaren artikulua famatuaren izenpurua: “Marxismoa modan dago”. Gorago esan dugunarengatik, marxismoa eskasa da eta hutsa oso hizkuntzaren jakintzari eta arazoei dagokienez. Horretatik heldu da euskarari buruzko iritziak eta jokabideak askotan gure artean erdalzale izatea, errotik marxismoak ukiturik daudenen artean. Baina, hauxe larriago: marxismoa hizkuntza-zapalketaren laguntzai-

47 *Branka* II. tomoa, Ediciones Vascas, Bilbo, 1979, 753 or.

le bihurtu da horretara; eta guk baino hobeki dakite hau gure etsaiek⁴⁸.

Hitzaurrean adierazi zuen bezala, asmo hauxe zuela gidari egin zuen:

Jakintza berrien aldetik egiten dugu, beraz, liburu honetan geure hizkuntzaren defentsa. Eta hau eginez, bai Euskal Herriari eta bai Kultura guztiari gorazarre eta mesede egin nahi diogu⁴⁹.

Autore ugariren ekarriak biltzen ditu; linguista, etnologo, psikoanalista: Saussure, Whorf, Hjelmslev, Levi-Strauss, Goldstein, Gelb, Lacan...

Ezagun samarra da kolore-espektroa hizkuntza bakoitzak bere erara antolatzen duela, ez dagoela eskema logiko unibertsal bat, baizik eta etnikoa. Duela berrogeitaka urte ez hainbeste:

Ikus dezagun orain semantikaren mailan, bide beretik, nola taxutzen diren fenomenoak. Har dezagun adibide ezaguna: koloreena. Zer da funtsean koloretasuna? Onda edo uhin elektromagnetikoen frekuentzi edo maiztasun-kontua (...)

Zenbat kolore dugu tarte horretan, ortzadarrean, espektroan? Galdera honek, berriz ere, EZ DU ERANTZUNIK; edo badu bat, izan: nahi hainbat, edo hauta hainbat. Ez dago koloreen taxuketan “logiko”rik batere. Hizkuntza bakoitzak bere banaketa berezia egin du; eta banaketa hau, egiazki esan daiteke, etnikoa da; ez logikoa (...)

Badirudi beraz euskal kolore-estruktura zaharrean hitz bazuk daudela erdal (rojo+amarillo: rouge+jaune) koloreguneak

48 Larresoro: *Hizkuntza eta Pentsakera*. Etor, Bilbo, 1972, 103-104 orr.

49 10 or.

betetzeko; eta (verde+azul: vert+bleu) gunerako ez dagoela euskaraz hitz bat baizik: “urdin” hain zuzen.

“Gorringo” eta “abelgorri”, bestalde, zantzu bikainak dira. Baita “urdin”ek atxiki duen adierazkizun-multzotasuna.

Entzun dezagun orain Martinet, eta gure “bitxikeria” horiek batere bitxi ez direla ulertuko dugu (...) Badirudi, beraz, euskal estruktura zaharra eta zeltikoak ez direla oso desberdinak⁵⁰.

Eta Hjlemslev, Kopenhageko maisuak, Glosematikaren aitak:

Onerako eta txarrerako, nortasunaren ezagugarria da hizkuntza, sorterriaren eta nazioaren marka, gizonaren dinatasunaren ikurra. Hain dira hertsiki loturik hizkuntzaren eta pertsonaren gorabeherak, sorterriarenak eta nazioarenak, hau ere galda daitekeela: horren guztiaren irudia edo erreflejoa ote den hizkuntza; ala, alderantziz, ez ote den hizkuntza giza-biziaren bihotza eta muina bera. (*Prologomènes*, 10)⁵¹.

Hizkuntzalariak autoritate gisa harturik, baieztapen adierazgarriak hizkuntzaren garrantzia azpimarratzeko:

Hizkuntzak pentsakera baldintzen eta mugatzen duela ez dute gaurko hizkuntzalariek zalantzan jartzen. Humboldt-ekin lotura eginez, Saussure-ren zientzia-bultzada berriak indartu egin du haren soka nagusia: alegia, giza-talde baten pentsakera berezia dela hizkuntza. Hizkuntza “herriaren arima” dela ez dute gaur erromantikoek esaten, hizkuntzaren jakintsuek baizik! Jean Lacroix filosofoak horri buruz idazten zuenez: “Egungo Hizkuntzalaritzak zalantzan jarri du hain zuzen gi-

50 24-25, 38 orr.

51 24 or.

za-izpirituaren batasunari dagokion oinarria. Aitzitik, hizkuntza bakoitzari munduaren ikuskera berezia dagokiola erakutsi du” (Le Monde, 17-V-1964). Georges Mounin-en izkribu bikainak irakurri besterik ez du irakurleak hau egiztatzeko.

Ez da joera hau denen gogokoa. Eta etsita zeuden razionalista “abstrakto” batzuk piztu egin dira azkeneko urte hauetan, pitin bat aurrenik R. Jakobson-en ideiekin, eta askoz piztuago Chomsky-renekin (...) Humboldt-engandik hasita, ordea, Korzybski-ganaino badago hats bakar baten ekarri etengabea, argi egile: “hizkuntza bakoitza munduaren ikuskera jator eta berezia da”.

Joera honetan ausartena beharbada Benjamin Lee Whorf dugu (1897-1941) (...) Whorf Arizona-ko azteka-mintzairaren espezialista izan zen. Hopi-hizkeraz, batez ere, lan bikainak utzi zituen, Hopitarren gramatika eta hiztegia bereziki (...)

Whorf-en ustez, beraz, eta gero ere Levi Strauss-engan joera berbera aurkituko dugu, funtsezkoena hizkuntzaren jakintzan ez da ageri dena, ezta hiztunari baliagarri zaiona ere; izkutuan datzan sinbolismoa eta estruktura baizik. Askoz ere sakonago eta zaharrago zaizkio Hizkuntzari datxezkon taxumena eta sinbolo-sormena, materia-lanketa baino (Ikus *Ling. et Anthr.*, 107)⁵².

Hizkuntza eta Pentsakera-tik Euskal Herritik erdal herrietara artikulu-bilduma den liburura etorritz, honela dio J.M. Torrealdaik hitzaurrean:

Etni arazoari buruzko Txillardegiren pentsaeraren zerrenda bat dira liburu honetako 80-90 artikuluok (...) *Hizkuntza eta Pentsakera* liburuan egin bezala, euskararen balioa zertan den argitu nahi du hemen ere. Euskarak egiten gaitu euskaldun, hona, bil-laburturik, Txillardegiren hizkuntzarekiko pentsae-

52 49-52 orr.

raren funtsa. Hizkuntzaren lehentasuna, printzipio nagusi da Txillardegiren baitan (...) Euskal Herria euskaldunci ezaguterazi eta denengan Euskal Herri osoaren kezka sorterazi: Txillardegiren kazetaritzaren asmorik sendoenetakoa da hau, zailtzarik gabe (...) Txillardegiren artikuluetan beste sail handi bat kultur minorien eta nazio ukatuen arazoketak hartzen du. Hauetan gertatuak, “adibide ederrak” dira Euskal Herriarentzat, dio Txillardegik. Asmo horrekintxe segitzen ditu Irlandako, Galesko, Eskoziako, Kortzegako, Armeniako, Aostako... gorabeherak, hemengo egoera argitu nahirik⁵³.

4.2. Alderdi abertzaleetako buruek eta euskal erakundeetakoek euskaldunak behar

Txillardegik ez zuen etsitzen gauzak garbi ikusi eta idaztearekin. Intelektual engaiatua zen, eta euskara jakitea giltzarri zenez gero, lehenbizi etsenplua alderdi abertzaleetako militanteek eta euskal erakundeetako buruek eman behar zuten. Arraina burutik hasten da kirasten, eta sendatzen ere hala has liteke.

ESB alderdiaren sortzaileetarik izan zen 1976an, eta 1978ko ekainaren 17an alderdiaren batzorde nazionalak kanporatu egin zuen, baita fundatzaileetarik ziren Mikel Garmendia eta Sabin Irizar ere.

Hiru kanporatuek sinatu zuten artikulua arabera⁵⁴, alderdiaren zuzendaritzarekin lau puntu garrantzitsutan ziztuzten desadostasunak, eta horietako bat zen, bigarrena hain zuzen, alderdi barruan euskarari buruzko betekizunak jaso-

53 *Euskal Herriatik erdal herrietara*, Euba, Amorebieta, 1978, 6-7 orr.

54 “E.S.B. épuration” in *Enbata* 1978-06-22. Liburu honen bigarren partean, 3.3.1. atalean argibide gehiago ematen dugu ESBtik kanporatzeaz.

tzen zituzten zenbait artikulu baliogabetu zituztela, hots, euskararen eragozpena gainetik kendu nahi zutela, eta konsekuenteki baita alderdi barruan hori defendatzen zuten militantek ere.

Baliogabetu zituzten artikulu horietako batek zioen euskara zela ESBren hizkuntza, eta lehendakariak eta idazkariak jakin beharra zutela nahitaez. Beste batek, alderdiak bere kideei erraztasun guztiak emango zizkiela bi urteko epean ikas zezaten. Hirugarren batek, bi urteren buruan batzorde nazionaleko kide guztiek, eta, halaber, alderdiak enplegatutako guztiek euskaraz jakin behar zutela; bestela, ez zirela berriz aukeratuak izango. Beste batek, berriz, lau urteren buruan exekutiboan esku hartzen zuten erakunde guztientzat derri-gorrezkoa zela euskara, eta bosgarren eta azkenak, zeinahi alderdikidek kexa jar zezakeela Gatazka Batzordean, gorago aipatutako lau artikulu horietakoren bat ez betetzeagatik.

Beraz, kanporatuak izateko arrazoi bat euskara defendatzea izan zen.

Handik lau urtera, Txillardegi jada Herri Batasunan zela independente gisa, ez zuen gupidarik izan alderdikide ez-euskaldunei kargu hartzeko, eta epelak esateko *Egin*-en bitartez. Alfonso Sastrek iragarri zuen *Egin*-en zeukan “el ángulo oscuro” izeneko zutabea idazteari utzi egingo ziola, kazetari euskaldun bati uzteko lekua, eta erabaki hori hartzeko arrazoi hauek eman zituen:

La verdad es que me inquieta un tanto mi participación en el campo de la cultura de este país, desde mi punto de vista necesariamente erdeldún, cuando soy tan consciente de que nada serio podrá hacerse en este campo si no es desde territorios

semánticos propios: desde el euskera, por decirlo del modo más evidente y simple.

Hace un cierto tiempo me impresionó fuertemente algo que oí sobre el hecho, que yo creo evidente, de que cada uno de los habitantes de este país que hablamos castellano en nuestra vida cotidiana somos, en el mejor de los casos, involuntarios focos de objetiva resistencia a la recuperación de la lengua propia de este pueblo. Esto es también válido –¿cómo no iba a serlo?– para quienes escribimos en castellano (...)

Por lo demás, debo decir que tenía la esperanza de que en estos años el progreso del euskera y de sus expresiones intelectuales y literarias, artísticas, produjera por lo menos un cierto equilibrio que acabara con el aspecto dominante de esta bella lengua en la que yo me expreso –que, en cierto modo, yo soy– sobre esta otra bella lengua que yo amo en la distancia y que es el euskera. Era de esperar, por lo menos, una tendencia a tal equilibrio. ¿De qué mala manera habremos incidido los castellanoescribientes en este proceso? En cualquier caso, no lo hemos favorecido, desde luego; y ahora, al cabo de algunos años, cuando vemos que la marcha de la reeuskaldunización no es tan impetuosa como era de desear, la función de la escritura castellana en Euskalerría se problematiza con mayor fuerza⁵⁵.

Artikulu horrek adoreturik, eta horren uberan, Txillardegik:

Aquí se ha abandonado ya (o se está abandonando a marchas forzadas) la meta fundamental del combate nacional vasco: la recuperación de la identidad nacional sobre base lingüística (...) el aparato político de los diferentes partidos abertzales (incluida la izquierda) sigue estando al margen de la lucha por la identidad cultural (con honrosas excepciones

55 “Epílogo” in *Egin* 1982-07-17.

de personas, que confirman la regla). Es más: este tema, mi propio artículo incluso, les parecen de una pesadez y de una inoportunidad insoportables. En el difunto ESB pasaba igual. Nunca fue el momento. Y además me echaron⁵⁶.

Herria ari zen euskalduntzen, baina alderdi abertzaleetako buruzagiak ez, eta ezker abertzalean ere ez. Salaketa zuzena:

¿Qué pasa con la izquierda abertzale? ¿Es que sigue siendo imposible imponer en su seno la legalidad vasca, e iniciar seriamente su euskaldunización? ¿Por qué no se adoptan en ella, y desde ya, los planes de euskaldunización que un día –se nos dice en periodo electoral– se aplicarían al país entero en caso de llegada al poder? ¿Es que la vanguardia dirigente del movimiento abertzale tiene bula en este asunto? (...) El movimiento nacional vasco debería estar ya en manos de gente euskaldun. Creo que es ésta la consecuencia inmediata a sacar de la despedida admirable de Alfonso Sastre. Creo que su gesto ha sido una lección: excesiva probablemente desde el punto de vista de sus lectores, entre los que me incluyo; pero generosa, certera y valiente cara a todas las vanguardias y líderes de este país⁵⁷.

Artikulu andana sortu zen, gehientsuenak ezker abertzalekoek idatziak. Gehienak aldekoak –dozena erdi bat–, baina pare bat aurkakoak⁵⁸.

56 “Tras la última lección de Alfonso Sastre” in *Egin* 1982-08-11.

57 Ibid.

58 Denak *Egin*-en. Aurkako bi horietatik hasita: 1. Ion MIKEL militante de HASI (KAS-HB): “Al margen de subjetivismos” 1978-08-15. Eta 2. R.A. (militante de una organización de K.A.S) “Del error honesto al oportunismo” 1982-08-19. Eta aldekoen artean: J.R. Etxebarria: “Euskara hutsezko aukera egin duen baten iritzia” 1982-08-25; Joxe Austin Arrieta: “Kamikazeak eta dialektikoak” 1982-08-26; Luis Nuñez: “La polémica Txillardegi – Ion Mikel” 1982-08-27; Alfonso Sastrek berak:

Horiek denak jorratzeak luzeegi joko liguke. Alfonso Sastrek zoriondu egin zuen J.A. Arrietak idatzitako artikulua, eta horren zati bat hona aldatzearekin etsiko dut, hain justu Txillardegiri *kamikaze* deitzen dionekoa:

Baina zu, Jose Luis adiskide, irakasle eta lankidea, “kamikaze” bat zara, ene iduriko. Gogotik miresten dudan “kamikaze” odolberoa, egia trinko garratz bakarreko gizona.

Zure polemikarako grina horren estiloa oso gustokoa ez badut ere, aitortu behar, alajaina, zure eraso heriosuhar horiek makina bat aldiz dianan jotzen dutela, nahiz-eta maiz aski etsaien portahegazkinak ondoratu beharrean gure flotilla xume honetako zenbait txalupa zilipurdikatzeko balio izan.

Inpaktoak ez, inpaktoak badakit sasi-abertzale mozorrotu horien gainera zuzendu uste dituzula, zenbaitetan helburua lortuz, beste zenbaitetan beharbada ez, baina zure eztanek sortzen dituzten “uhin hedakorra” eta itsas ikarak ez dira, gero, txantxetakoak izaten: esan bezala, direnak eta ez direnak itoarazteko modukoak. Oraingoan bai, eta eskerrak zor dizkizugu denok horregatik, bikote ederra jalgi-arazi duzu plazara zure azken andanada horrekin, Ion Mikel eta R.A. direlakoak.

Horiek bezala pentsatzen dutenak zenbat ote dira gure “herri batasun” honetan? Hor dago kakoa. Ezpal horretakoak nagusitzen badira, gisa horretako leader “dialektiko”ek bereganatzen badituzte mugimenduko postu kudeatzaileak, jai dugu, hori bai. Baina, arranopola, ez dut uste, ez dut uste gauzak horren gaizki daudenik. Berriro esan: oraindik. En fin, argi eta garbi dagoena zera da, behintzat, ez diegula indarrik hartzen utzi behar, eta beren planteamenduak erro-errotik borrokatu behar ditugula⁵⁹.

“A unos y otros” 1982-08-31; Julen Kalzada: “Euskara gure artean nagusi noiz?” 1982-09-07 (ezker abertzalekoiei esaten zien, besteak beste, etsaiak ez zirela eurak berak).

59 Joxe Austin Arrieta: “Kamikazeak eta dialektikoak” in Egin 1982-08-26.

Zaila da jakitea Txillardegiren estilo suharrak zenbat gibelarazi zituen, eta kausarako zenbat bildu. Askorengan eragin zuela egia biribila da, eta gehienetan, esango nuke, onerako.

Alderdietako buruzagietatik euskal erakundeetako buruetara etorri, Ardanza joan zenean, eta PSOEk Rosa Diez andre erdalduna –orduan eta orain– eta PNVk Juan Jose Ibarretxe orduan erdalduna –gaur ez– aurkeztu zituztenean, prediku abertzaleak alde batera, 1982ko Euskararen Legea betetze aldera, ea legezkoa zen lehendakari izateko hautagai erdaldunak hautatzea galdegiten zuen. 1982ko lege horren 5.2 eta 6.1 artikulua aldatuta, honela galdetzen zuen:

Takillaren atzean dagoen funtzionariari hau eska badakioke, zergatik ez Lehendakariari?

Lege horretantxe irakur daiteke beste hau: “se tomarán las medidas oportunas para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho” (Art.6.1).

15 urte pasata gero, aski ez da. Zenbat urtez itxaron behar du? beste 25 urtez edo? beste 100 urtez?

Are okerrago: orain arteko Lehendakariak euskaraz bazekien. Hurrengoak ez. Nola sinetsiko aurrera goazenik?

Bilboko Apezpikuak euskaraz ez daki, Bilboko alkateak ere ez. Arartekoak gauza bera. Noraino dira izendapen horiek guztiok legetasunaren arabera?

Badirudi garaia dugula euskaltzaleok “aski” esateko⁶⁰.

2009an PSOEk lortu zuenean Ajuria Enea heldzea, “Prieto eta Pastor” zeritzan artikuluan, PSOEk ehun urte inguruan Euskadin egindako politika antiabertzaleari erreposoa

⁶⁰ “Lendacari bila” in *Egunakaria* 1997-11-23.

eman ondotik, fronte abertzalearen beharra eta euskararena bateratuz eman zion amaiera:

Izan ere, zer da PP-PSOE ituna fronte nacional huts-hutsa baizik?

“Hemos sufrido un intento de crear un auténtico frente nacional”.

Abertzalea...

“Es imposible y suicida tratar de imponer el uso de una lengua”. Baina Pastorrek inosatzen du espainiera Legebiltzarrean. Esperantoz mintzo ote da Pastor?

Zertarako jarraitu? Aski da Prieto aitapontekoa berrirakurtzea⁶¹.

4.3. Pertsona-eskubideak eta lurralde-eskubideak

Atal hau herren utziko genuke hizkuntza kontuan pertsona-eskubideak eta lurralde-eskubideak aipatu gabe, Txillardegik suharki defendatu baititu gure kasuan lurralde-eskubideak.

Ibarretxe Planari, Txillardegik, batetik, alderdi positiboak ikusi zizkion:

Estatutuaren eta Espainiar Konstituzioaren sakralizazioa jasan dugu azkeneko urte luzetan. Horiek zalantzan jartzea, areago kritikatzeta, anatema izan da luzaz.

Orain, Ibarretxeren Planaren ondorioz, pikutara joan da idoloa. Estatutua eta Amejoramendua labur gelditu direla aitortzen dute autonomistek berek. Eureka!⁶².

61 “Prieto eta Pastor” in *Berria* 2009-05-23.

62 “Proyecto secesionista-ri buruz” in *Berria* 2003-10-30.

Baina, bere alorrera etorrita, hots, euskararenak eta alderdi soziolinguistikoak kontuan hartuta, alderdi negatiboak ikusten zizkion:

Hizkuntz eskubideei dagokienez, makina bat aldiz esana dugu lurraldetasunetik at, euskarak ez duela irtenbiderik. Hots, Ibarretxeren Plana, alde horretatik, maingua da erabat (...)

Honela dio Laponek: “Estatu eleaniztunaren arazoei lurralde-irtenbide bat emateak, estatu barruko mugak ezartzea dakar. Eta irtenbide pertsonala Estatuaren lurralde osora zabaltzen diren eskubideetan oinarritzen da. Irtenbide horietako zein, lehena ala bigarrena, den funtzionala ezin esan liteke hautatu duen talde politikoaren helburua ezagutu gabe. Helburu hori, talde linguistiko dominatzailean minoria asimilatzea baldin bada; ala alderantziz, multilinguismo etnikoa babestea baldin bada ere, bai epe luze eta bai laburrera, beharrezkoa izango da politika desberdinak jarraitzea” (...)

Hots, Ibarretxeren Planean, hizkuntzari dagokionez, eta “legetasunean” mugitu nahi izateak, eskubide pertsonalen eremuan mugitzea dakar. Alegia, “hizkuntza dominatzailean minoriak asimilatzea” bermatzera.

Alde batetik, Baskongadetako euskaldunok “españolak” garez, “tenemos el deber de conocer LA lengua nacional y el derecho a usarlo”.

Baina, batera, “vascongadoak” garelako, “tenemos el derecho a conocer el euskera y el derecho a usarlo”.

Hots, desoreka horretan, euskarak ez du irtenbiderik. Eta argi eta garbi esan behar da⁶³.

2006an, Aralarreko hizkuntza-politikako lan taldeko kideekin batera euskaldunen komunitatea berregitea zela au-

63 Ibid.

kerakakarra aldarrikatu zuen. Honako konstatazio honetatik abiatuturik:

Euskaldunak bigarren mailako hiritarrak gara EAEn, hirugarren mailakoak Nafarroan eta mailarik ere ez digute aitortzen Iparraldean (...) Espainiako agintari moderno eta demokrati-ko askok ez dute praktikan betetzen estatuaren izaera eleani- tzaz esaten dutena. Euren konstituzioa ere ez dute betetzen, euskaldunon hizkuntz eskubideei dagokienez, besteak beste, Frantziakoek ordea, esan ere ez dute ezer esaten, ez sinatzen. *On s'en fout...* Gainera Nafarroan UPN boterean egonik, ho- rien neurriko hizkuntz politika jasaten dugu nafar euskaldunok ere; mespretxua eta probokazioa bata bestearen atzetik⁶⁴.

Beste honako dei hau egiten zuten:

Euskaldunen elkarteak, komunitatea berregitea ezinbestekoa da. Euskaldunei bereziki, baina euskal herritar guztiei oro har, euskal hiztunen aukera-berdintasunaren aldeko jarrera aktiboa areagotzera dei egiten diegu, baita eguneroko jardura guz- tietan euskaraz jarduteko aukera egitera, eta beharrezkoa den guztietan, patxadaz baina etenik gabe, gure herrian euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzera, horixe baita hizkuntz politi- karik eraginkorrena⁶⁵.

Horren ondotik, EAEko hizkuntza-politikari bultzada emateko hiru neurri proposatzen zituzten: 1. Administrazio publiko guztien jardunean hizkuntz politikak zentralitatea lortzea. 2. Administrazioak bermatzea herritarroi zerbitzu osoa euskaraz jasotzeko eskubidea, eta 3. Mahai bat osatzea

64 Txillardegi eta Mikel Basabe: "Euskaldunen komunitatea berregitea da aukera bakarra" in *Berria* 2006-07-01.

65 Ibid.

hizkuntz aukera-berdintasunaren alde dauden alderdi eta gizarte eragileekin, euskal hiztunok jasaten dugun diskriminazioari azkena emateko.

Hurrengo urtean, 2007an, 1982ko Euskararen Legeak 25 urte bete zituela eta, Txillardegik honako galdera hauek egiten zituen:

Zertan da euskara fameliaren alorrean? zertan da irakaskuntzan, zertan eskolan, eta zertan maila ertainean eta goikoan? zertan da gizarte giroa euskararekiko? zertan da euskara medietan, eta zertan telebistan oso bereziki? zertan ETB1an eta ETB2an? zertan da euskara lanaren eta ekonomiaren munduan? Eta, jakina, galdera multzo hori erantzuterakoan, hiru eskualde berezi behar dira. Hau da: zertan da euskara Iparraldean? zertan da Nafarroan? zertan Baskongadetan?⁶⁶.

Eta, zenbait arlo gaingiroki aztertu ondotik, honela amaitu zuen artikulua:

Baina, ororen gainera, gure iparra eskarmentu soziolinguistikoa duten herrietan jarri behar dugu: Belgika, Suomi, Kanada.

Hauetan gauza bat ikasi dugu ziur: eskubide pertsonalen gaineko Glotopolitikek ez dutela inon elebitasun orekaturik lortu, hizkuntza ahularen desagerpen isil eta legezkoa baizik.

Gure legeria ezagaturik, miraririk ezin itxaron, beraz.

Lurraldetasunik gabe irtenbiderik ez euskararentzat.

Eta Baskongadetan ere (Nafarroan eta Iparraldean ez aipa) lurraldetasunik ez dagoenez, euskarak etorkizunik ez duela aldarrikatu beharra dago⁶⁷.

66 “25 urte” in *Berría* 2007-11-23.

67 *Ibid.*

Orduan Belgika, Suomi eta Kanada; beste idatzi batzuetan, Eslovenia, eta Baltikoko Letonia eta Estonia jarri zituen jarraibidetzat hizkuntza-politikari zegokionez. Eta aztertu, berriz, askoz gehiago: Irlanda, Gales, Israel, Txekoslovakia, Katalunia...

Ezker abertzalean erreferente nagusia izan da arlo hone-tan, eta, erabat harturik, euskaldun kontzientziatu guztion-tzat.

4.4. Euskararen eta klase borrokaren arteko sartu-irtenak

1980an, *Punto y Hora* kazetak egindako elkarrizketan, euskararen aldeko borroka beste borroka motetatik ezin bereizia zela salatzen zuen:

La reivindicación del euskara es fundamental, porque el pueblo vasco sin euskara no existe (...) pero no está aislado del resto de la lucha ya que, evidentemente, la opresión lingüística es la expresión de la opresión nacional total que se ejerce en todos los planos, y por supuesto también en el plano económico, por lo que esa lucha presenta aspectos de lucha de clases (...) Aquí el español ha venido con la burguesía, con la clase dominante; y actualmente la burguesía, sobre todo la negurítica, es la clase más desvasquizada de este país. En definitiva la clase dominante ha actuado como otra superestructura más al servicio del Estado: paralela al aparato burocrático o al Ejército. El planteamiento lingüístico no tiene por qué ser, por consiguiente, un planteamiento tímido, “apolítico”, como se ha dicho muchas veces; sino que debe ser un planteamiento estrictamente político; y un planteamiento directamente condicionado por la lucha de clases. El euskera ha sido traicionado por la burguesía y por los jauntxos. Y hoy por el PNV (...)

Creo que el movimiento vasco ha arrancado un poco tarde, y esto por razones inevitables. Y encima hemos tenido la desgracia de que el planteamiento que ha hecho el PNV ha sido un planteamiento derechoso, conservador y folklórico. En este sentido creo que hacer un planteamiento serio, un planteamiento lingüístico de izquierda sigue siendo posible todavía; y es una necesidad inaplazable⁶⁸.

Eta euskara klase planteamenduan txertatzeari zegokioenez, ezker abertzalea zer fasetan zegoen galdetzean, honela zioen:

Las ideas de izquierda nos han venido a través de fuerzas políticas españolas y francesas. Incluso a través de sectores sociales españoles. Por ejemplo, todo el mundo sabe que el PSOE ha surgido en Vizcaya de medios de inmigración preferentemente. La verdad es que todavía la Izquierda Abertzale no es una izquierda que hace planteamientos autóctonos (...) La Izquierda Abertzale empieza ahora, pero por ejemplo, las contradicciones que se ven en los líderes de la Izquierda Abertzale y en sus organizaciones son índices de que todavía seguimos creyendo que se puede ser un hombre de izquierdas sin preocuparse del euskera; o a la inversa, que es posible preocuparse del euskera sólo, sin ser también un hombre de izquierdas. Creo que hay que evitar este dualismo.

Todavía pensamos, o piensan algunos, que lo lingüístico frena. Esto es falso. Nuestros militantes más duros provienen en general de las zonas con conflicto lingüístico. En Bilbao hay en proporción, diez veces menos militantes que en Ataun y que en Busturia por ejemplo; y además no se puede decir que los militantes surgen, sobre todo en zonas con conflictos de clase “puros”, siendo esto así, está claro que el problema

68 “Txillardegi a tumba abierta” in *Punto y Hora* 1980-06-4-13.

lingüístico aquí es fundamental, incluso desde el punto de vista de la dinámica y de la militancia (...) Por supuesto, hace falta un mínimo de conciencia; y, por consiguiente, un mínimo de cultura. La conciencia está ligada a un nivel cultural, y el nivel cultural supone un cierto alejamiento del mundo rural. Por ejemplo podemos ver la diferencia enorme que hay entre Etxalar y Lesaka; en Lesaka se da conciencia impresionante, y sin embargo, en Etxalar, pueblo rural en el que son todos euskaldunes y de caserío, hay poca conciencia política y nacional⁶⁹.

Kazetariak hori analisi kulturalista ez ote den zirikatirik:

Creo que el “culturalismo puro” es una injusticia. Creo que no se puede pedir a un pueblo que luche “por la lengua” y se olvide de todos los otros problemas. Creo que una persona que está oprimida tiene derecho a su liberación total. Dentro de esa liberación, desde luego, el afrontar las cuestiones del euskara al margen de la lucha política será inmoral, derecho, etc.⁷⁰.

69 Ibid.

70 Ibid.

5. NAZIO-ESTRATEGIA

KLASE-ESTRATEGIAREN GAINETIK

HERRI NAZIONALKI ZAPALDUETAN

60ko hamarkadatik hasita eta bereziki SESB desegin arte (1991), nahitaezkoa izan da euskal intelligentsian ere posizioen bat hartzea, zapalkuntza nazionalarekiko ez ezik, klase-zapalkuntzaren alderako, hizkuntza eta kultura zapalkuntzarekiko bezala esplotazio ekonomiko eta zapalkuntza sozialaren alderako, eta erregimen kapitalista eta komunistekiko. Txillardegirentzat ere gai arazotsua izan da, ahalegin intelektual handia eskatu diona eta testu asko idaztera bultzatu duena.

Izenburuan paratu dugun bezala, nazio estrategia lehenetsi izan du beti, eta marxismoa gizartearen analisirako bai onartu du, baina inola ere ez erlijio gisa, ez eta alderdi bakar totalitarioko erakunde bezala ere; marxismoaren alderdi horiek zorrotz gudukatu ditu, hainbat eta hainbat artikuluren bitartez.

Aldi historiko ezberdinetan jarraituko ditugu Txillardegiren ideiak alor honetan: ETAREN IV. Biltzarra baino lehen; ETA utzi ondotik, ESBren garaian, eta Herri Batasunan zegoela.

5.1. ETAREN IV. BILTZARRA BAINO LEHEN

1965eko uztailean egin zuen IV. Biltzarra erakundeak; Txillardegi orduan Bruselan zen, eta ez zen joan. IV. Biltzarretik V. Biltzarrera bitartean erakundea birfundatu egin zen (1965-1967), eta Txillardegik ahalegin handia egin zuen erakundea marxismo-leninismora lerra ez zedin. Hori bigarren partean kontatzen dugu⁷¹; oraingo honetan, ETAREN IV. Biltzarraren aurreko urte-bitarte labur hori izango dugu begi-pean (1961-1965), ezkerreko ideia aurrerakoiez den bezainbatean.

Hasteko, nazioarteari begira, gerra hotzaren garaian: ez komunismorik eta ez faxismorik zioen, manikeismo horiek hastio zituen: “*Franco o comunismo. Castro o fascismo. Kadar⁷² o fascismo, Salazar o comunismo. Civilización cristiana o comunismo*”⁷³.

Sinplekeria horiek gaitzesten zituen eta nardatzen zuten, zeren berak Demokrazian eta Askatasunean sinesten zuen, baina orduko demokrazia liberalak ezgai ziren askatasuna bermatzeko, eta ezgaitasun harixe egozten zion faxismoen eta komunismoen indarra. Eta arrazoiketa horretara etorrira, Yugoslaviako Milovan Djillas aipatzen zuen, haren liburua eta haren aburuak:

“La nueva clase” de que habla Djillas se parece enormemente a la clase de “enchufados” de la España franquista. Y

71 Ikus 2. parteko atal hau: “2. ETA erakundea uztea”.

72 Kadarren biografia luzea gure xedeetarako murrizturik, 1956an sobietarrek Hungaria inbaditzean, haien aldeko jarrera hartu zuena eta Txillardegik artikulua idatzi zuenean (1961) Hungariako presidentea. Hots, dikotomia horietan, komunista esatea bezala.

73 “Ni comunismo ni fascismo” in *Tierra Vasca* 1961eko abuztua.

es que donde hay un grupo inatacable en una nación, sea grupo económico, religioso o político, es decir, en cuanto surge un grupo inatacable (Falange, Partido Comunista o Iglesia), el hombre, por ley de mínimo esfuerzo, acaba adhiriéndose a él, sin entusiasmo, como lo hacían los moriscos conversos del odioso siglo XVI español (...) Donde sólo hay libertad para un grupo, la injusticia se implanta. Es éste el defecto definitivo de los comunistas y fascistas. Lo cual no quiere decir en modo alguno que para nosotros todos sean lo mismo⁷⁴.

ETAren kanporako agerkari zen *Zutik*-en artikulua bat eskaini zion Milovan Djillasi, Yugoslavian Tito mariskalaren hurrena zenari aginte mailan.

Haste-hastetik garbi uzten zuen M. Djillasek komunismoa kritikatzeko ez zuela liberalismoa goren: bera marxista gelditzen da liburu guztian, zioen Txillardegik; eta, gainera, honako hau aitortzen zuen Titoren hurrengoak:

Komunistak, asieran, burruka denboran, AGINTARITZA LORTU ARTEAN, zintzoak dirala. Edo, obeto esateko, fiñak eta egiazkoak sasi-komunistak baino geiago eta indartsuago dirala.

Gero, berriz, AGINTEA LORTURIK, itzuli egiten da egoera: eta sasi-komunismoa jabetzen da danaz (...)

Djillas'en liburua irakurri ala, zenbatetan gogoratzen dan irakurlea Franco'ren menpean gertatzen diran nagusikeriez. Djillas'ek, dana dala, sozialismo demokrataren alde itzegingo ez balu ere, irakurleak berak erabakiko luke ori. Komunismoaren akats nagusia (eta beste guzien iturburua) garbi baitago: AZKATASUNIK EZA⁷⁵.

74 Ibid.

75 "Usako" ezizenpean: "Milovan Djillas edo komunismoaren giltzarria" *Documentos Y*, 1. liburukia, 407.

1961ean, Parisen erbesteraturik zela, eta J.A. Agirre hil zenez geroztik, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren lehendakariorde zen Landaburu jeltkidearekin hitz-aspertuak egiten zituen, eta haren aiпуak biltzen zituen bere artikuluetara:

Gure Landaburu'k erderaz dioen bezela: “Entre los dos extremos –comunismo y franquismo– hay otra política también revolucionaria que, hay que confesarlo, no ha sido siempre ni en todas partes demasiado eficaz, porque no ha habido valentía ni sinceridad en cumplirla, pero es la solución que nos queda: progreso social sin matar la libertad”⁷⁶.

Ildo beretik, honela zehazten zuen askatasunaren eta justiziaren arteko lerro aski zehazgaitza:

Azkatasuna ez da ezer bidegabekerien iturria agorrerazten ez ba da. Baiña, asmorik onenak eta bertuterik aundienak il egiten dira, eta gaistakeri biurtzen, azkatasunaren faltaz nagitasuna Estaduaz jabetzen danean⁷⁷.

Hortik, haatik, zer ondorio atera daiteke? Landaburuk gizarte aurrerapena zioenean, zertaz ari zen?, kristau-demokraziaren programa sozialaz?, sozialdemokrazia motaren batetaz?

Txillardegiri dagokionez, sozialdemokrazia baino ezkererago kokatzen zuen bere burua 60ko hamarkadan.

ETAk bere Lehen Biltzarrean, besteak beste, ekoizpen arlo oinarritzkoen sozializazioa eta ekonomia nazionalaren planifikazioa galdegiten zituen. Hona hemen Iker Casano-

76 Ibid.

77 Ibid.

vak lehen biltzar hartaz egindako laburpena erreibindikazio politiko eta sozialei doakienez:

Reivindicaciones sociales: ETA reclama el fin del liberalismo y el reconocimiento de la dimensión social de la propiedad. Reclama la socialización de los sectores productivos básicos y la planificación de la economía nacional. Defiende la cogestión empresarial, con la primacía del trabajo sobre el capital y otras medidas sociales como el reconocimiento del papel de los sindicatos, la extensión de los seguros sociales y una política fiscal progresiva⁷⁸.

Letamendia *Ortzik*, berriz, honela zioen, besteak beste, ETAREN Lehen Biltzarreko printzipio-deklarazioa laburbiltzera etorrira, gizarte arazoaz:

ETA, en el área social, preconiza para el País vasco: [...] la calificación del Trabajo y Capital –tanto privado como público– como elementos integrantes de la Empresa, en cuya gestión y beneficios participarán proporcional y correspondientemente⁷⁹.

Ideietatik praxira etorrira, protesta eta borroka sozialetara, 1964ko ekainean, lanuzteak egin ziren Gipuzkoako enpresa askotan: CAF, Michelin, Papelera Española...

Txillardegik zoriontzen zituen grebalariak:

78 Casanova, Iker: *ETA 1958-2008 medio siglo de historia*, Txalaparta, 2007, 34-35 orr.

79 Letamendia, Francisco *Ortzik: Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, Ruedo Ibérico, Barcelona, 1977, 300 or. Laburpen horretan bertan, Txillardegiren ideiak oroitarazten dituzten beste hauek datoz: “...*la repulsa del racismo y, por tanto, de la primacía de superioridad legal de unos pueblos o razas sobre otros [...] ETA manifiesta su aconfesionalidad y la propugna para la constitución de Euskadi [...] ETA, en el orden de la cultura nacional, exige para Euskadi: [...] la proclamación del euskera como única lengua nacional*”. Garai hartan, 1962an, Txillardegiren ideiak eta ETAREN oso antzekoak ziren.

No podemos menos de felicitarlos. Aquellos tiempos en que el obrero vasco era explotado sin rechistar han terminado para siempre (...) La explotación continúa; pero hay resistencia⁸⁰.

Bi ikasgai nagusi ateratzen zituen lanuzte haietatik, aurrerago egingo ziren borroketarako baliagarriak: bata, grebak ez zirela denak aldi berean egin, eta guztien arteko koordinazioa behar-beharrezkoa zela: langileak euskal sindikatu klandestinoetan antolatu behar ziren, eta haien kontsignei jarraitu:

Hay que llegar al paro general simultáneo; y para esto se requiere que todos los trabajadores se encuadren, en la medida que permite la situación, en la Resistencia y sindicato vascos clandestinos; y sigan sus consignas⁸¹.

Eta, bestea, kaleratze, kontratu-etendura eta zapaltzailearen indar armatuei deitu izanak frogatzen zuen, beste behin:

Que el capitalismo vasco está vendido a los enemigos del pueblo (...) Invitamos a los capitalistas vascos a que cesen en su vergonzosa actuación contra nuestro pueblo (...) La ira se ha ido acumulando año tras año; y sólo una actuación HONESTA (es decir: favorable al derecho inalienable a la huelga) podrá impedir un día la explosión violenta de los trabajadores, provocada sin cesar por los traidores de hoy, y de hace 28 años⁸².

80 "Lecciones de la huelga" *Documentos Y*, 3. liburukia, 233-234 orr.

81 Ibid.

82 Ibid.

Grebarako eskubide besterenezinari bai⁸³, euskal sindikatu klandestinoei ere bai; eta hori kapitalistek langileen eztanda iraultzailea eragotzi nahi bazuten. Beraz, esan liteke langileen eztanda iraultzailearen alde ere ez zegoela.

Duela mende erdia, 1965ean, Bergarako Aberri Egunerako deia Txillardegik berak egin zuen *Zutik* agerkarietik. ETAk IV. Biltzarretik aurrera ezkerreago biratu baino lehentxeago, posizio ideologiko honetan zegoen Txillardegi:

Nuestra concepción del pueblo, que es la concepción progresista, ve en el pueblo un conjunto orgánico, y naturalmente representado por sus dirigentes espontáneos: intelectuales que viven de su trabajo, líderes sindicales, líderes políticos, etc. Estas cabezas o dirigentes populares son *parte orgánica* del pueblo; y no tienen sentido cuando se aislan de los procesos de producción y de la vida espiritual de la nación. Los dirigentes burgueses, los intelectuales burgueses, son enemigos del pueblo; están *aislados* de él por su oposición económico-social (...) Nuestra Patria Euzkadi pasará a manos de los trabajadores; la economía, la política y la cultura dejarán de ser un privilegio de clase, y estarán en manos de los dirigentes naturales del pueblo, de los líderes naturales y reales de la población de Euzkadi.

Pero –¡Cuidado!– este progresismo, esta democracia socialista que propugnamos para que Euzkadi sea la patria de *todos los vascos* (y no el Katanga de su burguesía), no nos impide afirmar sin ambages que somos patriotas, abertzales, nacionalistas vascos. Que somos un pueblo a ambos lados del Pirineo. Que no hay vasco-españoles, ni vasco-franceses. Que queremos au-

83 Txillardegik berak 1958ko martxoan “Resistencia”ren deiarri jarraiki greba egin zuen, orduan lan egiten zuen Donostiako Massé-reneko bulego teknikoan, eta kaleratu egin zuten. Harro zegoen berak “ezker-bataioa” esaten zion greba hartaz. Ikus: *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, 1994, 267-269 orr.

todeterminación; y que no pararemos hasta lograr, por su aplicación, nuestra independencia y unidad nacional”⁸⁴.

5.2. ETA utzi ondotik

Bigarren parteko bigarren atalean kontatzen dugu laburkiro zer-nolako idatziak egin zituen 1965eko azarotik 1967ko martxora bitartean, zer-nolako proposamenak egin zituen, bereziki bi alderdi abertzale sortzearena, bata komunista, marxista-leninista, eta bestea sozialista humanista, biak ala biak abertzaleak, eta biak fronte abertzalean batzea, fronte abertzaleak izan behar baitzuen nagusi eta ez klase-fronte espainolistak; baina, V. Biltzarrean planteamendu hori ez zen onartu, eta erakundea utzi egin zuen korronte sozialista humanista zutenekin batean.

Handik aurrera, sozialismoa eta marxismo-leninismoa modan jarri zirenean gurean, honela planteatu zuen bere lan intelektuala: batetik, kritika suntsigarriari zegokionez, marxismo-leninismoaren ideiak eta praxia hasi zen gudukatzen, hots, azaltzen Marxek eta Leninek-eta nola bigarren mailako garrantzia eman izan zieten nazio arazoei; horrekin batean, estalinismoak Errusian egindako bidegabakeria itzelak harrotzeari eta hedatzeari jarraitu zion –lehenago jugoslaviar M. Djillas; orain: errusiar A. Solzhenitsin, E. Ginzburg...); eta, kritika eraikitzaileari zegokionez, hausnartzeari ekin zion zein sozialismo mota izan zitezkeen egokienak guretzat, Frantziako zein sozialismo mota, esaterako...; eta ezin ahaztu Rikardo Arregirekin izan zuen polemika, sozialismoaren gaurkotasunaz.

84 Ibid.

1967ko apirilean erakundea utzi, eta ekainean bertan argitaratu zuen “El marxismo-leninismo y los problemas nacionales” izenburuko artikulua *Branka* aldizkarian. Garbi dago zer gudukatu nahi zuen: ETA marxista-leninista bilakatzea, gisa horretako alderdiek arazo nazionalak ez bultzatzeaz gainera, ulertu ere ez baitzituzten egiten:

Los comunistas argelinos (y los franceses, por supuesto) se opusieron al F.L.N., lo mismo que los comunistas vascos y los españoles, bajo la dirección de Dolores Ibarruri, se opusieron a la causa de Euzkadi. Lo mismo se han opuesto en el Kurdistán, en Quebec, y en todos los países en que la dimensión “anti-imperialista” de los tales movimientos nacionales no les parecía clara; hasta que, eso sí, por oportunismo aparentemente, han decidido subirse al carro de los que parecían ya vencedores inevitables a pesar de su “chauvinismo” (...) La tendencia de los comunistas a oponerse a los movimientos nacionalistas étnicos, calificándolos cómodamente de “burgueses”, es evidente.⁸⁵.

Leninek berak ere, nahiz eta Marxek baino jarrera hobeaz izan arazo nazionalekiko: “*Lenin no duda en defender abiertamente ciertas posiciones anticheckas de Marx*”, eta era berean marxista ugari aurki zitekeen hizkuntzari axola kentzen dio, hura gainegituratzat jorik:

No es difícil hallar asimismo docenas de autores marxistas que consideran la lengua como parte de la “superestructura”; con lo cual lo nacional, que tiene base sobre todo lingüística, queda automáticamente relegado a un nivel secundario, cuan-

85 “El marxismo-leninismo y los problemas nacionales” in *Branka* 1. liburukia, *Ediciones Vascas*, 1979, 284 or.

do no identificado al resto de la “superestructura ideológica burguesa” que la revolución debe barrer.

En cuanto a la cultura nacional, o a la nación misma, mal pueden ser defendidas como tales por los marxistas-leninistas, por la sencilla razón de que les parecen inexistentes⁸⁶.

Baina teoriak teoria, zer zioen praxiak, marxistentzat berentzat egiaren irizpide behin betikoa zen praxiak? Zer ondoriozta zitekeen 50 urteko esperientzia marxista-leninistetatik? Kultur tolerantzia onarturik ere:

Debemos resaltar también, en honor de la verdad que, incluso esa política de tolerancia cultural de las etnias, está muy lejos del paraíso fraternal, sin contradicciones nacionales, equilibrado y libérrimo, de que hablan los libros marxistas (...) En el terreno político, por otra parte, no se ha producido ningún caso de separación en ningún Estado comunista: el derecho teórico de las etnias a separarse (y cambiar de órbita política) no ha sido aplicado nunca (...) La “superación” de los problemas nacionales, a pesar de la tolerancia cultural y del socialismo científico, está muy lejos de producirse”⁸⁷.

Hainbat adibide jarri ondotik, ondorioak ateratzen ziotuen:

No solo hay pueblos divididos en diversos Estados en el mundo no comunista. Hemos citado ya el caso de los albaneses, repartidos en Albania y Yugoslavia. Existe el caso de los macedonios, en Bulgaria y Yugoslavia; de los húngaros de Yugoslavia y Rumania; de los rumanos, ya citados, de Ucrania; de los alemanes de Polonia y Checoslovaquia; etc, etc. No solo

86 285 or.

87 288 or.

los vascos estamos sometidos a Estados distintos según las zonas de influencia o de conquista (...)

Todo esto demuestra que los problemas nacionales están mostrando, en contra de las opiniones simplistas del marxismo-leninismo, una gran autonomía respecto a los problemas de las clases y del socialismo propiamente dicho; y que para su solución se requieren otras consideraciones y otras medidas⁸⁸.

Artikulu hori 1967ko ekainekoa da; urte bereko uztail-abuztu eta iraileko *Tierra Vasca*-ren aletan argitaratu zuen “*Soljenitsyne’ren Arazoa*” izeneko artikulua. Honela hasten zen:

Euskal Herrian marxismoa modan dago. Horra hor handik datozen adiskideek jakiñarazten digutena, horra hor “Zeruko Argia”n irakur ditekeana, horra hor, zenbait erakundez nagusitu dana, horra hor, hitz batez, giro bat. Horra hor, beraz, moda deritzana⁸⁹.

Moda horrek gazteria erakarri egiten zuen, eta Txillardegirentzat ez zen umekeria, ez eta berez sortua, baizik eta Espainiako Alderdi Komunistak eragindakoa: “*España’ko P.C.ren nahia eta eragin zindoa baitago. Eta hau ikusi nahi ez izatea, argia ikusi nahi ez izatea da*”⁹⁰. Beste bi eragile ere

88 290-291 orr. Garbi dago gauza hauetaz erabat ezjakin garela egun ere –historialariak alde batera–, Txillardegik horiek idatzi eta kasik 50 urtera, nahiz eta gaur ekialdeko Europakoak etxean ditugun. Hernanin bertan bada emakume bat behintzat, errumaniar nazionalitatea duena, guk espainiarra edo frantsesa bezala, eta etnia aldetik hungariarra dena, ama-hizkuntza hungariara duena. Baina ez da zozo zuria, milioi eta erdi inguru baitira halakoak; emakume horren izaera baino gure ezjakintasuna harrigarriagoa da; estatuek, sozialistek nahiz komunistek, nazio etnikoekin izan duten jokabidearen adierazgarri. Txillardegik duela mende erdi jakinarazia!

89 “Soljenitsyne’ren Arazoa” in *Tierra Vasca* 1967ko uztaila.

90 Ibid.

bazituen delako moda horrek; bata, Francoren erregimenaren eragina, eta bestea, Euskal Herriko burgesiaren jokabide lotsagarria; eragile horiengatik guztiengatik euskal gazteria prest zen komunismoari “xeru-xeru” jokoak egiteko ere, eta Txillardegi bera ez; bera sozialista zen, baina ez inondik inora marxista-leninista, eta Eugenia Ginzburg errusiar idazlearen *Le Vertige* liburua irakurtzeko gomita egiten zien euskaldun gazteei, komunisten praxiaz jabetu zitezen:

Zer kondatzen du Eugenia Ginzburg'ek? Stalin'en garaieko kanpoetan gertatzen ziran izugarrikeriak; poliziaren galdeketak, bost egun eta bost gauetz segidan egiñak, ezertxo ere jaten eta edaten eman gabe, eta lo-kuluskarik batere egiten utzi gabe (...) Hau ez du Eugenia Ginzburg'ek besterenetik atera, berak hemezortzi urtez pairatu baititu Siberia'ko sofrikariak. Are gehiago: Eugenia Ginzburg komunista zan, eta komunista egon da hori guziaz jasanda gero ere. Bere lekukotasunak, beraz, balio neurrigabe bat du danontzako. Baita komunistentzako ere (...) Partiduko “fededunek” berek heriotza edo 18 urte Siberia'n merezi baldin badituzte, nor salba diteke “demokrazia” Siberi-koi hortan?⁹¹.

Ginzburgengandik A. Solzhenitsinengana eginez, afera horrek erakusten zuen:

1917-ko erreboluzioa gertatuta 50 urtetara, Errusi'ko idazle batek ezin dezakeala oraindik egia esan, zentsura behin eta berriz jasaten duela, Stalin'en garaietan bezelaxe. URSS'eko idazleak loturik daudela, eta Idazleen Alkartasun legezkoa ez dala ezer, P.C.ren tresna leial eta itsu bat baiño. Berrogei ta

91 *Tierra Vasca* 1967ko abuztuko alean. Aurrekoaren izenburu bera.

hamar urte pasa ta gero, politziak eta administrazioak erabakitzen dute zer argitara ditekean eta zer ez⁹².

Ehunka idazle galdu ziren nonbait Errusian, erbestean, kontzentrazio zelaietan eta kartzeletan. Errusiako idazleen XX. Biltzar Nagusiak 600 idazleren galera onartu bide zuen, baina Solzhenitsinek gehiago zirela uste zuen, eta, azaltzen zuenez, intelektualen egoera ez zen batere aldatu, hots, ez zuten askatasunik erregimen sobietikoa laudatzeko baino.

Iraultza sozialistaren sehaskan, iraultzatik mende erdia iragana zela, idazle eta intelektualek askatasunik ez zutela salatu ondoan, bere posizioa finkatzen zuen Txillardegik: ez sozialdemokrazian, eta ez komunismoan, baizik eta sozialismoaren alderantzago. Irakur ditzagun haren hitzak:

Sozial-demokraziak sozialismoa alde batera utzi du hein batean bederen. Bigarren Internazionalaren partiduak guk pittin bat ezagutu ondoren, ez gera ez Wilson [garaian Ingalaterrako Alderdi Laboristako burua, eta lehen ministro] eta ez Spaak'en [Belgikako Alderdi Sozialistaren burua izana eta Belgikako gobernuan egona] alde agertzeko gertu. Daniel Mayer, Depreux, Mendès France [Frantziako Alderdi Sozialista Bateratuko (PSU) buruetarik; 1968ko maiatzean ere horien jokabidea goratuko du], Tito [autogestioaren eta federalismoaren, eta herrialde ez lerrokatuen aldeko], Russell [sozialismo gremialaren aldeko], horra hor zenbait aldetatik ongi ikusten ditugun sozialistak. Agintean dauden sozial-demokraziak eta sozialismoa bi gauza desberdin zaizkigu.

Baiña komunismoa 1967-an soluzio eta helburu bat izan ahal diteke Euskal Herrian? 1967-an jokatu ahal dugu 1867-an biziko bagiña bezela? (...)

92 Ibid.

Euzkadi Askatuta nahi dugu, Euzkadi Euskalduna nahi dugu, Euzkadi Sozialista nahi dugu. Horra hor gure helburuak.

Horregatik diogu gure bidea geuk aurkitu behar dugula, mogimendu euskaldun eta sozialista bat zindoki mamituz eta sendotuz. Eta helburu horri buruz, ez digutela Marx'en liburu "sokratuek" bidea erakutsiko, Euskal Herri'ko gogoak eta azken urteetako kondaira garratzak baizik⁹³.

Urte berean izan zuen Rikardo Arregirekiko polemika. Eta, jakina, honainokoan jada irakurriak dizkiogun ideiak eta ikuspegiak baliatu zituen andoaindarrari buru egiteko. Nola *Tierra Vasca*, *Zutik*, eta *Branka*-n adieraziak zituen, Hegoaldeko askok estreinakoz irakurriko zituzten *Jakin*-en segur aski, eta polemikaren oihartzuna eta eragina handiagoak izan zitezkeen.

R. Arregik euskal belaunaldi gaztean garai hartan marxismoarekiko zeuden jarrerak lautuan banatu zituen, eta garbi agertu zuen bere burua non zekusan: marxismoarekiko irekien artean, Marx birpentsatu behar zela uste zutenen artean, hots, errealitatea aztertzeke baliatu behar zela bai, bai-na ez dogmatikoki, marxologoen egin ohi zuten bezala, edota marxismoa bigarren mailan ipini, euskaldun esentzialistek edota sasimarxistek bezala. Aditzera ematen zuen sozialismoa zer zen; sozialdemokrazia gaitzetsirik, haren ezkerrean paratu nahi zuen, irtenbideren bat idoro; klaseak badirela gizar-tean, eta klaseen arteko borroka badela ezin ukatua dela, eta:

Herri bakoitzak sozialismorako bere bide egokia izatea de-
rigorrezkoa da, baiña naziotasuna klasearen batasunetik kanpo

93 *Tierra Vasca* 1967ko iraileko alean. Izenburu bera.

pentsatzea sozialista joera batean inola ere onartu ezin ditekena da. Ez da honekin [esan nahi] errealdade batzuek, egin-behar batzuek besteak baiño garrantzi aundiagorik ez dutenik, hoiek danak politika arazoetan klasearen batasunetik kanpo aztertzea ta erabiltzea berebiziko arrisku aundi bat da. Sozialista politika batean ezin ditezke nazioa ta gaiñontzekoak lehendabizi jarri; ta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Klasearen batasunaren barruan egin behar dira planteamentu hoiek⁹⁴.

Txillardegi, alde batera, herri bakoitzak sozialismorako bere bidea hautatu behar zuelako horrekin bat zegokeen, baina inondik ez, nazio planteamenduak klasearen batasunaren barruan egin behar zirelako horretan, eta horrekin batean, bizitzan leku hauta eta gorena klase planteamenduei ematearekin ere ez:

Marxismoa modan omen dago gure artean: hau zion aurtemehin “JAKIN”-en Rikardo Arregi adiskideak. “Zaharrak berri” ote? Orain dala gutxi bete dira I.’ngo Internazionalaren ehun urteak. Marx’en eta Engels’en “Komunista Agiria” orain dala 119 urte argitaratu zan; eta Karl Marx oraindik bizi balitz, 149 urtetako senton zahar bat izango litzake. Marxismoa, hortaz, gure herriak gauza “berri”tzat gaur hartzea, gure arlotekeriaren neurria da. Marxismoa bete-betean XIX-garren mendeko asmakaria da, eta zenbait aldetatik ezaguera klasikoan sar ditekete. Horregatik, eta batez ere Europa’ri gagozkiolarik, “marxismoa modan egon zan” esan behar da; eta ez “marxismoa modan dago”⁹⁵.

94 “Sozialismoa modan dago” in *Jakin*, 1967, 24. zk., 38 or.

95 “Marxismoa modan egon zan” in *Jakin*, 1967, 26. zk., 3. or.

Komunismoa pertsona baten tirania bihurtu izanaren gainean, ondorio honetara heltzen zen Txillardeggi:

Askatasun “burgesa” ukatzean (eta askatasun burgesa egiazko askatasuna ez dala ez dut nik behin ere ukatuko!), eskuak libre uzten zaizkie Beria eta Jezzoff guziei. Legeak gehiegi-keriak frenatu beharrean, azkartu egiten ditu U.R.S.S.-en eta Txina’n, eta “Langilleriaren Diktadura” dala-ta, stalinismoa sortzen da, eta derriorez sortu nere ustez: pertsonarik balio-tsuenak gailendu beharrean, koldarrenak eta oportunistenak nagusitzen dira. Erreboluziolarien ondoren, funtzionarioak datoz. Sozialismoari teknokrazia nagusitzen zaio, eta gizonen eskubideei teknikakeria. Nola dei liteke hori sozialismoa? Marx’en joera ikusita, Bakunin’ek orain dala 100 urte igarri zuen hau guzia; eta esaten omen zuen, iseka modura: “Marx, alemana eta judua dan ezkerro, diktadore eta larderiakoia da leporaiño”. Anarkisten eta komunisten arteko hartu-emanak ez dira geroztik larregi goxatu...⁹⁶

Jarraian, intelektual kritikoak komunismoan gorriak ikusten ari zirela frogatzen zuen datuekin. Lehenago *Tierra Vasca*-n salatuez gainera, oraingoan Ekialdeko Alemanian bizi zen Arnold Zweig-en arazora mugatuz:

Eta Ekialdeko Alemania’n Arnold Zweig’en arazoa dago aurten. Arnold Zweig, berriz ere, ez da atzerakoi feudal bat, eta ez gutxiagorik ere: Lenin Saria du, Nobel Sariaz gain. Dena arriskatuz Ulbricht’en gobernuaren kontra hitzegin du joan dan udaran: “Hobe da hiltzea, erbi bat bezela bizitzea baiño. Zer egin ote dizaidakete? Ez naute ez hilko, eta ez gartzelara eramango, begirunea galduko bailuteke hori egingo balute”... Zweig’ek juduen kontrako herra salatu du bere agintariengan,

96 12 or.

eta guztiz agertu da Israel'en alde (Frantzia'n Sartre bezelaxe, bestalde). Arnold Zweig'ek, noski, Alemania'tik mogitzeko aukera galdu du. Eta abar, eta abar. Komunista erresumetan intelektualik gehienak, beraz, sozialismoa onarturik ere, erresumaren moldea arbuiatzen dutela ukatu nahi izatea, fanatismoa eta itsukeria litzake; bestela dala jakiteko kasetak irakurtzea besterik ez baita behar! Marxismoa eta komunismoa ateka gaisto batean daude, eta ez modan. Rikardo Arregi'ren iritzia, hortara ("ideologiaren barruan ere askatasun aundiagoa" sortu dala esaten digunean), oso harrigarria zait; zeren-eta Stalin'en astakeriak, basakeriak eta neurririk gabeko hilkintzak urruti badaude ere, komunista alderdien diktadura eta ezpain-hestukeria lehen bezin gogor daudela nabarmen baitirudi⁹⁷.

Munduaren kondaira klase-borroka hutsera erreduzitu nahia salatuz amaitzen zuen artikulua:

Munduaren Kondaira, marxistek besterik esanagatik ere, ez da klase-burruka hutsaren kondaira hutsa. Klaseak ba daude, bai; baiña kulturak ere ba daude, sexoa ere da bago, biologia ere ba dago, geografia ere ba dago, pertsonen heriotza eta bizi nahia ba daude, eta etniak ere bai. Hauek guziak batera biltzerik ez dago. Mundua hori baiño zaillagoa da, ulertu eziña gaur gaurkoz. Denok dugu egia-egarria; eta egarri legor hori dugulako hain zuzen arbuiatzen ditugu marxismoaren absolutukeria, xinplekeria eta sasi azalpen batzuk. Munduaren eta Kondairaren kakoa osorik daude gaur beltz eta illun gure aurrean. Ni bederen, marxismoari buruz, marxista-ondokoa naiz, post-marxista osotara, eta ezin nindeke besterik izan. Aitortzeaz ez naiz lotsatzen. Eta ez dut, bestalde, nere burua marxismoaren arabera ikusten: marxismoaren problematika bera arrotz zait. Gizonaren kakoa ez da, nere ustez, ez marxismoa, eta ez mar-

97 16-17 orr.

xismoaren problematika bera. Marxismoa, funtsean, alienazio hutsa iruditzen zait.

Rikardo'ren ondorioak, hortaz, ez ditut inñolaz ere onartzen. “Sozialista politika batean –dio gure adiskideak– ezin ditezke nazioa ta gainontzekoak lehenbizi jarri; ta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Klasearen batasunaren barruan egin behar dira planteamentu horiek”. Bartzuk erantzun hau emango lioteke Rikardo'ri: “naziotar politika batean, ezin ditezke klasea ta gainontzekoak lehendabizi jarri; eta gero abertzaletasunari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Nazioaren batasunaren barruan egin behar dira planteamentu horiek”. Guztiz oker emana? Ez horren oker, nik uste⁹⁸.

Honaino marxismo-leninismoa maila teorikoan, eta batez ere praktikokoan jorratzen ikusi dugu Txillardegi; euskaldunen artean marxismoa boladan zela-eta marxismokeria eta ezkerkeria kritikatzeko ere bai, baina ETA utzi berritako idatziak iruzkintzen ari garen atal hau herren utziko genuke, Espainiako ezkerkerari eskainia jasoko ez bagenu. Izenburuak salatzen du nondik nora zebilen: “La evolución del imperialismo español en Euzkadi”.

Ezker espainiarrak eta frantsesak Euskal Herriaren aldera jokatutako paper historikoaren sintesi honekin abiatzen da:

Las “izquierdas” españolas y francesas, han sido en general más anti-vascas que las derechas: fueron los gobiernos liberales de París y Madrid quienes, en nombre de planteamientos abstractos sobre la Libertad, destruyeron nuestra libertad concreta foral; y quienes en nombre de la “unidad del Estado” destruyeron la unidad sociológica del Pueblo Vasco, contra la que se

98 18-19 orr.

lanzaron abiertamente. Durante el período 1931-1936 los socialistas y comunistas del P.S.O.E. y P.C.E., so pretexto de anti-racismo y de anti-vaticanismo, frenaron hasta el fin, y tanto como las derechas, el movimiento popular vasco en pro del Estatuto de Autonomía (...) Inscribiéndose así el anti-vasquismo “izquierdista” actual en una extensísima sucesión de intentos imperialistas de la más pura tradición chauvinista, la nueva ola “marxista” que el imperialismo hispano ha exportado a Euzkadi merece con todo un estudio aparte (...) por presentarse esta vez teñida de una terminología aparentemente socialista y anti-burguesa que la hace más atractiva a muchos compatriotas, deseosos, como nosotros, de igualdad real de oportunidades, de democracia económica y, en suma, de socialismo⁹⁹.

Azterketa oinarritzen zen Euskadiko Alderdi Komunistaren *Arragoa* kazetan argitaraturikoan eta FLPren euskal adarra zen ESBAren Deklarazio Fundazionalean, *Branka*-n argitara emandakoan. Bi korronte horien funtsa berbera zen Txillardegiren iritzian:

La nación vasca no existe, el país vasco es una región española. Esta doble afirmación, nunca formulada por popular, es el fondo de la cuestión. Los comunistas del P.C. de “Euzkadi” y los felipistas de ESBA-Berri no pueden creer que exista realmente un problema nacional vasco, como lo había en Finlandia o en Polonia. A pesar de sus esfuerzos por comprender lo que ocurre ante sus ojos, su chauvinismo español inconsciente les lleva inevitablemente a ver en el problema vasco un *estricto problema interno español*¹⁰⁰.

99 “La evolución del imperialismo español en Euzkadi” in *Branka* 1968ko otsaila, Ediciones Vascas, 350 or.

100 351 or.

Artikuluia luzea da, eta xehetasun ugarikoa. Ez gara luzatuko, artikuluaaren amaiera emango dugu bere horretan:

El análisis científico y objetivo de la Historia demuestra que no hay Liberación Nacional sin Frente Nacional. *No habrá*, por consiguiente, *libertad nacional vasca sin frente nacional vasco*. Y sin libertad nacional vasca no habrá socialismo ni en Euzkadi ni en España; porque no se edifica el socialismo *contra* los pueblos, sino en *favor* de los pueblos; no se edifica el socialismo sobre territorios anexionados por la fuerza y mantenidos por la alienación sistemática de sus poblaciones; no se llegará al socialismo porque las nacionalidades ibéricas oprimidas no abandonarán la lucha mientras sus derechos nacionales *a la independencia total* no sean satisfechos. ESBA-Berri y el P.C.E., por tanto, luchan objetivamente *contra la liberación nacional de Euzkadi y contra el socialismo*¹⁰¹.

Berdintsu zioen garai bertsuan *Tierra Vasca*-n:

Modako ezkerkeria hori (erdalzale ezkerkeria hutsa, marxismoaren hiztegian diximulaturik) salatu egin beharra dago (...) oraingo sasi-marxismo eta erdaldun sasi-sozialismo horiek oso dira kaltegarriak gure herriarentzat, eta guztiz onartu eziñak, sozialismoak gure herrian euskalduna izan behar baitu sozialista izateko, Kataluña'n katalana izan behar duen bezelaxe¹⁰².

101 363 or.

102 "Euskal Arkeologiatik erdal sasi-sozialismora" in *Tierra Vasca* 1968 urtarrila.

5.3. 1968ko udaberria Parisen eta Pragan

Ekonomia aldetik hazkuntza urteak izan ondotik, krisiaren lehen zantzuak hasi ziren agertzen 1967-1968 inguruan, Europa Mendebaldean. Hippien mugimendua gogora ekarri behar da, kontsumo-gizartearen aurkako mugimendua, sexu-askatasunaren alde, Viet Nam-eko gerraren aurka. Aurreko urtetik zebiltzan ikasleak protestan, baina 1968ko martxoan eta apirilean areagotu ziren istiluak, eta maiatzean lehertu, unibertsitateetako estudianteei langileak eta sindikatuak-eta batzean; 9.000.000 langiletik gora atera ziren kale-ra, eta De Gaullek hauteskundeak ekainera aurreratu behar izan zituen. Hori Europako herrialde kapitalista batean.

Europa Ekialdeko herrialde komunista batean, berriz, 1968ko urte hasieratik Txekoslovakian, Novotny-ren ondotik, Alexander Dubcek izendatu zuten buruzagi, eta erregimen komunista liberalizatzeko neurriak hartzen edo toleratzen hasi ziren.

Euskal Herrian ETA ekintza-errepresioa-ekintzaren espiralean abiatu zen, Pardines guardia zibilaren eta Txabi Etxebarrietaren hilketekin.

Urte giltzarria izan zen Europa Mendebaldean eta Ekialdean, eta Euskal Herrian ere bai. Eta Txillardegi ez zen lotan egon, biak txalotu eta goretsi zituen, bai Pariseko Maiztza eta baita Txekoslovakiako udaberria ere, eta deitoratu eta gogor salatu zuen Varsoviako Itunaren mendeko 500.000 soldaduk 1968ko abuztuan Praga indabitu eta askatasun politikoranzko udaberria negu bihurtu izana.

Parisen 1968ko martxoaren azkenaldera estudianteen artean izandako istiluen kariatara, Sartrek mintzaldia egin bide zuen, eta intelektual erreferente nagusietariko bat izan zue-

nak esandakoak jaso eta hedatu zituen Txillardegik *Tierra Vasca*-n, sozialismoa eta askatasuna bereizezinak zirela berresteko: “*Socialisme et liberté sont inseparables*”¹⁰³.

Artikulu horretan aditzera ematen zuenez, gakoa horixen Parisko eta Frantziako gertaeretan, eta beste horrenbeste Pragako aldakuntzetan: askatasuna eta sozialismoa banaezinak. Eta honela jarraitu zuen Sartrek:

“La dictature du prolétariat cela veut souvent dire la dictature sur le prolétariat”. Alegia: “Langillieriaren diktadura, askotan, langillieriaren gaineko diktadura besterik ez da izan”. Eta gure bihotza poztu egin da berriz. Ba zan garaia horrelakorik ezker aldetik entzuteko; eta, batez ere... ezkertar gazteriak eta “intelligentsia”k goratik txalotzeko¹⁰⁴.

Horrekin batean, bere posizioa finkatzeko baliatzen zuen.

“Sozial-demokrazia” izenekoa, zenbait aldetatik xuxenki jokatutik ere, urteetan zehar ezinduta egon da, eta usteldu; eta gaur gairiditua dagoela esan behar da.

Herri aurreratuetan, hortara, *sozialismo berri eta ezkertar* bat sortzen hasia da. Eta sozialismo-mota horren indar nagusia Sartre´k berak ezagutarazi du garbikienik: askatasunaren osatzaillea eta gerizatzailea da. Sozialismo horren moldakuntzan ari gera gu ere¹⁰⁵.

Tierra Vasca-ren ale berean, ildo bereko beste artikulu batean, sozialismoaren nolakotasunari buruz ziharduela:

103 *Tierra Vasca* 1968 apirila.

104 Ibid.

105 Ibid.

Ba dakigu askatasun hori sozialismoaren etsaiek erabilia izan ditekeala: burgesiak ez ditu bere maukak goxo-goxoan laxatuko. Baiña askatasun-segurtamenik gabe, herriak ez du arrera joko, ez baitu sasi-sozialismo hortan siñistuko (...) Askatasuna, alkar-eramana, autogestioa, pluraltasuna, federalismoa: horra hor gure herrian gidaritzat hartu beharko genituzkean xedeak, horra hor GIZATAR DEMOKRAZIA bakarraren guna. Horra hor, beraz, gu euskaldun sozialiston lema sozialismorako bidaian¹⁰⁶.

Tierra Vasca eta *Branka* ez ezik, *Zeruko Argia*-ren plaza ere bazerabilen sozialismoari buruzko ideiak plazaratzeko, 1968ko maiatzaren biran. Zenbaitek estudianteak beti istiluzaleak izan ohi direla esanez gutxiesten bazituen ere protestak, Txillardegirentzat fenomeno larri baten aurrean zeuden, eta, politikari zegokionez, ezaugarri nagusia zen ezker berri bat sortzen ari zela:

Mundua guztiz ezesten duen gaztedi sutua, Praga'n eta Paris'en, ikasleetan eta intelektualetan, burges erresuma batean eta sozialista erresuma batean batera, ez dala marxismo-leninismo ofizialaren barruan sortu (...) *arras at eta kontra* baizik. Beste hitz batzutan: Praga'n eta Paris'en marxismoaren krisia gelditu da nabarmenenik (...) Gaurko burges soziedadea desegin nahi da han eta hemen: baiñan askatasunean, pluralismoan, autojestioan, autonomian, federalismoan, behetik gorako demokrazia egiazko baten bidez. Bakunin piztuko balitz, ba luke zertan pozturik... Marx bera da koloka dagoena; eta Lenin guztiz gainditua. Ez dakigu gaur (Maiatzaren 19-an) Frantzia'ko gertaerak zertan geldituko diran. Egoera larria da. Pompidou'ren gobernuaren egunak azkenetan daudela dirudi; eta beharbada ezkertar aginte bat nagusi dakioke De Gaulle'ri

106 "Euzkadi sozialista nahi dugu" in *Tierra Vasca* 1968ko apirila.

berari. Garrantzi haundia luke hunek Europa'ko etorkizunera-ko, eta sozialismo berri baten garaitzapenerako. Edo-ta ere, ba dute Euskal Herri'ko intelektualek zertaz gogoeta egiñik (...) Gauza bera Praga'n Mosku'ri buruz (...) Gu guzion eskuetan dugu, beraz, geure soziedadeak behar duen sozialismo-mota berria asmatzea eta eraikitzea. Praga'ko eta Paris'ko gertaerak, hortaz, itxaropen-iturri oparo bat izan dira guretzat¹⁰⁷.

Txillardegiren ezkertasunaz, sozialismoaz, zalantzak uxatzeko balio dezakeen artikuluetako bat da. Frantzian artean garbi ez zegoenean, 1968ko maiatzaren 19an idatzia, zertan geldituko ziren protestak, gobernuaren erori eta beste mota bateko erregimen sozialista nagusitzea posible ikusten zenean –De Gaullek bozetarako deia maiatzaren 30ean egin zuen; ekainaren 23 eta 30ean egin ziren, eta De Gaulleren alderdiak irabazi–; eta aldi berean Moskuren orbitan zegoen Txekoslovakian ere aldaketa gertagarri ikusten zenean, Txillardegiri guztiz bat zetorren, European sozialismo autogestionario, federalista eta alderdi bakarraren diktaduratik urrun zegoena ezartzeko aukerarekin, eta itxaropentsu.

Nazio ikuspegitik Lizarra-Garazi hitzarmenak sortu zion itxaropen gehien (1998), eta ezker aldetik, berriz, 1968ko Maiatzak.

1968ko ekainean, hauteskundeak baino lehentxeago; haiek De Gaullek irabaz zitzakeela zabaldua zela, eta maiatzean izan zen iraultza giroa jada itzalia zelarik, eta ordurako maiatzeko gertaerei buruzko liburuak plazaratzen hasiak zirela, Alderdi Komunista jotzen zuen iraultzak ez garaitu izanaren errudun nagusi, Waldeck Rochet komunistarengan

107 “Praga'tik Paris'a” in *Zeruko Argia* 1968-06-09. Berak dioskunez, maiatzaren 19an idatzia.

ardazturik kritika horiek; eta, aitzitik, P.S.U. delako alderdi-ko Mendès France jotzen zuen politikari gailen, egoeraren ulertzaile nagusitzat:

Zernahi esanik ere Komunista Alderdiak kapitalismoaren sistema onartu du; eta huntan “sozial-demokrazia”ren bide bere-
tik abiatu da. Mao-zaleek, trotskistek, eta Herbert Marcuse’k
gauza bera zioten huntaz aspaldidanik; eta iritzi hori ez zen
garbi agertzen. Gaur, Frantzia’ko gertaeren ondoren, zalantza-
rik ez dago: Komunista Alderdiak ez du Frantzia’n errebolu-
zioa nahi. Ez omen dago hortarako girorik; baiña gauza bera
esan zioten Mao’ri eta Castro’ri. Erreboluzioaren bildur da,
edozein eskuindar bezelaxe (...) Cohn Bendit’ek, Sauvageot’ek
eta Geismar’ek erreboluzioa aipatu duten momentuan, Wal-
deck Rochet eta Séguy komunistek soldaten emendatu-beha-
rra aipatu dute. Ikasleek egoerari “ez” esan diotenean, Komu-
nista Alderdiak “bai” esan du: “soziedade-mota hau ongi da,
baiña parte haundiagoa nahi dugu”...Harrigarriena Waldeck
Rochet’en esaera izan da halere: “Le parti communiste est un
parti d’ordre”. Zein ordenutakoa? Burgesiaren desordenua,
beraz, ordenua da? Eta ordenu-partidu izan diteke kapitalismo
betean? Ez da hau Frantzia’n bakarrik gertatu. Italia’ko komu-
nistak illunpe betean daude¹⁰⁸.

De Gaullek ezker erradikalak debekatzeko agindua eman
zuen, eta Mitterrand, Mendès France, Daniel Mayer, Rocard
aurka agertu ziren, eta Alderdi Komunista alde. Nork jakin
zuen, baina, Frantzian “gertaeren mailan” egoten?

Partidu bakar batek erakutsi du Frantzia’n gertaeren mai-
llan egon ditekeala: P.S.U. dalakoa; eta politikari bakar bat

108 “Cohn Bendit eta Waldeck Rochet” in *Zeruko Argia* 1968-07-28. Baina ekainaren
23a baino lehen idatzia.

gailendu da, egoera berriaren ulertzaille: Mendès France. Gainerakoak? Ez dira ohartu ere sozialismoak galdu duen aukera ederraz; eta ez bide dira iñoiz ohartuko¹⁰⁹.

Handik berehalaxe beste artikulua bat, Herbert Marcuseren ideia batzuk jakinarazteko. Marcuseren marxismoaz zenbait argibide eman ondotik, haren ikuspegi nagusiak aletzen zituen. Labur beharrez, ikuspegi horietara etorritik, marxismo ofizialaren ustez, kontraesan nagusia Burgesia-Langileria bazen, Marcuseren ustez, ez:

Langileria “etxekotu” egin da “kapitalismo berrian”, egokitu egin da, “integratu”; eta ez du erreboluzioa nahi, soziedade hortan parte haundiago bat baizik (...) Bi indar, bi giza-sail, bi gizarte-talde ikusi ditu Marcuse´k (langabeak berex utzirik), neo-kapitalismoaren giroan ukatzaille eta ukatuak, eta erreboluzio-iturri beraz: intelektualak eta ethniak (...) Marcuse´ren iritzi horren arabera intelektualak izan ditezke gaur sozialismorako bidean indar nagusi bat.

Ethniei buruz, berriz, Marcuse´k ez du uste “gaur-gaurkoz” sozialismoaren oiñarri bat gerta ditezkeanik, eginkizuna garbi ikusten ez dutelako; baiña kapitalismo-berriaren sisteman egokitu edo integratu ez diran ezkerro, zapal dutako ethniak eta arrazak izan ditezke sozialismoaren eragillea: “minorités raciales et nationales” dio Marcuse´k.

Sozialismorako bidean, beraz, intelektualak eta ethniak somatzen ditu Marcuse´k eragille; eta gero eta konfiantza txikiagoa bide du komunista alderdian eta langillerian bertan¹¹⁰.

Argitasun horiekin batean, euskal intelligentsiako zenbaiti ziri zorrotza sakatzen zien:

109 Ibid.

110 “Herbert Marcuse´ren ideia batzuk” in *Zeruko Argia* 1968-08-11.

Gure arteko eskolastiko harrigarri batzuk, ordea, abittua gainean ez gutxitan, hor ari dira jo-ta-ke, inork sinisten ez di-tuen lelo zahar eta hitsak bazter guzietan erein nahiz. Alperrik ari ere!¹¹¹

Hori Mendebalde kapitalistan. Eta Txekoslovakia ko-munistan? Abuztuaren 20ko inbasioa baino lehen, zehaz-ki, abuztuaren 3an gertatu ziren Bratislavako elkarrizketak: SESB, Polonia, Bulgaria, Alemaniako Errepublika Demokra-tikoa, Hungaria, eta Txekoslovakiaren artean, eta biharamu-nean idatzitako artikuluan, itxaropentsu ageri zen hango be-rriez:

Bart bukatu ziran Bratislava´ko alkarrizketak. Barneko po-litikari dagokionez, “beren bidea” hautatzeko baimena lortu bide dute txekoslovakiarrek; eta Askatasunerako bideari eki-teko asmoa dutela jakinarazi dute Dubcek´ek eta Svoboda´k. Beharrik! Sozialismoaren etorkizuna Belgrado´n eta Praga´n jokutzen baita; ez Mosku´n, ez areago Pekin´en. Ekialdeko bost “ortodoxoak” ez dira bigarren Budapest bat egiten au-sartu. Marxismo-leninismoari buruzko “heterodoxiak”, beraz, gora doaz; eta “ortodoxiak” behera. Hunen ondorioak ezin la-riagoak izango dira ondoko urteetan sozialismoarentzako; eta ezin itxaropengarriago agertzen zaizkigu dagoenetik¹¹².

Elkarrizketa haiek gertatzen ari ziren bitartean, Txillar-degiren artikulua arabera, herria, gazteria bereziki, kalera atera zen, eta gogor eta tinko ihardukitzeko galdegin zion Dubceki:

111 Ibid.

112 “Bratislava´n entzundakoak” in *Zeruko Argia* 1968-09-29. Baina abuztuaren 4an idatzia.

Gogor eta tinko egoteko, zertan? Hiru helburu, hiru lelo, izan omen dira nagusi manifestazio horietan: “GORA ASKATASUNA”, “GORA TITO”, eta “GORA GIZATAR-SOZIALISMOA” (“socialismo humanitario” itzulpena aipatzekotan) (...) Txekoslovakia’ko herriak kaleetan eta enparantzetan oihukatu dituen hiru xede horiek, guztiz kontuan hartzekoak dira; Paris’en Maiatzean entzun zirenen kideak baitira. Aurrerazetasuna, progresismoa, hiru xede horietan dago gaur; ez aspaldiko iritzietan. Komunista Alderdiaren diktaduraren kontra, stalinismoaren kontra, herriaren nahia “goitik” asmatu-beharraren kontra, Bratislava’ko gazteriak “Gora Askatasuna” esan du (...) Ludvik Vaculik’ekin batera hau esan du Bratislava’ko gazteriak: “Gauza asko dakigu gaur sozialismoaz. ba dakigu, batez ere, sozialismoa ZER EZ DAN...”¹¹³

Handik berehala, dezepzioa, Pragako udaberria marxismo-leninismoaren ortodoxoek bidalitako 500.000 soldaduk errepresioaren bidez amaiaraztean. Zazpi bekatu nagusi egin bide zituen Dubcek-Svoboda bikoteak, alderdiko buruzagiak eta presidentek: 1) Alderdi Komunistari nagusitasuna kendu gabe, komunista ez diren beste sozialistentzat atea pixka bat zabaldu; 2) Bigarren alderdi sozialista humanista ez onartuagatik, urritik aurrera aldizkaria ateratzea onartu haiei; 3) Marxismoa gidaritzat harturik ere, estatu-askatasuna nahi zuten Txekosloveniarentzat; 4) Prentsaren eta irrati-telebistaren zentsura erauzi zuten. 5) Ekonomian, burokrazia goitik beherakoaren orde, Yugoslaviako bide autogestionarioa hartzekotan ziren; 6) Estatuaren barnean federalismoa legez-tatzekotan ziren; 7) Mugak zabaldu egin zituzten:

113 Ibid.

Dubcek-Svoboda´ren zazpi pekatu nagusi horiek, geure pekatuak dira gutxi gora-behera, ez gera esateaz lotsatzen. Hain zuzen ere, eta lerro hauetan argi eta garbi esan dugun bezela, zazpi pekatu horietzek ziran gure itxaropen-iturria. Gure bihotza Praga´n zan, eta Praga´n dago; baiña gure itxaropena “ortodoxoek” suntsiarazi dute. Orain ba dakigu (berriz ere ikasirik!) Mosku´k nahi duen “sozialismoa” eta guk nahi duguna alkarren etsai eta ukaera bera dirala. Horren garrazki eta nabarmenki gogoraztea osasungarri izango zaio gure arteko askori¹¹⁴.

Handik urtebetera, jada Dubcek ez, baizik eta Husak zelarik buruzagi Txekoslovakian, ez zuen isildu nahi, salatu nahi zuen Pragatik zetozen berriak ez zirela pozgarriak: “*egunetik egunera herri baten zampaketa ikusten ari gera*”¹¹⁵. Baina, aldi berean, argigarriak jotzen zituen handik zetozen berriak, argituak izan nahi zutenak argitzeko modukoak:

Stalin orain dala 16 urte hil zan, ez atzo; baina stalinismoa ez da hil, eta ez gutxiagorik ere. Eta gertaerak hozki aztertzen baldin badira, komunismoa eta stalinismoa gauza berbera dirala dirudi (...) Txekiarren eta eslobakiarren ezintasun osoa eta URSS´en inperialismo gordina aipatzea anti-komunismo baldin bada, ni berriz ere antikomunista naiz. Eta Askatasuna zapaltzen duen sasi-sozialismoak oinarritzat dituen liburuak nolana hikoak diralarik ere, sozialismoaren etsaia dala esatea anti-komunismoa baldin bada, ni antikomunista naiz osoki. Marxista-leninistek lotsatu behar dute, eta ez guk. Zeren-eta sozialismoa gizona areago askatzeko sistema bat baita, eta ez areago zapaltzeko. Eta Txekoslovakia´n herria zapalduta da-

114 “Praga´ko udaberria bukatu da” in *Tierra Vasca*, 1968-8-25ean datatua, eta iraileko alean argitaratua.

115 “Isilduko ahal gera?” in *Zeruko Argia* 1969-09-14.

go: gero eta zapalduago “ortodoxoak” desordenu hura “taju-
tzen” hasi ziran ezkeroztik. Herriak “Gora Dubcek” oihukatu
du kaleetan. Zergatik? (...) Baina orain dala urtebete Txekos-
lobakia’n gertatzen ari dana lotsagarria da. Are lotsagarriagoa
sozialismoaren izenean gertatzen baita (...) Azter ditzagun ja-
torki Praga’ko gertaerak; eta zer gerta ere, izan dezagun egia
aitortzeko kemena. Nahiz, batzutan, izpiritu-erosokeria kalte-
turik aterako bada ere; mundua ez baitago zuri eta beltz zati-
turik. Xinplekeria horiek haurrentzako eta fanatikoentzako on-
gi dira. Ez, arren, guretzako¹¹⁶.

Ikuspegi horrekin erara, gauzak ez zirela zuri edo beltz
konbentziturik, 1970ean, Fidel Castroren erregimenaren
ajeak deitoratzeaz eta salatzeaz batera, sostengatzen zuen
halere, haren politikabidea. Lehen parteko bigarren atalean,
“klerikalismo erreakzionariorik ez” deritzanean, aditzera
eman dugu Castro sostengatu zuela hark erlijioso espainiar
frankistak kanporatzeko erabakia hartu zuenean, hain zuzen
1961ean.

1970ean, berriz, V. Ochetto-k eta K.S. Karol-ek idatzi-
tako bi artikulutan oinarriturik, hona Castroren erregimenari
egiten zion kritika:

Urte gutxitan, beraz, bi berrilarik batera azaltzen digutenez,
Cuban ere burokrazia sortu da; eta burokrazia hori baztertu
eta hurrundu egin da herritik, honi aparato hotz gisa agertu
arte: Sindikatoak ihartu eta zurrundu egin direla dirudi, gehie-
gitan lantegien barruan komunista “tribu” bat bihurtuz... Par-
tidoa, era berean, administrazioaren kideegi, “osteen edo po-
puluaren arazoekiko hotx eta axolakabe agertzen da”¹¹⁷.

116 Ibid.

117 “Aukeratu egin behar” in *Zeruko Argia* 1970-09-13.

Castrori zion onginahia ez zuen ezkutatzen, baina kritika ere ez zuen estali nahi:

Berriz ere, beraz, eta halere Castrorekiko gure onginahia gorde arren, gauza bat dugu agerian: goitik egin nahi den sozialismoak burokrazia dakarrela (...) Castrok berak ulertu bide du kakoa, eta bere azkeneko hitzaldian “oinharriko erakunde” berrien beharra aitortu du. Sortuko ote ditu? Jakina denez, Moskuk ez du zabalkuntza hori batere gogoko; eta Castrok, ezin-bestean, oso kontutan hartu behar du Kremlin-en iritzia. Dubcek-en arazoan garbi azaldu zen haren behar hori; eta beste askotan ere bai. Castrok beti begiratu ditu, ordea, zeharka komunista klasikoak, eta behin eta berriz baztertu ditu gobernutik. Noiz arte, ordea? (...) Ekonomiaren aldetik Castrok ez du URSS-az eta Ekialdeko erresumez besterik. Nola jokatuko du, beraz, barne-politikari dagokionez, Moskuk nahi ez duen bide batetik? Moskuk ez ditu behin ere begi onez ikusi ez Castro eta ez Che Guevara (...) Alde batetik, Cuba, marxismo-leninismo ortodoxoaren bidetik abiatu diren erreboluzio guziak bezela, burokraziaren menpean erortzen ari da; eta partido bakarraren aparatoa burgesia berri bihurtzen (...) Baina Mendebalde “libroak” gudu osoa egiten bait dio castrismoari, Castrok ez du bide bat baizik: hain zuzen ere, mosku-zalekeria aurrerago eramatea!

Beste alde batetik, berriz, autojestioaren bidea hartzea du, eta burokraziaren kontra egitea (...) Nola egingo, ordea? Kremlin-ek ez du horrelakorik nahi (Dubcek, Garaudy, Fischer, Tillon, eta abar, lekuko) (...) Ez Moskuk eta ez Washington-ek, hortaz, ez diote Castrori eginkizuna erraztuko. Ez beste anitzek ere, “demokrata” omen¹¹⁸.

118 Ibid.

Ez zuen itxaropen handirik, Castrok etsai gogorregiak baitzituen sozialismo autogestionarioaren alde ekiteko; baina, haatik, Castrori bere onginahia agertzen zion:

Munduko erreakzioa poztuko da; ez gu, ordea. Aitzitik, madarikatu egingo ditugu sozialismoaren etsai guziak: bai teokrata gorriak eta bai, nahi diren zuhurkeriak eginik ere, burges txuriak. Eta berriz ere, “bai” esango diogu Castrori.

5.4. Euskal manifestuaren proiektuan, eskuineko eta ezkerreko sozialismoa bereizten

1967ko apirilean utzi erakundea eta 1970 arte esan liteke erakunde orotik bereiz samar ibili zela. Haatik, bere ideiak hedatzeari ez zion utzi, EAE-ANVren Buenos Airesko *Tierra Vasca*-n eta *Zeruko Argia*-n, eta besteak baino bereago zuen *Branka* euskal erbesteratu abertzale sozialisten agerkerian jarraitu baitzuen artikuluak plazaratzen.

1971ko urtarriletik maiatzera, berriz, Fronte Abertzalea osatzeko egin ziren sei elkarrizketetan esku hartu zuenez, esan liteke atzera berriz klandestinitate kutsuko politika aktibora itzuli zela, eta horien ondotik, Monzon eta bera –Txillardegiren kasuan, beste behin esan beharko–, kanporatuak izan ziren Ipar Euskal Herritik, hain zuzen Nogarora (*Salles d'Armagnac* herritxora) deportatuak, eta han idatzi zuen lehenago ere aipatu eta baliatu dugun *Proyecto de Manifiesto Vasco* delako testu politikoa. Gorago aipatu bezala, egin ahal Monzoni erakusten bide zion –segur aski hein batean bederen haren oniritzia bazuen; gainera, Anai Arteak argitaratu bide zion lehenbizi, gero *Hordago*-k–, eta Benito del Valle-

ren ekarpen zenbait ere bildu zuen, berak aditzera eman zingunez¹¹⁹.

Hanka sartzeko beldur handiegirik gabe esango nuke proiektu horretan dagoela Txillardegiren pentsamendu politikoa ongienik bildua, landua, umotua. Ez dut esan nahi horrekin, handik aurrera bilakaerarik izan ez zuenik, gezurra esango bainuke, baina bai bere pentsamendu politikoaren funtsa laburbildua eta ongi tolestua hantxe dagoela. Zer dio, bada, eskuineko eta ezkerreko sozialismoaz?, nola bereizten ditu biak?, eta bera non kokatzen da?

Baieztapen antropologiko batekin ekiten dio, esanez eskuinaren ezaugarri funtsezkoena pesimismoa dela gizakia-
ren alderako –testurik politikoenetan ere, intelektual alderdia maiz agertzen zuen: antropologia, psikologia, biologia, linguistika, etnologia, fisika, kosmologia; batzuetan marxismo ortodoxoak ekonomiari eskainiriko leku soberaniazkoa konpentsatzearen–. Eskuindarren ustez, gizakia inola ere gauza ez denez bere patua gidatzeko, bere buruari jarraibideak ezartzeko, halakoan iritzian argiak beti goitik etorri behar du. Eta hortik:

El JEFE CARISMÁTICO, la ORGANIZACIÓN providencial y poseedora única de la Verdad, los LIBROS SAGRADOS, los PROFETAS, los HEREJES, la PURGA y la INQUISICIÓN santa, la CENSURA del Error, la negativa de toda LIBERTAD a los equivocados, el Partido UNICO, el dogma UNICO, etc...

Al hacer enumeración es IMPOSIBLE no pensar en las Iglesias dogmáticas y en los Partidos Comunistas. Desde un punto de vista ESTRUCTURAL (es decir, más atento a la

119 Ikus *Branka*, 1. liburukia, Ediciones Vascas, 1979, hitzaurrea.

forma interna que al contenido del sistema) está claro que los Partidos Comunistas funcionan como VERDADERAS IGLESIAS LAICAS¹²⁰.

Erabat gaitzesten zuten –Txillardegik, brankakideek– sozialismo autokratikoa, sasisozialismo klerikala, arbuiatzen zuten estalinismoa eta marxismo-leninismo dogmatikoa, eta korronte marxista-leninistan soilik marxismo kritiko, bizi eta eraberritzailea onartzen zuten. Ildo beretik, behin bederen espresuki agertu zen Proudhonengandik askoz hurbilago Marxengandik baino, sozialismo libertariorik gertuago sozialismo marxistatik baino:

Cada vez hay más socialistas que se definen por un socialismo de tipo PROUDHONIANO y contra el socialismo marxista. El fenómeno de Mayo 68, el “gauchismo”, las corrientes anti-autoritarias, hasta la marcha de Tarnos, ilustran ese retorno a un SOCIALISMO LIBERTARIO.

No veo por qué debería ocultar que, yo mismo, estoy mucho más cerca de Proudhon que de Marx (...) leamos lo que escribía Proudhon a Marx el 17 de Mayo de 1846: “no nos convirtamos en los jefes de una nueva intolerancia, no nos presentemos como apóstoles de una nueva religión”... Hace de esto 129 años. Que es tanto como decir que el “culto de la personalidad” es el marxismo político desde su origen¹²¹.

Sozialismo autokratikoa, esan beharrik ez dago, eskuineko sozialismo gaitzesgarria zen. Beraiena ezkerreko sozialismo autogestionarioa zen, eta autogestioa eta federalismoa elkarren eskutik ibili beharrekoak ziren:

120 *Branka*, 2. liburukia, 788 or.

121 “Sí a una izquierda abertzale pluralista” in *Enbata* 1975-11-20.

No queremos que el Estado controle la economía, como quieren los socialistas de derechas; sino que queremos que la economía, como todo el resto, se lleve de ABAJ.A.RIBA. La auto-gestión exige el control y la gestión de las fábricas y de otras unidades de producción por el propio CONSEJO DE TRABAJADORES (...) Autogestión quiere decir PARTICIPACIÓN REAL DE LA BASE (...) Autogestión quiere decir FEDERALISMO RADICAL: a nivel de las comunas, a nivel de las provincias, a nivel de las naciones. El federalismo es la única forma de conciliar los legítimos derechos de las comunidades étnicas naturales con los imperativos económicos y otros, a escala continental e incluso mundial.

Autogestión y federalismo que nos deben llevar a estudiar, con vistas a la Euskadi ya libre del imperialismo, los diferentes aspectos de la EXPERIENCIA YUGOSLAVA, única tal vez que merece hoy por hoy (tras el fracaso de Dubcek y el período todavía prematuro de Allende) el nombre de experiencia SOCIALISTA¹²².

Teorian ari ziren, pentsatuko du irakurleak; bai, hala da, baina baita esperientzia konkretuei begira ere. Txekoslova-kiako esperientzia itxaropengarri baina fite zapuztutakoaren ondotik, Jugoslaviako esperientzia jotzen zuten brankaki-deek interesgarrien, eta Jugoslaviako ereduaz aztertzen ari-tu zena bereziki Benito del Valle izan zen. Jada *Branka*-ren 1967ko urtarrileko alean, azterlan luze samar baten ondotik, besteak beste, ondorio hauetara heldua zen:

Desde luego, el sistema yugoslavo de autogestión no ha llegado todavía a su máxima perfección, pero sin embargo, aún hoy en día es el más perfeccionado de todos los que se aplican en la actualidad en nuestro mundo (...) Si bien no podemos

122 *Branka*, 2. liburukia, 789 or.

afirmar que exista un auténtico federalismo (que por otra parte no existe, hoy por hoy, en ningún país del mundo), sí se puede decir que existe un autonomismo avanzado (...) La autogestión como la autonomía y con mayor motivo el federalismo, supone lo contrario de la anarquía, al mismo tiempo está en las antípodas del despotismo, de la dictadura. Por ello en Yugoslavia, la planificación, como cualquier otro tipo de labor en común de diversos organismos, es coordinadora y no impositiva.

d) Socialismo progresista

Todas las anteriores condiciones se dan conjuntamente con una socialización (pero no nacionalización) de los bienes de producción; lo cual nos conduce a un socialismo progresista.

Creo que no tendré que insistir sobre los inconvenientes que origina la nacionalización de los bienes de producción, con el consiguiente nacimiento de una nueva clase, los militantes de un partido único o bien los componentes de una burocracia, que se convierten en los nuevos amos o explotadores del pueblo¹²³.

Haatik, akatsak ere aurkitzen zizkion Jugoslaviako sistemari, garrantzizkoenak honako hauek: alderdi bakar bat eta sindikatu bakar bat baino ez zegoela; eta ardurazko karguak alderdi bakarreko militanteen esku gelditzen zirela; eta akatsak zuzentzeko proposamenak ez zituen eskas:

Un primer paso que deben dar en la actualidad, es la creación de diversos partidos políticos y sindicatos. Claro está que todos estos partidos políticos deberán admitir la estructuración socialista-federalista yugoeslava (...) El 2º paso que deben dar los yugoslavos es el no hacer depender la elección de los pues-

123 Benito deValle, J.M.: "La autogestión en Yugoslavia" in *Branka*, I. liburukia, 243-244 orr.

tos de dirección de Comunas, Repúblicas, Organizaciones de trabajo, etc., de los caprichos de los dirigentes del Sindicato o del partido único¹²⁴.

Hori Jugoslaviatz den bezainbatean, Txekoslovakiako esperimentziari buruz, berriz, artikulua luze eta aski xehatua zeterren *Zuzen*-eko¹²⁵ ale bakarrean:

Las formas embrionarias de autogestión comienzan en el año 1.966 y esto no sucede por azar sino como consecuencia de la reforma económica. La reforma económica creó la presión económica con vistas a la participación de los trabajadores en los procesos de gestión, suscitó el interés de las diferentes categorías de trabajadores, etc., a la economía y al rendimiento.

La reforma económica, junto con la “revolución” de los intelectuales, hizo posible un cambio en las personas de la dirección suprema del partido comunista y todo ello fué totalmente decisivo para el nacimiento y desarrollo de los órganos de autogestión de las empresas (consejos obreros); por ello y para mayor comprensión del lector, vamos a recorrer rápidamente esa evolución de los años 1965-68 y así posteriormente podremos explicar más fácilmente el nacimiento, extensión, atribuciones, etc., de los consejos obreros (...)

Las reformas económicas prepararon el ambiente y los intelectuales, como en todos los países del mundo, fueron los primeros que de una forma metódica y valiente se lanzaron a la lucha por el progreso, por la evolución (...)

124 245 or.

125 Fronte Abertzalea eratzeke izandako elkarrizketen ondorioz, ezker abertzaleko zenbaiten artean mugimendu sozialista autogestionarioa sortzeko asmoa erne zen, eta horren organo teorikoa *Zuzen*-ek izan behar zuen; baina *EGI Batasuna* ETARA biltzean 1972an, proiektua bertan behera gelditu zen, eta horregatik ale bakarra.

Inspirándose en las corrientes que existieron en Yugoslavia y en Checoslovaquia (en 1.968), el presidente de la C.F.D.T. (segundo sindicato francés en cuanto al nº de sus adherentes), en su intervención (el 8-5-1970) en el XXXV Congreso del sindicato decía: “Los tres pilares de la sociedad a construir son: la planificación democrática de la economía, la propiedad social de los medios de producción y la autogestión de las empresas” (...)

Pero desde comienzos de 1.970 la nueva dirección del P.C. va revocando poco a poco los Consejos obreros elegidos a escrutinio libre y secreto, así como los directores de empresa elegidos en concurso público. Con la muerte de los Consejos obreros se ha cerrado el ciclo del socialismo humanista en Checoslovaquia. El P.C. ruso mató esta experiencia que pudo ser tan interesante para la aplicación de un socialismo democrático en los países industrializados de Europa y en general en toda la civilización occidental¹²⁶.

Berriro ere Txillardegiren euskal manifestuaren proiektura etorritz, eskuineko sozialismoa eta ezkerrekoa definitu ondotik, eta bera ezkerrekoan kokaturik, honela bururatzzen zuten gagozkion atala:

Que nadie cuente con nosotros para hacer el juego del Capital “vasco” basándose en un anti-comunismo a ultranza.

Pero, justamente por eso y a la inversa, que nadie cuente con nosotros para hacer el juego al IMPERIALISMO basándose en un anti-capitalismo demagógico.

Hay fases sucesivas que cumplir.

La provocación imperialista es con frecuencia ALTERAR conscientemente el ORDEN INEVITABLE DE PRIORIDADES.

126 685-687 orr.

Bajo ocupación extranjera la lucha de clases no debe amenazar en ningún momento el BLOQUE NACIONAL DE LIBERACIÓN, porque solo las fuerzas económicas próximas al Estado opresor se sienten directamente amenazadas¹²⁷.

Horretaraz gero, ez ziren ez estatubatuarren inperialismoarekin lerrotatzen, ez eta sobietarren sozialinperialismoarekin ere, eta Euskal Herrian lehentasuna askapenerako bloke nazionalak zuen.

5.5. Beste polemika bat

Artean Hegoaldera itzultzeko mailetak egiten ari zela, esan dezagun, beste polemika bat izan zuen orduan *Izarreko* ezizena erabili ohi zuen J.M. Odriozolarekin¹²⁸. Hark aukera eman zion oso garbi zeuzkan tesiak berresteko. Esan beharra dago 1976an, askotxok pentsatzen zutela –kasik “genuela” jartzekotan egon naiz, neu ere urte bat edo beste gorabehera, ez bainintzen pentsaera ideologista-dogmatiko-ezjakin horretatik urrun ibili– Izarrek bezala gurean, euskaldunen artean; marxismoan marxistena edo puntarengoena izan nahian, asko ibili baitzen proletarioen profeta bilakatu nahirik, izarretan.

Harrezkero, jendaurrean, dakigula, ez zuen sozialismo-ereduari buruzko polemikarik izan, nahiz eta lan honen bigarren partean, 4. atalean, adieraziko dugun bezala, 1989tik aurrera behin eta berriz aritu zen garbi uzten ezker abertzaletaren borrokaren ardatza nazio askapenak izan behar zuela

127 *Branka* 2. liburukia, 790 or.

128 Egunotan galdetuta J.M. Odriozolari berari ea bera al zen “Izarreko”, Txillardegirekin *Zabal* aldizkarian marxismoa zela eta polemika izan zuena, hona haren erantzuna: “Tamalez ni nauk dogmatiko, ezjakin eta lotsagabe hura” (2015-05-11).

eta ez sozialismoak eta gainerako izenondoek denak nahaste, beste horiek independentzia lortu ondoan eztabaidatzekoak eta ebaztekoak zirela eta, zapalkuntza nazionalaren egoeran beste hainbat naziotan jokatu izan den bezala.

Izarrekoren lehen tesia:

Marxismoa, Euskal Herrian eta nonahi, egoera sozial jakin baten ondorioa da; eta zehazkiago adieraziaz, kapitalist sistimaren ikerlan teorikuak eman duen produktu bat da, jarrera iraultzailearen hildotik¹²⁹.

Eta, Txillardegiren arrapostua:

Ene ustez, frankismoaren urteetan barrena, hiru eragilek bultzatu dute marxismoaren gorantza:

1) Kapitalismoaren zapalketa lotsagabea. Burgesia jaun-da-jabe ibili da fazismoari esker, herri zapalduaren lepora egundoko irabazketak eginez. Kapitalismoaren sustraia bilatu nahiz, Marx-engana jo du euskaldun gazteriak (beste edozein herri-tan bezala). Hots –berriz gauza bera izkiriatuz– *kapitalismoaren kritikarik zorrotzena Marx-ek egin duenaz gero*, ekonomi sailera ere eramanez abertzaletasuna ezker aldera bultzatzeko, eta gure artean oso zabaldua zegoen liberalismo burges gexaren gezurra konpreni arazteko, marxismoaren hedaera hori oso onuragarria izan zaio Euskal Herriari. Honetaz ez dago dudarik enetzat (...) Marxismoa ERE behar du gaurko Euskal Herriak. Baina azalpide hori ematea EZ DA INUNDIK ERE ASKI Euskal Herrian ikusten dugun marxismoaren hazkundera ulertarazteko.

2) Abertzaletasunaren kontrako borroka etsian, *faxistek berek* bultzatu dute marxismoaren zabalketa; beste herrietan gertatu denaren arabera. Marxismoak, etni-arazoa dagoen he-

129 “Txillardegiren sozialismoa” in *Zabal*, 18, 1976 maiatza-ekaina.

rialdeetan (Corsikan azkenekoz), eskuindarren jokoa egitera bultzatzen duela behin eta berriz erakutsi duenez gero, marxismoa *inperialismoaren iskilutzat* ere hazi eta hedatu da. Eta Madrilleren karkulua ez da txarra izan: ikusi besterik ez da zenbat eta zenbat abertzale galdu den sozial-inperialismoaren zerbitzutan: E.S.B.A., M.C.E., L.C.R., O.R.T., P.C.E. berbera ahanzi gabe. Mugimendu hauk, kontradizioen mailak garbi ulertuz, bigarren mailako etsaitzat hartu ditu fazismoak *Euskal Herrian*; eta askoz zanpaketa ahulagoa izan dute beroiek, E.T.A.-k edo gainerako abertzaleek baino.

3) Mendetan barrena mukurru zeuden euskal apeztegiak hustu dira, komentuak oro hustu dira, elizak berak ere hustu dira. Gizona nekez bizi daiteke “ideologia”-rik gabe, “mitologia”-rik gabe alegia; bere buruari “sentidu”-rik igarri gabe (...) Ez naiz BATERE bitxia ez “orijinala” mundu guztian ikusi den bezala, marxismoak ideologi-hutsune hori bete dezakeela pentsatuz. Mintza bedi Bertrand Russell ene orde: “Creo que todas las grandes religiones del mundo –el budismo, el hinduismo, el cristianismo, el islam y el comunismo– son a la vez mentirosas y dañinas”. (*Por qué no soy cristiano*, 13). Eta erlijioen gonbaraketan haundiena den Mircea Eliadek hau dio: “Tout autre est le cas du communisme marxiste (...) En effet, la société sans classes de Marx et la disparition conséquente des tensions historiques trouvent leur plus exact précédent dans le *mythe de l'Age d'Or* qui, suivant des traditions multiples, caractérise le commencement et la fin de l'Histoire. Marx a enrichi ce mythe vénérable de toute une *idéologie messianique judéo-chrétienne*.” (*Mythes, rêves et mystères*, 24) (...)

Apezak, fraileak, serorak eta kristau militanteak, horregatik, trumilka, ia batera, marxista bilakatu dira: eta lehengo fededun gartsuenak gaur marxistarik dogmatikoenak dira (...)

Euskal Herrian modan dagoen marxismoa, bestalde, ideologikoa dela berehala erreparatzen da. Ez dago gure errealitatean funtsaturik, liburu sakratuetan aurkiturik baizik.

Euskal Herrian, esate baterako, nazio-arazo latza dago, nabarmen, ezin indartsuago, gero eta sakonagoa. Bidezko litzatekeenez, nazio-arazo bizi horren ulertu-beharra izan balitz eragilea, Proudhon topatu genukeen gidari, Memmi, Connolly, Sartre, Otto Bauer bera; alegia, nazio-arazoa funtsezkotzat daukaten sozialistak. Alta, Marx eta Engels hatxematen ditugu gidari, Rosa Luxemburg eta Trotsky ere ez gutxitan; alegia, Euskal Herriko arazo nagusia murrizten, ukatzen, nahasten eta mila eratarata txikitzen eta lardaskatzen dutenak. Hitz batez: marxismo hori ez dugu geure arazoaren teorigintzan hatxeman, *sozial-imperialisten* bitartez baizik; hain zuzen ere, hauek gu desbideratzeko errun dituzten paperkeria nabarmenetan (...).

Gure artean horren modan dagoen marxismoa, beraz, hein batez bederen, ideologikoa da; eta ez gure beharrek sortua eta zabaldua, kanpotik eta kanpoko eragilek erakarria baizik. Hots, hauxe da Marx-ek “ALIENAZIOA” zer den azaltzeko ematen zuen azalpidea!

Baina, jakina, marxismo-mota horrek ba du abantail bat: gure ekintza “razionalizatu” egiten duela, “adimentzen” esan dezagun, eta lasaitzen beraz. Baina, Lacan-en hitzaz esateko, “le plus corrupteur des comforts est le confort intellectuel” (*Ecrits*, I, 211)¹³⁰.

Izarrekok gutxi gorabehera honela formulaturiko Txillardegiren tesi honi: “marxismoak ezin diezaioke euskal ezkerriari erantzun zuzenik eman”, beste honako hau kontrajarritzen zion:

Ezkertiar indar politiko abertzaleei soil soilik marxismoak ihardetsi dakieke beren interes orotan ere, alde batetik, ezker-

130 “Izarreko-ren sozialismoa” in *Zabal*, 19, 1976 uztaila-agorrila.

kerian erori gabe, eta bestetik, erreformismoaren amiltegitik gordez¹³¹.

Txillardegik onartzen zuen bere tesia, eta beste honako hau aitorturik ere: “*Nekez proposa nezake nik Euskal Herri kapitalista horren funts ustela ulertu nahiz Marx-engana ez jotzea*”, besteak beste, sozialismoak 1976an bi etsai zituela zioen, eta ez bakar bat:

Kapitalismoa da bat, dudarik gabe; eta hau onartzen duten sozial-demokrazia eta antzekoak ere bai. Baina BUROKRAZIA da bestea. Helburu eta jokabide NAGUSITZAT *autojestioa* (edo autokudeantza. Oihanburu-ren hitzaz esateko) hartzen ez duen alderdiak, EZ DAUKA ERRESUMA-KAPITALISMOA BAIZIK EKARTZERIK. Baina burgesiaren burokrazia kendu, eta honen ordez P.C.-arena jartzea, *ez da iraultza*¹³².

Izarrekok, buruenik, hirugarren tesi hau paratzen zuen: “*Nazional arazoari lehentasuna damaion euskal ezkerria, zernahi delarik ere, erreformista da*”¹³³.

Txillardegik lehentasuna nazio arazoari ematen zion, eta ez zen marxista, eta hala aitortzen zion *Izarreko*-ri.

Txillardegi bereziki Izarrekoren estalinismoak larritzen zuen:

...haren stalinismoak baizik; ez baitu eskas stalinismoaren aldeko joera. Alde batetik, harrigarria da Errusiako herri *zantpatuaz* (eta Txekoslovakia)koaz, eta abarrez) “Izarreko”-k hitzik

131 *Zabal*, 18. alean.

132 *Zabal*, 19. alean.

133 *Zabal*, 18. alean.

ere ez esatea. Nola ote liteke 40 miliun bitima eginak dituen erregimen horrek sustatzen duen marxismoari buruz kezkarik batere ez sortzea? Ezen Moskuko gobernua, zernahi esanagatik ere, *marxista* da; eta berriki Sartrek deklaratu duenez, funtsean *marxista* baita egiazki; eta bertako Komunista Alderdia III. Internazionaleko Komunista Alderdi guztien buruzagia baita. Hala ere, bai, Maurice Clavel-en hitzaz esateko, gure “Izarreko” hau, beste anitz bezala, “à plat ventre” ahozpeztu da marxismoaren aurrean, “a avalé en hostie” (Morin); eta oraindik ez du entzun ere nahi Bertrand Russel-ek, esate baterako, 1920-az geroztik somatu zuena: “A mon avis, voici ce qui probablement se passera en Russie: *une aristocratie bureaucratique tiendra tout le pouvoir en main, et créera un régime aussi tyrannique et cruel que le capitalisme*”. (*Pratique et Théorie du Bolchévisme*, 135; 1920-an argitaratua!) (...)

Ba dirudi, bestalde, “Izarreko”-k, ene sozialismoa harena ez delako, eta stalinismoaren bidetik, isil arazi nahi nindukeela: “hobe luke hizkuntzaren mailan ihardun”.

Ene iritzia, halere, ez da BATERE BITXIA: Frantzian, esate baterako, nik bezalatsu ikusten dute sozialismoaren helburua C.F.D.T. sindikatoak, P.S.U.-ak, eta P.S.-aren barruan Chevènement-en taldeak; baita neo-anarkistek, eta anitz eta anitz ezkerter intelektualek. Irudimen txikikoa naiz: hori guztia pitin bat irakurriz ikasi dut, ez neure gisara bitxikeriatan jolastatzen ariz. Hots, C.F.D.T.-ak, P.S.U.-ak, neo-anarkistek, sozialista anitzek, eta abar, isildu behar badute, *stalinismoa* proposatzen digu “Izarreko”-k.

Nik ez dut, dena dela, “Izarreko” hizkuntza-arloez edo literatura-arloez bakarrik ardura dadila eskatuko (...)

Neure irizpideetan funtsaturik, “Izarreko”-ri politikaz arduratzeko eskubidea defenditzeko gertu nago, bai gaur bai ge-

roan ere; nahiz batere ados ez izan gauza askotan. Hauxe da, hain zuzen, sozialiston artean dugun liferentzia nagusia¹³⁴.

Ez dakit orduan konbentzitu zuen, baina ezaguna da handik laster bilakatu zirela gogaide Txillardegi eta J.M. Odriozola. Polemikak garbi uzten du, bestalde, Txillardegiren iturriak non zeuden sozialismoa zehazteko orduan, hots, frantses alderdi eta sindikatu batzuetan.

134 *Zabal*, 19. alean. 1976-VI-22an datatua.

6. ERREFORMISMO IRAULTZAILEAK BEHARREZKO ZUEN KONTRABORTXA

Atal honen gaia berchalakoan aurkeztu eta kokatzeko, gatozen J.M. Odriozolaren azken liburutik pasarte batzuk txertatzera:

ETAREN JARDUN BORTITZA egia ofizialaren bertsiopean salatzen ez baldin baduzu, susmagarria zara. Bortxaren keria likitsak egotziko dizkiote zure jokabide susmagarriari. Biktimekiko enpatiarik gabeko gizaki bihozgabea zarela susmarazten du ideologia espainolistaren ahotsak. Demokrasiaren eta etikaren bide zuzenetik kanpo, ardi beltzaren bide erratuetan, ez eskubiderik ez eskurik merezi ez duzun gizakumea antzo juzgatzeko autoritate morala dauka ideologia hegemonikoaren edozein aldaerak (...) Zetorren lekutik etorrita, nola barkatuko zaio bada Txillardegiri? Ez dauka aukerarik demokrata izateko, baldin eta, jakina, bere nortasun politikoari uko egin eta espainiar demokrasiari men egiten ez badio. Horrelakoak erruz izan dira, eta denei egin zaie ongi etorri beroa demokraten etxean (...) Halako batean, onargarri ez den gauza bat gertatu da euskal kulturaren mekan, abertzale susmagarri bati sari bat eman diote, eta orduan ere ernai zegoen demokrata bat gizalegez jokatu eta egin beharreko kritika egiteko. Lourdes Oñederraren esaldi honetan datza auziaren muina. “Adibidez, euskal kulturaren mugarri garrantzitsu den Duran-

goko Azokak (2004) ETaren indarkeria eraginkortasunik eza-
gatik bakarrik gaitzesten duen intelektuala omenduko du aurt-
ten”¹³⁵.

Txillardegiren gai honekiko jarrera bi hitzetan laburtze-
ko: estatua sortu duen nazio menderatzaileak beretzat duen
lurraldean menderatuak dituen nazioak ez dira morrontza
politiko-militar-kulturaletik askatzen estatuaren bortxari kon-
trabortxa ezarri gabe. Hori da historiak erakusten diguna.

Haatik, kontrabortxa horrek helburu politikoen men-
dean egon behar du, eta politika egin daitekeenean, aukerak
badaudenean borroka politikoaren bidez –instituzionala eta/
edo desobedientzia zibila (ghandismoa)– estatua autodeter-
minazioa onartzera behartzeko, orduan utzi egin behar da
borroka armatua, autodeterminazioa lortzeko beharrezkoa
den batasuna hausten duelako hark, eta indar-metaketa oz-
topatzen duelako; baina, tamalez, biderik ez denean autode-
terminaziora behartzeko estatua, ezin da kontrabortxa iraul-
tzailea gaitzetsi. Txillardegik ez zuen inoiz ETaren borroka
kondenatu; kritikatu bai, ordea.

Nazio hizkuntzaren eta nazio kulturaren aldeko borro-
ka eta autodeterminazioaren bidez independentzia lortzekoa
dira axolazkoenak, eta borroka armatuak haien mendeko eta
zerbitzuko izan behar du; bestela, kaltegarri denez, baztertu
egin behar da. Beti planteamendu politikoen arabera juzga-
tu eta balioetsi izan du gaia, eta ez oinarri-oinarrian gutxiz
gehienetan uste eta nahi politikoak izan ohi dituen balioes-
pen sasimoralen arabera.

135 Odriozola, J.M.: *Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara*, Txalaparta,
2014, 256-258 orr.

Baina oso modu gizatiar eta emozionalean, engaiatu eta konprometituan, eta ez maila hotz, intelektualean. Franco-ren aurka altxatu ziren etakideak eta Espainiako trantsizio demokratiko delakoaren ondokoak ere, gaurko gudariak ziren, 1936ko gerra zibilean Eusko Jaurlaritzaren mendean borrokatu ziren atzoko gudarien lekukoa hartu zutenak, eta pixka bat behartuz gero, historian XIX. mendera eginda, Madrilgo gobernu liberalaren tropen aurka euskal foruen alde armak altxatu zituzten behialako karlisten oinordekoak, eta, etakide horiek, hots, gaurko gudari horiek izandako hutsegite eta hartutako erabaki desegokietatik harago, edo haiek gorabehera, moraltasun handiko abertzaleak, aberri-gatik bizia emateko prest egon direnak, eta bat bizia emateraino konprometitzen duen ideiak merezi du begiramena izatea.

Frankismoaren erregimenpean, txarreysi zuen ekintza-errepresio-ekintzaren espirala, gurea bezalako herri baten-tzat suizidio nazionala izan zitekeelako, Biafran gertatutako-tik irakaspenak aterata. Borroka armatuak borroka kultural eta politikoaren mendean egon behar zuen.

Lizarra-Garazi hautsi zenetik –ETAk su-etena hausteare-kin– harik eta Ibarretxeren plana ezerezean geratu zen arte Madrileko kongresutik igaro ondoan, hortxe nonbait, atxi-ki zuen bide politikoetatik Espainiako gobernuari autode-terminazioa erazteko esperantza, eta horregatik, bospasei urteko bitartean, ETAren borroka armatua kaltegarritzat jo zuen aurreko urteetan ez bezala, baina, autodeterminazioa gauzatzeko itxaropena galtzearekin batera, betiko uste eta konbentzimendura itzuli zen; eta, hil baino lehentxeago ja-kin zuenean ETAk utzi zuela borroka armatua, aipatu zuen Espainiako gobernuari zegokiola inposizio politiko-militarra

alde batera uztea. Ez zuen, tamalez, autodeterminazioaren bidezko independentziaren egun handira heltzerik izan.

6.1. ETA frankismoaren erregimenpean

Bigarren partearen lehen atalean xehetasun zenbait emango dugu Ekin-etik Eusko Gaztedira egindako urratse-na, eta bereziki Eusko Gazteditik ETA sortzerainoko urratsa nola egin zen:

Hots, behin eta berriz esan denez, “Eusko Gaztedi” izena aldatzearen kakoa, hain zuzen ere, biolentziara pasatzeko asmoak ekarri zuen: E.G.-ren inguruan zegoen saltsa (saltsa ikaragarria!) ez zen gauza ona ekintza gogorretan hasteko. Muga garbiak behar ziren. Eta ETA-ko batzuk baja eman ziguten guri, aztarnak kentzeko (...) Adar militarrek behartu gintuen denera: bai izena aldatzera, bai adar politikoa eta adar militarra (mili-ak eta polimili-ak baino askoz lehenago) bereztera; eta, goitik behera, bi organizazio izatera. Hau guztia 1959-ko udan gertatu zen. Eta J.A. Agirre-ri 1959-ko San Inazio egunean eman zitzaion aditzera ETA izeneko organizazio berri bat sortua zela. Ekintza militarretara pasako ote ginen eztabaida lehenago izan zen. Eta egia da batzuk gandismoaren tentazioa ezagutu genuela: Santamariak badaki honen berririk, eta adiskide handia zuen Jean Goss-ek ere bai. Baina eztabaida hori geure artean izan ondoren (1959-aren inguruan [1958an, segur aski], oker ez banago), “seigarren adar” hori sortzeko erabakia hartu genuen. Eta geroztik ez zen eztabaidarik izan, eta ez ezer horrelakorik¹³⁶.

Gandhismoaren tentazioa ezagutu zuen, eta 2.000. urte inguruan, Lizarra-Garazi jada hautsia eta ETA borrokara

136 “Así no nació ETA” in *Punto y Hora* 1979-06-21-28, 16. or.

itzulia, berriro planteatu zuen ghandismoaren bide gogorra, bestea bezain gogorra hortxe nonbait, baina horrek ez zuen biderik egin Euskal Herrian, eta, berak zioenez, etakideek egiten zituzten bi bideak, ez bestek.

Erabakia hartu ondoan ez zela eztabaidarik izan. Bego! Baina 1967an, ETA erakundea uztea erabaki zuen garaian, hark estrategia politikoa lehenetsi behar zuela zioen, gerri-lla-gerra bazterturik, hura ezinezkoa zelako Euskal Herrian. Hori ere jasoa dugu bigarren partearen bigarren atalean:

ETA ha estado durante 10 años dirigida según la línea “pu-
ra” de la intransigencia y del maximalismo. Tras 10 años el re-
sultado es que no existe una rama dura, y que no hay ni accio-
nes duras. Esto demuestra el fracaso de esa tendencia.

Cambiar así UNA ESTRATEGIA GUERRILLERA POR
UNA ESTRATEGIA POLÍTICA es cambiar un callejón res-
baladizo pero posible. Copiando a Lenin cabría decir que la
solución más revolucionaria no es necesariamente la inmedia-
tamente revolucionaria (...) Yo no veo a nuestro pueblo en
el monte, en contra de las condiciones geográficas, en con-
tra de los americanos, en contra del aburguesamiento de una
parte incluso de la clase obrera, etc., con una metralleta bajo
el brazo, sacando las concesiones a fuerza de sangre. La gen-
te de nuestro pueblo NO ESTA DESESPERADA, no somos
vietnamitas ni indios peruanos, ni argelinos. No lo somos.
Nuestra situación no es la de ellos. NUESTRO CAMINO
NO PUEDE SER EL DE ELLOS (...) Estamos en 1967 y en
Euzkadi (...) HAY QUE ABANDONAR LA ESTRATEGIA
GUERRILLERA, Y ADOPTAR UNA ESTRATEGIA
POLITICA. Es un juego doble, peligroso, pero el único rea-
lista¹³⁷.

137 *Documentos Y*, 7. liburukia, 30 or.

Horrek ez zuen esan nahi borroka armatuaren beharrik ez zela egongo:

Debemos pensar en que al fin habrá que dar un salto para conquistar la legalidad vasca socialista. No podemos caer en un legalismo de ningún tipo. Pero no podemos prescindir de una TACTICA dentro de esa estrategia, de una táctica PARA HOY, para Euzkadi Norte y para Euzkadi Sur, de una táctica REALISTA y no lunática. Como el peligro del legalismo y del oportunismo han llevado a la política vasca una y otra vez al carlismo y al neo-carlismo, por la izquierda y por la derecha, debemos tomar todas las medidas que garanticen al máximo que no se caerá en una legalidad no vasca¹³⁸.

1967an ez, baina 1968ko udaz geroztik eta 1969an, ekintza-errepresioa-ekintzaren espirala jada abiatu zirenean, jokabide suizida iritzi zion Txillardegik hari, bereziki Biafran garai bertsean jazoriko sarraskitik ondorioak ateraz:

Entre nosotros parece haber hecho muchos adeptos el *mito* de que el “mecanismo acción-reacción” lleva indefectiblemente a la victoria del oprimido. La derrota de Biafra, que se hallaba en la fase más que suprema de la cadena acción-represión, ha demostrado una vez más la enormidad del error que supone el creer que forzar la represión sea infaliblemente EL CAMINO de la liberación. El mecanismo “acción-reacción” hace triunfar al más fuerte. El problema no es así provocar la represión, sino ver objetivamente quién es el más fuerte en la lucha emprendida.

En el caso de Biafra, la creación de una “zona liberada”, sin contacto con el exterior, y el afrontamiento militar en un reducto, ha sido un *suicidio nacional*. Ojukwu contaba con el

138 Ibid.

apoyo político internacional en caso de controlar una zona liberada; pero ese apoyo no ha venido, y era probable que no viniese (...) También Zumalakarregi esperaba en las Amezkoas liberadas; pero Lord Elliot no pasó de ofrecerle el famoso antejo que puede ver el lector en Zegama.. (...)

La lección de Biafra es terrible; pero los vascos debemos tener el coraje de asimilarla: la violencia total, la escalada de la acción-represión, la teoría de las zonas liberadas, la estrategia guerrillera, la guerra popular total, etc., convertidas en EL ARMA a utilizar sin discusión son MITOS nefastos. Cada pueblo debe encontrar *su propio camino*, con un mando político y un mando militar subordinado, con un grado de acción violenta y otro de acción no-violenta a determinar, con una estrategia y una serie de tácticas sucesivas que dependan sobre todo de las condiciones concretas del pueblo al que se aplican, etc (...)

La “escalada” supone hoy por hoy una verdadera auto-purga de la juventud abertzale, obligada casi en masa en sus mejores elementos a ir a las cárceles o al exilio, y a anularse en consecuencia en pocos meses o años (...)

Lo dicho no equivale a la condena frontal de toda violencia. La violencia opresora existe; y será muy difícil, por no decir imposible, que Euzkadi coja en sus manos las riendas de su destino sin un cierto grado de lucha violenta. La Historia confirma esta hipótesis.

Pero ha llegado el momento de decir que la violencia es UNO de los métodos de lucha necesarios, no el único; y que debe ser encajada en un PLAN ESTRATEGICO Y TACTICO GLOBAL de liberación nacional. La acción violenta es UN MEDIO al servicio de una política nacional de liberación; y no a la inversa, esa política de liberación un puro ropaje a la violencia sistemática y total de un equipo heroico, pero aislado. Sobre todo cuando se demuestra claramente que una estrategia guerrillera es perjudicial. No hay que olvidar por otra parte

que el pueblo vasco no debe ser un espectador de su proceso de liberación; como no debe ser más tarde simple ejecutante de la política dictada desde arriba. La democracia empieza ya en el proceso de liberación, que debe ser colectivo (...)

Lo que decimos no equivale, sin embargo, en modo alguno a la aprobación, ni siquiera indirecta, de la política de *espera pasiva* al advenimiento de la República española de 1936 a las Cortes de Madrid, y análogas. Entre otras muchas conquistas eminentes y positivas del movimiento E.T.A. está la conciencia que ha creado en todos nosotros de que el pueblo vasco no puede convertir su liberación nacional en pura ESPERA ENTRE BASTIDORES DE POLITIQUEO; sino que desde ahora mismo es preciso *ACTUAR en Euzkadi y movilizar al pueblo vasco y en especial a su juventud*; sin esperar otros 34 años más a que en Madrid se imponga un régimen que nos reconozca lo que concedió a regañadientes un gobierno en guerra con medio país en manos del enemigo¹³⁹.

Demokraziak jada askapen prozesuan hasi beharra duela, bortxa bitarteko bat baino ez dela nazio askapenaren helburuaren zerbitzuko, eta ez heroi bakartu batzuen absolutua... Txillardegi intelektual engaiatua erakundearen ibilbidea estuki jarraitzen eta bide onera eramán nahiko ahaleginean.

Handik hiru urtera, Txillardegik idatzitako testu politiko luze eta osoenean (Proyecto de Manifiesto Vasco, 1973), idea horiek berretsi zituen, ñabardurak erantsiz:

La única carta posible en Euzkadi en 1973 es el REFORMISMO REVOLUCIONARIO; que no tiene nada que ver ni con el liquidacionismo, ni con la espera pasiva, ni

139 “Lecciones de la catastrophe de Biafra” *Branka* II. tomoa, Ediciones vascas, 1979, 503-504 orr.

con la “vuelta de la República”; ni, en el otro extremo, con la estrategia guerrillera y el maoísmo ultra. El reformismo revolucionario es LA REVOLUCIÓN POR FASES, consecuencia de la constatación del carácter UTOPICO de una Euskadi unificada y socialista obtenida DE GOLPE. La política chirriante de la toma del poder a base de zonas liberadas crecientes, se basa en la ignorancia de nuestra situación geográfica, en el desconocimiento de la estructura sociológica de la población de Euskadi en 1973, y en el caso omiso a la izquierda española y catalana. Esa política está condenada a la verborrea y al pataleo impotente. El fracaso de Zumalacarregui en 1835, en una situación infinitamente más propicia que en 1973, desaconseja toda ESTRATEGIA GUERRERA FRONTAL. La catástrofe de Biafra es un buen antídoto contra la violencia por la violencia.

Pero en el otro extremo, la política pusilánime de quienes quieren obtener cambios estructurales cualitativos sin romper un plato, rasgándose las vestiduras ante la menor manifestación de ENERGIA REVOLUCIONARIA por parte vasca, y esperando con los brazos cruzados, o con el hisopo de la excomuniación contra “los jóvenes inexpertos”, está en un FLAGRANTE CALLEJON SIN SALIDA, y debe ser CONDENADA Y ABANDONADA CLARAMENTE¹⁴⁰.

1975eko uztaillean, jada Franco azkenetan eta ETA borroka bizian zela, *Enbata* kazetan aditzera eman zuen politikoki arduragabeak deus egin gabe geldirik zeudenak zirela, Franco noiz hilko zain, eta bai, irakurleek erantzungo zioten egunen batean negoziatzera eseri beharko zela mahai baten inguruan, baina:

140 *Proyecto de Manifiesto Vasco*, 746 or.

Pero es mala fe no reconocer claramente, honestamente, que esas negociaciones solo son posibles gracias al trabajo arduo, duro, que las ha precedido; y SOLO GRACIAS A EL. Hablar de Evian sin hablar TAMBIÉN y SOBRE TODO del FLN argelino es falsear la historia.

Análogamente: si un día se llega a un Evian vasca (y algún día hablaremos de los magníficos “Evian culturales” que nos ha conseguido la “irresponsable” juventud vasca actual...) no habrán sido los “sesudos varones” de la política vasca quienes habrán tenido razón, sino solo quienes habrán forzado la negociación bien lejos de las famosas “mesas”. Es decir, los responsables y realistas habrán sido los que hoy pasan por “irresponsables”; y a la inversa (...)

Estamos HARTOS de inmovilismo, de mitos liberaloides, de opio electoralista; y es hora de decirlo. Estamos hartos de “legalidades” sin viabilidad, hartos de esperar, hartos de tratar con los enemigos de Euskadi y de negar a los patriotas incómodos. Hartos de ironías hacia quienes lo dan HOY todo por Euskadi, y de adulación hacia quienes hace ya muchos años que nada dan por ella (...)

Por respeto al pueblo vasco de hoy; por respeto a los militantes torturados, exiliados, asesinados; por respeto al pueblo humilde, desconocido, que arrostra riesgos enormes sin comprensión ninguna; por respeto incluso a quienes lo dieron todo en el frente hace 40 años: PONGAMONOS AL DIA. He ahí el primer paso RESPONSABLE¹⁴¹.

Bi hitzetan, eta ñabardura axolazkoak bazter utzita, gazte etakideei aitortu beharra zegoen egindako lan zail, sakrifikatu eta ikaragarri gogorra, eta berrogei urteko eskema

141 Ibid.

zaharkituak atzera utzi beharra egungoan egoteko eta ez atzokoan.

6.2. Trantsizio demokratiko delakotik hona

1978ko martxoan, diktadura ondoko lehen hauteskunde orokorrak eginak Espainian, Konstituzioa artean onartu gabe zelarik, *Punto y Hora*-k galdeturik ea fronte nazionala sortuz gero ETArri gelditzeko eskatzea bazegoen, delako fronte nazionalaren bitartez politika bidez gauzak lortzea bazitekeela eta, hona erantzuna:

Este es un asunto a plantear políticamente. ¿Quién puede decir a ETA que pare y en nombre de quién? Si ahora se presentara al Consejo General Vascongado –esta es, a mi parecer, la expresión correcta– y les dijeran que parase, le contestarían que en nombre de quién. Y es fácil que respondieran que en nombre del 15 de junio. Pero lo que pasa es que el 15 de junio es también consecuencia del franquismo, porque si las masas inmigrantes se hubieran encontrado con instrumentos de asimilación y de integración se hubieran producido otros resultados. Me parece que a ETA no se le puede condenar, ni decir que pare hasta que el pueblo vasco no tenga medios de recuperación de sus derechos que se vean claramente y no en declaraciones retóricas. Eso hay que decirlo. Con planteamientos políticos que no tengan en cuenta la gravedad del país y con partidos que quieran solucionar el problema a base de paños calientes no iremos a ningún sitio. Hará falta una buena dosis de heroísmo y riesgo¹⁴².

1978ko ekainean kanporatu zuten ESBtik. Bigarren parteko hirugarren atalean azalduko dugun bezala, desadosta-

142 “Txillardegí entre la cultura y la política” in *Punto y Hora* 1978-03-23-29, 15. or.

sun puntuetariko bat ETaren borrokarekiko balioespen ezberdina zen. Labur-zurrean: ESBk, 1976an eratu zenean, erakundeetan politika egiteko hautua egin zuen, baina horrek ez zuen esan nahi borroka armatuaren premia zalantzan jarri zuela; halere:

A plusieurs reprises, nous avons dû utiliser toute notre influence personnelle, pour contrecarrer les tendances nettement anti-ETA de la Direction actuelle. Nous sommes obligés d'avouer que notre point de vue n'a pas été adopté et que la même aversion et mesestime contre nos gударis y persistent¹⁴³.

Urte berean, urriaren 28an, Bilbon manifestazioa, EAJk deituta, era guztietako bortxa edo terrorismoen aurka. Ezker abertzaleak, berriz, atzoko eta gaurko gudarrien alde egin zuen manifestaziorako deia hiri berean. Handik laster, Martin Villa eta Gutierrez Mellado Euskal Herrian. Txillardegirentzat, estatuaren errepresio gogorra zilegitzeko balio izan zuen EAJk deitutako manifestazio hark, eta ez aterabide politikoak adosteko, baina Euskal Herriak borrokan urte asko zeramatzan, eta hala jarraituko zuen Espainiako Gobernuaren errepresioa errepresio:

Urriaren 28: Bilbo-ko manifestazioa. Azaroaren 4: Martin Villa eta Gutierrez Mellado Euskal Herrira. Astebete eskas pasa, eta horra hor uso zurien ibilaldiaren ondoko ondorioak agertzen hasiak.

Martin Villa: poliziaren buruzagia. Gutiérrez Mellado: armadaren buruzagia. Eta nor ikusi dute Donostian eta Bilbon? Kasernak, komisari-etxeak, polizietan buru egiten duten 60 sailburuak, gobernariak. Martin Villak 15 puntu "gogor" eka-

143 "E.S.B. épuration" in *Enbata* 1978-06-22.

rri ditu (“gogor” hitz hau Ministeritzan bertan erabili da, eta ez “Anaitasuna”-ko Idazkaritzan). Hitz batez: indar harmatuetan agintea duten bi gizonak etorri dira Euskal Herrira; eta ez diplomatikoak edo antzekoak.

Eta bertan, kasernak eta komisariak ikusi dituzte, eta ez buruzagi abertzaleak. Hitz batez: hemen egurra eman behar da, Madrilleren ustez; eta “terrorismoa” moztu. Alegia, egur emanez konponduko da euskal arazoa; eta ez: euskal arazoari aldakuntza politikoak eginez, erazuko da indar-bidea.

28-ko manifestazioa proposatu zutenek, horretara, Madrilleko gobernuaren irizpidea indartu dute. Denok bat, esaten zuten, euskal “terrorismoa”ren kontra... Eta handik astebetera hemen genituen kontraborroka hori zuzenduko dutenak...

Euskal “terrorismoa”, ordea, 1839-an hasi zen (lehenago ere bai Iparraldean, eta ez txiripaz). Eta euskal “terrorismo” hori, ez da inoiz eten. “Terroristen” artean, gaur arte eta betidanik apaiz asko, eta baserritar asko, eta gazte asko; eta, itxuraz bederen, odol-egarri itxurarik ez duen jende asko. Eta galdera berehala dator inoren burura: ZERGATIK? Zergatik euskal “terrorismo” azkengabe hori? Zergatik ez gauza bera Murcian, Badajozen eta Leonen? Hauxe da lehendabizikorik Madrillek aztertu behar lukeena. Baina ez du egiten.

Berriro ere, uso zurien eramaleen baimenez honetakoa, egur ematea erabaki du (...) Eta euskal “terrorismo”aren arazoa ez da horrela konponduko. “Pogrom” nabarmen batez edo ezpada¹⁴⁴.

Jada posizioa finkaturik, harik eta Lizarra-Garazik porrot egin zuen arte ez zuen aldatu. 1997ko abenduan, “Qui prodest” deritzan artikuluekin ETAk urte hartan eraildakoen-

144 “28-tik 4-cra” in *Anaitasuna* 1978-12-01.

gatik argitaraturiko kritika eta gainerako xehetasunak bigarren partearen 4. atalean azalduko ditugu.

6.2.1. Gandhi edo bortxarik gabeko borroka

Gorago ezarri dugu ETA sortzeko garaian Gandhiren tentazioa izan zuela. Hona adibide bat, 1980koa, Gandhi ahaztua ez zuela adierazten diguna. Aldi berean, Gandhiren borroka abertzalea zein izan zen azaltzen digu britainiar eta are japoniarren inperialismoaren aurka ere, eta halaber, UCD, PNV eta PSOEko ordezkariak harekin ez zutela inolako antzik; aitzitik, etakideek bai, gose-grebak egiten zituztenean:

Kalentura handia lehengo ostiralean Donostia-ko Udaletxeko biltzarrean, prentsak azaldu digunez. Eta hizka latza Manso eta Soto-ren artean, batez ere. Soto-k erabat harriturik entzun zuenez, Mahatma bera hartua baitute gidaritzat UCD, PNV eta PSOE-ko ordezkariak! (...)

Gandhi SAINDUA zen; eta Soto-ren kontra mintzatu zirenak, dirudienez bederen, ez dira sailduak hain zuzen. Gandhik zapalduak eta txiroak defenditu zituen beti; eta “pariak” bereziki: alegia, ez eskubide politikorik ez dirubiderik zuten indiar gizarajoenak. Nekez proposa daiteke gaur, PNV, PSOE eta UCD taldeek Euskadiko PARIK defenditzen dituztenik (...)

Baina Gandhi, saildua izanagatik ere, INDITAR ABERTZALEA izan zen; eta “ahimsa”ren bidez jokatu zuten ere (bortxarik ezaz, alegia), britaindar inperialismoaren kontra borrokatu zuen (...)

Baina Gandhi, zinez bortxarik-ezaren aldekoa izanagatik ere, ez zen behin ere lerratu britaindarrak edo japondarrak txalotzera (...)

1922-an, eta Gandhi-ren Txosten baten ondoren (ondorioz esatea gehiegizkoa bada ere), britaindar poliziak inditarren kontra tiratu zuen proosio batetan Chauri Chaura herriskan.

Erotu bezala egin zen jendetza tirokaldian; eta hilkintza-
ren ondoren, eta poliziari balak bukatu zitzaizkionean, kaserna
asaltatu zuten inditarrek. Poliziek, izuturik, leihoetatik bota zi-
tuzten beren buruak; eta lurrean zeudelarik, jendetzak zatikatu
eta hil egin zituen. 1922-ko Martxoaren 18.an honela mintza-
tu zen Gandhi bere hauzian: "...Halako batez, ez gizon gisa
eta ez inditar gisa eskubiderik nuenik aurkitu nuen. Hobeki
esateko, gizon gisa eskubiderik ez nuela; eta inditarra nintzela-
ko ez nuela, hain zuzen...Desgogara iritsi nintzen ondorio ho-
netara: britaindar okupazioak lehen baino umezurtzago utzia
zuela India, bai politikaren aldetik eta bai ekonomiaren alde-
tik... Gaur jende gutxik erreparatzen du Indian, Gobernuak
eta bere Legeak ezarritako sistema, populuen explotazioari bu-
ruz eraikia dela... Areago. Zoritxarrik handiena hau baita: bai
ingelesak berak, bai beroien lankide inditarrak, azaldu dudan
hilketaz jabeturik ez baitaude. Benetan sinesten dute mundu-
ko sistemarik onenetako baten zerbitzutan ari direla; eta India,
beraz, poliki bada ere, irmoki ere aurrera doala...Zinez diot
orain bortxakeria baztertu nahi izan nuela. Bortxarik-eza da
ene lehenengo helburua, baita azkena ere. Baina gertatu zitzaiz-
dan hautabeharra hau izan zen: edo ene Aberriari zuzenduezi-
nezko kaltea egingo liokeen sistemari amore eman, edo-ta nire
ezpainetatik ikasitako egiaren latzak eroldiren bat sortzea. Be-
netan senditzen dut gertatutakoa. Eta hemen nauzue; ez ari-
nena, baizik-eta zigorrik larriena jasateko gertu"... Horra hor
egiazko Gandhi, jaunak! Hori ahal da Donostia-ko Udaletxean
Manso-rekin batera botoa eman zutenen hizkuntza?

Eta gauza bera 1942-an. Japondarrak Indiarra sartzeko
arriskua gertu zegoenean, hau izan zen Gandhi-ren jarrera:
KOLABORAZIORIK INOLA EZ. Beraz, bortxarik gabe aur-
ka egiteko ausardiarik izango ez zutenek (alegia, bortxarik ga-

be HILTZEKO gertu ez zeudenek), “deberían actuar lo mejor que supieran y pudieran, del modo QUE FUESE, con tal de no someterse”. Xehetasunetan sartu gabe, britaindarrek Nehru, Azad, eta beste abertzale ezagun batzu detenitu zituzten. Segituan indarketa lehertu zen inperialisten kontra; eta zapal-keta inoiz baino latzago bihurtu zen; eta metrallaketak, afusilaketak, ugaldtu egin ziren. Beldur handiak gaindituz, Gandhi ere detenitu zuten. Hots, ez 1942-an, ez 1943-ko gose-oporra hasterakoan, ez 1944-an berriro gartzelatik irtetean, Gandhi-k zituen herriaren ekintzak gaitzetsi. “Ez da hori jokabide bor-txagabeen teknika. Tamalgarria izan da”. Kitto.

Eta Gandhi-k ez zuen sekula beldurrik izan inperialismoa salatzeko: “A partir de este instante (...) cada uno de vosotros se considerará como hombre o mujer libre, obrará ya cual si fuese libre, y ya NO BAJ.L. BOTA DEL IMPERIALISMO”. Noiz entzun da horrelakorik Donostia-ko Udaletxean eta Gandhi orain aiputan duten horien ahotik? (...) Noiz egin dute delako horiek gose-oporrik hiltzeko arriskuan jarri arte? Nik esango dizuet, besteak beste, nork segitu duen gure artean bide hori: Apalak, eta Montzonek, eta Juan Jose Etxabek, eta Eustakiok, eta Okamikak, eta Itxaro Goikoetxeak, eta Feli Ziluagak, eta abar eta abarrek. Nik dakidala, horiek egin dute gose-oporra Gandhi-ren antzera; eta ez Mansok eta bere aldekoek. Manso-k lehengoan, horrela, Histori-kontuetan makal dabilelako nunbait, Gandhi esan zuenean, Quisling esan nahi zuen. Eta edonork izan dezake oroimen-lapsus bat¹⁴⁵.

2000. urtean, *Argia*-ko kazetariak ea borroka armatuari eta kale-borrokari eutsi behar zitzaion galdeturik, hona Txillardegiren erantzuna:

145 “Gandhi-ak eta quisling-ak” in *Punto y Hora* 1980-05-14-21.

Nire ustez momentu honetan gauzak dauden bezala egonda, borroka armatuak ez du mesederik egiten. Hemen batzuk pentsatu dute (eta genuen, garai batean): gauden egoeran egonda, beste antzerako herrietan zer egiten dute? Borroka armatua, eta leku askotan esperientziak hori erakusten du. Baina horrek ez du esan nahi, nahitaez, eta mementu guztietan hori egin behar denik: malgutasuna izan behar da hor. Mementu honetan ikusten bada blokeo bat, Espainia guztia batuta dagoela gure kontra, eta La Fontaine Europako presidentea nazkagarri hori berdin, zer egin egoera honetan? Noiz arte jarraitu beharko da atentatuak egiten etsaia mugiarazteko? Orain arteko panorama aldatu behar dugu, orain inpassa batean gaude. Nik uste garaia dela saio politiko bat egiteko; baina ez politika parlamentarioa (hori behar bada egin dezatela, baina nik ez dut horretan sinesten), baizik eta desobedientzia zibilaren politika, gandhismoa: masiboa, gogorra. Nik uste horrek desblokeatuko lukela arazoa, bestela borroka armatuaren bidez Espainia eta Frantziak iraungo dute nahi duten guztia, eta gehiago. Gure arteko batasunak kezkatzen ditu Madril: orain desobedientzia zibiletik joko ote dugun daude kezkatuta. Gandhismoa bultzatuko nuke. Eta Gandhik egiten dituen gauzak, egin egin behar dira, gero! Hemen jendeak Gandhi gizon inozotzat hartzen du eta Gandhi inork baino energia eta ausardia handiagoa zuen gizona zen, gogorra! Nik ez dut neure borroka geldituko, nik tiroak gelditzea nahi dut, baina gainerantzeko guztia aurrera!¹⁴⁶

Dokumenturen bat ere idatzi omen zuen Gandhiren il-doko desobedientzia zibilaren aldeko mezua zabaltzeko, baina, denok dakigun bezala, desobedientzia zibilak ez du he-

146 “Nik neure borroka ez dut geldituko” in *Argia* 2000-11-26

men jarraitzaile gehiegi izan, eta hura erabili denean helburu politikoeekin gogor zigortua izan da eta erreka jo du azkar.

Nolanahi ere, adierazgarria da Txillardegik Lizarra-Garaziren ondotik beste bide batzuk proposatu izana impasetik atera nahian, oso hurbileko jende askok ez onartuagatik eta bere izen ona galtzeko ez bada orbantzeko arriskua bereganatuz. Are gehiago Aralarrera igarotzeko hautua egitean; orduan traidore izateko perilean jarri baitzen.

6.3. Atzoko eta gaurko gudariekiko harremanak

Atal honen atarikoan esan dugu beti planteamendu politikoen arabera juzgatu duela kontrabortxa iraultzailearen gaia, baina oso modu gizatiar eta emozionalean, engaiatu eta konprometituan. Harreman ugari izan zuen gaurko gudartzat zituenekin, adiskide eta gutxi-asko gogaide zituenekin, 60ko hamarkadan izandakoez gain, bereziki 70eko hamarkadako lehen urteetan, berak kontatu izan digun bezala, eta 80ko hamarkadan ere bai, HBren Mahai Nazionaleko kide zela.

Ez zeukan ezkutatzeko ezker abertzalekoa zela, ETAkoa, unean uneko kritikak gorabehera, eta inoiz armarik erabili gabe, jakina; aitzitik, intelektual engaiatuari zegokionez, lanik garrantzitsuenetakoa ezker abertzaleari eta erakunde armatuari bere ideiak eta ikuspegiak azaltzea zen, herri honetako gizona izatea, Euskal Herriaren askapena xede nagusi zuela: “*Erradikala, euskaltzale eta abertzalea, ETAkoa, herri honetako gizona...*”¹⁴⁷.

147 “Intelektual konprometitua” Koldo Aldabek egindako elkarrizketa, in *Egunkaria* 1999-01-03.

1971ko maiatzean, bere aurkako kanporatze agindua heldu zitzaion Iparraldean bizi zela, hirugarrena sei urtetan, T. Monzoni heldu zitzaion bezala, eta hainbat etakide errefuxiatuk gose-greba egin zuten haiekiko elkartasunez. Berak beste bi egingo zituen gero beste etakide batzuei elkartasuna erakusteko; bata, 1972an, Baionako katedralean, eta bestea, 1974an, Zokoako parrokiari:

ETAkoek, orduan buru zen Juan Jose Etxaberen bitartez, Telesforori eta niri Ipar Euskal Herritik ez mugitzeko eskatu ziguten, eta Baionako katedralean gose-grebari ekiteko; aurreko urtean beste euskaldun errefuxiatu batzuek St. André elizan egin zuten bezala. Proposamena ontzat ematekotan, prest zegoela ETako errefuxiatu mordo bat, gurekin batera katedralean etzateko (...)

Jende ezagun asko mugitu zen Baionako grebakoan. Oporreko argazki horiek gaur begiratzea, arrunt zait mingarri; grebakide mordo bat, ondikotz, borroka latzean gertatu baitzen hilik ondoko hilabeteetan eta urteetan. Eustakio Mendizabal topatzen dugu hor, eta “Tomasón” Pérez-Revilla, eta “Korta” Garmendia, eta “Txapela” Goikoetxea, eta Mondragón (Hondarribian hilko zutena)... Beste multzo bat ere ageri da fotoetan, zanpaketa gogorak jasanik: Juan Jose Etxabe bera, “Zarugalde”koa, atentatuz zauritua eta alargundua; eta Jesus Zabarte arrasatearra, eta Mikel Lujua, eta Blasco, eta ondoko urteetan ia-ia giltzarri agertuko zen Azkoiti...Eta Mark Légasse ipartar idazlea, eta “Txino” Uria, eta abertzaleon artean batasun beharraren apostolu nekagaitza: Jose Manuel Urbistondo. Eta abar luze bat (...)

Iparraldean bizi ginen errefuxiatuok, bestalde, ez ginen baxterre lasai bizi. Argalaren eta Peixotoren kasuak puntakoak dira; iceberg zabal baten tontor agiriak. Eta 1971-1977 urteak,

horretara, Hendaian emandakoak, oso korapilatsuak izan ziren enetzat.

ETAk gurekin 1971n erakutsitako anaitasuna nik ere zuzen jokatu nahi hutsez “ordaindu” beharrez, beste bi gose-grebatan sartu nintzen, frantsesek botatako etarrekin bat eginik: 1972ko urrian lehehengoa, Baionako katedralean; eta Carrero Blancoren hilketaren ondoren, 1974eko urtarrilean, Zokoko parrokiaren; hemezortzi eta hamazazpi egunez. Motzak izan ziren biok, iraupenez; baina oso ondorio txarrekoak Bat bulego teknikoan egiten nuen ingeniari lanaren aldetik¹⁴⁸.

Ez zen bulegoko intelektuala. Eta pertsona emozionalki arras lotzen eta estekatzen duten borroka-harreman horiekin batera, balioespenak isurtzen zituen, eta Gandhiren esan bat egiten zuen bere:

Norbaiti mingarri bazaio ere, eta oro har, aberrigintzan lan egiten zuen indar politiko bakarra ETA zen (...) Euskal Herriaren alde bizia arriskatzeko eta emateko prest zeuden aberkideak, ETAkoak ziren. Eta ez besterik inor. Gauzak garbiki behar dira aitortu. Gandhik oroitarazten zuenez, bizia ematera bultzatzen duten ideiek merezi dute... seriotan hartuak izatea. Gainerakoak? Nagoen isilik. Telesforori ere guztiz puntu garrantzitsu zitzaion hau, predikatutako ideia indarra eta sinesgarritasuna funtsatzeko¹⁴⁹.

1976an, Hego Euskal Herrira itzultzeko garaian, ildo beretik, borrokakideekiko emoziozko lokarrien uberan, honako aitorten sentimentalak:

148 *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, 1994, 288-294 orr. *Enbata* kazetak ale berezi bat atera zuen greba horren berri emateko. Besteak beste “Qui est Txillardegí” galderaren ondotik haren biografia laburra. Ikus *Enbata* 212. alea, 1971-06-04.

149 Ibid.

Baina, nola ukatuko, zertarako izkutatuko, itzul-giro sarkor honetan, irudi batzuk datozela arrapaladan oso bereziki, eta behin eta berriz, geure barne-muinetan. Ezen adiskideak horrerako bezperan hemen agurtzen ditugunok, halako batez itzultzeko esperantza ez baitugu guk galdua.

Baina gure tristura luzeak eta pozaldi laburrak gurekin, zelai ilun urrun arrotzetan, dastatu zituzten batzuk, gure arteko leialenak hain zuzen, justizi-egarrienak, herri-minduenak, lurpetako isilpe osoan baitautza, azkeneko esperantzak berak oinaze ezin latzagotan iraungita...Eustakio anaia! Hi hatorkit aurrenik, zurbildurik, zulaturik, kirasturik! Hi biziaren irudia, ausardia bera: geldi-arazia. Eta hi ere bai, Txapela, Baionako gosekide isila; eta hi, Korta, ez horren aspaldi, biok lanean ari, Landetako bazkaldegi hartan ustekabeen bazkalkide gertatua. Eta besteok: Iharra, eta Andoni, eta Josu. Itzul-giro loretsu honetan, zuek, prestuenak, umantenak, betirako deserrituak!

Itzul-giro honetan, zuen oroitzapenetan, sekula itzuliko ez zaretenon gomutagarri, minutu bateko isilunea eskatzen dut, eta lats-zurumurrurik isilena eta olerkitsuen¹⁵⁰.

6.3.1. Eustakio Mendizabal eta Txomin Iturbe

Eustakio anaia etortzen zitzaion gogora aurrenik, biziaren eta ausardiaren haragiztatzea bera izaki, etsaiek geldiarazia. Lokamuts edo amets-giroko idatzi batekin egin zion gorazarre. Alde askotatik azter daitekeen testua da, hasi darabiltzan ezohiko adizkietatik –Leizarragak erabilitako aditz-sistema bereziaren imitazioa dirudite horko adizkiek–, eta iruditeriaraino, deigarrien horietxek gertatzen baitira: irudiak.

150 “Itzul giroa” in *Zeruko Argia* 1976-05-09.

Lehen paragrafoak izadian kokatzen gaitu, udaberri giro ederrean, kukua entzuten dela urrunean, bizitzaren udaberrian. Bigarrenean, berriz, izadia tenplu sakratu antzaldatzen da, eliz handi bat: aldare argitsuak nonahi eta mila organoren soinu sakratuak orroka gorantz, eta izadi-eliza ingurune sakratu horretan “garruztar maitatua” –Itsasondon jaioa, Lazkaoko komentuan ikasketak egina eta Donapaleu ondoko Garruzen bizi izana azken urteetan, baserrian, neska-lagun eta bi semeekin eta beste iheslari batzuekin batean– bertotan entzuten dugu:

Heldu duk eguna, adiskide, eta ba diakiat. Kaliza edan gabe ez diagokek irtenbiderik; eta gaztetan deitu ninduenak bezalaxe edanen diat nik ere. Dena eman, ez parte bat soilki. Enekin ez, baina ni gabe: horra hor gizonari eskain dakiokkeen kalizarik garratzena. Hozitzen hasi den udaberri hau nahi niake dastatu eta uxtiatu; baina ez diat dastatuko are gutxiago uxtiatuko. Betor, halere, kaliza mingotsa! Isil bedi ene ahoa hirea eta zuena inoiz libroki mintza ahal dadintzat. Ezezta bedi ene bizia osoki, zuek inoiz zerona molda ahal dezazuentzat. Bihotzaren erditik maitatu dizkiat neureak; bihotzaren erditik maitatu bizia, sakonki mendi eta zelai berde hauek; erraietatik, bakarrik geldituko zaretan zuek hirurok! Bihotzez zuek guztiok, isilaroko nekakideok oro. Beharrezkoa duk, ordea, betirako isil nadin, eta betirako urrun nakizuen. Agur t´erdi! Harren bazka naiteanean, bizi izan nauena piztuko duk¹⁵¹.

Aberriaren alderako maitasunez, aberkideak bizi daitezen isildu beharra duela iragartzen du, Jesukristok gizadiagatik antzo, bere burua eskaini beharrez, baina heriotza itxaropen-

151 “Lokamuts: Eustakioren oroitzapenetan” in *Zeruko Argia* 1973-05-20, edo *Euskal Herriatik erdal herrietara* 1978, 101-103 orr.

tsua aldi berean, bera fisikoki usteldu eta izadiratzean, beste-
rengan piztuko baita, berak ekartzen lagundu duen udabe-
ria aberkideek dasta eta ustiatzerik izanen dutelakoan.

Nork kentzen dio bizia?

Eta horrela mintzatu zenean, bele urdin talde kondagaitz
bat ingura zekion; eta garrasi bat entzun niezaion eta hain
maite genuena, bere gerria bi eskuez etsita heltzen zuelarik,
sinetsi ezinezko moduan makur zedin, ezpainez lurrean muin
egin arte.

Bele urdin horiek bele faxistak diren itxura guztiak dituz-
te. Baina biziaren galera ez datorkio braustakoan, pixkanaka
eta garrasi erdiragarritz doa hilez, eta heriotza hori oso ezber-
din bizi zuen berak, testuaren narratzaileak edo haren herio-
tzarekin bozkariatzen zirenek:

Odolezko iturriak jalki zekizkidan neure begietatik. Eta be-
latzar talde gaitz hura ingura zekidan, eta azaldu ezinezko ika-
rak har nintzan. Eta ttutturru urdinek eta gorriek barre zegi-
ten.

Hots, orain beletzarrek txano puntadun urdinak ez ezik
gorriak dituzte, hots, faxista eskuindarrei faxista gorriak batu
zaizkie, sozial-inperialistak, marxista-leninista-estalinistak.

Heriotza hori, haatik, kuraia eta adore-emangarri gerta-
tzen zaio; izan ere, mendiez bestaldetik oste gaitzen kanta
ozena entzuten du, eta horrek, jakina, bozkariatu zuen eta
bere deliberamendua azkartu eta irmotu:

Argituaz zoan goiztiria; eta bapatean, mendiez bestaldetik,
oste gaitzen kanta ozena entzun nezan: “Ez gal gure odol be-
roa! Bizi bedi gure Xiberoa!” Eta gau azkengabeen lehenen-

go aldiz isur zitezen malakoak oparo ene masailetan behera. Eta bozkarioz beta nendin. Eta ene deliberamendua azkar zedin: “Il naiago dot ikusi baino”. Eta hire irudia iratxeki nezan gelako horman; eta hortxe diagok, ene birauen eta deliberoen oroigarri. Eta hortxe diagokek tinko ni bizi naizeno, gu guztiok bizi gareno, hi haizen bihia uzta bihurtzen deno.

Eta elkar gintezen irudiaren inguruan. Eta tutturru urdinak eta gorriak, ilara azkengabetan, amil genitzan malkorretan behera. Eta erroiek, bele beltzek eta putreek jan zitzaten haien hondakinen hondakinak; eta haien izenak berak suntsi zitezen lurpean.

Eta kukua entzun nezan urrunean¹⁵².

Elkartzeko, bat egiteko indarra ematen zuen Eustakio Mendizabal *Txikiaren* heriotzak; etsai urdin eta gorri, faxista eskuindar eta faxista gorrien aurka gudukatzeko, eta udaberiaren eta bizi berriaren ikur den kukua berriro entzun zedin eta entzun zezan.

Txomin Iturberi, dakidala, ez zion horrelako idatzizko gorazarerik eskaini. Iturbek euskarari aberrigintzan zer leku opa zion jakiteko lekukotasun bat eskaini zigun J.M. Odrizolak:

Kontuak kontu, noiz edo noiz aditzen ditugu euskaraz hezurmamitutako nazioaren aldeko deiarar sutsuak mundu abertzalean. Balio-juzgu labur eta zehatzak dira, ez gogoeta teoriakoaren uzta. Erraietatik jaurtikitako oihu ozenak. Barrenbarrenean lehertutako gurari-eztandak (...) Txomin Iturberen deiadarrak abertzale batzuen asmoak lotsaizunetan jarri nahi dituela dirudi: Gainera, burujabetasuna, independentzia, eta

152 Ibid.

gainerako guztiak soberan daude euskararik gabe. Euskararik gabe ez dago ez burujabetasunik ez kristorik¹⁵³.

“Izuaz hil” izeneko artikuluan, *Egunkarian* (1992-03-03), aditzera eman zuen Txillardegik Iturbe bizirik balitz, izuz hilko zela Ajuria Eneko mahaiaren berri izatean eta Ardanza eta Arzalluz hizketan entzutean.

Aljerian hil zenean, hara joan zen Txillardegi, Iñaki Esnaola eta Xabier Bareñorekin batean, Herri Batasunaren Mahai Nazionaleko ordezkari gisa.

Tasio Erkiziak honela idatzi zuen, Arrasaten bere jaioterriak egin zion azken agurraz:

Agur eta ohore, Txomin. Samindurik, penaturik, bihotza penaz leherturik... baina indartsu, tinko eta benetazko itxaropenez agurtu zintugun igandean zehar Arrasaten. Milaka eta milaka gazte, pertsona heldu nahiz gudariak bildu gintuzun. Negar malkoak eta negar zotinak jende askoren begietan.

Astean zehar Txomin Iturberi buruz gauza asko eta oso desberdinak entzuteko aukera izan dugu. Batzuren ustez, terrorista bat hil zaigu; beste batzuk esan dutenez, Francoren garaian gudari, euskaltzale eta abertzale jatorra izan arren, orain engainaturik eta bide okerretik zihoan gizona joan zaigu. Txomin hil ondoren ETArekin negoziatzeko azken aukera galdu dela diotenak ere ba dira. Eta zer dio herriak? Zer dio herri langileak? Zer diote abertzaleek? Hona hemen, Arrasaten aski argi adierazia: Txomin gudari, abertzale, aintzindari, euskaltzale, bakezale, iraultzaile eta herri gidari, Euskal Herriko lehen-dakaria zela.

Batzuek manipaluta egin nahi izan zaituzte; gehienak, lehen bait lehen ahaztu, baina gure herriko abertzaleek zure tokian

153 Odriozola, J.M.: *Abertzaleak eta euskara*, Elkar, 2008, Donostia, 200 or.

kokatu zaituzte, herriaren erdian, gure bihotzetan, gure eredu imitagarri gisa (...) Zerraldoaren aurrean milaka lagun testigu genituelarik zin egin genuen ez genuela etsiko. Erabaki genuen gure herriaren askatasuna lortu arte jarraituko genuela, gure herriak zutik dirauela, saldukeri guztien gainetik, zuzen eta gogor diharduela ozenki oihukatu genuen. Txominen bidea eta helburuari zintzo eutsiko geniola promes egin genuen (...) Txominen zerraldoaren aurrean egindako promesak etorkizunerako esperantza bilakatu zitzaigun, bizirik dirauen herri baten irrintzi ameslaria¹⁵⁴.

Nik uste bere horretan sinatuko zuela Txillardegik Tasio Erkiziaren idatzi hori.

Txomin Iturbe Abasoloren gorpua estali zuen oihal berekin estali zuten Txillardegiren gorpua ere, eskatua baitzuen hala egiteko. Ez da gorazarre makala!

6.3.2. *Atzoko eta gaurko gudariei egindako elkarrizketak*

Lagin batzuk baino ez ditugu aldatuko, atzoko eta gaurko gudariei erakutsitako onginahiaren adierazgarri. Hurrenkera kronologikoan, Antonio Garmendia *Tupa*-ri egindakoa da lehenbizikoa. Hona aurkezpena:

Oraindik ere oroitzen da irakurlea segurki: “Tupa-Otaegi-askatu”...Gogoan daukat oraindik Irailaren 27-ko gau hura, osoa esnai pasata...1975-ko udazkena hasi berria zen. Eta ni neu, Euskadiko beste mila eta ehun mila bezala, han egon nintzen lorik ezin harturik, Paredes eta Otaegi betirako kenduko zizkiguten egunsenti garratzaren zai. Gu han ginen, Behobia eta Béhobie berezten dituen zubi madarikatuaren ondoan. Eta han zeuden gurekin, beila luze eta etsian, Errekart Hendaia-ko

154 Erkizia, Tasio: “Herri batek zin egin duenean” in *Punto y Hora* 1987-03-12-19.

alkatea eta kontzejalik gehienak; eta han ere “deserriturik” bizi ginen Hegoaldeko abertzaleak, ehunka; eta ipartarrak ere hantxe genituen, lagun. Gau luzea, zinez; tarteka baizik ez laburtua: “Gora Euskadi Askatuta!”...”Hijoputas!”...oihu lazgarrietan behin eta berriz. Ezin ezer egin! Eta biharamunean, goiz goizik, berri lazgarria heldu: “Txiki eta Otaegi hil dituzte”...

Irailaren 27-ko goiz hartan bertan, ordea, hantxe zegoen, heriotzaren zai, bera ere garbituko zuten etsia, gure Jose Antonio Garmendia, askoz ere gehiago “Tupa” deitua. Zelda berezi horietako batean zegoen hil zai; komutazioaren berririk ez baitzuen Tupak goizeko 6:30-ak arte izan! Sinetsi ezina gertatu: arratsaldean ikasi zuenez, Txiki eta Otaegi afusilatua; eta bera ez (...)

Eta orain, baztertuta? (Galdera hau egin nionean ez nekien “Zeruko Argia”-n orain dela gutxi artikulua bat idatzia zuenik)

Bai, noski. HB-ren alde negok, jakina; baina urrun xamarretik ikusten diat, dena dela. Orain dela sei urte, lanak izaten genizkian gordelekuak lortzeko. Orain, berriz, garai hartan kuxkurtuta bizi zirenak, berebiziko “borrokalari” agertzen dituk, eta askotan gailen eta nagusi... Jendeak arin xamar senditzen dik gaur abertzaletasuna. Garbi ageri duk hori euskararen arazoan. Esate baterako: nola liteke Alkain jaunak lehengoan euskarari lehentasun osoa ez ematea?

Eta han utzi dugu Tupa famatua. Etsi-xamarturik agian: abertzaletasuna eskastu eta lardaskatu egin dela uste baitu Tupak. Eta iritzi horrtan ez da bakarra¹⁵⁵.

Hurrengo elkarrizketa Luis Sansinenea EAE-ANVko atzoko gudariari, 1936ko gerran ANVko batailoi batean ibiliari, Gabriel Goitiaren buruzagitzapean, kapitaina izatera heldu zena:

155 “Tuparekin” in *Punto y Hora* 1979-05-10-17.

Eta segituan frentera?

Horixe. ANV-ko ehun batekin, Orio gaineko Zarate-aldean gertatu nintzen. Gudua hasia zen guretzat!

Eta luzaz horrela?

Euskadiko gerratea bukatu arte. 1937-ko abuztuan, horrela, Santoñan gertatu nintzen. Han zeuden, besteak beste, Joseba Elozegi, Koldo Mitxelena eta Juan Axuriagerra. Ordurako kapitaina nintzen.

Zenbat zineten ANV-koak?

ANV-ak lau batalloi eratu zituen. Lehenengoa Gabriel Goi-tiak agintzen zuen (...) Ni lehenengoan egon nintzen gerrate guztian, eta Santoñan eskuetan erori arte.

Saseta ezagutu zenuen?

Bai. Eta Saseta gizon maitagarria zen. Beste alde batetik, eta nahiz PNV-koa izan, oso begi onez ikusten gintuen gu eta ANV¹⁵⁶.

Laster, beste atzoko gudari bati egin zion: Legutioko Niskasio Goroigordobil-i, Loiolako santutegian, 1936ko azaroan eratu zen Euzko Gudarostearen lehenbiziko batailoian, Loiola batailoian, Lino Lazkano buru zela, gerra egindakoa-ri:

Eta nola egin zinen abertzale? Nola hasi zinen?

Berenguer erortian asi nitzten, eta gure leengo batzoki-
xa zabaldu geneban amen. Ni Jagi-Jagikoa nintzen. Eta areik
pe gogorrek zirian. Kandido Arregi pistolagaz ibiltzen zan urte
areitan. Baie etzirien ETA-kuek bezin urriñera allau. Baie aipe
gogorrek oso.

Eta orain, zelan ikusten dituzu gauzak?

Ointxe esana deusut: burruka egin biar. Madrillek? Emon
bapez!

156 "Luis Sansinenea-rekin hizketan" in *Punto y Hora* 1979-05-25/06-01.

Eta “oraingo gudariez” zer dinozu?

Bai, badakit: “atzoko eta gaurko gudariak”... Baie... gaurko gudariak eztauz!

Nola esan dezakezu hori? Zer da ETA zuretzat?

Niretako ETA gauzarik ederrena da. Alaxen esan neutsan bein Leizaolari, eta ixilteko esaustan. Eta ixillik egon biar. Baie egin deuz gauzarik onenak!¹⁵⁷

Beste elkarrizketa bat urte berean Herri Batasunako Itziar Aizpuruari. Hona aurkezpena:

Burgos-ko Gerla-Kontseilu ospatsu hartan hiru emakume zeuden kondenatuen artean: Jone Dorronsoro, Arantza Arruti eta Itziar Aizpurua PUNTO Y HORA honetan, Itziar mintzatu-tuko zaigu Euskadi-ko egoeraz; eta xeheki egingo du, eta inolako trabarik gabe. Zapalkuntza, gutxik bezain bertatik ezagutu duen emakume abertzale bat aurkituko du irakurleak (...)

Eta orain zer moduz zaude, Itziar? Bizkortu al zera?

Bai, bai. Giltzurdina kendu didatenez geroztik, askoz hobeto nago (...). Bai, bai. Eta ez dut ezer izkutatuko. 1969ko martxoan poliziak detenitu ninduean (Larena erori ondoren; eta Jokin ene senarrarekin batera, Deban bertan), Sainz-en eskue-tara eramanez ninduten. Ni, ikusten duzunez, ez naiz oso emakume handia; eta Sainz, berriz, gizatar handia eta sendoa da. Deklarazioak behar zituen Sainz-ek; eta hona zer bururatu zitzaion: ni hanketatik heldu, zintzilik beraz, eta buruz bera nindukala; eta paretaren kontra, jo-ta-ke! Burua guztiz minberatua, eta bi saiheits-hezur hautsita: horra hor Sainz-en lana. Eta giltzurdinaren ere arras hondatuta: bat kendu arte ez dut bakerik izan hamar urte luze honetan (...)

Burruka harmatua ez dela geldituko uste duzu, beraz.

157 “Nikasioarekin hizketan: Oin be urtengo neuke!” in *Punto y Hora* 1979-06-8-15.

Zernahi esanagatik ere, burruka harmatua gogorra da, eta ez zaio inori gustatzen; eta neri ere ez. Baina gauzak diren bezalakoak dira. Burruka, hitzez, eta hitz soilez, eraman nahi duenari zer kaso egiten dioten badakigu; eta parlamentoaren bitartez zer lortu daitekeen, ongi ikusi dugu azkeneko hilabeteotan. Herri batek, horrengatik, bere burujabetza zinez nahi duenean, burruka harmatura jo behar izaten du. Eta hau behin eta berriz ikusi da historian barrena¹⁵⁸.

1980ko urtarrilean, Nafarroa Behereko Kristiane Etxaluz-i. Hona aurkezpena:

Una gudari, una militante de la clandestinidad y de la semi-legalidad actual. Una luchadora de Euskadi-Norte, como ejemplo de la lucha que ocupa los dos lados de la frontera. Kristiene Etxaluz nos cuenta el proceso de su iniciación en la militancia vasca de la clandestinidad en los años 60 y su posterior evolución hasta nuestros días.

Ez dira anitz, ez, Franco-ren gartzelak barnetik ezagutu dituzten iparrarrak; eta are gutxiago, jakina, horien arteko emakumeak. Gaurkoan Iparraldeko gudari emakume bat mintzatu tuko zaigu, baxenabartarra bera, Iparraldeko Nafarroako alaba hobe; Donapaleu ondoan dagoen Domintxaine herriskakoa (ofizialki: “Domezain”) (...)

Hamalau hilabetez egon ninduzun Iruñeko gartzelan juzkatua izan haiduru. “Terrorismo” eta “rebelión militar” aipatzen zuten ene kontra; eta 12 urte eskatzen. Eta 1966.ko maiatzean “Consejo de Guerra” egin zautaten bertako kasernetan. Eta, azkenean, 28 hilabete presondegi bota (...)

Eta “politika” delako hori utzi?

Ez, ez. Enbata-koek izigarritzko harrera berua egin zautaten. Eta egiaren erraiteko: arrunt mogitu ziren ene alde. Eta on-

158 “Elkarrizketa bat Itziar Aizpurua-rekin” in *Punto y Hora* 1979-09-27/10-04.

doko eletzioneetan “Enbata”ren izenean presentatzeko eskatu zautaten. Eta 1967.ko bozetan Haran presentatu zuzun kostaldian, eta nihar berriz barneko aldian. Berak %4,3 atera zuen, eta nik berriz %4,95 edo, ia-ia bortz. Mintzatu nintzen leku guztiak, denak, bethe-betheak izan nitian. badakizu: ni nintzen delako “espèce rare”, hoietakua, eta “un phénomène de masse” gerthatzen zuzen leku guztietan. Ados ez izanik ere, merak berak jiten zituzun nire agurtzera!¹⁵⁹

Hurrengo berriz, Piarres Lartzabali, Zokoako apez aberzaleari. Hona Txillardegiren aurkezpena:

Euskal Herriko Kondairan apaiz famatuak ez dira falta: Cura de Mañeru; Cura de Hernialde (Santakruz, beraz); Cura de Lezaun (gaur Arizabaletan erretiratu); Aitzol, 1936-an afusilatua eta Lartzabal-en laguna izana; Montori-ko erretora, Beihl-en harrapaketan oso aipatua; eta abar. Joera diferentetakoak, jakina; baina denak nor bere garaian ezagunak, eta batera maitatuak eta gorrotatuak. Nola uka gaurko egunean Piarres Lartzabal, Zokoa-ko jaun-ertorari, datxekiola apaiz abertzaleen arteko txapela? (...) (Eta beste gela batetik ekarri dit delako liburua: *Nere Mendixkatik*; eta azpian, beste hau: *ETA-ko gudariez apez bat mintzo*. Hendaia, 1978).

Ba, hortxe duzu ene pentsamendua.

Eta ireki orduko, hau irakurri dugu: “Munduko gizon guziek onhart balezate indar armatu bakar bat, morala horri jarraikiko liezken auzitegien zerbitzuko –orduan segur, gerla baztertua litake edo bederen gutitua. Bainan ez gira hortan eta ez goatzi hortarat...Horiek hola, ETA-ko gударiek zeramakaten gerla, ez zen gerrilla koxkor bat baizik. Eta harritzeko da zenbat moralista eta nor ari ziren ETA-ren borroka armatu horren kondenatzen. Kondenatzale zituzten frankistak... Konde-

159 “Kristian Etxaluz guri mintzo” in *Punto y Hora* 1980-01-10-17.

natzale komunistak... Kondenatzale PNV-ko batzu ere... Nere irudipena da kondenatzale horien jokaera zela ustela. Gatu horren bazuela bertze buztanik. Horiek salatzen ez zutena zen beren diruari, kargueri eta protagonizmoari zuten atxikimendua. Nausi berririk ez zuten nahi; berak bakarrik, ordu artio, jaun eta jabe egon ziren alorretan”¹⁶⁰.

160 “Pierres Larzabal: El cura de Sokoa” in *Punto y Hora* 1980-06-13-20.

7. INTELEKTUAL KONPROMETITUA

Lan honen xedea nagusiki Txillardegi politikoa bada ere, intelektual konprometitutzat zeukala bere burua eta alde horretatik giza zientzien alor askotan, nagusietan beharbada, bere garaian boladan zeuden intelektualak guri, euskaldunoi, ezagutzera emateko egin zuen lanaz deus esango ez bagenu, huts egingo genuke. Hori esanda, esan behar era berean oso gaingiroki eta axaetik baino ez dugula jorratuko Txillardegiren alderdi interesgarri hau.

50eko hamarkadan jadanik, eleberri existentzialistak tar-teko –*Leturiaren egunkari ezkutua, Peru Leartzako*– bildu zuen intelektual fama; baina fama hori 60ko hamarkadan fin-katu eta zehaztu zuen.

1965ean *Huntaz eta hartaz*-en bildutako saioetako baten izenburua hauxe da: “Intelektualak eta ekintza-gizonak”. Han, gizadia berritu-nahia ezkertiarrek bultzatzen dutela eta eskuindarrek, aldiz, bertan behera pausatu-nahia esan ondoan, ezkertiarren saldoa bitan banatzen zuen: intelektualak, batetik (gogoetariak, gogoeta-zaleak, pentsaera-gizonak eta artistak), eta, bestetik, ekintza-gizonak. Intelektualak ezkertiarren eragile gertatzen direla zioen, zetorkeena sumatuz eta

aldez aurretik adieraziz; eta ekintza-gizonek, aldiz, intelektualek sumatua historian obratzen zutela¹⁶¹.

Saio hartan jada aipatzen zituen bi intelektual handi, berarentzat eredu eta jarraibide izan direnak: B. Russell eta J.P. Sartre. Aurrerago, Edgar Morin aipatu du, hiru intelektual horiek izan ditu erreferentzia nagusi¹⁶².

Haatik, intelektualaren betekizunak zein ziren eta euskal intelektualak nolakoa izan behar zuen laburrago eta adierazago “Intelektualen betekizunez” deritzan artikuluan argitu zuen. Le Clézio frantses idazle gazteak, Sartreri buruz mintzo zelarik esandakoetan oin harturik, honela zehaztu zuen euskal intelektualaren eginkizuna:

Zalantzarik ez dago: euskaldun intelektualek gure herriaren katramillak eta sofrikariak bizi behar ditugu gudan. Gure liburuak geure garaieko liburu izan behar dute. Gure liburuak eta gure eginkizunak gure herriaren lekukotasunean eta laguntzan egingo ez bagenu, alperrik idatziko genituzke. Gure herriaren lekuko izan behar dugu.

Zer behar da hortarako? Zer egin behar du euskaldun intelektualak? Gure herria barnetik eta sakonki ezagutu: gaurkoa eta atzokoa. Intelektual batek argi egiten lagundu behar du, eta huntarako bere herria eta bere mendea ezagutu behar ditu: ezagutu, maitatu eta nortu.

161 Ikus “Intelektualak eta ekintza-gizonak” in *Huntaz eta hartaz*, Elkar, Donostia, 1983, 41-48 orr.

162 Hiru intelektual horietaz idatzi dituen artikuluen artean, honako hauek azpimarratu nahi ditut: “Bertrand Russell hil da” in *Zeruko Argia* 1970-03-08; “Sartre: lekuko eta gidaria” in *Punto y Hora* 1980-04-24-30. Eta Edgar Morinez, ikus *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, 1994, 297-298 orr.

Sartre´k nortu egin ditu bere buruan, zion Le Clézio´k, azken urte hauetako problema nagusi guziak; eta horrek egin digu eredu eta irakasle.

Zer esango dugu, beraz, gure intelektual “abstrakto” batzuez? Zer esango dugu gure herria nortzeko asmorik ere ez duten horietaz? Zer esango dugu “egunon” oraindik esaten ikasi ez duten alienatu horietaz?

Sartre´k, esate baterako, frantses gehienek baiño lehenago goraiatu zuen arjeliarren eskubidea. Ez ezinbestean eta marmarka; ausarki baizik, eta arjeliarrak berak baiño lehenago hein batean. Viet Nam´go arazoan ez du itxogin aurten arte.

Gure arteko erdal sasi-intelektual horiek, ordea, ezinbestean, taktika hutsez, eta gure herriaren atzetik guztiz, gure euskaltzaletasuna nondik moztuko eta lardazkatuko ari dira eriosuhar (...)

Gure herria gaurkoa da, bai; baiñan atzokoa ere bai. Zumalakarregi, Santa Kruz eta Etxahun herrikide ikusten ditugu: beren arteko eta geurekiko ere bai. Ez gera lehenengoak eta ez azkenak gure herria, nork bere gisara, maitatu dutenen illara luzean. Kapitalismoa dala-ta, ez dugu gure herriaren Kondaira beste alde batetik eteten edo apurtzen lagunduko: herri bat ez da belaun bakar bat. Gure herria ez da gizon kopuru edo mordo abstrakto eta koloregabe bat, produkzioan ari, kultura batean ere mamitu dan alkartasun bat baizik (...)

Gure herriaren Kondaira, hain zuzen, intelektualek idatzi behar dute (...)

Gure herria langilleek osatzen dute, bai. Herriari ez-ikusia egingo liokean sasi-intelektuala onartu eziña izango litzake (...). Gure herriarekin bat egiten ez badugu, gure herrira arras ez bagoaz, gure marfillezko dorrean egoteari atxikitzen badiogu, herriak ez-ikusia eta ez-entzuna egingo digu. Gure garaieko eta gure herriko abots, ispillu eta argi izan nahi dugu hain zuzen.

Baiña herri abstraktorik ez dago; eta gure kulturaren errotik itsasten ez dan pentsakera, txit hitz jakintsuak erabilliagatik ere, alperrikakoa ez-baiñan arrotza eta kaltegarria izango da. Erkaztuko ahal dugu garaiz!¹⁶³

60ko hamarkadan *Huntaz eta hartaz*-en bildu zituen saiakera laburrak, eta XXI. mendeko lehen hamarkadan *Horretaz*-en, saiakera laburren zirkulua osatuz eta itxiaz. Gora-go aipatu ditugun hiru intelektualetarik, guztien gain, J.P. Sartre hautatu zigun, eta bereziki Burgosko epaiketaz Gisèle Halimik idatzitako liburuari egindako hitzaurrea:

Euskaldunen arazoa zedarritu zuen, berorien borroka kon-tatu, eta ETAREN kondaira bereziki (...)

Testua egokiro laburtzea zail gertatzen zait.

Garbi dago, ordea, orain dela 35 urte “modako gauche divine” espainolistaren kontra, eta Francoren kontrako oposizioan PCEk isilpean bildutako ospearen aurka altxatzean, urrats erraldoia egin zuela Sartrek Espainian benetako ezkerra eta Euskal Herrian Ezker Abertzalea sor zitezela.

Horregatik idatzi izan dut zenbait aldiz, eta oraingoa ere errepikatzen, badela garaia Sartreren oroitzapenetan kale edo enparantza batzuk beraren izenaz bataiatzeko.

Mereziak baititu aise!¹⁶⁴.

163 “Intelektualen betekizunez” in *Zeruko Argia* 1967-12-03. “Erkaztu”k erraztu esan nahi du Iparraldean, hots, erratza pasatu; eta, kasu honetan, sasi-intelektuala paretik kendu, kasurik ez egin.

164 *Horretaz*, Elkar, 2007, Donostia, 35-38 orr.

7.1. Lortu al zuen euskal intelektual konprometitua izatea?

Arlo guztietan egindako lana aztertu ondotik bakarrik dago erantzutea galdera horri: euskalgintza, soziolinguistika, eleberrigintza, politika, garaiko pentsamendu nagusia euskal kulturara ekartzen egindako ahalegina...

Politikaz zerbait adierazi dugu; hemen, azken puntu horri dagokionez, garaiko pentsamendu gailena gurera ekartzen egindako lanaren lagin adierazgarri batzuk tolestatzea-rekin etsiko dugu.

Irakurleak erreparatuko duenez, ardura, gaiaren beraren interesari beste bat lotzen zaio: ezkerkeria, marxismokeria eta erredukzionismo monista, ekonomikoa, gudukatzea. Hona adibide bakan batzuk.

Afrika Beltzaren Institutuko zuzendari eta Afrikari buruzko lan askoren egile Pierre Fougeyrollas intelektual eza-guna zen Frantzian, 70eko hamarkadaren hasieran:

Marcuse-k bezala, Fougeyrollas-ek bi pentsatzaile ikusten ditu gailen XX mende honetan: Marx eta Freud (...) Fougeyrollas ez da, izan, oso harrigarria hautu horretan. Malraux-ek eta Garaudy-k, esate baterako (ez baitira txit antzekoak) espreski aipatzen dituzte hiru hauek gaurko munduaren iragarle gisa: Marx, Freud eta Nietzsche. Hirukote horren ideiarra-goan goritzen ari da biharko mendearen moldea. Askoren ustez honek ez du dudarik.

Hots, hiruok, ene ustez, sinu berbereko ekarria eman digute: GIZONAREN KONTZIENTZIA GAUZA AXALA DA. Argiro ezagutzen ez ditugun baldintzek mugatzen dituzte geure irizpideak eta geure ekintza (...)

Marx-ek argiro erakutsi zuen klase-egoerak pentsakeran duen eragin izkutua: konturatu ere gabe geure giza-klaseko seme gara. Hein batez bederen klase-egoerak honetara gaitu. Eta lerraketa oharkabe honetaz gu ezin jabetzeak, ez du fenomenoaren egia ukatzen (...)

Gutziz beste muturretik abiatuak, Freud-en profeta edo aintzindari gisa agertzen zaigu gaur “Zatathustra”ren idazlea (...) Nietzsche harrigarria da Inkontzientearen ulertzapen zorrotzean (orain dela ehun urte!).

Baina inkontzientearen arazoan Freud da jaun eta jabe. Fougeyrollas-ek aipatzen duen argibide ezagunaz esateko, gizona “iceberg” baten antzekoa da: urpean parterik handiena dago, inkontzientea, eta ez da ageri; urgainean, berriz, parterik txikiena, funtsean azpikoak honera eta hara erakarria: kontzientzia iratzarriari dagokiona (...)

Gizartearen teoria egoki bat (eta politikabide zuzen bat) funtsatzeko antropologia sakondu behar da (...) Inkontzientearen garrantzia gailen-erazten dute gaur, hain zuzen giza jakintza guztiek. Ez dezagun ahanztz, esate baterako, Saussure eta geroko estrukturalistek bide beretik bultzatu dutela: ez dugu inolaz ere libroki pentsatzen, baina INKONTZIENTE (eta guretzako ezezagun) diren pentsabide, egitura eta moldura izkutu eta oharkabeen arabera baizik. Marx, Nietzsche eta Freud-en izenei beste laugarren bat erantsi behar balitzaio (Saussure-rena alegia) laukote horrek funtsezko mezu bat lekarke: mesfida zaitezte kontzientzia argitik at baldintzen eta gidatzen zaitueten sorkura *izkutuez!*

Eta Biologia Berriak ere ez luke mezu hori gaitzetsiko. Hau ere ziur¹⁶⁵.

Fougeyrollas ezezagunagoarengandik Levi-Strauss ezezagunagoarengana etorritz, hona hemen, laburturik, harengandik guregan zer txertarazi nahi zigan:

165 “Erakasle bikain bat: FOUGEYROLLAS” in *Zeruko Argia* 1972-09-17.

Alde batetik “Erasmus Sari” garrantzitsua jaso du Holandan (pitiu bat Nobel-Sariaren kidea). Bestetik, ia harekin batera, Parisko “Académie Française” ospaturako hautatua izan da. Eta, hirugarrenik, (eta ez arrakastarik axalenekoa, beharbada) “Esprit” hilabetekari ezagunak berriro ere, eta hiru edo laugarren aldiz gutxienez azkeneko hamar urteotan, bereziki aztertu du, baita gordinki eraso ere, Levi Straussen filosofi-ekarpena (ikus “Esprit”, 1973-III, Domenach). 64 urtetan, hortaz, ikerturik, arakaturik, eta alde eta aurka solastaturik ikusten ditu “Tristes Tropiques”en idazle jakintsuak bere burua eta bere izkribu eskergak.

Zergatik? Zertan datza bada Levi Straussen ekarpenaren muina? Zein da haren ideia nagusia?

Haren pentsamolde zabalari gagozkiolarik, hiru argi funtsezko somatu uste ditut nik Levi Straussengan, eta hirurak gaurko euskal modako joeretatik arras urrun aurkitzen.

Levi Strauss etnologilaria da aurrenik; edo, nahiago baldin baduzu, gizarteen, etnien eta herrien ezagutzan eta gonbaraketan bereziki zaildua eta hezia. Herri arkaikoen erlijioen katardeaz arduratu da Parisen urtetan barrena.

Etnologi-ikerpideetan, hitz batez, oso handia da Levi Strauss, garai honetako handienetakoa segurki (...)

“Erasmus”ren irabazlea pluralista da osoki eta denean; hau da, ez da monista, ez du GILTZA BAKAR BAT ikusten denen funtsean. Ez du inolaz ere sinesten, esate baterako, gizadi guztia ibilbide edo bilakabide berberetik doanik; eta gizarte-plegu honi edo hari nahi-ta-ez segidan “hurrengo”rik datxekonik. Ez du inolaz ere sinesten gure zibilizazioa berez besteak baino “aurrerago” dagoenik, eta hortaz “atzeratuak” gero honetatik pasa beharko dutenik. Ez du inolaz sinesten, ideien mailan, ideia batzuk besteak baino “aurrerago” datozenik, eta hortaz, piskanaka, “fase” horretara denak geroenean helduko direnik.

Errelatibista da osotara, eta arrazakeria guztien etsai (“Arraza eta Kondaira” liburuskara edo Brasilgo genozidioen kontrako

agiri ausartak irakurri besterik ez da behar). Hizkuntzak desberdinak diren moduan (eta ez hau beste hori baino “aurre-ratuago”, eta abar) iruditzen zaizkio zibilizazioak eta kulturak desberdin eta pareko.

Kondairaren “aurrerapenak” oso oso errelatiiboak eta zalan-tzazkoak iruditzen zaizkio; eta Kondairaren “sentidu” famatu hori, XX. mendeko mitologia huts.

Ez hori bakarrik: kulturen eta gizarteen arteko desberdintasunen ezabaerak edo galerak gizadi-dinamikaren beraren suntsiera ekarriko lukeela iruditzen zaio; eta eten gabe mintzo da berdinkeria guztien kontra: herrien bestetasuna behar du giza-diak, kulturen aniztasuna *eta desberdintasuna atxiki behar dira*: “*II faut revenir à la complexité et à la diversité*”.

Hortik zer entzuten da, ordea?: “Saludamos toda asimilación étnica y cultural no forzada como un paso al frente positivo en la marcha hacia una sociedad única y planetaria”..

Levi Straussen jakintz-adar berezia (azken hogeitau urteotan batez ere) MITOLOGIA izan da. Mitologiaren azterketari jal-ki zaio gogotik, eta hemengo eta hango, gaurko eta atzoko, mitoak ikertu ditu. Zer aurkitu du funtsean?

Ez batere gure arteko sasi-jakintsuren batek (gaur!) egiten duen politikeria errazik, baina mitoan pentsakera eta antolake-ra-moldearen funtsaren batasuna. Maila honetan, bai: giza-iz-pirituaeren batasuna atxeman du akademiko berriak.

Ez beraz mitoen mamiaren mailan, ez Kondairaren balioa- ren mailan, ez klase-aitzekien mailan bertan ere; baina mitoen OPOSIZIO-EGITURAN, mitoen ELKAR-OSAKETAN, mitoen giza-izpirituaeren ERANTZUN-BEHAR sakonen mailan. Mitoek ARGITU ETA AZALDU egin nahi dute munda; eta argibide eta azalpide hori ALDAKAITZAK DIRA FUNTSEAN, nahiz gero nahi bezala erabiliak izan. Horretan bai –esan digu– badago mitologia guztien artean, eta denbo- ran barrena, FUNTSEZKO BATASUN BAT. Mitoen bata- sun honek, beraz, ez du oinarria politikazko edo ekonomiaz- ko EZINTASUNEAN (gizonaren INGURAMENDUAN,

alegia), baina gizonaren PENTSAKERAN BERTAN baizik (alegia, gizonaren ADIMENDU-EGITURA GORDE ETA INKONTZIENTEETAN).

Levi Strauss, azkenekorik, biziki uzkur agertzen da –lehenengo puntuan adierazi dudanez– gizadiaren “aldakuntzei” dagokienez. Ez ditu ganbiamenduak berehala sinesten, eta sasi-iraultza asko somatzen du. Horretatik haren kontra zabaldua den “elitista” deitura: alegia, anti-dialektiko eta gelditasunaren aldeko. Eta MODELOEN MAILAN hala da Levi Strauss.

Teorien atzean, dio, teoria horien ELKAR-OSAKETA ETA AURKARITZAK aztertu behar dira. Mitoak suntsitu egiten dira Kondairan zehar, bai; baina mitoen arteko ESPERANTZA ETA ULERKETAREN EGITURA GORDEA ez da batere aldatzen. Aurrerapenik ez dago kultura batetik bestera pasatzean: aurrerapenak BARNEKOEK EZ BESTE sinesten dituzte. Brahma-Siva-Vishnu ahazturik ere, HIRUKOTE HORREN EGITURA ez da aldatzen, Dumézilek erlijioen gonbaraketan frogatua duenez.

Mitologiak eta sinesteeak SISTEMAK osatzen dituzte, sufi-jokak eta soinuak SISTEMAK osatzen dituzten bezala.

Ez da harritzekoa, beraz, Piaget, Freud eta Levi Straussen artean ideia-lotkia harrigarriak topatzea. Eta hiru jakintza-gizon aparta horien egokiera sakonak, Levi Straussen ekarpenaren BALIOA adierazten du, ene ustez, eta ez inolaz ere beronen iritzien hutsala.

On litzake, beraz, egiaren bila ari diren euskaldun intelektual gazteek balio hori kontutan hartzea; eta, ahal dutelarik, akademiko berriaren libururik funtsezkoenak bederen (teknikoenak ez badira ere) irakurtzea; hau da: “Race et Histoire”, “Anthropologie Structurale” eta “La Pensée Sauvage”.

Ez dut uste irakurria damutuko zaienik¹⁶⁶.

166 “Levi-Strauss gailen” in *Zeruko Argia* 1973-06-24. Esteka honetan eskura: <http://armiarma.eus/emailuak/txillardegileku.htm>

7.2. Polemikaren beroan

Bi artikulu horiek berari berez jalgi bazitzaizkion, beste batzuetan polemikaren harira azaleratu zuen bere armategi edo artilleria intelektuala. Hona adibide bat. Hamarkada bat lehenago Joseba Intxaustik *Jakin*-erako elkarrizketa bat egin zion bezalatsu –erreferentzialtasuna aitorturik bide batez–, 1971n Bizkaiko *Anaitasuna* aldizkariak egin zion. Elkarrizketa hartan, besteak beste, *Branka* aldizkari sozialista zenez, eta Txillardegi aldizkari haren aitatzat jotzen zenez, zer iritzi zuen sozialismoaz galdetu zioten, eta, Brankakoek zer sozialismo mota nahi zuten zehazteaz gainera, marxismoa sinplekeriatzat jo zuen. Probokazioa nahi zuela ere esan liteke, marxismoari Euskal Herrian gehiegizko garrantzia ematen zitzaiola irizten baitzion. Hona hitzez hitz:

“Branka” sozialista talde baten aldizkaria da. Ene ustez, kapitalismoaren barruan ez dago justiziarik, eta gizartea osoki dago diruari saldua. Sozialismorik gabe, gizona zapaldua dago nahi-ta-nahi-ez. Aukera, bestalde, garbi dago: edo monopolismotik erresuma-kapitalismora; edota autojestioko sozialismoa. Aukerak ez du enetzako dudarik uzten: sozialismoa autojestionean. Alegia: sozialismoa behetik gora zuzendua, eta ez goitik behera, kuartelean bezala. Kapitalismotik atera behar da, dudarik gabe.

Baina gure soziedadearen akats guztiak kapitalismoari eras-tea txorakeria hutsa da. Berriz ere, Georges Friedmann-en liburua irakurtzeko eskatuko diet irakurleei. Soziedadearen gaitz asko, sakonenak hain zuzen, ez dira ekonomia-ondorio. Ez da egia. Marxismoa xinplekeria hutsa da; eta xinplekeria hutsa den frogak, Praga, Stalin, Berlingo murrua, Budapest eta Cubako eboluzioa dira. Eta hori guztia “errebisionismo”aren ondorioa baldin bada, marxismoa da osoki errebisatu behar dena, uto-

pia hutsa dela garbi agertu baita, nagusitu den herri guztietan. Errebisatu... edo zokoratu ¹⁶⁷.

Handik laster bi erantzun kritiko jaso zituen: Aurrekoe-txea eta Anatsanena. Aurrekoetxeak, besteak beste:

Munduan, ba dira marxistak, antimarxistak eta abar. Batzuek eta besteek, hartu daben bidea zuzenena dala frogatu gura dabe. Bakioitzak bere frogak ipintzen ditu. Baina sekula ez genduan sinestuko, intelektual batek besteren bideari “xinglekeria hutsa” esango eutsonik. Bide horretan dabiltzanak inuzenteak direla pentsatu behar ote dogu ala?

Eta Anatsanek, besteak beste:

Marxismoaren birrintzea, aspaldidaniko jomuga zaharra du Larresorok. Guretzat ere, ezagunak dira horretaz baliatzeko erabiltzen dituen argumenduak: Xinglekeria, Praga, Cuba, Budapest... eta abar. Agian, oraingo honetan, ahantzi egin zitzaizkion Georgia, Lituania, Ukraina, Biafra eta Bengala. Esan egin beharko diogu, Pragan onar erazi duten Stalinismoaren arerio, hainitz marxista ere ba direla, eta Garaudy-z at gainera. Dirudienez, alferrikako nekea da Larresororentzat, Marxismoa eta Stalinismoa, teoria eta praxia, egun diren korronteak... eta abar bereiztea. Errege Magoetan sinesteari aspaldi utzi omen zion. Metafisika utzirik, enpirismoari heltzea ongi deritzat; baina txunditurik gelditu naiz, beherago Indiako zuhurtzia aipatu duenean (...)

Bukatzeko, hitz bi esan behar ditut.

Bata, gaurko Euskal Herrian, milenarismoaren iragarlea ez dela Karl Marx, Anarkismo Faista baizik.

167 “Larresororekin hizketan” in *Anaitasuna* 1971-06-15.

Indiako zuhurtzia zaharraren fruitu dirdiratsua, nazio superdesarrolatuek lujo gisara permititu duten Hippy-en mugimendu integratzailea baldin bada, ongi deritzat, ikusberria duten “Hair” gisako akelarreak egiteko. Baina ez langilegoaren helburuak lortzeko¹⁶⁸.

Eta Txillardegik, bi ziri horiei erantzuna emateko –berak probokatuak ere hein batean–, oso erantzun luzea tolestu zuen, eta politikari bati baino gehiago intelektual bati dago-kiona:

Rikardo Arregi zenaren arabera esateko, ez nago “modan”; eta ba dakit. Baina, neure ahalmen eta maila apaletan, Egiaren bilaketa gidari izaten saiatu nahi nuke beti; eta ez, izkutuan irribarre bila ibilki, azkeneko joera txalotuari egokitu-nahia.

Gazteriak sozialismoarekiko eta justiziarekiko dakarren sua ohore bat da gazteria horren alde; eta enetzako pozgarria, eta etorkizunean sinesteko arrazoi funtsezkoa da. Nahiz batzuk, bide-bila gartsu horretan, nik zuzentzat ez ditudan teorietan barrena abiatu.

Aitor bat ere egingo dut, hain zuzen ere: bai Euskal Herrian bai Atzerrian justizia-egarri duen jendea, marxismoari lotua aurkitu dudala maiz xamar; eta, alderantziz, anti-marxismoan aurkitu dudak jendeak ez duela eskuarki gizatasun haundirik erakusten, ez justizia-egarririk. Hau egia hutsa da. Zuzentasunaren egarria, gaur eta beti, nik uste, ezkerrean aurkitu ohi da; eta marxisten artean parte batez, gisa denez (...)

Anatsani erantzunez, ezin daiteke seriotan esan, horko “fe-de” berriaren kakoa “anarkismo faista” denik; ez Cohn Bedit, ez Bakunin eta ez Proudhon bait dira hor sakratuak. Marx bai, ordea. Euskal Herrian entzuten diren leloak, miresten diren aitorrak, egiaren bila ontzat hartzen diren liburuak, eta za-

168 Aurrekoetxea: “Marxismoa ximplekeria, zer dala ta?” in *Anaitasuna* 1971-07-15. Eta Anatsanena ere ale berean.

baltzen diren paperak, ez dira Proudhonen hildokoak. Iritzi horiek azalduz, nekez pasako luke inork etsaminarik “Sciences-Po” delakoan... Marxismoa da gaur gazte askoren katramila eta esperantza.

Hots, jaiera horretan justiziaren egarri finaren partea argi eta garbi onhartu ondoren, dena urre gorria ez dela sineusia nago, eta sozial-inperialistek ba dakikete honetaz zerbait; Europaren arabera, Euskal Herrian berandu gertatzen ari bait da marxismo fededunaren fenomenua. Eta hau ez da normala, bitxi da oso. Ba dirudi, ene lagun jakintsu batek bezala esateko, “Euskal Herria Europan egon, eta ez duk Europa”. Baina gai hau alde batera utziko dut; eta gaur, egiazki eta jakinaren gainean, marxismoaren balioa onhartzten duten horien ideiez mintzatuko naiz.

Sozialista garen guziok GIZONEN AUKERAREN BERDINTASUNA bilatzen badugu, gure helburua GIZONA da. Eta Anatsanek niri neure nahi sozialistaren fintasuna ukatzen badaut ere, eta alderantziz ideiakide ezin itsusiagoak ezartzen; nik ez dut berdin jokatu: eta ez dut zalantzan jarriko Anatsanen justizia-egarriaren fina. Sozialista guziok dakigu, ekonomiak baldintzen duela soziedadea; eta, gizona liberatzeko, gizona gizatartzeko, baldintzen eta mugatzen duten ekonomia eta politika jarri behar direla gizonaren zerbitzutan.

Helburutzat GIZONA dugu, beraz, Anatsanek eta nik biok. Gizona soziedadean sortzen da beti; eta hitzontzikeria zaiku bioi gizona liberatu nahi izatea, bai, eta soziedadea bere horretan uztea. Sozialista guzior iritzi, aldakuntza funtsezkoak egin behar dira esturturetan, eta kapitalismoa erauzi. Hau aitortzeko, ez da marxista izan behar. Marx baino lehenago sortu zen sozialismoa, eta, Marx gaingitu arte, ez da bere osotasunean eraikiko. Monod-ek gauza bera idatzi du berriki.

Bidezkoa da, horretara, sozialista direnek SOZIEDADEAREN EKONOMI BALDINKETAK AZTERTZEA. Hau xe izan da Marxen zientzia-ekarpen nagusia. Eta puntu berezi

horretan denok ginateke gaur hein batez Marx-zale, egia esateko; Fisikan gaur denok Newton-zale, Planck-zale edo Einstein-zale garen bezala. Marxen zientzia-ekoizpena sartua dago jakindurian eta Unibertsidadean. Eta inork ez du parte hori –kapitalismoaren kritika, batez beste– zalantzan jartzen. Ez da beharrago, sozialista izateko, marxismo-aitorretan murgiltzea, fisikaria izateko Einstein-dar aitorrarik oihukatzea baino. Nik sozialistatzat daukat neure burua, baina ez naiz marxista; eta anarkistek, ezkertar kristauek eta bestek berdin esan dezakete. Zeren eta, Marxen teorietan, besterik ere bait dago zientzia-ekarpenez gain: gizonari buruzko ideia faltsua, esate baterako.

Euskal Herrian entzuten diren elkarriketetan, gizonaren izakera eta alienazioa klase burrukaren ondorio hutsa direla esan ohi da maiz. Gizona ez dela, hortaz, berez alienatua, bai-zik eta “lanaren banaketak” alienatu duela. “Klase-gizartearen zapalketak bortxatuta da gaiztoa gizona”, dio Azurmendik, marxismoaren tesi ezagun hori bildu nahirik. Eta Marxengan hau irakurtzen da: “Ce communisme est la véritable solution de l’antagonisme entre l’homme et la nature, entre l’homme et l’homme, la vraie solution de la lutte entre l’origine et l’être, entre l’objet et le sujet, entre la liberté et la nécessité, entre l’individu et l’espèce”. Horra hor parabisua hitzez hitz! Izan ere, horixe da marxismoaren mistikaren parte haundi bat. Eta horixe ere, esaten denaren ardatza.

Mitologia horri, oinharri duen ideia-hertsikeriari, politika-hertsikeria datxeko gero: partidu bakarra, zentralismoa, eskomikuak, eta abar. Dena on, dena zuzentzeko abiaduran. Nik ez dut uste, Leninek Marx gaizki ulertu zuenik. Eta froga ona dira Bakunin anarkistaren iragarpen harrigarriak, orain dela ehun urte salatuak. Zehazki azaldu zuen Bakuninek, Marxengandik letorkeela stalinismoa... 1865.ean! Eta Anatsanek, ministro horren eta nire artean “harreman bat bederen” aurkituz, salatzen dudana hertsikeria horren froga berri bat eskaintzen

daut. Begiaren zorrotza! Marxen beraren hertsikeriari, horrela, jarraitzaileena ere erantsi behar izaten zaio...

Marxismoak gizonaren zoritxarra OSOKI konpondu uste izan du, ekonomi baldintzapenak aldatuz; eta kapitalismoaren erauketari Iraultza deitu dio, “I” nagusiaz, bertute guziak aldakuntza miresgarri horri ezarri; eta hanarteko iraultzak oro bigarren mailakotzat jota. Alta, azken urteotako kondairak argiro erakutsi duenez, kapitalismoa erauztea EZ DA ASKI izan, gizartea aldatzeko eta gizona gizonago egiteko. Zergatik? Gizon “berri”rik ez da inon sortu. Fededun berriek diotenez, ordea, iraultza guzizko hori mito bat dela diogunok “erreformismo” nazkagarrian omen gaude.

GIZONAREN ZERBITZUTAN egin behar da politika, ordea. Eta, honetarako, gizona ZER DEN xuxenik jakin behar da. Marxek ez zekien. Hobeki esateko: funtsean Rousseau-ren jarraitzaile izanik (alegia, gizona ona da berez, baina klase banaketak egin du gaizto), Marxek gizonaren ideia faltsu bat barreiatu du. Gizarte ekonomia estrokturak baldintzen dute, eta horien bidez gizonaren izaera. Baina gizona ez du ekonomia estrokturak soilik baldintzen eta horretarutzen.

Freud-ek eta psikanalisiak frogatu dutenez, askoz ere sakonago da inkontzientearen eragina gizonaren patuan, ekonomia estrokturarena baino. Gizona ez da Errusian aldatu, eta honen kakoa Freud-en erakaspena da. Gizonaren kakoa ez dela, sus-traian, gizarte-jatorrikoa, psikologikoa baizik. Gizon desalienatuaren ideia, mito hutsa da. Fougeyrollas-ek liburu bikain bat argitara du berriki gai honetaz. Areago da mito huts, politikaren bidez alienazioak oro osoki ezereztu nahi izatea, nahiz Marxek hori uste bazuen. Ekonomiaren mailako demokrazia-rik gabe gizona zapalduta dagoela gauza agiria da. Baina kapitalismoa ankaz gora bota ondoren ere zanpaketa gerta daitekeela, eta gertatu ere dela, ez da ilunago. Zergatik?

On lukete Aurrekoetxeak eta Anatsanek Freud-en “Malaise dans le Civilisation” liburu bikaina irakurtzea. Garaitzapene-

ko urteetan idatzia, eta lan-ordu askoren frutu, Zibilizazioaren gaitzei buruz azterketa zorrotz bat egin zuen; eta ezin zehatzagoak dira marxismoaz idatzi zituen lerroak (ikus, batez ere, 66-69 orrialdeak). Freud-en ustez, “aggressivité” delakoa, oldarkoikeria edo zanpatu-nahia esan dezagun, guztiz joera sakona da gizonarengan; sorkurazkoa, eta ez gizartezkoa. Hauzoz zapaltzeko joera diruaren bidez obratzea debekaturik ere, ez da hori soilik zuzentasun-bahitura bat, “car l’agressivité n’a pas été créée par la propriété”. Eta marxismoari buruzko iritzia borobilduz: “(leur) postulat psychologique... est une illusion sans consistance aucune”.

Hamar urte lehenago, eta arras Freud-engandik urruti azterpidearen aldetik, lerro hauek idatzi zituen Bertrand Russell-ek: “Les marxistes ne reconnaissent jamais assez que l’amour du pouvoir est un aussi puissant mobile, une aussi grande source d’iniquité que l’amour de l’argent, ce qui semble frappant si l’on étudie sans parti pris la politique”.

Marxismo-leninismoaren errekaratzearen kakoa ez da, hortaz, “errebisionismoa”; marxismoak “stalinismoa” txirripaz eman ez duen bezala. Marxismoaren ideia nagusien XINPLEAN dautza fenomeno horiek.

Baina Marxek ba zekien, gizonak absolutu-egarria duela; eta, bere filosofiari absolutu-kutsua txertatuz, etorkizun haundiago eman zion, zientzia gisa aurkeztu balu baino. Alde honetatik, beraz, marxismoaren arrakasta eta kristau fedearen krisia, fenomeno BERBERAREN bi aurpegiak dira kristau tradizioaren herrietan (eta geronenean bereziki).

Tillon, Garaudy, Marcuse, Schaff, Fischer, Lefèvre, Markovic, Stojanovic, Lukács, Trotzky bera, eta beste mila marxistaren patu hitsak ikusita, hauxe da fanatiko ez den edonork ataritzen duen ezinbesteko ondorioa: MARXISMOA BERA dela okerkundeen eragilea eta iturria, eta ez “errebisionismoa” eta “stalinismoa”.

Giltzarria, ene ustez, Sartre-k eta bestek (eta gure Joxe Azurmendik bere liburu berrian bide beretik) azaldu dutenez, Marxek sujetotasunari buruz, ni-tasunari buruz, erakutsi duen axolabekeria edo teoria-ahulezia da. Marxek ez zuen ikusi pertsona bakarraren trinkotasuna; eta ez zuen somatu, oso bereziki, psikoanalisiak gero erakutsi duena. Marxek gizadiaren osotasuna aztertu zuen, pitin bat estadistikalari batek egongo zukeen bezala.

Henri Laborit biologilari apartak egokiro deklaratu du berriki: “Cette société (marxiste) a envisagé uniquement l’homme comme une entité DANS UN ENVIRONNEMENT. Elle s’est efforcée d’aménager cet environnement en oubliant simplement de s’occuper de l’homme, en particulier de tenir compte de cet INSTINCT DE DOMINATION dont nous parlions plus haut. Alors la bureaucratie est apparue, autre moyen de dominer remplaçant la propriété privée des moyens de production... La société soviétique a cru que l’homme était un ange asexué, vous savez, avec une gerbe de blé sur l’épaule, tenant une fille par la main et volant vers le socialisme. Mais c’est faux: cet homme a des glandes génitales, une hypophyse, des glandes surrénales, et vit biologiquement”.

Eta askoz ere lehenago (1920) idatzi zuen B. Russell filosofo sozialistak, psikanalisiaren erakaspentak hartu behar zirela gogotan; eta denek ezagutu behar luketen liburu argitsu batetan hau idatzi zuen: “Ene ustez, hona hemen Errusian gertatu dena: aristokrazia burokratiko bat nagusitu da arras agintez, eta kapitalismoak sortu duen sistema hori bezain gogor eta doilor gertatu den bat ekarriko du” (*Théorie et Pratique du Bolchévisme*, 135). Eta, kasu honi! Russell-ek Lenin, Trotzky eta gainerakoak buruz buru Errusian bertan ezagutu ondoren idatzi zuen hori 1920.ean! Urruti zegoen stalinismoa, eta erreboluzioa gazte zen txit: bi urte t’erdi. Ez nuke areago luzatu nahi.

Baina gizona zeharo markatzen duen beste baldintzaile bat aurkitu du XX. mendeko Zientziak, eta aipatu bederen egin beharra dago: HIZKUNTZA. Hots, honetaz ere Marxek ez zuen deusik esan: ezta “bi orrialde osorik Marxen obra guzian”, J.A.urmendik erakasten daukunez. Hizkuntzaren jakintza izan da, ordea, giza-jakinduriaren sailean gehienik bultzatu duen Zientzia-adarra, baita gizonaren azken funtsa argitzeko. Hutsune hau ezin larriago da. Eta “aurrerapena”ren mitoak oso murriztu dituenz gero, zail da marxismoaren baikorkeria-rekin ezkontarazten.

Nazioa eta hizkuntza, bigarrenkorik, elkarren hurbil diren neurrian, estrukturalismoak funtsatu du ongienik beharbada hizkuntzaren kakoa. Eta, hirugarrenik, kultura-errelatibismoak bide beretik jo du, eta gizadiaren multzutasuna BEREZKO ON bat dela erakatsi du, marxismoaren monismoa berriz ukatuz.

Hots, gaur estrukturalismoa eta errelatibismoa nagusitu dira antropologiaz; edo, bestela esateko, GIZONAREN jakintzaz.

Marxismoa horretara Freud-en eta Saussure-ren ideia-korronteetatik kanpo egonez, eta funtsean aurka den aldetik eta neurrian, nahiz kapitalismoaren kontrato burrukan argitzaile paregabe izan, ez du eman, eta EZIN EMAN DEZAKE, gizonaren zerbitzuko politikarik ez giza-liberazio egiazkorik. Errespetagarriago dira marxistak marxismoa baino. Etsitzen hasiak diren marxistek berek (edota marxista ohiek) gauza bera aitortzen dute, baina beste hitzez.

Marxismoa, beraz, ez dago krisian, gainditua baizik. Bere frutua emana du¹⁶⁹.

169 “Aurrekoetxeari eta Anatsani erantzunez” in *Anaitasuna* 1971-09-15.

7.3. Idahoren esangura

Horrenbestez, guretzat aski. Halere, atal honi eta testua-ren lehen parte honi artikuluko lirikoago batez eman nahi nio-ke amaiera.

Berak zioen bezala, “Globe Trotter” bat ez izanagatik, munduan zehar ibilia zen, eta euskaldun multzoak anitz le-kutan ezagutuak, baina bidaia haietatik ekarritako oroitza-penetatik Idahotik ekarritakoa gailentzen zitzaion. Zergatik hori?

Noski, Boisen, Bruselan eta nun-nahi, bi multzotan bana daitezke bertako euskaldunak: batera, inoiz sorterrira bihur-tzeaz osotara etsi, eta zeharo bertakotzen saiatzen direnak bil ditzakegu; bestera, berriz, besoak han, baina bihotzak eta es-perantzak Euskal Herrian atxiki dituztenak.

Hots, Parisen, Bruselan, Londresen, iruditzen zaidanez, euskaldunik gehienek, noiz izanen den ez badakite ere, “hala-ko batez” etxera etortzeko asmoa dute (...)

Idahon, berriz, besterik da, iruditzen zaidanez. Urruti ageri da Euskal Herria Boise-tik, urrutiegi, oso urruti BETIRAKO URRUTI.

Arrotza da giroa arrunt Idahon. Hizkuntza arrotz, bizi-modua arrotz, basamortu gaitzak arrotz, mendi zuri esker-gak arrotz, bakardade azkengabeak arrotz, indioak eta chica-noak arrotz, ekonomiazko bizi-maila gorena arrotz, herrien hirigintza arrotz, Far-West hartako azken aztarna harrigarriak arrotz... Idaho atzerri da osoki.

Eta Idahotik, nahi izanik ere, ez bide da itzultzen; ez da Pa-risetik bezala itzultzen (...)

Eta Sun Valley-*ez* oroitu naiz; Noruegako fjordoekin batera neure bizi guztian ezagutu dudak eskualderik ederrena. Han-txe hil dira aurten, ordea, Idahoko Sekretario den Zenarruza jaunaren bi gurasoak, iaz nik biak bizirik ezagututa. Mende

honen haseran hara iritsiak, hantxe hil dira, atzerrian; eta olerki-ametsik oparoenak mami daitezkeen eskualde zoragarri hartan zentu. Heriotzak han ere kolpatzen baitu.

Izadia, naturaleza, ezin ederrago, ezin birjinago, ezin aratzago. Amets guztiak zilegi; baina... han.

Eta ximist batek argitu nau bapatean: arrotz... betirako... irten ezin... bazterrak eder, miresgarri... ametsak oro zilegi... baso eder bat Payette-Lake ezin ederragoaren ondoan... hiltzera bertan kondnaturik...Gizona! Gizonaren zortea zaio Idaho euskaldunari! Honetxek markatu nau, eta ez nekien! Parte batetz bederen hauxe izan daiteke egia.

Eta Kafka-z oroitu naiz, eta Beckett-ez, eta Jeans astronomoaz; eta, nola ez Pascal-ez: “Gizonaren itsutasuna, gabezia eta eskasia ikustean; Kosmo guztia mutu, eta gizona abandonaturik eta argirik gabe, itxuraz mundu zoko xume honetan errebelaturik, bere burura bildurik antzematean; bere horretan nork ezarri ote duen ez dakielarik, zertara etorri ote den eta hil ondoren zer bilakatuko ote den ezin uleturik, eta inolako eza-gueraz jabetzeko gauza ez delarik, dardaratu egiten naiz; gizon bat loak harturik estekatu, eta uharte idor soil bildurgarri batetara eramanda, iratzartzean bere hartatik nondik eta nola ihes eginen ezin asmatu, lastu egingo litzakeen bezala...”

Ahaztu egin ohi zaigun geure atzerritasun funtsezkoa piztu zen nigan Boisen, orain konprenitu dudanez. Giza-zorte izkurtua da nigan euskaldun urrun haien egoera, ene ispilua izan ziren; eta horrengatik daramazkit bihotzean iltzaturik.

Atzerrian hil beharra! Horra hor Idaho-ren mezu hitz gabea. Etsi beharrak arrotzago egin erazten euskaldunak; eta ezin etsiak malenkoniatsuago, zoritxarrekoago eta tristeago (...)

Atzerrian hil beharra. Gizon ooren patua. Eta honengatik, nik uste, Idahoko oroitzapenak denetan gailen (...)

Eta honek ere, zalantzarik ez, inkontzientearen mailan be-
deren, oso ilunpetan bestelakaturik ere, Euskal Herriaren iru-
dia izan date; eta berriz ere, hortaz, ene bihotzean itsatsi...

Idaho! Atzerrian hil beharra! Kafka judua zen, Camus arje-
liarra, Unamuno euskalduna; eta hirurok beren herrien jato-
rriko izaeraren ukatzaile. Zergatik ote?

Pascal... janseniarra zen, eta deserrian ikusten zuen gizona.
Ezer sakonik esan ote lezake bestela atzerriaren gogorraz, her-
besteko ur garratzik inoiz dastatu ez lukeenek?¹⁷⁰

170 “Idaho” in *Zeruko Argia* 1973-07-1-8; eta, halaber: *Euskal Herriatik erdal herrietara* 1978, Bilbo, 105-109 orr.

BIGARREN PARTEA

UNEAN UNEKO HAUTU POLITIKOAK

I. EKIN-ETIK ETARA

1.0. Lehen jarduera politikoak

Noiz hasi zen Txillardegi, Larresoro, borroka abertzalean? Berak kontatu digunez¹⁷¹, 1947ko uztailean Francok antolatutako “referenduma” zela eta, EAJkoek paper batzuk eman zizkioten etxeetako ate azpitik sartzeko, eta bere hamazazpi urtetan hartan ibili zen. 1948ko udan, euskaraz ikasten hasi zen Iñaki Zubimendirekin, Jose Zabala-Aranaren gramatikaz baliatuz –gramatika garbizalea-. Urte hartako udazkenean, misterio handiz, bilera bat egin nahi zuela esan zion Iñaki Zubimendi euskara irakasleak, baina non bildurik ez zuela. Orduan, Txillardegik, bere aitaren bulegoaren ondoan lokal bat bazuela eta, giltza lortu zuen, eta hara bildu ziren gazte batzuk.

Bat-batean, hitzetik hortzera: “Esto es una reunión de la Resistencia” esan bide zuen Zubimendik. Hamar bat gazte omen ziren; besteak beste, Gaintzarain, Iñaki Larramendi, Rafa Albisu... “Resistencia” hitza entzun zutenean, goitik beherako hotzikara sentitu zuten. Errepara beza irakurleak:

171 Alvarez Enparantza, J.L.: *Euskal Herria Helburu*, Txalaparta, Tafalla, 1994, 176 or. eta ond.

euskara irakaslea erresistentziaren bileraren buru. Han bertan “klub” bat antolatzea erabaki zuten: guatekeak antolatzeko, eta... bilera politikoak egiteko... euskal kantik eta dantzak ikasteko! Idazten ari naizen honetan politikaren erakarmen hura aspaldiko grinatzat edo gogoeman liteke, oso ere maiz botoa ematera joaten garen honetan, suhartasun hura arris-kugarri bezain miresgarri.

1949ko udan, aipatu dugun klub hartantxe eman zituzten euskarazko eskolak, eta Txillardegi Eusko Ikasleen Alkartasunak (EIA) ateratzen zuen *Erne* aldizkarian argitaratzen hasi zen. Urte hartako udazkenean Bilbora joan zen ikasle, eta Bilboko abertzaleekin elkartzten hasi.

1950eko uztailean lehenbiziko aldiz kartzelara joan behar izan zuen, Martutenera. Hogeita hamar bat lagun hartu zituzten preso: Josu Arenaza, Eusko Ikasleen Alkartasunako burua garai hartan –hari txartel bat emana zion Txillardegik–, eta EAJ inguruko jendea. Bazen ordu hartan erresistentzia giroa EAJn, Txillardegik adierazi izan duenez. Hilabete egin zuen Martutenen. Jada poliziak fitxatua.

Errepresioa beren haragian pairatu izanak sartu zien hezurretaraino, handik laster erakunde itxi bat sortuko zutenei klandestinitatearen beharra, segurtasun-arauak betetzearen premia ezinbestekoa, erakunde iraunkorra sortuko bazuten, lehenengo ekintzan poliziaren eskutan eroriko ez baziren.

1.1. Ekin-Eusko Gaztedi-ETAren sorrera

1951-1952 urteetan irakurri eta ikasi egin zuten. Liburu existentzialistak, euskal foruei buruzko liburuak –Hermilio Oloriz–, euskal historia, Nafarroako erresumarena... Besteak

beste, autore hauek: Arturo Campion, Anacleto Ortueta, Carmelo Echegaray, Juan Iturralde y Suit.

Autore horietatik merezi du A. Ortueta nabarmentzea. Etxera bisitan joan zitzaizkion Txillardegi-eta, eta gazte jendea interesatua ikustean hura poztu egin zela adierazi zigun. *Navarra y la Unidad Política Vasca* eta *Vasconia y el Imperio de Toledo* oparitu zizkien, eta: “*Buruz buru irakurri genuen; eta Nafarroak kondairan barrena, lapurretaz, galduta-ko eskualdeen kontzientzia hartu genuen*”¹⁷².

Baina, noiz sortu zen Ekin-ETA? 1971n, Txillardegik hitzaldi bat prestatu zuen EGI-Batasuna erakundeko kideei egiteko, haiek ETArekin bat egitekotan zebiltzala. Delako hitzaldi hartan honela kontatu zuen Ekin-ETAren sorrera:

En 1952 la desesperación de los abertzales alcanzó un grado difícilmente ocultable. Su influencia afectaba en la silenciosa lucha de los jóvenes. Un grupo de estudiantes bilbainos conscientes de la necesidad y decidiendo buscar algo nuevo formaron un grupo totalmente cerrado. Fundadores de los principios de ETA: J.M. Aguirre, J.M. Benito del Valle, I. Gainzarain, J.M. Madariaga y Txillardegi. En 1953, una célula en San Sebastián junto a R. Albizu e I. Larramendi. ETA estaba fundada. Pero no llevaba el nombre de ETA ni nombre alguno. El boletín interior es “Ekin” y por ello se conoce por el nombre de “Ekin taldea” a la primera organización de ETA¹⁷³.

172 *Euskal Herria belburu*, Txalaparta, 1994, 183 or. Ez da gure ikergaia nafar autore bakoitzarengandik zer hartu zuen zehaztea Txillardegik, baina bistan da Ortuetak bere eragina izan zuela. Hark bere liburuetan idatzitakoetatik zati hautatuak bildu zituen aspaldi ez dela Gaizka Aranguren. Ikus *Nabarra Estado político de Vasconia*. Anacleto Ortueta *Azkuenaga*, Nabarralde&Pamiela, 2002.

173 “De Santoña a Burgos” in Nikolas, Jon; Unzueta, Patxo: *Documentos Y. Tomo 1*, Lur, Donostia, 1979, 21 or.

ETA baino lehen Ekin egon zen, eta bien artean jarraitutasuna, kideen sartu-irtenak eta zertzeladak gorabehera. Zerk bultzatu zituen gazte haiek talde berri bat sortzera? Txillardegiren ikuspegian: abertzaletasunak. Nazio zapalkuntzaren kontzientzia bizia izateak, euskalduna zen ororen alderako interes suharrak, Espainiako politikan parte hartzearen erabateko ospe-galerak eta Euskal Herriaren ideia etnikoak.

Horrekin batean, “zaharren” politika pasiboaren alderako aurkakotasunak eta desadostasunak. Ezin gara hurrengo bozen zain egon, ekin beharra daukagu, are bortxa erabiliz, hura beharrezkoa bada.

Lehenbiziko hiru urteetan, talde mordoxka osatu ziren Bizkaian eta Gipuzkoan. Lehenik, ikastaldi “zabal” edo “ireki” bat egiten zuten 25 astez, aste bakoitzean gai bat aztertzen zutela. Eta hura amaitzean, isiltasuneko zina eskatzen zen: ezergatik ere taldearen berri ez salatzea. Kidegaia prest agertzen bazen, beste zortzi bat astez ikastaldi hertsuari emanen zitzaion hasiera, eta hartan erakundearen eta antolamenduaren berri eman ohi zen¹⁷⁴.

Klandestinitatean, segurtasun-arauak errespetatuz: anonimotasuna, puntualtasuna, lan metodikoa; musean jokatzeko ez, baizik eta beren buruak abertzaletasunean prestatzeko elkartzeko ziren, eta talde mordoxka osatu ziren. Diktadurak horrelako erreakzioak sor ditzakeela dator burura, baina diktadura batean gutxi mugitzen dira, oso gutxi, eta azpimarratu beharra dago, goresgarri baita.

1955ean, Ekin harremanetan jarri zen EAJrekin. Hone-la kontatu zuen Jose Antonio Etxebarrieta etakideak, Txabi

174 *Euskal Herria Helburu*, 1994, 191 or.

Etxebarrietaren anaiak, 1964an, hamar bat urte lehenago alderdi abertzale nagusiarekin harremanetan jartze horri zego-kiola:

Hacia 1954, puesto que todos los miembros de EKIN creían en la necesidad de crear un FRENTE ABERTZALE común, se nos planteó el problema de nuestras relaciones con el PNV. Todavía hay quienes creen que ETA es una rama desgajada del PNV. Esto es totalmente inexacto. La iniciativa de establecer contactos con el PNV partió de EKIN, y los primeros contactos se tuvieron en Guipúzcoa en 1955. ¿Por qué tomamos esa iniciativa? 1. El PNV ha disfrutado siempre de un mito, que le ha hecho siempre aparecer como el “verdadero” representante del nacionalismo vasco. Nosotros ignorábamos entonces la historia interna del PNV y no solamente no estábamos en contra suya, sino que teníamos grandes simpatías por él. Desde niños, nacionalismo, PNV, Gobierno de París, etc., representaban para nosotros casi lo mismo. 2. El PNV no había tomado ninguna medida sobre nosotros, puesto que le éramos prácticamente desconocidos. 3. Dada la fuerza que el PNV aparentaba en aquellos años y dado que nosotros queríamos crear una organización conjunta de todos los abertzales, era lógico que comenzáramos por él¹⁷⁵.

Gipuzkoan EGIk eta Ekin-ek bat egin zuten; Ekin-ek onartu zuen bere izena baztertzea, eta *Euzko Gaztedi* izena hartu zuen talde bateratuak:

Finalmente, se llegó a un acuerdo de principio, en el que nosotros transigimos en varios puntos. En primer lugar, los miembros del EKIN no fueron reconocidos como una orga-

175 “De Santoña a Burgos” in Nikolas, Jon; Unzueta, Patxo: *Documentos Y. Tomo 1*, Lur, Donostía, 1979, 18-19 orr.

nización hermana, sino que tenían que fusionarse con Eusko Gaztedi (E.G.), la organización juvenil que controlaba el PNV. Así sucedió en Guipúzcoa en 1957 y en Vizcaya al año siguiente, dado que el cantonalismo del PNV no podía permitir hacer nada a escala nacional. Nosotros renunciábamos al nombre de EKIN, por el que ya se nos conocía¹⁷⁶.

Jose Antonio Etxebarrietaren bertsiotik Txillardegik, 1971n, EGI-Batasunakoei hitzaldia egiteko prestatutakoan dagoen bertsiora antzekotasun handiak daude; ñabardura ezberdinak ere bai. Txillardegik honela kontatu zuen bi gazte erakundeak Eusko Gaztedi-n bateratzearena:

En 1953-1954 y 1955 el número de grupos aumentó en Vizcaya y Guipúzcoa. No se desarrolló labor externa: en los primeros años “Ekin” era un movimiento ideológico cerrado. En 1955 “Ekin” coincidió en algunos pueblos con Eusko Gaztedi. Esta organización igual que el Partido, se hallaba aletargada. Lejos estaban las atrevidas actividades de los años 1945 y 1948 (ikurriñas, destrucción de los monumentos de guerra, pintadas, propagandas, llamadas radiofónicas, etc.); y aquellos jóvenes “esperaban” como los dirigentes del PNV. No es de extrañar, por tanto, que se entendiesen fácilmente con los jóvenes de “Ekin”. “Ya era hora de comenzar a hacer algo”, comentaban todos. Y en 1955-1956 se unieron en toda Euskal Herria (Sur) “Ekin” y Eusko Gaztedi. La unión de ambos fue denominada “Eusko Gaztedi”.

Este nuevo Eusko Gaztedi abrió en Donostia un despacho clandestino, poniendo en su dirección un liberado dedicado a las labores de la organización. ¡Fue el primero! Transcurría el año 1956.

176 Ibidem.

Claro, el PNV tuvo noticias de ello y no dio su aprobación. Después de 1957, bajo la dirección de Ajuriaguerra, comenzó una acometida contra Eusko Gaztedi¹⁷⁷.

1.2. Errelatoaren afera

Erakunde berriaren sorreraren inguruan, Ekin ETA bihurtzen den arteko urteetan gertatutakoaz, bereziki Ekin-en eta EAJren arteko harremani dagokienez, egon da errelatoaren afera dei litekeena –egun ETArek bortxaren eta estatuaren bortxa estrukturalaren artean bezalatsu–, hots, historiaren bertsio nagusiaz jabetzeko borroka, trantsizio demokratikoa deituaren lehen urteetan.

1979ko ekainean, zehazki, zenbait jeltxer *Muga* aldizkaria argitaratzen hasi ziren –Federico Zabala historialaria zuzendari, eta Eugenio Ibarzabal zuzendariorde eta koordinatzaile–; lehen alean ETArek jaiotzaz E. Ibarzabalek artikulua bat argitaratu zuen, eta ETArek sortzaileetakoek, hots, Benito del Valle, J.M. Aguirre, J.M. dariaga eta Txillardegik artikulua hartan agertzen zen ikuspegiaren aurkako adierazpenak egin zituzten *Punto y Hora de Euskalerrria* aldizkarian; eta gero hainbat erantzun eta kontraerantzun txandakatu ziren Ibarzabal eta gorago aipatu ditugun ETArek lau sortzaileen artean.

E. Ibarzabalen artikuluan, Ekin-en sortzaileen artean izen hauek ageri ziren: J.M. Benito del Valle, J.M. Agirre, Gurutz Ansola, Mikel Barandiaran, Alfontso Irigoien, Rafa Albisu eta Iñaki Larramendi¹⁷⁸. Txillardegi, ez!

177 Ibidem, 21 or.

178 Ibarzabal, E.: “Así nació ETA” in *Muga* 1979-06-01, 78 or.

Txillardegik zuzenketa hau egin zuen:

“Ekin” taldea, esate baterako, gero ETA deitua, 1953-ko udaberrian jaio zen; eta Bilbon jaio zen. Isilpe-beharra zela-ta, bost lagunek sortu zuten, eta ez hamarrek edo hamazazpik. Bost izen horiek, mila lekutan emanak, baina ez MUGA-n, hauek dira: Gainzarain, J.M. Benito del Valle, Jose Manu Agirre, Julen Madariaga, eta hemen sinatzen duena. Aurreko hilibeteetan, eta ikas-lanetan bakarrik, beste pertsona batzu ibili ziren. Baina “Ekin” talde itxia, horrela sortu zen; eta ez bestela. Gurutz Antsola berehala erretiratu zen, Ramon Labaien edo beste batzu bezala; eta ez ziren lehenengo sailean egon. Gainzarain bera ere, dudarik gabe “Ekin” taldearen ideiarene aita, erretiratu egin zen; eta gauza bera Alfonso Irigoien. Iñaki Larramendi, Rafa Albisu eta Mikel Barandiaran, berriz, geroago hasiak, buruago izan ziren ondoko urteetan, eta luzeago Ekin-en eta ETA-n gero egon¹⁷⁹.

Jose Antonio Agirre lehendakariarekin Parisen, 1958ko apirillean, Benito del Valle, Manu Agirre eta Txillardegi egon zirela dio E. Ibarzabalek, eta Txillardegik, aldiz, B. del Valle ezetz, beste biak bai.

Baina xehetasun horiek baino gai axolazkoagoak jorratu zituen Txillardegik. Zehazki, lau: 1. Bortxa; 2. Ideologia; 3. “Zerbitzuak” taldearen garrantzia, eta, 4. Kulturalismoaren akusazioa.

E. Ibarzabalek bortxaren sorreraz:

Con el nacimiento de ETA se inicia una nueva etapa sensiblemente diferente de la anterior, y en la que entre otros muchísimos problemas se va a debatir el de la violencia, salida

179 Txillardegi: “Así no nació ETA” in *Punto y Hora* 1979-06-21-28, 15. or.

que no nace con la organización ETA, ya que las exigencias por parte de los jóvenes de EIA y de EGI hacia el PNV, en orden a que éste se encaminaba (sic) por el camino de la violencia y de la lucha armada venían de antiguo. Desde los años 1945 y 1946 hubo presiones en este sentido, presiones que el Partido trató de eludir. Los dirigentes nacionalistas no tenían confianza alguna en dicha posibilidad. Consideraban que era un camino sin salida, sumamente difícil de controlar y, a la larga, en nuestro contexto, claramente perjudicial para los intereses del País. Estas razones, sin embargo, no eran fácilmente asumidas por la juventud, y las discusiones fueron frecuentes, viéndose obligado el Partido en alguna ocasión a admitir algunos intentos, aunque –todo hay que decirlo– sin fe ninguna en sus posibles resultados. Buena prueba de lo que decimos es que en el año 1960; es decir, un año más tarde a la formación de ETA, Patxi Amezaga, Mikel Isasi, Iker Gallastegi y Borja Eskauriaza permanecerían dos meses en Irlanda, aprendiendo técnicas guerrilleras de manos del IRA, organización con la que Iker Gallastegi, por mediación de su padre –Eli Gallastegi–, tenía algún tipo de relación. A su vuelta, Patxi Amezaga será detenido, coincidiendo en la cárcel con sus antiguos compañeros de EGI, entonces ya de ETA, asimismo detenidos a raíz del intento de descarrilamiento del tren.

No tiene, por tanto, nada de extraño que en 1959 y 1960 se ponga a debate en el seno de ETA el problema de adoptar una decisión en torno al tema de la violencia¹⁸⁰.

Esaldi horiek baino lehenago, 40ko hamarkadako euskal erresistentziaz ziharduelarik, EAJk zeukan egitura paramilitarraz mintzo zen:

180 Ibarzabal, E.: “Así nació ETA” in *Muga* 1979-06-01, 89 or.

El PNV de los años cuarenta es fundamentalmente una organización de estructura para-militar. Integrada en lo que se ha venido en llamar Resistencia Vasca, de la que es el núcleo fundamental, el PNV, además de órganos políticos, posee un brazo armado denominado Euzko Naia, formado por los antiguos jefes y oficiales del Ejército Vasco, y junto a ello, en la actuación clandestina, será decisiva la existencia de una importante organización de Servicios¹⁸¹.

Horiek irakurrita, bortxa metodo politiko gisa onartzearena Ekin-etik baino gehiago kasik EGItik, Eusko Alderdi Jeltzalearen gazteriatik heldu zela jaso liteke, eta, bestalde, historiaren egungo talaiatik ikusita, argi gelditzen da arrazoi moralek ez zutela pisurik izan. Espresuki aditzera ematen ez bada ere, pentsa liteke jeltkideei bortxa alferrikakoa eta are kaltegarria egoera politiko berriagatik iruditzen zitzaieela. Ustezko arrazoi moralean kontuak geroagokoak dira; artean, 1979an, ez ziren ageri, 90eko hamarkadatik aurrera agertu izan diren bezala.

Txillardegirengana etorrita, aldatu eta iruzkindu ditugun esaldi horiek zehaztaperen hauek egitera bultzatu zuten:

Alde batetik ekintza militarrei buruz esaten dena. Badirudi ia-ia zer egin ez genekiela; edo Alderdi-koen aldekoak zirela ekintza gogorretara pasatzearen aldekoak, eta “Ekin”ekoak kontrakoak (...) Hots, behin eta berriz esan denez, “Eusko Gaztedi” izena aldatzearen karkoa, hain zuzen ere, biolentziara pasatzeko asmoak ekarri zuen: E.G.-ren inguruan zegoen saltsa (saltsa ikaragarria!) ez zen gauza ona ekintza gogorretan hasteko. Muga garbiak behar ziren. Eta ETA-ko batzuk bajora eman ziguten guri, aztarnak kentzeko (...) Adar militarrek

181 79 or.

behartu gintuen denera: bai izena aldatzera, bai adar politikoa eta adar militarra (mili-ak eta polimili-ak baino askoz lehenago) bereztera; eta, goitik behera, bi organizazio izatera. Hau guztia 1959-ko udan gertatu zen. Eta J.A. Agirre-ri 1959-ko San Inazio egunean eman zitzaion aditzera ETA izeneko organizazio berri bat sortua zela. Ekintza militarretara pasako ote ginen eztabaida lehenago izan zen (...) Baina eztabaida hori geure artean izan ondoren (1959-aren inguruan, oker ez bana-go), “seigarren adar” hori sortzeko erabakia hartu genuen. Eta geroztik ez zen eztabaidarik izan, eta ez ezer horrelakorik¹⁸².

Labur-zurrean, Ibarzabalek bortxaren planteamenduan aitzindari ez zela izan ETA, baizik eta gerran batailoiak gidatu zituen EAJ, Euzko Naia eta besterekin. Txillardegik, aldiz, EAJk ez zuela zerikusirik izan ETA erakundearen adar militarra sortzearekin, beren kideen arteko eztabaidatik etorri zela erabaki hori hartzea; batzuk gandhizaleak zirela eta, kosta baten ere erabakia hartzea, behin hartutakoan ez zela gehiago eztabaidarik izan, eta adar militar horrek behartu zituela Eusko Gaztedi utzi eta erakunde berria sortzera.

Bi ikuspegiak bateragarriak izan daitezke, neurri bateraino; 1936ko gerraren ondotik, Bigarren Mundu Gerra Alemania eta haren aliatuak galtzen hastean, erakunde armatu

182 Txillardegi: “Así no nació ETA” in *Punto y Hora* 1979-06-21-28, 15-16 orr. Hasiera batean bost adar zituen Ekin-ek: Talde Adarra (zaharrena, ikastaroak antolatzen zituena); Idazketa Adarra (*Ekin* hilabetekaria eta “txarlak” antolatzen zituena); Gaztigitza Adarra (informazio adarra); Agiriko Adarra (“Organización Paralela”, O.P.A.) legetasunaren ertzean ari zena: euskara, euskal kultura, kirol taldeak, ikastolak; eta Zabalketa Adarra, sortu zen bosgarrena, *Zutik* argitaratzen eta zabaltzen zuena. Seigarren adarra, azkenekoa, gero beste bostak irentsi edo gaindituko zituen, Ekintza Adarra 1958an sortu zenetik, segurtasun arrazoiengatik, ETA bitan banatu zen: lehenbiziko bost adarrek ETA “politikoa” osatu zuten, eta “seigarrena” erabat at mugitzen zen, postontzi sistema bidez beste bost adarrekin koordinaturik. Ikus *Euskal Herria belburu*, Txalaparta, 1994, 196 or.

bat prestatze-lanetan ibili zirela gauza jakina da; aldiz, 1958-1959an Ekin ETA bilakatzean erakunde armatua sortzeko erabakia EAJk eragin zuela, ez; modu erabakigarrian ez.

Ideologia aldetik, ba al zen alderik Ekin eta EAJren artean?

Ibarzabalek:

EKIN, muy a pesar de las interpretaciones que se le han dado con posterioridad, no disentía del PNV en ningún aspecto de tipo programático, pero resultaba evidente que las divergencias de tipo ideológico anteriormente señaladas continuaban existiendo¹⁸³.

Eta Txillardegik:

“Ekin” taldean hasi ginen gehienok, aurreko EIA-koak izanak ginen; eta EIA [Eusko Ikasleen Alkartasuna], Leyden-go elkartearen sartzeko behar zela-ta, “apolítico y aconfesional” baitaiatzen zen. Eta guk oso maite genuen hura. Santamaria-ren eraginez (Santamaria Maritain-en aldeko agertzen zen), laiko-tasunaren alde geunden betidanik. Eta oraindik oso gogoan daukat Eli Etxeberria-rekin izan nuen elkarrizketa bat: “El lema JEL es intocable. Si empezáis con esas cosas os vamos a cerrar todas las puertas”. Eta horretan aurkitzen genuen Alderdia-rekiko baradera bat.

Sozialismoaren aldetik oso gutxi genekien: hau egia da. Baina 1958-ko oporrean (Apirilean gertatua, oso gaizki ez banabil) “Ekin”eko batzuk galdu genuen lan-postua; organiazioak, ofizialki, langileekin opor egitea erabaki zuelako (...) Ez da asko. Baina gure joera zein zen erakusteko balio dezake. 1956-1957-an, ordea, gure “eszisioa” zela-ta, tentsio handia

183 “Así nació ETA” 85 or.

zegoen. Gu “komunistak” omen ginen. Eta, Murua-ren eraginez hein handi batez, ideologi-arazorik ezer ez esatea erabaki zen. Gure arteko batek esan ohi zuenez: “Hay que evitar que el Partido ponga en marcha su capacidad destructiva”. Eta ideologi-arazoak ez aipatzea erabaki genuen.

1959ko udan ETA izeneko organizazio bat sortzeko erabakia hartu genuenean, ideologi-arazoa garbitzeko erabakia hartu genuen; eta dokumentuak aztertzen eta abar hasi ginen. Biltzarre Nagusi bat deitu behar zen ahalik eta azkarrenik, eta programa bat hautatu. Gure artean inork ez zuen dudan jarri joera sozialista izango zuen bide bat hautatu behar zenik¹⁸⁴.

Horretaraz gero, abertzalea, akonfesionala eta joera sozialistakoa, zehazki definitu gabea. Errepresioagatik, 1962ra arte ez zen delako Biltzar Nagusi hori egin, irakurleak daki-keenez.

Hirugarren puntura etorritz, Francoren eta *ardatzaren* aurkako eta aliatuen aldeko espioitza egiteko EAJk sortu zuen “Zerbitzuak” zeritzan taldeak zer ikusteko izan zuen ETAREN sorreran?

Honela zioen Ibarzabalek:

Muy pronto los de EKIN comprobarán sorprendidos que EGI de Guipúzcoa tiene una entidad y un vigor muy superior al que ellos hubieran esperado, pero sobre todo observan que Murua les aporta una ayuda que no hubieran podido anteriormente sospechar. En efecto, además de los enlaces en los diversos pueblos, Murua cederá una multicopista off-set, no excesivamente común por aquellas fechas e infinitamente mejor a las de alcohol (...) les organizará el pase de frontera, facilitará la impresión de la propaganda en París, así como aportará al-

184 “Así no nació ETA” 16 or.

go que resultaría mucho más importante: las normas de seguridad fundamentales, de las que EKIN carecía, y que les permitiría crecer a una velocidad infinitamente superior. La tela de araña la crean los de EKIN, pero no hubiera sido posible sin la colaboración de Murua, hasta el punto de que nos atrevemos a afirmar que sin la ayuda prestada por Servicios, EKIN difícilmente hubiera podido desarrollar una auténtica organización¹⁸⁵.

Txillardegik:

Baina harrigarriagorik badago halere. Zeren Ibarzabal-en artikulua irakurrita, ETA “servicios” delako horrek sortua baitirudi. Eta hau, benetan, gehiegitxo da. Ez dut nik dudan jarzen “Servicios” horiek sartzen saiatu zirenik (...) “Ekin”ekoek ez genekien ezer Ajuriaguerra-Mitxelena istilu horretaz, eta gaur ere (nik behintzat ezer ez dakit). Baina ETA-ren sorrera Alderdiaren barruko zatiketa gisa presentatzea, oso kontso-lagarri izan daiteke “solo JEL basta” pentsatzen dutenentzat. Baina akats larri bat du: ez dela egia¹⁸⁶.

Aurreraxeago helduko diogu berriz puntu honi, Txillardegik *Euskal Herria helburu* liburuan (1994) argitasun gehiago eman baitzituen Jose Muruarekiko harremanez.

Gorago adierazi bezala, laugarren puntua, kulturalismoaren akusazioa.

Ibarzabalek:

No creemos malinterpretar el pensamiento inicial de los hombres de EKIN si decimos que por su mente corría un plan

185 “Así nació ETA” 84 or.

186 “Así no nació ETA” 16 or.

de vasquización y culturalización generalizada del País, labor esta que implicaba una capacitación profunda de los hombres encargados de llevarla a cabo. [baina hori baino lehenxeago, honako balioespen negatiboago hau] Además, en los círculos clandestinos de la época, dedicarse a aspectos culturales y euskéricos era un modo más o menos honorable de rehuir el compromiso político, opinión esta que no ha dejado de tener funestas consecuencias posteriormente¹⁸⁷.

Txillardegik:

Ibarzabal irakurrita gu ikaragarritzko “kulturalistak” ginen (...) Hots, hori ez da egia. Gainzarain behin eta berriz izana zen gartzelan. Benito gauza bera 1949an, gauza bera artikulua honen egilea 1950an, eta luzaz ibiliak ziren izkutaturik Larra-mendi eta beste. Denok ginen fitxatuak (seguru asko Ibarzabali sekula gertatu ez zaiona). Eta fitxatuta ginelako, eta politika egin nahi genuelako, hartu genituen seguridade-erabaki zorrotzak.

Gu euskaltzaleok ginen, hori bai; eta euskaldun berriak edo ikasiak ginen, denok. Eta uda zetorrenean baserrietara jotzen genuen, eta abar. Hau bai, eta euskararik gabe Euskadik sentidurik ez lukeela esatea “kulturalismoa” dela esaten bazaigu, “kulturalistak” ginen eta gara (...) Ez ditut nik gartzelak eta atzerrialdi luzea “kulturalismo” horregatik ezagutu; eta ez ETA-ko besteek ere. Eta hauxe da gure ohorea. Baina Euskadi guretzat Euskal Aberria da¹⁸⁸.

Txillardegik ez ezik, Benito del Vallek eta Manu Agirrek argitaratu zituzten Ibarzabalen artikulua aurkako erantzunak; Ibarzabalek berak bi kontraerantzun argitaratu

187 “Así nació ETA” 82-83 orr.

188 “Así no nació ETA” 16 or.

den gertakariak errepikatzeak ez luke funtsik [baina, horrekin batean] Oso ezagunak ez diren zertzeladak eta xehetasunak besterik ez ditut hemen gogoraziko. Ideien mailako gatazkari dagokionez, boskarren kapituluan xehekiago mintzatuko naitzaizuelarik¹⁹⁰.

Ildo horretatik, Nuñez-Egañaren liburuan aditzera ematen da ezen 1957ko apirilaren 26an, Gipuzkoako Eusko Gaztedik, Ekin eta EGIren bat-egitetik sortuak, zortzi orriko gutun gogor bat aurkeztu ziola EAJren Gipuzkoako Buru Batzarrari:

Relatando en ella que no recibían colaboraciones ni dinero del partido y denunciando que *los mayores estaban amodorrados*. El GBB, como respuesta, pidió los nombres de los autores de la carta. EGI no daría, como era lógico suponer, nombre alguno.

La reacción fulminante del PNV para con *EGI conjunto* de Gipuzkoa se llevó a cabo en las antípodas de lo que hasta entonces había preconizado Ekin. La reunión con la organización juvenil tuvo lugar en una sidrería de Donostia, y a los pocos días todos los militantes guipuzcoanos del Partido ya tenían conocimiento de la trifulca, lo que exasperó a *EGI conjunto*. Habría que recordar que la estancia en la cárcel, tanto en fechas anteriores como en 1957, era el castigo más inmediato impuesto por la administración española para quienes estaban en la vanguardia del activismo (...) Así pues, las ligerezas del PNV en cuanto a su poco rigor clandestino causaron temor entre los jóvenes procedentes de Ekin, más aún cuando los primeros pasos de los años anteriores se habían dado con la intención de forzar una estructura organizativa hermética. Prueba de esta fragilidad en un tema tan trascendental como

190 Ibid.

la clandestinidad, imprescindible para mirar con optimismo el mantenimiento de cuadros propios, la dio, en 1959, el sector ligado al PNV. Para entonces y cuando ETA ya caminaba como organización autónoma, la práctica totalidad de EGI que se había mantenido fiel a las directrices del PNV fue detenida por la policía y su infraestructura desmantelada. Había bastado la detención de varios dirigentes de EGI para que toda su organización fuese desarticulada¹⁹¹.

Delako zortzi orriko idatzi horretaz, honela idatzi zuen Txillardegik, 1994an:

1957ko apirilaren 25ean, adibidez, sorpresa bat izan genuen Gipuzkoako “mahai batuan”. Sekula txosten idatzirik aurkeztan ez zuen Joxe Muruak, 8 foliotako izkribu zehatz eta landu bat ekarri baitzigun bilerara, Donostian, GBBri emateko, kritikalatzak PNVko zuzendaritzaren aurka, eta abar.

Ekin-eko inork ez zuen sinetsi txosten hura bere buruz Muruak prestatua zenik. Ahobatez Grupo A [“Zerbitzuak” taldea alegia] delakoaren joko izkutua somatu genuen. Horra hor, gure biziera politikoan lehenengo aldiz, infiltrazio nabarmen bat. Beste pilo bat ezagutuko genuen segidan!...

Ajuriagerrak, bere aldetik, gutaz batere ez fidaturik, eta “Grupo A” hartaz leporaino eginik, bide gogorra hartzea erabaki zuen: Ekin-ekoon izenak eta deiturak bazter guztietan emanaz, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz...

1958ko udaberrian dirudienaz, Ajuriagerrak “Servicios” erakundearekin erabat ebakitzea erabaki zuen.

Muruak, bapatean, (“Kirru” gure artean) “gaixotu” egin zen. Eta “bolara batez Gabiriko bere baserrira erretiratzeko” asmoa jakinarazi zigun.

191 L. Nuñez, I. Egaña: *Euskadi eta Askatasuna*, Txalaparta, 1993, 1. tomoa, 31-32 orr.

Hau ere ez genuen osotara sinetsi Ekin-ekook. Eta Murua-
ren “eritasuna” nola ote zihoan jakin behar genuela erabaki
genuen.

Gabirira agertu nintzen ni, horretara. “Kirru” ez zegoen
Gabiriko bere jaiotetxean. Eta beraren familiakoek eritasun ho-
rretaz deusik ere ez zekitela esan zidaten! Baserrian bertan ho-
ri...

Gauza garbi zegoen: Murua beste joko batean zegoen. (As-
koz geroago jakin genuen orduantxe desegin zela “Servicios”
taldea, eta Pariseko “bigarren Delegazio” hura ere, desagertu
egin zela. Aste haietantsu, hain zuzen). Jose Manu Agirrek,
bere aldetik, 1958ko maiatzaren 20an datatu du Ajuriagerrare-
kiko haustura Bizkaian.

Hau jakitean, eta Bizkaiko Ekin-kideek kondatzen zituzten
bitxikeriak ikusita, nahiz segurtasunaren aldetik guztiz arrisku-
tsua izan (Ekin-ekoon izenak “kalean” zeuden, benetan), se-
guruak ez ziren pertsona guztiakin hautsi; eta erakunde berri
bat haseratik beretik eraikitzen hastea erabaki genuen.

Horrela sortu zen Euskadi Ta Askatasuna organizazioa
1958ko bukaeran. Ekin-ekook osatzen genuen; gehi hamaika
talde irekitan ezagututako gazte askok ere. Urrats honen berri
jakitean, gehien-gehienek gurekin etortzea erabaki baitzuten.
Zortzi “barruti”tatik sei Gipuzkoan, bederatzitatik sei Biz-
kaian, baita Araban eta Nafarroan zegoen apurra ere¹⁹².

Ibarzabalen bertsioaren arabera, Ajuriagerrak ez zuen
Ekin-ekook egotzi dioten paper erabakigarria izan, eta egotzi
izan zaion esaldi famatu hura ere ez zuen berak esan: lehen-
bizi desegin Ekin, eta gero hango kideak banan-banan azter-
tu alderdian ametitu ala ez; aitzitik, Ekin-en ibilitako guztiek
eman diote sinesgarritasuna esaldi eta asmo horri.

192 *Euskal Herria berburu*, 193-194 orr.

1.3. Laburbilketa

Laburbiltzera etorritz, hiru puntu iruditzen zaizkit azpimarragarriak:

1. 1952tik 1955era EAJren esku-hartzerik gabe antolatatu eta garatu ziren Ekin-ekoek fronte abertzale bat osatu nahi izan zuten alderdi jeltzalearekin. Artean EAJren mitoak, historiak, zuen pisuagatik men egin zuten, eta onartu zuten EGIrekin batean aritzea eta izena galtzea.

2. EAJ alderdiaren buruzagitzaren eta amerikarrentzat lan egiten zuten Zerbitzuak taldearen arteko talkak eragina izan zuen Ekin-ekoengan, nabarmenki Jose Muruak 1957an aurkeztutako zortzi orriko txosten alderdiarekiko kritikoak aditzera ematen duenez. 1958an, Jose Antonio Agirrerengana laguntza eske joatea ere adierazgarria da oso; Ekin-ekoek ez zuten zatiketarik nahi, batasunak egiten duela indarra sinesten zuten, baina alderdiak ez zuten bi taldeen bat-egitea nahi, baizik kontrol osoa, eta

3. Txillardegiren lekukotasunari jarraiki, lehenbiziko bost adarrez kanpo, azkena sortu zen seigarren adar militarrek eragin erabakigarria izan zuen erakunde berria sortzeko orduan.

Beste ohar bat ere egin beharra ikusten dut: arazo eta zailtasunekin bada ere, elkarrekin, EGIkoek eta Ekin-ekoek, eskuz esku klandestinitatean eginiko ibilbide horren garrantzia, hiruzpalau urtekoa, azpimarratu beharrekoa da Txillardegiri dagokionez, bere bizitza politiko guztian, hamarkadaz hamarkada, fronte abertzalearen beharra aldarrikatuko baitu tematsuki eta suharki. Bere zailtasun, liskar eta guzti bada ere, 1955etik 1958ra posible izan zenak zergatik ez zuten posible izan behar geroago ere!

2. ETA ERAKUNDEA UZTEA

Txillardegik, Frantziatik kanporatua izan eta Belgikan finkatzean 1965ean, zuzendaritza utzi egin zuen, berak zioen bezala, diziplina hutsez. Uste zuen urrunetik, herriarekin harreman zuzenik izan gabe iparra galtzen zela eta deseritua ez zela inondik ere borroka ganoraz eta taxuz gidatze-ko gauza¹⁹³. Militante gisa jarraitu zuen, eta orduko agiriak irakurrita, itxura guztien arabera, ETArek ordezkari izan zen Bruselako atzerrian.

Erakundeak 1965eko uztailean IV. Biltzarra egin zuen aberriaren barnean, eta han erabaki zuen 1962ko deklarazioan alde sozialari zegokion atala bertan behera uztea. Klandestinitate aski hertsian mugitu beharra zeukan ETAk, eta barnean zen zuzendaritzak bidalitako biltzarraren akta handik 10 hilabetera jaso zuen Txillardegik, 1966ko maiatzean. Bitarte horretan, handik eta hemendik gauza asko entzun eta jakin zuen, eta horietan oinarriturik, lau txosten idatzi zituen.

Txillardegiren arabera, lehenik, atal garrantzizko hori bertan behera utzita, lehen Biltzarrean erabakitako dekla-

193 *Euskal Herria helburu*, 221 or.

razioa kinka larrian gelditzen zen automatikoki, eta hortaz, zerbait koherentea egingo bazen, deklarazio berri bat egin beharra zegoen, eta horretarako, hots, azken buruan erakundea birsortzeko, etakide guztiek esku hartu beharra zuten; eta, bigarrenik, estrategia nazionala finkatu beharra zegoen, eta helburua finkaturik, hara nola heldu, zein bidetatik, argitu beharra¹⁹⁴.

Une hartan, aurrerago berak kontatu digunez¹⁹⁵, erakundearen zuzendaritzan ESBA (Euskadiko Sozialisten Batasuna/Unión de los Socialistas de Euskadi) eta FLPko (Frente de Liberación Popular) kideen infiltrazioa zegoela uste zuen, eta haien eragin ideologikoari aurre egiteko bidali zituen gorago aipatu ditugun lau txostenak. Lehenbizikoa zen luzee-
na; erantzunik ez zuen jaso, eta beste hiru idatzi zituen.

IV. Biltzarreko akta jaso Aljerretik igorria 1966ko maiatzean, eta beste bi idatzi helarazi zizkien zuzendaritzakoei, eta urte hartako udan haietako bi edo hiru kiderekin elkartzeko nahia agertu zien. Bai elkartu ere Ipar Euskal Herrian –Baionan segur aski– 1966ko udan, zuzendaritzako hiru kiderekin. Idatzi batean jaso zuen kontaktu horren kronika.

1966ko udazkenean, V. Biltzarraren lehen parte egin zuen ETak, eta ESBAren korrontekoak kanporatuak izan ziren. Bigarren parte 1967ko martxoan egin zen, eta hilabete lehenago testu eta proposamen bat eraman zuen Xabier Imazek, Txillardegi, Benito del Valle, Manu Agirre eta gogaide abertzale sozialista humanisten ordezkari gisa. Biltza-

194 Ikus “Barruko agintaritzari” izenburuko gutuna, Txillardegik –Jean izenpean– 1965-X-31n igorria hemen: *Documentos Y*, 4. liburukia, 412 or.

195 *Euskal Herria helburu*, 221-222 orr.

rrean ez zen onartu, eta erakundea utzi egin zuen korronte horrek.

Atal hau hiru azpiataletan banatuko dugu geure iruzkinak egiteko, gorago aipatu ditugun hiru aldi horiekin bat: lehenik, zuzendaritzaren aldetik erantzuna jaso aurretik bidalitako lau txostenen edukia izango dugu iruzkingai; bigarrenik, zuzendaritzaren erantzuna jasotakoan, igorri zituen bi idatziak; eta, azkenik, V. Biltzarreko bigarren partea baino lehen, Txillardegik idatzitako testu bat eta biltzarrera bidalitako txostena izango ditugu aztergai, eta erakundea uztea erabaki zutela egiaztatzeko idatzi zuten komunikatua. 1980an egindako autokritikari ere tartetxo bat egingo diogu.

2.1. Zuzendaritzari bidalitako lau txostenen edukiaz

Elkarren erreskadan bidali zituen lau txosten horietatik lehenbizikoan, euskal historiaren analisi marxista laburra egin zuen, tesi jakin honetan oinarriturik: euskaldunon alienazio ekonomiko eta kulturalaren eragile nagusia euskal klase gidariaren traizio osoa da, hots, euskal burgesiaren traizioa, Espainiakoarekin batean Amerika esplotatzen eta kolonizatzen eskuz esku jardun dena:

La burguesía vasca ha colaborado y colabora con la burguesía española y francesa, y con sus aparatos ocupantes, en la explotación de Euzkadi; como colaboró hasta 1800 en la explotación, vergonzosa y con la cruz delante, de las colonias americanas. Tras la independencia de las colonias, la burguesía de origen vasco-español de aquellas naciones continuó la explotación, que de colonial pasó a ser de tipo capitalista puro, excep-

to en las zonas del antiguo imperio inca, donde presenta aún hoy, un carácter colonial estricto¹⁹⁶.

Jada Amerikako inperioa galdurik, burgesia espainiarra eta haren armada, Bolivarren altxamenduaren ondotik, zutik gelditzen zitzaizkien gainerako kolonietan enplegatu ziren, eta lehen urrats gisa, Ebroko aduana ekonomiko eta politiko guztiak amaitzea erabaki zuten; eta, gupidarik gabeko zazpi gerra-urteren ondotik, non Bolivarrek mendean hartutako militar guztiak nabarmendu ziren, Mendebaldeko Europako gobernu burges guztiak sostengaturik:

El pueblo vasco, abandonado por su élite, comete el enorme error de liar [sic] su suerte a la de las clases feudales, vascas y extranjeras, y es derrotado. Desde ese momento, el aparato que permite la explotación es, cada vez más claramente, el aparato del Estado español; controlado por la BURGUESÍA Y EL EJERCITO DE CLASE ESPAÑOLES. La burguesía vasca, privada de América, traidora máxima a su país, actúa de lacayo vulgar de su hermana mayor: la española (o francesa, en el norte). A partir del siglo XIX es la burguesía hispano-francesa, ayudada por la vasca (residente dentro y fuera de Euzkadi) la que dirige la explotación y marca el estilo¹⁹⁷.

Hori irakurrita, esan liteke Txillardegi prest eta gertu zegoela ezkerreko planteamenduetan ezkerterago egiteko, eta 1962ko deklarazio anbigua, ausartago eta ezkertiarago bilakatzeko, eta historiaren analisi marxista egiteko, burgesia zapaltzailea –espainiarra eta haren eranskina, hots, burgesia euskalduna– eta herri klase espainiarrak eta euskaldunak arras

196 *Euskal Herria belburu*, 223 or.

197 225 or.

bereizteko, baina, hori eginik ere, nazio zapalduaren kontzientzia inola ere ez galtzeko kondiziotan:

[ETAren 1962ko deklarazioa] era un conglomerado de afirmaciones contradictorias, y no pasaba de ser paternalista, neo-colonialista y neo-capitalista. Bien muerto está. Un movimiento vasco de vanguardia, como quiere ser ETA, no puede, en 1965, hablar de “primacía” del Trabajo sobre el Capital. Todos los medios de producción de Euzkadi deben ser del pueblo vasco y estar al servicio del pueblo vasco. El Capitalismo es absurdo e indefendible, irracional e injusto, intrínsecamente perverso e inhumano. La condena del capitalismo no puede ser moderada, ni con distingos: ETA debe condenar el Capitalismo radicalmente, sin timidez alguna. Y debe condenar con igual energía a su apéndice, el Imperialismo, político y económico, bajo todas sus formas; y en especial y de modo implacable, EL IMPERIALISMO ESPAÑOL (Y FRANCÉS) en Euzkadi, en su triple dimensión: política, económica y cultural¹⁹⁸.

Alabaina, honainokoa aitorturik eta ezaguturik ere, burgesia espainiarrak, euskal burgesiak lagundurik, espainiar populua eta euskal populua esplotatzen bazituen ere, espainiar estatua ez zen espainiarrentzat menderakuntzarako aparatu atzerritarra:

La burguesía española explota socialmente a los españoles; pero no nacionalmente (...) El pueblo vasco, en cambio, es explotado por una burguesía extranjera, a cuyo servicio se pone incondicionalmente la burguesía vasca (...) A la expoliación económica clásica, se añade aquí el genocidio cultural. Es decir, Euzkadi es sometida a régimen colonial. Que en Euzkadi

198 226-227 orr.

haya muchos Tschombés¹⁹⁹ no altera la esencia colonialista del régimen de explotación que padecemos, aunque hace terriblemente insoportable el grado de traición de nuestras clases dirigentes. Euzkadi es la última colonia del Estado español²⁰⁰.

Horrekin batean, klase-kontzientzia eta nazio-kontzientzia eman beharra aldarrikatzeaz gain, kulturalki ETAk aitzindari izan behar zuela sostengatzen zuen:

ETA debe encarnar en su dirección por lo menos la desalienación nacional, la revasquización cultural, sin la cual ETA indicará de modo inequívoco su voluntad, consciente o inconsciente, de consumir el genocidio... en servicio de la nación vasca (...). El elemento esencial de asimilación es, en todo Estado imperialista, la lengua de la administración estatal. Luchar contra el Estado opresor, y no luchar contra su instrumento esencial de esclavización e imperialismo que es la lengua (pues tras la lengua viene la identidad cultural y sociológica), luchar de ese modo, digo, es aparte de ineficaz, IRRACIONAL Y ESTUPIDO (...) ETA debe encarnar la Euzkadi desalienada en todo. Y que ETA esté españolizada culturalmente, y actúe de FRENO en la evolución general del país hacia la euskerización, situándose a la zaga incluso del fenómeno general de

199 Kongoko Errepublikoa Demokratikoa deskolonizatzen ari zen garaiko aferari egindako erreferentzia. Kongo bere buruaren jabe nahi zuen Lumumba presidentearen aurka aritu zen Tsombé, Belgikak eta AEBek eta Francok lagundurik. Besteak beste jokoan: Kongoko Katanga eskualdeko aberastasunak nork esplotatu. Hortaz, Txillardegik, nonahikoez inperialistekin kolaboratu eta bere aberkideak traizionatzen dituztenen aitaponteko Europan *Quisling* –Hitlerrekin hitzarmena egin zuen norvegiarra– eta Afrikan *Tsombé* izendatuko ditu. Eta hala jokatzeko dutenei, ezizen horiek ezarriko dizkie.

200 225-226 orr.

afirmación vasca y pareciendo desvasquizar en el contexto actual, es INADMISIBLE²⁰¹.

Txillardegik, ETAn bezala, bera ibili zen alderdi edo koalizio guztietan –ESB, Herri Batasuna, Aralar– planteamendu berbera egin zuen: askapen nazionalerako erakunde sozialistak, eta bereziki haren zuzendaritzak, bere baitan Euskadi desalienatua haragitu behar du, eta horregatik, zuzendari guztiek jakin beharra dute hizkuntza nazionala.

Horrekin batean, kritikatzeko ekintzak besterik gabe ekintzak egiteagatik egiten zituztenen militantzia barrabilezkoa:

En cuanto a cierto militantismo, abstracto y testicular de la acción por la acción misma, desprovisto de tragedia vasca y de tragedia proletaria, debe ser condenado sin piedad; pues ETA no es el Ejército de Salvación, ni una Cofradía para aventureros con manías de inmolación²⁰².

Bigarren txostenean zioen ezen, lehen txostenari erantzun ez ziotenez, eta IV. Biltzarrean zer erabaki hartu ziren artean ez zekenez, akta egin gabe zegoelako edo helarazi gabe behintzat, *Zutik* 32, 34 eta 35 aleak aztertu beharrak zituela jakiteko nondik nora zebilen erakundea. Ale horiek aztertzeetik ondorio hauek atera zituen:

Todo esto me confirma en lo que ya apunté (...) por lo cual reafirmo QUE ETA ESTA TOMANDO UNA

201 234-235 orr.

202 236 or. 1968an zinez ETAk eragindako ekintza/errepresioa/ekintza espirala abian jartzean, ideia berbera errepikatuko zuen, ETAk aurrera eramandako ekintza zehatzak adibide gisa ezarririk.

TENDENCIA ESPAÑOLA; que en el contexto de afirmación general vasca del país, equivale a decir una TENDENCIA ESPAÑOLISTA (...) ETA juzga las cosas desde una posición OBJETIVAMENTE ESPAÑOLA. De los doce artículos el lector puede deducir que sufre una opresión de clase; pero jamás que sufre una opresión NACIONAL. Ahora bien: esa es la posición de un movimiento revolucionario en España, o uruguayo en Uruguay. Luego estoy OBLIGADO A PROTESTAR contra la conversión de ETA en un movimiento REVOLUCIONARIO ESPAÑOL.

Pido, en consecuencia, al Comité Ejecutivo, que revise su actitud. A ello me autoriza el ideario NACIONAL de la organización y el derecho de todo militante a EXIGIR DE LA DIRECCIÓN DE ETA LA LUCHA POR NUESTRO IDEAL, y no por un ideal que no es el nuestro²⁰³.

Hirugarren txostenean, 1966ko martxoan sinatuan, nahiz erantzuna agindu zitzaion jaso gabe jarraitzen zuela jakinarazi ondotik, ETA “movimiento norteño español” bihurtu zela baieztatzen eta sendotzen zuten arrazoi hauen gatik: 1. ETako lehenbiziko buruek ez bezala, euskarari buruz, buruzagi berriek axolagabekeria higuingarria zutela, eta hizkuntza berezirik gabe nazio berezia eraikitzea ezinezkoa zela. 2. Abertzale guztiak oso sentibera zirela gure herria bi estatu zapaltzailek bitan banatua zutelako, baina orduko buruei hori bost axola zitzaie. 3. Beste horrenbeste Nafarroarekin. Nafarroa euskal nazioaren erdigunea da; Euskadiren historia kasik Nafarroaren historia da. Ez dago Nafarroa nazio-kausarako irabazteko asmorik, ez ofizialki eta ez harreman pertsonaletan, aditzea zuenez. 4. Immigrazioari ze-

203 1965-XII-19an datatua, eta “Jean”ek sinatua “Br[uselatik]”. Ikus *Euskal Herria* *belburu*, 238-239 orr.

gokionez, estatu propioa duen nazioarentzat ez zela arazo, baina nazionalki zapalduentzat bai. Eta *Zutik*-ek esan zuela immigranteak nazio askapenerako borrokara batzen ez baziren, euskaldunen errua zela; hori ezin onartuzkoa zela eta baieztapen hori ez zuela zuzendu.

ETAk ezkerrera egindako biraketaz zioen, atsegin hartzen zuela, baina ez zela pozten batzuk Erljio Marxistara konbertitu zirelako; erlijio guztiak ere alienazioak baziren, erlijio marxista beste bat zela, eta are okerragoa handinahitikat zuenagatik. Ez zuen eskuinera biratzea proposatzen, eskatzen zuena zen alienazio komunista bazterratzea. Aurrerakoi eta antikapitalista izateari beharrezko zeritzon, baina *Das Kapital*-en biblia berria ikustea katastrofea iruditzen zitzaion.

Koiuntura horretan, zer egin behar zuen erakundeak? 1. Baieztapen euskaldun eta euskaltzalea. Euskara ikastea ekin-tza iraultzailea zen, eta izen ona ematen zuen jendearen aurrean. 2. Euskadiren historia ezagutu, bereziki 1.800etik aurrera. Ikastaroetan prestakuntza hori eman behar zen, plano aurrerakoi eta sozialistatik, baina aldi berean euskaldun eta abertzaleatik. 3. Etakide guztiek jakin behar zuten zeren alde ari ziren: euskaldunen zerbitzuko Euskadiren alde, klase eta ideia bereizketarik gabe. Langileriaren diktadurarik ez dago; dagoena Alderdi Komunistaren diktadura da. Horregatik, adierazpen-askatasuna, etab., ezin dira ukatu, ez eta aldi baterako ere. Ikastaroak marxismoa azaldu behar du, baina ekarpen moduan, eta ez erlijio gisa. 4. Ahalegin bat egin behar zen guztien artean lerro ideologikoa eta estrategia garbi ikusteko. EAJk bazuen berea, eta ETAk ez.

Laugarren txostenean, ETArek etsaiak erakundetik kanporatzeko eskubidea eskatzen zuten. Jada oso ezaguna zaigun bereizketa egiten zuten: klase frontea ez, aberri frontea egin behar zen, kanpotar zapaltzaile inperialistaren aurka egiteko. Gisa honetako bereizketa sotilak egiten zituen:

ETA debe proclamar, a mi juicio, un programa SOCIALISTA hacia fuera, y un PROGRAMA DE CLASE HACIA DENTRO, interno. Pero sin que la adopción íntima, sincera, y total de éste, frene ya “a priori” la formación de un frente vasco de liberación NACIONAL. Yo diría que Kemen puede y debe ser abiertamente un órgano socialista de clase incluso; pero que Zutik debe ser un órgano totalmente socialista pero no de clase abiertamente. ¿Por qué? Porque la revolución socialista presupone Euzkadi libre; so pena de que hagamos... socialismo español inevitablemente. ETA, y Zutik, deben ser, a mi juicio, ABERTZALES VASCOS DE IZQUIERDA. No podemos convertirnos hoy, bajo la ocupación extranjera, en vísperas de desaparición como pueblo, en movimiento de CLASE. Pero Zutik puede y debe admitir ya, desde ahora, posiciones de extrema izquierda; pero NO SOLO ellas²⁰⁴.

Horraino, eskierki, batez ere desbideratze espainolistaren aurka jardun zen, FLP eta ESBAkoen aurka; azken txosten horretan, haatik, ezker muturreko abertzaleak ere hartzen zituen aiputan, aurrerago sinpleago abertzale komunistak izendatuko dituenak, esaterako, F. Krutwig.

204 250-251 orr.

2.2. Zuzendaritzarekin harremanetan zen garaiko idatziak eta aurrez aurreko solasaldia

1966ko maiatzaren 20ko data zuen idatzian zuzendaritzari aditzera ematen zion, besteak beste, jada erakundean denek ez zutela berdin pentsatzen, eta gauzak garbi utzi behar zirela, eta barne korronteak zegokien izenaz izendatu behar zirela. Zuzendaritzako bizpahiru kiderekin gai-zerrenda honetaz hitz egin nahi zuen:

- a) Estrategia norteña y estrategia vasca. Esta es la clave del, a mi juicio, grave desviacionismo actual.
- b) Socialismo aconfesional y marxismo-leninismo.
- c) Organización interna de ETA. Programa y Com. Ejecutivo. Estrategia y ramas consiguientes²⁰⁵.

Idatzi horri erantsirik, bi artikulua igorri zizkion zuzendaritzari. Lehenbizikoa *Zutik* 63. alean argitaratua. Ideologiari zegokion, eta izenburu adierazgarri hau zuen: “Socialismo y libertad”.

Marxek ez zuen asmatu; hark iraultza proletarioa industrializaturiko herrialdeetan iragarri zuen, eta gertatu nekariztza nagusi zen herrialdeetan gertatu zen: Txina, Errusia eta Yugoslavian. Soilik Txekoslovakia eta Ekialdeko Alemania ziren industrializaturiko herriak, baina haietan sozialismoa kanpotik ezarri zen –Errusiatik iradokiz– eta kanpotik mantentzen zen. Eta, gainera, Berlingo Harresiak erakusten zuen Ulbricht-en onarpen-maila zenbaterainokoa zen. Herrialde komunistak eraiki dira askatasun tradizioz ez dagoen herrialdeetan: tsarren Errusian, mandarinen Txinan, eta turkiar inperioaren Yugoslavian:

205 *Documentos Y*, 4. liburukia, 486 or.

Esta es una de las razones de que los regímenes comunistas están caracterizados, con toda justeza, como regímenes tiránicos y faltos de libertad. Si por socialismo se entiende, en último termino, la posesión por el pueblo de los medios de producción, hay que reconocer que el socialismo, hoy por hoy, aparece ligado íntimamente a las realizaciones históricas de Rusia, Yugoslavia, China, etc²⁰⁶.

Baina, ez Marxen iragarpenetan, baizik eta praxian zinez gertatu zenaz gainera, bazegoen beste arrazoi bat sozialismo marxista intolerantziarekin eta joeraz aldaturiko Inkisizioarekin lotzeko:

Se trata de la esencia filosófica misma del marxismo. Hay un cierto dogmatismo clerical en el marxismo (...) Hay socialistas libertarios, y hay posibilidades de otros tipos de socialismo no marxista. En cambio, los hechos históricos están ahí, los regímenes socialistas que se han producido hasta hoy se han caracterizado por la persecución implacable de los “herejes”: de los anarquistas para empezar y de los propios marxistas no suficientemente adaptables a las exigencias de la Curia: trotskistas, etc²⁰⁷.

Irakurlea ohartuko zenez, hiztegia ere klerikala darabil Txillardegik marxismo ortodoxoa ezaugarritzeko.

Jarraian zioen Euskadin, beste herri industrializatueta bezala, bazegoela askatasun politikorako ohitura zerbait, enbrioi egoeran, eta Euskadin herriak askatasun politikorik gabeko sozialismoa ez zuela onartuko, non eta ez ziren errepikatzen Berlingoa bezalako harresiak. Baziren teknikariak,

206 483 or.

207 Ibid.

baziren ofizialak, baziren lanbide liberalak, eta halaber aurrerapen tekniko gutxieneko bat Euskal Herria kontzentrazio zelai moduan ez antolatzeko. Eta, azkenik, marxismoari fenomeno historiko askoren azalpenaz eskaini dizkigun egia handiak aitorturik ere, ez zela jakituria politikoaren liburuaren azken orria, eta, maccarthismoa onartezina izanagatik, dogma marxistak Euskal Estatuaren dogmatzat aldarrikatzeak kalte konponezina ekarriko ziola gure herriari eta sozialismoaren aldeko borrokaren kausa orokorrari.

Euskadik sozialismo pluralista behar zuen, ez-dogmatikoa eta aurrerakoia. Eta mendebaldeko herrietako marxistak berak ere bide horretatik zihoazen, nahiz gehiegizko herabetasunez. Adibideak: Frantziako Alderdi Komunistan Louis Aragonen jarrera ausarta Moskuk Siniavsky eta Daniel idazleekin izandako aferaren alderako, eta Garaudy bera, edota Italiako Alderdi Komunistan ere antzera omen zebiltzan. Sozialismoa ez zen marxisten esparru itxia eta eskusiboa:

En buena lógica socialista, incluso marxista, una vez socializados los medios de producción, no hay razón para la supresión, prolongada sobre todo, de pluralismo filosófico, artístico, literario, e incluso político²⁰⁸.

Euskadiko Euskal Estatu Nazionalak bi egiteko nagusi zituen; bata, nazio kohesioa lortzea, funtsean, euskaldun kohesioa; eta beste egiteko funtsezkoa zen unibertsa eta humanista izatea, hots, sozialismoa askatasunean gauzatzea historian.

Goiago esan dugu bi txosten bidali zituela. Bigarrenean, aditzera ematen zuen hiru korrante zeudela ETAn: 1. Ildo

208 485 or.

marxista “norteñoa”, hots, espainolista; 2. Ildo marxista-leninista abertzalea:

Conviene precisar que los que componen esta ala son ABERTZALES INDISCUTIBLES, y que luchan por una Euzkadi vasca. Condenan, por norteña, la tendencia del actual Zutik. Los componentes de esta ala estiman que el marxismo-leninismo (es decir, la filosofía comunista) es la base, y no solo la aportación fundamental, de una política sana; y que fuera del marxismo-leninismo no hay socialismo. En consecuencia propugnan abiertamente y sin tapujos la adopción por ETA del marxismo-leninismo como base ideológica del movimiento. Los componentes de esta ala son, en suma, comunistas abertzales²⁰⁹.

Bera ez zetorren horiekin bat, baina horiek abertzaleak ziren lehen ildokoak ez bezala, eta horiekin koalizio bat osa zitekeen; bera hirugarren ildoan zegoen: ildo sozialista aconfesional abertzalean. Luzeegi joko zukeen zehaztea zertan zegoen desados bigarren ildo abertzale horrekin –lehenbiziko ildokoen erabat aurka zergatik zegoen ez zegoen azaldu beharrik: abertzaletasun-talkagatik–, baina lehen txostenean, gorago iruzkindu dugunean, funtsezko desadostasunak jadanik adieraziak zituen, eta gauzak erabaki beharra zegoen, zeren korronte ezberdinei luzera erakunde ezberdinak egokitzen zaizkie, eta gauzak aurrerantzean ez ziren berdinak izango. Bera posizio honetan zegoen V. Biltzarraren aurretik:

Algunos proponen ya la adopción de dos programas completos (uno marxista-leninista y otro aconfesional socialista),

209 489-490 orr.

que corresponderían a dos organizaciones distintas, federadas en un Frente de Liberación Vasco, al que podrían añadirse otras fuerzas, y que tendrán un programa común táctico.

Esto permitiría, estiman, aclarar la situación, clarificar las metas a los militantes, y favorecer la creación abierta de un Partido Comunista Marxista-Leninista y Abertzale, que cubriría un sector nacional hoy abandonado a los españoles.

La pretensión de que todos los actuales etarras pasen a adoptar el marxismo-leninismo como principio político no es realista, pues sólo podría ser impuesto a numerosos militantes no conformes en ello²¹⁰.

Ikusten da zer eduki zezakeen buruan garai hartan Txillardegik: lehenbizi, abertzale sozialista humanistak eta abertzale komunista marxista-leninistak elkartu, eta aurrerago eskuin abertzalea erantsi, fronte abertzalea osatuz.

1966ko maiatzeko bi txosten horien ondotik, uztailean kontaktua izan zuen Ipar Euskal Herrian –Baionan segur aski– ETAREN zuzendaritzako hiru kiderekin. Giro onean egin zen, argi eta garbi hitz egin zuten lau orduz, lau etakideek.

Izandako kontaktuaren kronikan interesgarrien jotzen dudanera etorri, hona zati adierazgarri zenbait:

“C” me dijo que él no es “nacionalista vasco” sino “socialista vasco”; y que su socialismo es socialismo ante todo, pero vasco inevitablemente. Yo respondí que la palabra “nacionalismo” tiene un contenido revolucionario cuando se aplica a un pueblo que carece de gobierno propio y de Estado; y que condenar la palabra implica en pensar en un nacionalismo de tipo español. Que debido a ello el temor del actual Ej. a las palabras euskaldun, nacionalismo, etc., son de origen chauvinista es-

210

pañol inconsciente o inconfesable. “C” replicó que no hay tal: que el Ej. es “socialista vasco” con todas las consecuencias (...) Puesto que, según “C”, sólo hay en todo esto una “cuestión de palabras”, consideremos los 20 etarras más representativos de la primera ola de ETA; y cojamos los 20 más representativos de hoy. ¿Es que hay en los dos la misma firmeza respecto al euskera, característica esencial de un patriotismo cultural y no racista? La respuesta de “C” fué: no (...) “Socialismo y Democracia” [“Socialismo y libertad” artikulua ari dela uste dut, gorago iruzkindu dugun artikulua, *Zutik* 63an argitara zena] – El C. Ej. lamenta la publicación de ese artículo por lo que tiene de “anti”. Yo repliqué que yo no soy comunista; y que si bien apruebo a grosso modo los regímenes socialistas, creo tener derecho a mantener una posición crítica respecto al marxismo. “C” me contestó que esto es negativo; y que no sirve sino para crear confusión. Pregunté si cabe ser pluralista, o si hay que ser marxista para ser de ETA: la respuesta fué vaga y no sería capaz de representarla con precisión. El artículo en todo caso fué considerado “inoportuno”²¹¹.

Hain zuzen delako “C” horri buruz, eztabaidan gailen ageri zenaz, iritzi pertsonal hauxe adierazi zuen:

“C” posee una extraordinaria formación para su edad, pero da la impresión de no poseer emoción nacional vasca alguna²¹².

Kronika hori irakurrita, ulergarriago egiten da V. Biltzarren ondoko erabakia, hots, erakundea uztearena.

211 507-509 orr.

212 509 or. Txabi Etxebarrieta ote zen? Haren beste anaia Parisetik ezagutzen zuen Txillardegik. Halere, badu artikulua bat *Zeruko Argia*-n Txabiri eskainia erail zutenean, eta bertan ez zuela ezagutzen dio.

2.3. V. Biltzarraren bigarren partea, eta erakundea uztea

Jakina denez, bi parte izan zituen V. Biltzarrak, eta lehenbizikoan, kanporatu egin zituzten ESBAkoak, hots, FLP (Frente de Liberación Popular) espainolaren euskal adarrekoak. Bigarren partearen aurretik, alde batetik, Txillardegik berak idatzi bat prestatu zuen aurrerantzean jarraitu beharreko estrategiaz eta taktikaz; eta Txillardegiren korronteak, Talde Sozialista gisa sinatzen zutenek (Benito del Valle, Manu Agirre, Xabier Imaz...), txosten aski luzea prestatu zuten.

Bereziki ETaren azken hamar urteko balioespina egiten zuen Txillardegik une hartako egoera politikoaren azterketa egin ondotik, eta V. Biltzarretik aurrera hartu beharreko bi-deaz, estrategiaz eta taktikaz ziharduen.

Espainiako estatuan gauzak aldatzen ari ziren edota hobeto esanda aldatetak iragartzen ziren; bestela nola azaldu, zioen Txillardegik, Langile Komisioen zabaltze eta finkatzea (Comisiones Obreras) –hor ez zuen asmatu, 1967an ilegaltzatu baitzuen Espainiako Gobernuak–, *Zeruko Argia* kazetaren iritzi askatasuna, ETako azken hiru atxilotu berehala askatzea, etab.; errebisionismoan ez erortzeko gauzak ondo finkatu behar ziren, baina:

Si la revolución guerrillera y por la fuerza es evidentemente un sueño esquizofrénico, hay que apearse del burro, y adoptar la vía política, por repugnante que nos parezca²¹³.

213 *Documentos Y*, 7. liburukia, 29 or.

Gogora bedi 1967an erail zutela Che Guevara, Aljeriako 1962an amaitu zela, eta bereziki Vietnamekoa gori-gori zela. Gurean etakide batzuk aztertzen ari ziren nonbait, Euskal Herriko mendiguneetan, hots, Aralar, Andia, Pirinioak, gerrilla-gerra aurrera eramanez zitekeen. Hortik esaldi horiek.

Ildo beretik jarraituz:

ETA ha estado durante 10 años dirigida según la línea “pura” de la intransigencia y del maximalismo. Tras 10 años el resultado es que no existe una rama dura, y que no hay ni acciones duras. Esto demuestra el fracaso de esa tendencia.

Cambiar así UNA ESTRATEGIA GUERRILLERA POR UNA ESTRATEGIA POLÍTICA es cambiar un callejón resbaladizo pero posible. Copiando a Lenin cabría decir que la solución más revolucionaria no es necesariamente la inmediatamente revolucionaria (...) Yo no veo a nuestro pueblo en el monte, en contra de las condiciones geográficas, en contra de los americanos, en contra del aburguesamiento de una parte incluso de la clase obrera, etc., con una metralleta bajo el brazo, sacando las concesiones a fuerza de sangre. La gente de nuestro pueblo NO ESTA DESESPERADA, no somos vietnamitas ni indios peruanos, ni argelinos. No lo somos. Nuestra situación no es la de ellos. NUESTRO CAMINO NO PUEDE SER EL DE ELLOS (...) Estamos en 1967 y en Euzkadi (...) HAY QUE ABANDONAR LA ESTRATEGIA GUERRILLERA, Y ADOPTAR UNA ESTRATEGIA POLITICA. Es un juego doble, peligroso, pero el único realista²¹⁴.

214 30 or.

Estrategia politiko horretan fronte abertzalea sortu behar zen, eta horretarako oztoporik handiena PSOE eta PNVren arteko itunak ziren. Orduan, aterabidea zen adar sozialista abertzalea sortzea PSOE jenderik gabe uzteko, eta ETAn orduan zeuden bi korronteek –bata marxista-leninista, eta bestea, eurena, sozialista–, bakoitzak bere alderdia sortzea, eta biak fronte abertzalean elkartzea (ELAko gazteak alderdi marxista-leninistara biltzekoak ikusten zituen), eta, geroxeago, jakina, PSOE jenderik eta indarrik gabe utzita, PNV erakartzea fronte abertzalera. Estrategia horrek Eusko Jaurilaritza desegina utziko zuen, eta ETAn oinarritutako Fronte Abertzalea indar betean.

Zaila da planteamendu horietan ez ikustea 70eko hamarkadan egin zituen ahaleginen ernamuina: lehenik, Monzonekin batean, 1971n, Fronte Abertzalea sortzeko ahalegina, eta 1976an, ESBren sortze garaian sortzailetarik izana; eta, alde-aldera, bere hautu politiko guztien oinarrian zeuden ideiak ez ikustea, Aralarrera igarotzeko hautua barne Lizarrar-Garazikoaren porrotaren ondoan, borroka armatua une hartan desegokia zela eta utzi beharra zegoela iriztean; izan ere, gorago oso garbi adierazi dugu gerrilla-gerrari eskizofrenikoa zeritzola, eta erregimen frankistak utzitako askatasun zirrikituak baliatu behar zirela politika egiteko, taktikoki jokatzeko. Franco hiltzean, honela laburbilduko zuen jokabide taktikoa, aliantza taktikoak egiteko egokia: Hegoaldeko lau lurraldeetarako autonomia zabala, gutxienez 1931ko Lizarrako Estatutuaren eskumenak.

ETAren Talde Sozialistak 1967ko otsailean sinaturiko txostenak gorago labur-zurrean aipatu ditugunak zabalago-tzen zituen, baina funtsa aldatu gabe.

Baieztatzen zuen orduraino ETAk ez zuela estrategia eta taktikarik izan. Benetan indar herrikoa izateko, gabezia horiek bete beharrak zituen. Euskadik 20.000 km² eta 2.000.000 biztanle zituen, eta Txinak, esaterako, 700 milioi biztanle eta 8 milioi km². Gainera:

No podemos fingir olvidar que las tres cuartas partes de Euskal-Herria están desnacionalizadas; que hay una enorme masa de población extranjera, difícilmente sensibilizable a lo nacional, evaluable en tal vez 500.000 personas; que hay fuerzas potentes, como la Iglesia católica, el carlismo español y el “izquierdismo” español; que hay una gran parte del proletariado vasco bastante “aburguesada”²¹⁵.

Nazioarteari begira, berriz, mundua bi bloketan banatua eta gu mendebaldeko munduan egonik, chauvinismo espainol eta frantsesaren aurka gerrilla-gerra ezarriko genuela pentsatzea ez zen batere serioa, eta erabat arduragabea bai. Horrek ez zuen esan nahi, haatik, borroka armatua betiko baztertu behar zenik:

Es natural deducir de las enseñanzas históricas que, muy probablemente no se podrá llegar hasta el fin (un Estado Vasco Socialista) sin el paso a una fase violenta y totalmente ilegal. Abandonar en consecuencia completamente esta eventualidad sería rechazable.

Pero hacer de ETA una “sexta”²¹⁶, o una organización guerrillera HOY, es poco, o totalmente, indefendible²¹⁷.

215 33 or.

216 Gogora bedi V. Biltzarra baino lehen idatzitako testua dela, 1967ko otsailekoa gutxi gorabehera, eta, beraz, “sexta” dioenean, ez dela ETA VI.a trotskistaz ari (zatiketa hori 1970ean gertatu zen), baizik eta ETAk sorreratik zituen sei adarretarik azkenaz, borroka armatuari zegokion seigarren adarraz.

217 34-35 orr.

Taktikoki estrategia politikoa lehenetsi behar zen. Hori bai: legaltasun espainol-frantsesean jausi barik:

Debemos pensar en que al fin habrá que dar un salto para conquistar la legalidad vasca socialista. No podemos caer en un legalismo de ningún tipo. Pero no podemos prescindir de una TACTICA dentro de esa estrategia, de una táctica PARA HOY, para Euzkadi Norte y para Euzkadi Sur, de una táctica REALISTA y no lunática. Como el peligro del legalismo y del oportunismo han llevado a la política vasca una y otra vez al carlismo y al neo-carlismo, por la izquierda y por la derecha, debemos tomar todas las medidas que garanticen al máximo que no se caerá en una legalidad no vasca.

ETAk, horregatik, joko bikoitza egin behar zuen, eta horretarako egokiena ETAREN organo exekutiboaren klandestinitatean atxikitzea zen, eta etakide guztiak organo haren mendean egotea:

Un juego “legal” (al que se dedicarían ciertos miembros de ETA, designados por el Ejecutivo, siguiendo una línea trazada por dicho Ejecutivo), juego que sería TACTICO (y no estratégico; es decir, para actividades concretas y transitorias); y un juego ilegal, que consistiría en la formación y la acción AL MARGEN DE LA LEGALIDAD (huelgas, células, publicaciones clandestinas, acciones de cualquier tipo no legal), que decidiría igualmente el Ejecutivo. Parece práctico así que ETA sea LA UNICA organización, con miembros “españoles” y “franceses” indistintamente. El Herrialde 6 debe ser un herrialde más, con miembros de diversas nacionalidades oficiales. Pero, desde el punto de vista “legal”, parece interesante la

DUALIDAD del juego político propugnado por ETA, al Norte y al Sur de Auñemendi²¹⁸.

Gogoeta horiekin batean, berresten zuen 1966ko erdialdera arte ez zela barne korronterik egon ETAn, baina harezkeroztik bai; bata, joera marxista-leninistakoa; eta bestea, joera sozialista humanistakoa, ez antimarxista, baina bai ez-marxista. Zirkunstantzia hori aprobetxaturik, bi alderdi sortu, marxista-leninista eta sozialista, eta biak federatu egin behar ziren.

V. Biltzarrera igorri zuten printzipioen deklarazioan jada ezagunak ditugun ikuspegiak daude bilduta. Deigarriak gertatu zaizkigun eta honainokoa aipatu ez ditugunak jasoko ditugu laburkiro:

Las zonas irredentas, usurpadas al antiguo Estado nacional de Nafarroa por la conquista militar, desnacionalizadas después y desgajadas por fin administrativamente, son las de Najera, Bureba, Jaka y Bearne Pirenaico, podrán unirse al Estado de Euzkadi si así lo deciden por aplicación del derecho de autodeterminación²¹⁹.

Lehenago, Krutwigek *Vasconia* liburuan zehaztu zituen Nafarroako estatuak indarkeriaz galdutako lurralde horiek, eta talde sozialista abertzale honek jaso egin zituen bere deklarazioan.

Euskal Estatuak modu federalistan osatuko zela zioten, hala lurralde ikuspegitik nola jardueren arlotik.

218 Ibid.

219 38 or.

Bizitzarako eskubidea preskribaezina zela zioten, eta horregatik heriotza-zigorra deuseztatzeko eskatzen zuten. Militarismoaren aurka zeuden; euskal indar armatuak al bait gehien murriztearen alde; halaber, bloke militarretan ez parte hartzearen alde, eta soldadutzaren ordeztarabilerara publikoko zerbitzu zibil bat antolatzearen alde²²⁰.

Zeinahi indar politikorekin tratua egiteko baldintza nahitaezkoa zen haiek euskal herriari autodeterminazio eskubidea onartzea.

Jakina den bezala, txosten hori Xabier Imazek aurkeztu zuen korrante sozialista abertzalearen ordezkari gisa V. Biltzarraren bigarren partean, 1967ko martxoan. Ez zen onartu, eta erakundea utzi zuten. Hona idatziz eman zuten azalpenaren zati adierazgarri batzuk:

E.T.A, ez da gaur joera batzutatako mogimendu bat, joera marxista-leninista bakar batean partidu bat baizik (...) Guk, sozialista izanik ere, marxismo-leninismoaren zenbait puntu nagusi ez ditugu onartzen, ez filosofiari buruz eta ez politika-jokabideaz ere; eta, hori dala-ta, E.T.A. erakundea uztea erabaki dugu (...) Berriz ere esan nahi dugu bukatu aurretik, Euskal Herria' ren salbabide bakarra euskal erresuma bakar bat eraikitzean, eta euskaldun gizartea gizatar sozialismo baten arabera eratzean dagoela. Helburu horrek zuzendu du gure biziera orain arte; eta helburu horretxek zuzenduko du etorkizunean²²¹.

220 "Nos oponemos a todo militarismo dentro y fuera de Euzkadi; y lucharemos por la disminución al mínimo de las fuerzas armadas vascas, y por la no intervención de la nación en bloques militares. Adoptamos como principio rector la sustitución del antiguo servicio militar por un servicio civil de utilidad pública" 44 or.

221 105 or. Sinadura: J.M. Aguirre Bilbao; J.L. Alvarez Enparantza; J.M. Benito del Valle eta Xabier Imaz. Data: 1967-04-14.

ETA erakundean 14 urte eginak zituenean (Ekin-ETA), eta urte eta erdi inguruko krisiaren buruan oinarri ideologikoak eta estrategikoak aski gotor finkaturik eta sendoturik zituela, 1967ko apirilean utzi zuen erakundea, Manu Agirre, Benito del Valle eta Xabier Imazekin batera, besteak beste.

1980an, frankismopeko ETAREN dokumentu klandestinoak argitaratzeko unean, Txillardegik azalpen batzuk eman zituen erakundea utzi zuen garaiko kontuez, eta, besteak beste, autokritika egiteko baliatu zuen:

Que el “marxismo-leninismo”, aún cuando puntualmente tenga aciertos indiscutibles, no es el ideal. No solo en sus realizaciones históricas, cuya crítica ha sido hecha ya cien veces; sino tampoco en el plano teórico.

Que mi oposición frontal al marxismo eclesíastico de 1.967 fue probablemente excesiva, a pesar de todo; y provocada sobre todo por el temor a un hundimiento de la izquierda abertzale (temor que parece fundado en lo referente a Cataluña, donde el social-imperialismo hizo y mantiene ingentes progresos).

Que la crisis que determinó mi salida de ETA, y las polémicas de los años siguientes, fueron un tanto lamentables: la virulencia del combate ideológico nos llevó, me parece hoy, a minusvalorar los aspectos de clase; y a supervalorar la conciencia nacional, desgraciadamente mucho más baja de lo previsto (...)

La idea de una izquierda abertzale federal, coordinada, plural (pero no monolítica), sigue siendo válida; y acaso más hoy que ayer. Tal vez haya derecho a esperar un acuerdo creciente entre Herri Batasuna y Euskadiko Ezkerra; herederas ambas, “grosso modo”, de esa amplia corriente de la izquierda abertzale que surgió con ETA²²².

222 72 orr.

Beste koiuntura politiko batean zegoen 1980an, eta horri ere egotz dakioke autokritika hein batean, horregatik bere balioa batere gutxietsi gabe.

3. ESB_{TIK} HB_{RA}

Errealitatea deritzoguna lerro jarraitu bat da, continuum bat, eta Franco hil ondoko lehen urteak zirimolatsuak izanagatik, amets alimaleko eta frustrazio ez txikiagokoak, continuum bat izan ziren, eta, jarraitutasun horretan guk, nahitaez, etenak egin behar, uneak hautatu behar, Txillardegiren artikuluek seinalatzen dizkiguten heinean eta moduan.

Honen aurreko bi kapituluetan gure azterketak xede jakinak zituen: lehenbizikoan, EAJtik bereizi eta ETA sortu zuteneko prozesua; eta, bigarrenengan, erakundea uztera eramane zituen bilakaera; oraingotan, baina, Franco hil eta Txillardegik Hegoaldera itzultzea erabakia duen honetan, zein prozesu dugu aztergai?

Batetik, hor dago, lehenik, fronte abertzalearen aldeko ikuspegia atxikirik, ESBren aldeko hautua egin izana²²³.

223 Iñaki Aldekoa ESBren idazkari nagusi izandakoarekin, 2014-12-17an, Gasteizen egindako elkarrizketan, puntu hauek jaso nizkion: Txillardegirekin aurrez aurre, lehen aldiz, Hendaian 1976ko apirilean edo egon zen. ESB sortzeko planteamendua egin zion, eta hark oniritzia eman zion. Iñaki Aldekoa bera “ELA autogestión”-etik zetorren; *Eladioak* deitutako famatuenak hauek ziren: Kepa Anabitarte, Iñaki Aginaga (“El Bonzo” teorikoa), Gregorio (Goyo) Etxabe, Juan Jose Etxaberen anaia; Iñaki Lasagabaster. Horiek *Aintzina*-koekin elkartu ziren. *Aintzina* taldekoak: Galdos, Iñaki Larramendi, Kepa Mendia, Alfontso Iriarte, Iñaki Razkin arkitektoa. Denak profesio liberaletakoak.

HASIk eta ESEIk ere gomita egin omen zioten –1977an eratu ziren alderdi horiek–, baina lehenago EHAS eta ESBren artean egin zuen aukeraketa, eta, berriro diogu, koalizioak eta fronte abertzalea baztertu gabe, alderdi konkretu baten alde.

Bestetik, Xibertan, 1977ko ekaineko hauteskundeetarako indar abertzaleek jarrera bateratua hartzeko elkarrizketen porrotaren eta bereziki hauteskunde haietan ESBk emaitza kaskar samarrak lortu ondotik –35.000 boto EAEn, 18.000 Nafarroan PNV eta ANVrekin batean; eta ordezkaritzarik ez Kongresurako–, berehala ekin zion koalizioaren beharra aldarrikatzeari, alderdi bakoitza bere aldetik ez zela aski argudiatuz.

1978ko ekainean ESBtik kanporatu zuten, eta handik laster HBra bildu zen independente gisa.

1979ko martxoan hauteskunde orokorrak egin ziren, eta apirilean udal-hauteskundeak –HBk 172.000 boto Madrilera bozetan, eta 211.000 udal hauteskundeetan–; gero, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako autonomi estatutuaren aurkako jarrera erakutsi zuen –Nafarroa bazter utzi izanagatik, eta euskararen alderako planteamendu diglosikoagatik bereziki–; 1980-1981 urteetan, EAJren saldukeria salatzen, Euskadiko Ezkerraren galera, eta erreforma/haustura diktomian haustura iraultzailearen aldean bakarrik geratu izana egiaztatu ondoren, erreformismoaren bidea antzutzat eta desegokitzen jorik, bide politiko-militar iraultzaileari ekiteko delibero irmoa egin zuen, hogeita hamar urtetan ezker abertzaleak atxiki zuena. Horra hor, laburbildurik, atal honetan begipean izango ditugun aztergaiak eta urte-bitartea.

3.1. ESBren alderako hautua

1975eko urte gatazkatsua heldu zen; Francok, azkenetan zela, salbuespen egoera luzeena dekretatu zuen, apirilaren 25etik iraileko fusilamenduetara luzatu zena: bizilekuetan sartzea, atxiloaldi luze torturazkoak, manifestazio itzelak... Txillardegi Iparraldean zen, eta Hego Euskal Herrira itzultzeko borondate eta asmo garbia zuen: ez zuen politika utzi nahi, ez zuen Iparraldean lasaiago eta europarrago bizi nahi, borrokalekura itzuli nahi zuen, eta intelektual engaiatu gisa jarraitu:

Hamar, hoge, berrogei urte azkengabe honetan itzuli-nahi berberean anaiturik geundenok, hasiak gara elkargandik urruntzen; nor Bilbora, nor Iruñera, nor Arrasatera, nor Zumarragara (...) Badakigu, bai, odol-taupada ahulkorretan beretan ikasia, atzerrian iaz hil zen poeta hark esaten zuen bezala, joaterakoan utzi genuen sorlekua, gure gaztaroarekin batera suntsitu zela; eta, bere eder eta ameskarri hartan, geure gogoan ez beste inon dirauela (...) “Larresoro” hemen geldituko da aurre-rakoan, Iparralde honetan, Kanbo-alde baketsu horretan, urte luze hauen lekuko mutu. “Txillardegi”, berriz, antigutar eza-guna, hor doakizue, ene aurretik, mezulari, herra-zulo mada-rikatu horretan burrukan segitzeko gertu; ondotik ni neu ere zuen artera agertzeko esperantzan²²⁴.

1975ean, *Enbata* kazetan eman zituen bere iritzi politikoak –Monzonek bezala, besteak beste–, eta gaztelaniaz; hortik ondoriozta daiteke bereziki iheslariak, etakideak asko, Iparraldean aterpetuak zituela jotzen hartzailatzat –bera ere haietakoa zen, noski–; batetik, lehendik han zeudenak, eta halaber 1975eko urte hartan erruz ugaritu ziren iheslariak,

224 “Itzul giroa” in *Zeruko Argia* 1976-05-09.

Francoren azken salbuespen egoera luzeen eta errepresiboenetik ihesi joandakoak. Zer ideia eta aholku ematen zizkien?

Urte hartako uztaileko data zeraman artikuluan, galdera honi ematen zion erantzuna: Nor dira arduragabeak? Eta artikulua bururatzean hitz hauekin seinalatzen zituen axolagabeak:

IRRESPONSABLES son hoy, sobre todo y ante todo, quienes se niegan a RENOVAR TOTALMENTE los esquemas mentales, las tácticas políticas y los organismos políticos de 1936. He ahí la IRRESPONSABILIDAD MAXIMA HOY²²⁵ [hots, Eusko Jaurlaritzari bere hartan eutsi nahi ziotenak, bereziki jeltkideak].

Franco azkenetan zen, aldaketa politikoak hurbil ziren, eta:

El pueblo vasco no posee todavía un organismo o una institución patriótica, ni clandestina ni en exilio, capaz de imponer una ALTERNATIVA VASCA en Madrid, con el apoyo unánime, o poco menos, de las fuerzas de Euskadi Sur. El llamado “Gobierno Vasco”, tal como hoy está constituido, no lo es.

Los meses pasan, los años pasan; y ese famoso “Organismo Supremo Vasco”, reclamado insistentemente entre otros por ENBATA, sigue sin aparecer. ¿De quién es la culpa?²²⁶

Bere iritzian errua zegoen nazio edukia bazter utzi izanean, EL ABANDONO DEL CONTENIDO NACIONAL zioen letra larriz. Palestinan, Euskadin, Irlandan, Kurdistanen, odola eta martiriari zeuden, eta atzo Israelen, Aljerian

225 “Quiénes son los irresponsables” in *Enbata* 1975-07-24, Txillardegik berak 1975-VII-17an datatua.

226 Ibid.

eta Vietnamen. Eta, aldiz, ez zen gerrillarik egon Parisko “Banlieue”n, ez Ruhr-en, eta ez Belgikan:

Ahora bien. Dado que la sigla FLN se repite, hasta con monotonía, en los países con problema de IDENTIDAD COLECTIVA AMENAZADA Y NEGADA; y que tal sigla no recuerda ni los debates parlamentarios, ni las combinaciones electorales, ni el rechazo de la juventud, da la impresión de que la condena de la actual juventud vasca EQUIVALE A LA NEGACIÓN IMPLÍCITA O EXPLÍCITA DE LA DIMENSIÓN NACIONAL DEL PROBLEMA VASCO. La derecha vasca regionalista y la izquierda española imperialista están “visceralmente” de acuerdo contra los “excesos” de la juventud vasca²²⁷.

Horregatik, euskal politika akademizismoan jausia zen eta itxarokerian, beti Franco noiz hilko zain. Arduragabea zen ahaztea ezen nazio mugimenduen historia, funtsezkoena, gustatu ala ez, ez dela hauteskundeetan idazten:

IMPOSIBLES JUSTAMENTE PORQUE HAY PROBLEMA NACIONAL SIN RESOLVER. El problema nacional NO PUEDE resolverse por esos procedimientos; y el “impasse” de la política vasca anterior a ETA reside en ese error de bulto (...)

Lo irresponsable es además apoyarse, frente a la evidencia histórica, en los ancianos y en los muertos; dando la espalda a los que tienen razón; que, además, son los jóvenes²²⁸.

Franco hil eta berehala, Espainiako egoera politikoa aldatzera zihoala eta, euskal alderdi edo mugimenduak hasiak

227 Ibid.

228 Ibid.

ziren beren posizioak azaltzen gai politiko axolazkoenen aurrean, eta Txillardegik bere alea ekarri nahi zuen eztabaidara, jakina, haien arteko elkarriketaren beharra lehenesteaz eta ezin premiazkoagotzat jotzeaz gainera.

Franco hil berritan, puntu alboraezin bat erbesteko Eusko Jaurlaritzarena zen, zer jarrera hartzen zuten indar politikoek haren alderako. Zein alderdik sostengatzen zuten orduko hartan Eusko Jaurlaritza?

Hay tres fuerzas políticas que sostienen hoy al Gobierno Vasco: una vasca, el PNV; y dos españolas: el PSOE y el PCE (...) Lo combaten, por el contrario, las demás²²⁹.

Eusko Jaurlaritzaren aurka zeudenen artean, lehenik, ELAren adar politikoaren ikuspegia azaltzen zuen (ESB: ELAren adar horren eta Txillardegi bera buru zuen *Aintzina* taldearen bat-egitetik sortu zen).

La rama POLITICA de ELA (que se autodenomina “Movimiento Socialista de Euskadi”) ni siquiera lo cita una sola vez en su última toma de posición. Su exigencia estricta de “Unión de las Fuerzas Patrióticas Vascas”, que se debería actualizar “sin caballos de Troya” y al margen de las “fuerzas social-imperialistas”, debe ser una unión entre abertzales; y dejando de lado a las que constituyen “el principal peligro político ante el que se enfrenta el movimiento patriótico vasco”. No debe deducirse de lo transcrito que el “Movimiento Socialista de Euskadi” sea frontalmente opuesto a un entendimiento a escala estatal, internacionalista; sino que propugna energicamente la constitución previa de la “Unión de Fuerzas

229 “En busca de un acuerdo” in *Enbata* 1975-12-18.

Patrióticas”, “antes que ningún pacto con organizaciones de la oposición española”²³⁰.

ETApm, ETAm, LAIA eta Alderdi Karslistaren posizioa azaldu ondotik, ondorio hauek ateratzen zituen Eusko Jaur-laritzarekiko:

1.- el PNV, que representa la derecha liberal abertzale, está en contradicción con las fuerzas abertzales socialistas, e incluso con el Partido Carlista; en tanto coincide aparentemente con las fuerzas que “Lan Deya” califica de “social-imperialistas”.

2.- los pactos a nivel vasco-español son vistos, en general, por las fuerzas vascas socialistas, como paso político posterior a la coordinación VASCA.

Se da así una perfecta coincidencia objetiva en el sentido de que el PRIMER PASO POSIBLE es, y no puede ser otro, la COORDINACIÓN DE LAS FUERZAS ABERTZALES DE IZQUIERDA. Y de que el problema de la actualización del G.V. (organismo autonomista hoy de las Provincias Vascongadas) debe ser dejado PARA DESPUES²³¹.

Artikulu horren berorren bigarren emanaldian, honako arazo giltzarri hauei buruz, euskal indar eta espainiar indar politikoei zer iritzi zuten aztertzen zuten: Nafarroa, Ipar Euskadi, eta hizkuntzaren arazoa. Euskal indarrak bat zetozen, eta Euskadiko indar espainiarrak ere bai:

Respecto a Navarra las fuerzas políticas abertzales y socialistas, parecen no presentar diferencias apreciables: todas ellas coinciden en que, independientemente de las peripecias de 1936, provocadas por la reacción, y que determina-

230 Ibid.

231 Ibid.

ron la exclusión de Navarra del régimen autonómico, Navarra constituye no solo parte del pueblo vasco, sino la parte FUNDAMENTAL de la nación. Navarra ha sido la primera realización estatal vasca; y su vasquismo solo puede ser puesto en duda con evidente mala fe (...) El resto de las fuerzas españolas continúan haciendo el juego imperialista del “divide ut vincas”²³².

Ipar Euskadiz berdina gertatzen zen:

Para las fuerzas abertzales de izquierda (ETA, EHAS, LAIA) Euskadi se extiende a ambos lados de la actual frontera. Y solo por razones tácticas se deja “para más tarde” el problema de la reunificación (EHAS es el primer partido vasco que aplica oficialmente la unificación en su interior). El Partido Carlista, una vez más, es el único partido no vasco que coincide relativamente con los planteamientos de la izquierda abertzale. Así los carlistas se niegan a separar las dos Navarras (Nafarroa Garaia y Baxenabarra): “Sus comunidades integrantes, Navarra –incluida la Baja Navarra–, Alava, Guipúzcoa, Laburdi y Zuberoa” (p.16)²³³.

Gaur egun alderdi karlista desagertua da, baina 1975ean axola handia zuen, bereziki Nafarroarekiko.

Euskararen kontuan ere antzera gertatzen zen: euskal indar abertzaleentzat axolazkoa, eta indar espainiarrek elebitasuna aipatzen zuten.

Baina, sozialismoari buruz, zer iritzi zeuden euskal indar abertzaleen artean, eta bereziki, zergatik jo zuen Txillardegik

232 “En busca de un acuerdo. II – Actitud ante tres problemas clave: Navarra, Euskadi Norte, problema lingüístico” in *Enbata* 1975-12-25.

233 Ibid.

ESB sortzera, eta ez zen EHASen kidetu, hura ere abertzale sozialista izanik, eta lehen alderdi politikoa bere baitan ofizialki bi Euskal Herrien batasuna ezarri zuena?

El problema fundamental de la izquierda, en Euskadi y fuera de Euskadi, es el que se deriva del binomio SOCIALISMO LIBERTAD.

Existe, por un lado, un proyecto socialista MARXISTA, monista [hots, arazo nazionala eta soziala bi ez baizik bakarra zela zioena, nazio arazoa ere klase arazoa zela], centralista, autoritario y dogmatico, que se autoproclama “marxista-leninista”; y existe, por el otro, un proyecto socialista LIBERTARIO, federalista, auto-gestionario, pluralista, no-dogmatico, que por definición, no posee un autor de referencia (solo un poco Proudhon). La contradicción entre estas dos tendencias dura desde hace más de cien años; y, se vió en 1968 y se ha visto en otros puntos, es la CONTRADICCION que divide a la izquierda. Esta contradicción divide tambien a la izquierda vasca²³⁴.

ELA-Movimiento Socialista de Euskadi-ren sozialismoaz ezin zuela iritzi garbirik eman zioen, material ofizialik ez zuelako eskura gai horretaz. EHASi buruz, berriz, zalantza handiak zituen:

EHAS se pronuncia por el establecimiento de un regimen político democratico... tanto a los individuos como a las organizaciones políticas”; y hacia el pluralismo sindical: “organizaciones de masas obreras”. Pero se observa que no se utilizan ni la palabra “partido” ni la palabra “sindicato”. EHAS parece también propugnar el sindicato único: promoción y desarrollo

234 “En busca de un acuerdo. III. – Posiciones respecto al estado socialista vasco” in *Enbata* 1976-01-01.

de una organización autónoma de trabajadores”; y parece estimar que su misión termina al acabar con el capitalismo: “organo de defensa de los trabajadores en la fase en que aun subsista la producción privada”. Estas tomas de posición estan lejos de la línea del socialismo occidental no marxista²³⁵.

Artikulu beraren laugarren emanaldiaren gaia: euskal frontea ala klase frontea zen. Hor jarrera garbiena “ELA-Movimiento Socialista de Euskadi”rena zen Txillardegirentzat:

El grupo “ELA-Movimiento Socialista de Euskadi” aparece solo, de momento, en su posición de Frente Abertzale primero, y solamente después pactos con las organizaciones españolas. Esta fué también la posición constante de la revista “Branca”.

“ELA-Movimiento Socialista de Euskadi” no ignora la existencia de divergencias importantes entre las diversas “fuerzas patrióticas vascas”; y proclama una vez más su meta: “una Euskadi independiente, democrática y socialista”. Admite así “que otras fuerzas patriotas vascas tengan objetivos estratégicos e ideologías distintos, sin que ello suponga para nosotros obstáculo insalvable para la UNION VASCA”²³⁶.

Bera argi eta garbi ELAren adar politikoarekin zetorren bat, eta ez EHASEkin, eta hori handik hilabetera argitaratu zuen artikuluan garbi utzi zuen, EHASEn manifestua irakurri ondotik. Nazioaren baieztapenaren aldetik kontraesanak antzematen zizkion –abertzaletasun geografikoa gehiago etni-

235 Ibid.

236 “En busca de un acuerdo. IV – Frente Vasco o Frente de Clase” in *Enbata* 1976-01-08.

koa baino!–, aliantzen aldetik beste horrenbeste, eta hutsune nabarmenenak hark aldezen zuen sozialismo motan:

En el plano territorial (...) EHAS piensa, en efecto, en un territorio nacional que podría englobar, tras concienciación y auto-determinación, la Rioja (Logroño), región de Jaca (Huesca) y Onseilla (Zaragoza), regiones de Mena y Oca (Burgos) Bearne (Parte Occitana de los Pirineos Atlánticos), etc.; aparte, evidentemente del propio Zazpiak Bat (...) En cambio, simultáneamente, EHAS no proclama en ningún punto que el euskera sea LA lengua nacional vasca. Se limita a propugnar su potenciación y generalización “al máximo de sus posibilidades” (concepto peligroso y anti-científico); en tanto que “desaparezcan las secuelas de una larga opresión lingüística castellana y francesa” (en que los términos sucesivos, “castellano” y “francés” revelan, respectivamente, un planteamiento regionalista al Sur y nacionalista al Norte) (...)

Se da idéntica contradicción en el plano de las alianzas. A unos principios territoriales tan maximalistas, debería corresponder una afirmación (y una práctica) de rotunda prioridad al Frente Nacional de Fuerzas Abertzales. Cosa que no sucede. Pues EHAS habla de “PLENA COLABORACION con las diversas fuerzas políticas, abertzales y socialistas”, pero nunca de la derecha vasca, o incluso del centro (...) Todo esto indica una tendencia GEOGRAFICA, más que étnica, heredada de grupos de social-imperialismo conocido; unida a una tolerancia TACTICA hacia el social-imperialismo que suscita obligadas reservas.

Pero es en el terreno del tipo de socialismo donde EHAS se define más claramente; en especial por OMISION (...) En efecto, es totalmente insuficiente que un Partido Socialista responsable, en 1976, no se defina tan claramente en contra del capitalismo de Estado, como del capitalismo burgués; que no diga en ningún momento, netamente que está por el pluralis-

mo de partidos políticos, por el pluralismo sindical, por el sufragio universal, por la libertad de información, etc (...) EHAS no podrá contribuir de modo muy efectivo a la solución del problema de conjunto de la izquierda vasca; puesto que tiende a reocupar el terreno –ya bien ocupado, creíamos– que llamaremos, hasta encontrar un término más adecuado, terreno de la izquierda marxistoide, izquierdosa, “gauchista”, o como se le quiera llamar (...) Si la política es el arte de las realidades, y de la oportunidad al servicio de un ideal, sigue en pie sin grandes cambios, incluso con EHAS, el problema de la izquierda vasca NO MARXISTA: europea, pluralista, realista, consciente de la prioridad nacional en tanto su IDENTIDAD ETNICA esté en peligro. Ese hueco inmenso, de la izquierda vasca progresista y aconfesional, sigue sin llenarse en 1976.

Y sigue sin llenarse por TIMIDEZ INTELECTUAL. Porque 40 años de franquismo y 20 de social-imperialismo, nos han llevado al maximalismo programático irrealizable, al análisis ideológico de las realidades históricas, a la compensación imaginaria de nuestra falta de acción política real. Es decir, nos han llevado a rechazar, una y mil veces, el socialismo probablemente MAS VIABLE, y MAS EFICAZ en Euskadi hoy: un socialismo abertzale, europeo, post-marxista y desmitificado²³⁷.

Hortxe daude, nik uste, arrazoi ideologikoak egokiro tolestuak, zergatik baztertu zuen EHAS, eta zergatik jo zuen alderdi bat sortzera ELAren adar politikoarekin batera.

J.L. Davantek, orduan EHASen zenak, aurka egin zion, eta halaber J.M. Odriozola “Izarreko”k, lehenago azaldu dugun bezala. Hona J.L. Davanten artikulua zati hautatu batzuk:

237 “E.H.A.S. y el abanico político vasco” in *Enbata* 1976-02-12.

No puedo dejar sin respuesta la crítica muy subjetiva hecha a E.H.A.S. por Txillardegi (...) Hay que saber si hacemos filosofía especulativa o bien tarea política. Me parece que Txillardegi confunde los dos planos y que abusa, en el segundo, de su conocido brío de escritor (...) En el citado Manifiesto de EHAS se dice: “El Pueblo Vasco es una NACION por su lengua...” Y en la Carta (...) se propone como punto fundamental: “EUSKALDUNIZACION”. Otro punto del programa básico: “Reunificación de Euskadi”. ¿Tal reunificación se hará, quizás, por el medio de la lengua castellana o francesa? (...) Habla de “tendencia GEOGRAFICA, más que étnica”. Sabe como yo que una gran parte de nuestra población no es de origen euskaldun. La alternativa es entre asimilarla, o rechazarla. EHAS, a mi parecer, es partidario de asimilarla (si ella lo acepta), como fueron asimilados en su tiempo unos Alvarez y otros Davant (...) Me parece que el marxismo es, para EHAS, un instrumento de análisis, y no una Biblia de lectura dogmática (...) Es verdad, también, para un espíritu libre, que la historia del socialismo no se detuvo con Marx y Lenin, que estos no pudieron decir todo, y que no todo lo que dijeron es palabra de Evangelio (...) Pero lamento que Txillardegi se deje acegar por su total antimarxismo hasta tal punto que pierda toda medida y objetividad (...) El problema que planteáis no es el de un socialismo vasco democrático y pluralista. Es el de abertzales que, sin estar en la derecha, no quieren o no pueden hacer el paso al socialismo. Es el momento, para vosotros, de superar su Revel-ismo para organizar la social-democracia vasca que es su corriente natural, al margen del socialismo. A menos que hagais, por fin, el paso al socialismo, integrando EHAS... o LAIA (...) P.S. En dos palabras mi ideología general es la siguiente. Cristiano militante, utilizo la descubierta [artikuluaren hasieran azaldu zuen gaztelania ez zuela erabat menderatzen] histórica de Marx (en lo que se refiere a la análisis de las clases), como la descubierta astronómica de Galileo, sin hacer

míos los puntos de vista que pueden hacer en otros dominios más subjetivos, en los cuales mi experiencia y mis ideas pueden valer las suyas. Y estoy bien en EHAS, partido socialista vasco no dogmático²³⁸.

3.2. Espainiako Kongresu eta Senaturako 1977ko ekainaren 15eko bozen ingurumarian

Honaino azaldu dugu zergatik jo zuen ESBra; aipatu dugu erreformista itzuli zela Kanbo ingurutik, pragmatiko. Zertan zetzan pragmatismo hori? Jo dezagun *Zeruko Ar-gia*-k 1976ko apirilean, bost euskal politikariri egindako hiru galderei emandako erantzunetara, hots, Txillardegik emandako erantzunetara: 1. Zer antolamendu politiko eskatzen duzu gaur bertarako?; 2. Hori lortzeko, zer urrats egin behar dira?; 3. Urrats horiek egiterakoan, nor hartuko zenituzke bidelaguntzat?

1. Hots, “gaur bertarako” berriro, helburu bat mami dai-teke Hegoaldean, ene ustez: “LAURAK BAT” delako haren obraketa. Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia elkartu, be-raz, eta hiriburu Iruñea hautaturik, geure burua geronek, eus-kaldunok alegia, euskaldun gisa eta geuri dagokigun bezala gidatzen hastea (...) 2. Españako Erresuma Europen eta XX. mendean lotsarik gabe sartuko bada, herrien errespetuaren fa-bore sartu beharko du, eta ez bere mende dituen herriak ukatuz eta zapalduz. Eskubideez eta nahiaz, 1931an Lizarran ar-gi-eta-garbi adierazi zuenaz geroztik, Euskal Herriak baturik eta bere gisara gobernatu nahi du bere burua. Españako Erre-suma federatu berrian, hitz batez, sarrera eskatzen dugu Eus-kal Herriarentzat. Legetasun berri horrek osoki errespetatuko

238 “J.L. Davant contesta a Txillardegi: socialistas o no” in *Enbata* 1976-02-26.

du demokrazia: buruzagien hautaketa, alderdi eta sindikatoen askatasuna, ideien defentsa librea, zapaldutako hizkuntzen piztea, legetasun berria onartuko dira. Eta, honen ondorioz, azkeneko urteotan eskubide herrikoi guztiak ukatuak izan direnez gero, politik-amnistia osoa eskatzen dugu gaur arteko politik-arazoei dagokienez: preso guztiak kalera, eta deserri-raturik bizi direnak oro etxera; 3. Orain eta Hegoaldean beti, eta berehalako helburu zehatz horri buruz, España herrikoi eta federatuaren alde, eta berorren barruan gure “Laurak Bat” herrialde hori elkarturik sartzearen alde jokatzan duten GUZTIAK onartuko nituzke, inolazko berezkuntzarik gabe. Ez, beraz, alderdi abertzaleak soilki; baizik-eta euskal autonomia hutsaren alde zinez ari direnak berak ere bai²³⁹.

Handik laster argitara emandako beste artikuluko batean, 1976ko irailean, garbi uzten zuen ez zela maximalismoen garaia:

Gaurko egoera ez da Euskal Herrian Agiri maximalista eta hanpurusak argitaratzeko unea; gaurkoa ez da (...) erreformismoa salatzeke eta arbuiatzeko tenorea; gaurkoa ez da, errazkeri bidez, osoki gure gogaide ez diren abertzaleak zapuzteke eta gaitzesteko tenorea, honela gainera euskal batasuna deseginez (...) Orain, horrengatik, oraintxe bai, gaurtxe, ahalik eta lasterrenik, eskabide MINIMO bat finkatu behar dugu abertzaleok. 1931an Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz egin genuen arabera, eta federakuntza bati buruz, AUTONOMIA MINIMO BAT mugatu behar dugu; eta eskuz esku, tinko, zindo, hortxe iraun denok gogor, IRUÑEN EUSKAL GOBERNU BAT IKUS ARTE (...) Zuhurtziak hau eskatzen digu gaur, ene us-

239 “Bost politiko plazara” in *Zeruko Argia* 1976-04-18.

tez. Hitzontzikeriaz eta utopiaz aski dugu, eta sobera. Has gaitzen, otoi, gaurko egunari dagokion politikagintza egiten²⁴⁰.

1977ko udaberrian, berrogei urteren ondotik, lehen hauteskundeak Espainian, Konstituzioa onartu aurretik. Egoera hartan, zer zioen Txillardegik?

Zalantzak ziren nagusi. Beldurrak; izan ere:

Una gran parte del aparato político-administrativo sigue en manos de gentes que gozaron de la confianza de Franco, nada más natural que esos temores²⁴¹.

Baina gutxieneko baldintza batzuk garbi ageri ziren: 1. Hauteskunde kanpainan legezko parekotasunerako bermeak (estatuko hedabideetarako sarbidea, jendaurreko bilera, propaganda idatzia); eta hori guztientzat. 2. Txandakatzearen printzipioa, hots, boterea hartu eta herritarrek hala erabakitzean, hura uzteko konpromisoa –egun horri ez diogu zentzu handirik hartzen, baina frankismo luzearen ondotik...–; 3. Amnistia:

Los presos vascos por encima de nuestras diferencias, son nuestros presos, porque han luchado contra el mismo sistema contra el que nosotros luchamos, y porque siguen en cárceles que otros también hemos conocido. Los partidos abertzales no pueden participar en la consulta electoral sin amnistía previa, so pena de cortarse totalmente de su base popular. Y esto explica el sentido convergente de la exigencia de amnistía, para presos y exiliados, desde la derecha vasca hasta la izquierda vasca²⁴².

240 “Ereinaro eta uztaro” in *Zeruko Argia* 1976-09-19.

241 “La hora del sentido común” in *Garaia* 1977-03-3-10.

242 Ibid.

Berme horiek betez gero, eta elektoralismoaren fanatikoak izan gabe, merezi zuen bozetara aurkeztea:

Pero, en la medida en que esas garantías mínimas existan, y sin ser por ello fanáticos de las virtudes del electoralismo, nos parece claro que la elección por el pueblo vasco de una treintena de diputados presenta aspectos extraordinariamente positivos. No es el menor de ellos, el dotar a nuestro pueblo, tras 41 años de inmovilismo, de una treintena de representantes de la Euskadi actual²⁴³.

Hautetsi horien egitekoa erabat garbi ez bazegoen ere, puntu bat bazegoen guztien adostasuna lor zezakeena:

La exigencia de una autonomía inmediata. En 1839 y en 1876, Euskadi Sur perdió, por la fuerza, la autonomía que suponía el régimen foral; en 1937, análogamente, Euskadi Sur perdió, por la fuerza, la autonomía por la que había luchado denodadamente desde 1931 (...) Y es natural esa exigencia. Porque para nosotros, como conviene repetir, democracia equivale a derecho a ser, que es, en Euskadi, derecho a ser vasco (...) Ahora bien: toda defensa de la identidad colectiva vasca es ilusoria sin el marco político de auto-gobierno (...) Nada indica que esta exigencia vaya a recibir una respuesta positiva sin vencer grandes resistencias en el poder central y en muchos de los partidos sucursalistas. Es, en consecuencia, demencial cuanto tienda a hacernos creer que no va a ser, estrictamente necesario, un Frente Abertzale en pro de una autonomía como cuadro político mínimo. Sin que ésto implique que se rechace la ayuda complementaria de cuantos grupos no abertzales coincidan en la reivindicación autonómica²⁴⁴.

243 Ibid.

244 Ibid.

Xibertako elkarrizketak egin ziren T. Monzonek bultzaturik, 1977ko apirilean eta maiatzean, euskal indar abertzaleek erabaki bateratua har zezaten Espainiako Kongresu eta Senaturako bozetarako, baina porrot egin zuten.

1977ko ekainaren 15erako hauteskunde kanpaina maiatzaren 24an hasi zen, eta ESBk maiatzaren 22an egin zuen ezohiko batzarra Bergaran, parte hartu ala ez erabakitzeko, eta bozetara joateko erabakia hartu zuten. Bozketa sekretua izan zen, eta ez dakigu ziur zer boto eman zuen Txillardegik. Kepa Anabitartek gogoratzen du gauzak ez zeudela batera argi, inkestetan hasiera batean diputatuak ematen zizkietela, baina azkenaldera ez, eta ikusten zela baldintza demokratikoak ez zirela beteko, esaterako, telebistaren erabilera, hain garrantzizkoa etxe guztietara heltzeko. Kepa Anabitartek berak boto zuria eman omen zuen²⁴⁵

Txillardegiri doakionez, maiatzaren 8an argitaratutako artikulua honela amaitzen zuen:

Bihotza adituz, hortaz (zergatik ez?), prestutasunez, politika-senaz ere bai, gure artean, Euskal Herrian alegia, amnistia OSOA gabe ez demokraziarik eraiki, ez faxismoa suntsitu denik, sinetsiko du inork. Amnistia osoa gabe fartsa itzela eta iseka lotsagaldua izango bailirateke hauteskunde delakoak; eta fartsa eta iseka horretan, agian, abertzaleok elkar harturik, inor ez bailitzateke (nik uste eta espero!) gertu parte hartzeko. Berantegi baino lehenago, otoi: PRESOAK KALERA!²⁴⁶

Haatik, maiatzaren 20an, Espainiako Gobernuak preso sonatu batzuk kartzelatik atera eta deserriratzera onartu zuen,

245 2015-05-18an egindako elkarrizketan berak aitortua.

246 “Ezetz batera bihotzak eta buruak” in *Zeruko Argia* 1977-05-08; eta gauza bertsua “La espada de Damocles” izenburuko artikuluan *Enbata* 1977-05-12an.

eta lehenago esan dugun bezala, ESBk parte hartzea onartu zuen, eta Txillardegi Senaturako zerrendan joan zen Gipuzkoatik, baina debaldetan, ez baitzuten diputatu eta senatari bakar bat ere lortu.

3.3. ESBtik HBra independente gisa, edo erreformismo ezinezkotik haustura nahira

Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskunderen emaitzak giltzarri izan ziren, jakina. PSOE baino ezkerreago –sozialdemokraten artean kontserbadoreak eta aurrerakoiak zeudela zioen, eta bera aurrerakoiaren artean kokatzen zen²⁴⁷– baina haren nahiko antzeko, euskal alderdi abertzale sozialista batentzat lekua bazegoela pentsa zitekeen haien aurretik; ondoren, ez. EAJk ia 300.000 boto, PSOEk ia 270.000 boto, eta ESBk EAEn 35.000, eta Nafarroan 18.000 boto, EAJ eta EAE-ANVrekin batera joanda.

1977ko udazkenean Altsatsuko Mahaia osatu zuten ESB, HASI, ANV eta LAIAk, Iruñeko Patxi Zabaletaren abokatu bulegoan²⁴⁸. 1978ko martxoaren 2an, *Egin* egunkarian azaldu zuen²⁴⁹ Txillardegik Altsasuko Mahaiak beste pauso bat eman behar zuela, eta ESB, HASI, ANV eta LAIAk bat egin behar zutela erakunde bakarrean, beharrezko aniztasun ideologikoa errespetaturik. Alderdi Sozialista Abertzalea sortzeko Biltzar handi batera deitu beharra zegoen, eta hara abertzale sozialista guztiak joan beharra zuten, militante huts gisa,

247 Juan Martin Elexpuruk kontatua, 2014-12-05ean. Aralarren egon zeneko garaian, harreman handia izan zuen Txillardegirekin.

248 2014-12-26an, Patxi Zabaletari bulego hartan bertan egindako elkarrizketan jasoa. Animalia politikoarena ez da nik asmatua, baizik eta Txillardegik Zabaletaz esan ohi zuena, eta Patxiri berari ere esan ohi ziona konfiantzan.

249 “La contradicción entre abertzales e imperialistas” in *Egin* 1978-03-02.

eta bereziki “Etxarri-Aranazeko alkateak”²⁵⁰ gonbidatuko zitu-
tuen.

Urte eta hil berean, *Punto y Hora* aldizkariak elkarrizke-
ta egin zion, eta han berretsi zuen funtsezko kontraesana in-
dar abertzale eta indar inperialisten artean zegoela, eta hor-
tik abiatzen ez zen politikak jai zuela, euskaldunen aurkakoa,
erreakzionarioa eta bideraezina zelako. Era berean, ESB eta
gainerako ezker abertzaleko alderdiak fase politiko gainditu-
tzat jo zituen:

No sólo ESB no tiene salida como tal, sino tampoco la tie-
nen ni HASI ni EKA ni nadie. Estamos condenados a unirmos
y es de una responsabilidad enorme lo que está ocurriendo.
Esta división –que la gente no la entiende y tiene razón para
no entenderla; hace dos años, se explicaba; hace uno, bueno...
pero ahora, no– tiene que acabar porque la pide el pueblo y
por razones de oportunismo político. ¿Que la palabra parti-
do no es la más correcta? Pues a lo mejor no. A lo mejor hay
que entenderlo como una especie de alianza estratégica o co-
mo se quiera llamar, pero siempre dejando libre la producción
ideológica. ESB, HASI, todos los demás, son fases ya supera-
das. Hay que ir hacia una izquierda abertzale unida o cerramos
todos la barraca²⁵¹.

Herri Batasuna koalizioaren sorrera eskatzen eta iragar-
tzen ari zen. Artean, EAJrekin etsi gabe zegoen –oso laster
etsiko zuen, aurrerago azalduko dugun bezala–, zeren elka-
rrietzeta berean baitzioen:

250 1977ko urtarrilean, Etxarri-Aranazeko Udalak Hego Euskal Herriko udalak gon-
bidatu zituen amnistiaren, foruen eta euskararen alde biltzera.

251 “Txillardegí entre la cultura y la política” in *Punto y Hora* 1978-03-23-29.

Existe un frente español que desgraciadamente comprende a fuerzas vascas y que también ha funcionado en el asunto de la preautonomía. Los dos bloques objetivamente están ahí. Uno va del PNV a EIA y otro de UCD, AP o AF hasta la extrema izquierda. No me parece que sea soñar oponer a ese frente español que ya existe, un frente vasco que no existe, cuando la situación del pueblo vasco como tal es mucho más grave que la del pueblo español que no tiene ningún peligro para su identidad. Y ese Frente Nacional tendría que abarcar todas las fuerzas, desde el PNV hasta...²⁵²

Hori 1978ko martxoan. Urte bereko ekainean, Franco hil eta bi urte eta erdira, honela laburbiltzen zuen bere gogo-aldartea: “*lo que se siente es una enorme frustración*”²⁵³. Hona balantze etsigarria:

El balance de estos dos años y medio es así flagrante: parodia pre-autonómica, maniobras dilatorias, marginación de Navarra, estancamiento general de todo el combate anti-capitalista, ofensiva diglósica y anti-euskaldun a todos los niveles (incluso dentro de los partidos “de Euskadi”), aparato municipal y provincial en manos de la derecha franquista, ruptura creciente con los vascos del Norte, etc.

Necesitábamos AUTONOMIA MAXIMA E INMEDIATA PARA EUSKADI-SUR; y se nos ha contestado con una PRE-AUTONOMIA MINIMA Y MEDIATIZADA PARA EUSKADI-OESTE. Mal se podría ser optimista²⁵⁴.

252 Ibid.

253 “Pronto tres años” in *Punto y Hora* 1978-06-15-21.

254 Ibid.

Ez dakit lehenago erabilia izango zen, baina horra Euskadiren Mendebalde gisa izendatua EAE. Balantze ezkorregia egin ote zuen?

Irakur bitez oraindik orain *Berria* egunkariak berrogei urtez parlamentari izan den Patxi Zabaletari eginiko elkarrizketan hark 1978ko urte hartaz egindako adierazpen hauek:

Zabaletaren arabera, “estatuak jakin izan balu eta PSOE, EAJ edo UCD alderdiek begirada zabalagoa izan balute” ETAREN bilakaera diferentea izango zen 70eko hamarkadaren amaiera hartan: “ETAREN historia 1978an amaitu zitekeen duintasun osoz elkarrizketa demokratiko baten bidez, eta printzipio demokratikoak onartu balira”²⁵⁵.

Txillardegik eta Patxi Zabaletak, adin aldea gorabehera, eta beste hainbat alde bazter –Zabaleta animalia politikoa (Txillardegik berak hala esaten bide zion), Txillardegi intelektualagoa; eta aiurri ezberdintasunak: Txillardegi suharragoa eta Zabaleta nareagoa–, ibilbide politiko ber gisakoa izan dute 1978tik aurrera –EHASen hasi zen Zabaleta, baina gero HBn eta Aralarren–, eta Zabaletaren arabera, Txillardegi oso koherentea izan da bere printzipioekin: ezkerreko abertzaletasun euskaran ardaztuan; anti-postura batzuk gorabehera: anti-felipe, Ezker Batuarekin batera joatearen aurka... Berrogei urtez aurreratua bere garaia; metapolitika egiteko garaia tokatu zitzaiolako; bestela, politikari ona izango omen zen!²⁵⁶

255 Senar, Joxerra: “Patxi Zabaleta: Aro oso baten lekuko zuzena” in *Berria* 2015-05-23.

256 2014-12-26ko elkarrizketan adierazia.

3.3.1. ESBtik kanporatzea

Gorago iruzkindu dugun artikulu hori *Punto y Hora*-n argitaratu zelarik, ESBtik kanporatuak izan zirela jakin berri ziren. ESB alderdiaren hiru fundatzaile kanporatu zituzten, eta hasiera batean antimarxistak zirelako iraitzi zituztela zabaldu zelako gauzak argitu nahi zituzten, eta horretarako *Enbata* kazetara igorri zuten hiru kanporatuek –Mikel Garmendia, Sabin Irizar eta Txillardegik– sinatutako artikulua. ESBren zuzendaritzarekin izan zituzten desadostasunak lau puntutara biltzen zituzten: 1. Fronte abertzaleari lehentasuna ukatu izana; 2. Euskararen aldeko artikulua ezabatu izana; 3. Zuzendaritza antiETA agertzea; eta, 4. Autogestioaren printzipioak alboratu, eta zuzendaritzak era autokratiakoan jokatzeko.

Lehen puntuari dagokionez, oraindik orain azaldu dugun bezala, bi amets zituen Txillardegik: bata, euskal alderdi sozialista zabala sortzea, barruan korronte ideologiko ezberdinekin –sozialdemokrata, sozialista, komunista–, hots, euskal ezker batzea euskal eskuina batua zegoen bezala, eta eskuin abertzaleak eta ezker abertzaleak fronte abertzalea osatzea fronte espainolistari aurre egiteko. ESBko zuzendaritzak biltzar eratzailean onartu zuen honako zati hau ezabatzea proposatu zuen:

ESB trouve qu'il est d'un intérêt supérieur de s'unir à la Droite Basque plutôt qu'à la gauche succursaliste. Ce qui prime c'est d'obtenir l'autonomie immédiate de tout Euskadi. Aussi, pour obtenir ce premier objectif, nous adoptons le projet de Front Abertzale comme premier pas (Libération Nationale chap. VII)²⁵⁷.

257 "E.S.B. épuration" in *Enbata* 1978-06-22.

Hori, labur esanda, tesi sozial-inperialistekin bat egitea zen, eta, hortaz, onartezina.

Bigarren puntua euskararena zen. Lehen partean luze eta diakronikoki azaldu dugu euskararen alde izan zuen jarrera irmoa. Ez gara luzatuko: ESBn eta HBn beste horrenbeste –gogora 1982ko polemika–, alderdiaren buruak eta idazkari orokorrak, eta batzorde nazionalekoak euskaldunak behar zuten izan, eta alderdiak erraztasunak eta bitartekoak eskainiko zizkien euskaraz ez zekiten militanteei, haiek bi urteren buruan ikas zezaten. Hori ere kendu egin nahi zuten. Txillardegiren iritzi tinkoetako bat zen euskal alderdi abertzaleek, lehenik, beren erakundearen baitan gorpuztu behar zutela Euskal Herriarentzat amesten zuten etorkizuna; gidariek ez bazekiten euskaraz ondo, zer mezu ematen ariko ziren euskaldunei? Besteak beste, euskara ez zela beharrezko.

Behin Lazkaon bildu omen zen ESBren batzorde exekutiboa, eta Txillardegik idazkari orokor orduan kasik elebakarrarekin istilu gogorra izan omen zuen; gutxiatik ez omen ziren borrokan hasi²⁵⁸. 1977ko ekainaren 15eko hauteskunderarako zerrendak osatzean, Kepa Anabitarte ez baizik eta Gregorio Etxabe aurrean jarri izanaren arrazoia horixe izan omen zen: Anabitarte gauza ez izatea lan politikoa euskaraz egiteko, eta Etxabe bai²⁵⁹.

Hirugarren puntuari zegokionez, labur-zurrean: ESBk erakundeetan politika egiteko hautua hartu zuen, baina borroka armatuaren premia ez zuen zalantzan jarri; halere:

258 Iñaki Aldekoak kontatua (2014-12-17).

259 Kepa Anabitartek kontatua (2015-05-18).

A plusieurs reprises, nous avons dû utiliser toute notre influence personnelle, pour contrecarrer les tendances nettement anti-ETA de la Direction actuelle. Nos sommes obligés d'avouer que notre point de vue n'a pas été adopté et que la même aversion et mesestime contre nos gударis y persistent²⁶⁰.

Eta laugarrena eta azkena, zuzendaritzak autogestioaren printzipioa baztertu eta autokrazia bilakatua zela.

Lau puntu horiek giltzarri eta funts-funtsezko izan ditu Txillardegik.

Artikuluaren amaieran zioten ez zutela jendaurreko polemikarik nahi, eta alderdian zatiketarik ere ez. Zuzendaritzak hartzen zuen erabakia hartzen zuela, ez zutela erantzungo, eta ez zutela beste adierazpenik egingo.

Alabaina, berehalaxe, 170 militantek idatzi bat sinatu zuten; bertan elkartasuna adierazi zieten kanporatuei, eta idazkari orokorra egiten zuten zatiketaren erantzule. Ematen zituzten arrazoiak hiru kanporatuek emandako berberak ziren, eta idatziaren sinatzaileen artean honako hauek zeuden: Jose Maria Egurrola, Kepa Mendia, Tasio Olabarrieta, Henrike Knörr, Jose Mari Ribera eta Xabier Pikabea²⁶¹.

3.3.2. *Bi urte giltzarri: 1978 eta 1979*

Franco hil eta bi urte eta erdira etsiak jota agertzen zen, gorago adierazi dugun bezala; izan ere, Hego Euskal Herri-rako autonomia gehienekoa behar zen garaian nazio-arazoari aterabide duina ematen hasteko, ahalik eta txikiena eman nahi baitzion Espainiako gobernuak.

260 "E.S.B. épuration", ibidem.

261 Ikus "ESB, sangrienta decisión" in *Punto y Hora* 1978-07-6-12.

Handik laster heldu zen erreferenduma, egun oraino indarrean dugun 1978ko Konstituzioari bai ala ez esateko garaia, eta Txillardegi arrenka eta otoika jardun zen herri gisa jokatzuz euskal indar politiko guztiek “ez” esan ziezaioten, zeren PSOE eta PCE, eta UCD eta AP –nahiz azken hone-tako bost diputatuk aurkako botoa eman Kongresuan– eta ORT eta gainerako indar espainol gehienak, eskuinetik ez-kerrera, baturik baitzeuden konstituzio espainolari baiezkoa emateko. Azken berrogei urteko historia gogoraraziz ekiten zion:

Zertan gelditu da gerra garaian, eta deserrialdi mingarrian gero, 40 urte egonarriz, lortua eta gotortua omen zen “Pacto Autonómico” delakoa? Ezen abertzale sozialistei aspaldidanik esan ohi zitzaiena horixe izaten baitzen: 36-en aurreko PSOE antieuskaldun hura “aldatua” zela, ia-ia abertzale ere ba zela; eta, hortaz, alferrik zela euskal ezkerria eraikitzen saiatzea. Oraintxe ikusiko omen zen taktika horren egokia.

Hots, horra hor egia latza 1978-ko udazken atari honetan: aspaldi bukatu zela “ezti-bidaia”. Eta orain, aurrez aurre egia ikusteko eta aitortzeko kemenik ez duten guztiak hasarretuko badira ere, gauza bat dugu begien aurrean Konstituzioari dagokionez: indar abertzaleak oro alde batean, eta indar inperialistak oro, berebat, bestean daudela. “Pacto Autonómico” delakoak, eta “klase-frenteak”, eta abar, pikutara joan dira.

Aspaldidanik, geure burrukaren ardaztat, “abertzaleok bat” proposatzen dugunok, “ameslari” batzu omen gara, gaurko egoeratik arrunt urruti. Gaurko egia, egunero ikusten dugunez, “klase-frente”, “pacto autonómico”a, eta abar, omen dira (...)

Aukera bat ba dugu, ordea, abertzale jendeari eta logikari egokiro erantzuteko, eta behin bederen “pratikoa” izateko: esan diezaiogun EZ abertzale guztiok, erabat elkarturik, etsaia

ere bapo baturik dagoelarik, Madrillen gu guztion kontra presatzen ari diren Konstituzioari. Ager bedi, aspaldiko partez, herri bat garela (...)

Baina “marco constitucional”aren barruan, edo horrelako zerbait pasako balitz, zer guri? Ez al zuen Esparterok, 1839-ko legean hain zuzen, “se confirman los fueros” esan? 150 urtetako zoritxar-kateaz kolpez ahaztuko ote gara, egiazko egoera ahaztuz?

Gure herriari dagokion autodeterminaziorako bidea espreski ukatu ondoren; euskararen heriotzara ez bestera daraman diglosia, 3. artikuluan legeztatu ondoren; inolako euskal heziketa guztietarako bidea hetsi ondoren; Iparraldeko anaientzako abantail-arrastorik ere gabe utzi ondoren; ekonomi-aldakuntzak aipatu ere gabe ahaztu ondoren; zergatik esan genezake EZ besterik? Izan dadila Konstituzio hau 1839-ko legea bezala, 1876 eta 1937-koak bezala, inperialismo soilaren bortxaketa. Besterik ez bada ere, gauzak garbi geldi daitezela²⁶².

EAJk abstentzioa proposatu zuen, HBk ezezkoa. Hego Euskal Herrian ez zen onartu; Espainian bai, alde handiz.

1979. urtea autonomi estatutuaren urtea izan zen politikoki, urrian erreferenduma –boto-emaileak %60, eta haie-tatik %90ek baietza– . Udaberri pozgarria izan zen Txillardegirentzat, martxoan HBk Madrilerako bozetan 170.000 boto baino gehiago lortu zituelako, eta udal hauteskunder-tan 210.000 pasatxo. Orain hona aldatuko dugun artikulua idatzi zuenean, artean ez zekien HBk zenbat boto lortuko zituen udal hauteskunder-tan, egin gabeak baitziren.

Bera HBko *txoriburu* idealistetarik sentitzen zen, eta beraren iritzian, koalizioak honako eginkizun hauek zituen:

262 “Otoi! Denok ez” in *Anaitasuna* 1978-10-01.

Hots, ni irakurleak ongi dakikeenez, 171.000 “txoriburu” horietakoa izanik, Herri Batasunaren eginkizunez mintzatuko naiz (...)

Alde batetik, HB-ak abertzale jokatu behar du. Zinki, ermo-ki, osoki, batere beldurrik gabe: abertzale. Nola?

a) Hizkuntzaren arazoan: kolorerik gabeko “bilingüismo” (?), horiek alde batera utziz, diglosiaren kontra jokatu behar du HB-ak, deliberatuki, ausarki (...) HB-a euskaltzale sutsuen eskuetan jarri behar da. HB-ari botoa eman dioteneke, euskaraz ez dakitelarik ere, Euskadi euskalduna nahi dute (...)

b) Nafarroaren arazoan Abertzale garenok ez dugu ezertxo ere nahi Nafarroa gabe (...) Euskadi Nafarroa da.

d) Iparraldearen arazoan: Baiona eta Maule Euskadi dira: Enbata, Jazar, Ezker-Berri eta EHAS gure borroka berean ari dira; “Seaska” ikastola-elkartea eta Etxamendi-Larralde kantariak, gure anaia bizkiak dira (...) Iparraldea bihotz-muinean daraman mogimendua, nekez lerra baitaiteke sozial-inperialis-mora. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Euskadi dira.

Eta beste alde batetik, HB-ak beheitik gora jokatu behar du; organizazioaren oinarritzat autogestioa hartuz. “Anarko” askok eman omen digu botoa; eta ez nuke nik ezetzik esango. Hiru urte honetan ikusi dena ikusita, leporaino dago jende asko eta asko “partidu”ez, “siglez” eta gizon “politiku”ez. Eta, egia esateko, ni neu ere ez nago urruti. HB-ari botoa eman dion jendeak BESTELAKO TALDE BAT eratuko den espe-rantzan eman du botoa (...)

Eta, hori dela-ta, beste hiru helburu hauek proposatuko nituzke:

a) HB beheitik gora antolaturik egon dadila, eta ez inolaz ere goitik behera. Sekretari ahal guztidunei, ez; aparatokeria guztiei, ez; “politika” zapatillatan egin nahi dutenei, ez; mili-tanteen lepora bizi nahi duten lotsagalduei, ez.

b) HBk herriarekin eta herri-mailako organizazioetan izan ditzala burua eta arreta (...)

d) Honi oso lotuta, egia esan: ideologia gutxiago, eta pertsonagandik hurbilago. HB-ak errespetu osoa eta egiazkoa izan behar du gudari isilekiko, sindikalista ezezagunekiko, andereño eta irakasle apalekiko²⁶³.

Irakurleari, niri bezala, ziur naiz, azken puntu hori irakurtzean, burua Txillardegik ESBn izan zuen esperientzia txarrera joan zaiola. Gainerakoa ez da berria, baina koherentzia ez dio inork ukatuko.

Beste puntu bat ezin saihestuzkoa. Espainiako gobernuak banda armatuak zeritzenei buruz, zer zioen? Testu honen lehen partean, bortxari eskainitako seigarren atalean zabalago jorratzen dugu, baina, hemen, labur-zurrean adierazi beharrez:

Alde honetatik, Aix-en-Provence-n lortu duguna, nahiz Castells-ek oso egokiro azpimarratua izan, ez dugu behar bezala baliatu. Apaolaza eta Goikoetxea ez dira, ezta FRANTSES zuzenbidetzan ere, “bandas armadas”ko bi lagun, NAZIO-ARAZO baten bi GUDARI baizik. Iazko manifestazio famatu hura eratu zutenen kontra (eta “Euzkadi” hitza ahoan zutelarik!!), Aix-en-Provence-ko Tribunaleak BEREZI egin du ETA-koen burruka; eta terrorista EZ DELA aitortu du. Urriaren 28-an ikusi ziren uso madarikatu haiek, horretara, itua erratu zuten; eta “terrorismo-mota guztien kontrako” hitzaldi eta artikulu haiek, gure kondairako orrialde beltzen artean geldituko dira betirako; eta manifestazio hura bultzatu zutenak, lotsagarriro bezturik ere betirako (...)

Eta hauxe gertatu da berriro GLADYS zoritxarrekoaren arazoan. Gutxitan ikusi da Euskal Herrian Ekainaren 5-an ikusi den giroa. Hegoalde GUZTIA jarri da zutik berriro: Nafarroa,

263 “Lana orain hasten” in *Punto y Hora* 1979-04-5-12.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia (“El País Vasco y Navarra”, Madrilleko prentsaren arabera...). Manifestazioak, ezin ugariago, ezin GOGORRAGO ere bai, Hego-Euskadi OSOAN egon dira. Lan-oporraldia OSOA izan da Euskadi OSOAN. Gladys-en heriotzak sutan jarri du herria mutur batetik bestera (...)

Gauzak garbi daude; eta frankismoak eta sozial-inperialismoak (elkarrekin biek, bai, “kif-kif” biak beren anti-euskaltasunean) erein zuten ALIENAZIOA gaintitu-ala, BAT agertzen da Hego-Euskadi. Eta BATERA senditzen, eta BATERA maitatzen; eta BATERA ERE beren hilak eta hero[i]ak ospatzen²⁶⁴.

1979ko uztailaren 18a heldu zen, eta honela zioen:

El problema número uno del Estado español es el problema vasco (...) Debido a esto, hubo ingenuos, entre los que me incluyo, que pensaron que a la muerte de Franco, con la enorme animadversión creada por el fusilamiento de Txiki y Otaegi en el mundo entero, el Gobierno español iba a tomar medidas autonómicas serias. Parecía lógico, y se inscribía en el propio interés del Estado español, una reorganización claramente federalista con Euskadi Sur. No por gusto (...) sino para evitar crisis graves al propio Estado (...) Pero pronto hará cuatro años que murió Franco; y sólo oímos que nos viene otro 18 de julio encima (...)

Habiendo sido el pueblo vasco; mejor dicho, habiendo sido la izquierda abertzale, el factor esencial del desmoronamiento de la dictadura franquista, ha sido y es esa izquierda abertzale el centro de todos los odios y de todas las excomuniones.

Extraño pago a quienes sacrificaron sus vidas por la liberación nacional y social de Euskadi! (...)

264 “Euskadi is different” in *Anaitasuna* 1979-06-16.

El pueblo vasco ha rechazado la Constitución española; pero ahora quien no pasa por ella “no es demócrata”...

Y así, “legalmente”, “dentro de la Constitución”, se condena al pueblo vasco a PERDER SU IDENTIDAD. Es decir, se comete un etnocidio. Que se acompaña de una expoliación económica sin precedentes, de un aparato político cuidadosamente controlado desde Madrid y París, de una descapitalización consciente (el caso de Arrosa, en Baja-Navarra, es definitivamente aclarador de la actual política económica), de una alienación lingüística e implacable²⁶⁵.

Gernikako edo “Moncloako” autonomi estatutuaren aurka jarri zela gauza jakina da. Euskararen diglosia iraurazteagatik ez ezik, Nafarroa kanpo geratu izanak izan zuen hor pisu itzela. Nafarroari eskainitako artikulua saila du Txillardegik, baina bat nabarmenduko nuke guztien gainetik: “Yo no escupiré a la víctima” du izenburu –biktima Nafarroa da, jakina!–, eta honela amaitzen da:

Por todo esto, porque no es posible votar Sí al Estatuto cuando nuestros hermanos navarros quedan fuera del juego, porque no hay prisa; porque me niego a escupir a los vencidos, yo no aprobaré el Estatuto.

Y espero que seamos los suficientes para evitar que la trágica división, de origen imperialista: “vascos” por un lado, “navarros” por otro, haga inevitable la desaparición de nuestra nación²⁶⁶.

Nafarroarik gabe, Txillardegik idatzi zuenez, euskal proiektua errorrik gabe gelditzen zen, historia gabe, gaztelu

265 “Otro 18 de julio” in *Punto y Hora* 1979-07-12-19.

266 “Yo no escupiré a la víctima” in *Punto y Hora* 1979-08-2-9.

barik, buruzagi herrikoi eta antifeudalik gabe, Arturo Campion, Axular, Etxepare, Mina, Gaiarre, edo erriberako ardorik gabe... Otsagi, Orreaga, Belagua, Goñi, Aralar, Urbasa, Baztan gabe; Amikuze, Oztibarre, Garazi eta Donapaleu gabe, Xalbador eta Xalbadorrek esan nahi duen guztia gabe:

Sin poesía. Porque Navarra es el poema polícromo del pueblo vasco, su infancia secreta, su vigor más agreste, su tragedia también (...)

Sin Navarra el proyecto vasco se queda sin pasado y sin futuro. Y es que el proyecto vasco es un proyecto navarro, o no es nada. “Euskadi” no es sino el nombre propuesto por Arana Goiri (un gran error, por supuesto) al Estado Vasco; Estado que ya tuvo su nombre durante siglos: Navarra. Como tuvo su nombre culto la lengua nacional vasca: “lingua navarrorum”. Se puede, y se debe incluso, edificar el socialismo apoyándose también en las capas sociales progresistas, distintas de la clase obrera; pero no se puede edificar el socialismo al margen de la clase obrera.

Análogamente, se puede, y se debe incluso, edificar Euskadi apoyándose también en las “regiones vasconizadas”, distintas de Navarra, pero no se puede edificar Euskadi al margen de Navarra²⁶⁷.

Horraino Txillardegiren pentsaera eta sentiera. Baina nafarrek eurek ezer jakin nahi ez bazuten kontu hartaz, 1977ko ekaineko bozetan eta 1979ko martxo-apirilekoe-tan agertu bezala, nafarrek eskuin espainolari –Aizpun, Del Burgo...– eta ezker espainolari –Urralburu...– ematean boto

267 Ibid.

gehienak, eta ez Garaikoetxea eta koalizio autonomistari, eta eusko nazionalistei, edo Patxi Zabaleta eta HBri?²⁶⁸

Nola erantzun Txillardegik berak jaurtitako galdera horri? Nafar populua alienaturik zegoela izan zen beraren erantzuna:

¿Qué culpa tiene el pueblo navarro de su alienación? (en la medida en que ésta existe aún; pero en mucho menor grado de lo que quisieran los Del Burgo y Aizpún). ¿De cuándo acá el pueblo es responsable de las alienaciones que le han sido impuestas desde fuera? Pretender que el pueblo navarro “tiene la culpa” de la realidad que reflejan los resultados electorales, es pretender que el pueblo navarro ha sido dueño de sus destinos estos últimos años. Y eso es escupir al pueblo navarro. Porque el pueblo navarro, por lo menos tanto como el resto del pueblo vasco, ha sido víctima de sus dirigentes, víctima de sus clases dominantes, víctima de un General que se llamó Mola, y víctima de los terratenientes, caciques y explotadores de todos los colores (...) Navarra ha sido víctima del clero reaccionario (...) Navarra ha sido víctima del caciquismo (...) Navarra ha sido víctima de su situación geográfica: región más abierta que las otras, sobre todo en su parte Sur (...) Navarra ha sido víctima de su riqueza natural. Habitados al mundo moderno, e identificando auge económico e industrialización no nos damos cuenta de que, hasta hace relativamente poco tiempo, ha sido Navarra el botín codiciado, y no Vizcaya o Guipúzcoa.

268 1977ko ekainaren 15eko bozetan, Espainiako Kongresu eta Senaturako: Aizpún buru zuen UCDe 75.000 boto eta 3 eserleku, eta Urralburu buru zuen PSOE 55.000 eskas, eta 2 eserleku. Garaikoetxea buru zuen koalizioak (EAJ, EAE-ANV, ESB) 18.000 boto pasatxo, eta diputaturik ez. Eta Nafarroako parlamenturako lehen bozetan, 1979ko apirillean: UCDe 20 eserleku (68.040 votos), PSOE 15 (48.289), UPN 13 (40.764), HB 9 (28.244), Euskal Nazionalistak 3 (12.845).

Ha sido la cuenca del Ebro, ese “eje vascón”, el centro de todos los latrocinios y de todas las invasiones²⁶⁹.

Horren ondotik, EAJren taktikaren salaketa gogorra, UCDe eta EAJk nolatan ospa zezaketen testu instituzional berbera galdetuz erretorikoki?; bietatik nor aldendu zen bere helburuetatik?

3.3.3. EAJren saldukeria, klase interesengatik

Nafarroari buruzko artikulua horretan aipatzen du lehenbizi, nik dakidala, EAJren saldukerian interes ekonomikoak zeudela tartean, negozioen aurrerabideari ematea lehentasun osoa, eta horretarako “desordena politiko-militarra” amaitzea izatea helburu nagusia, eta nazio arazoak ahaztea, hots, euskal nazioari saldukeria egitea. EAJk akordioa justifikatzeko erabilitako arrazoietako bat izan zen presa zegoela autonomi estatutua aurrera ateratzeko, eta Txillardegik:

Todos sabemos lo que ha sido el período fascista para Euskadi; y quienes mejor deberían saberlo son los dirigentes del PNV, que ha salido de la prueba sin norte político, sin vigor abertzale, asimilado de hecho a la derecha española, y decidido a todas las traiciones y a todos los cambalaches políticos. El fascismo ha sido una horrible prueba para Euskadi.

Pero no ha sido el mal absoluto (aunque tal vez sí lo haya sido para el PNV). El movimiento de las ikastolas, la canción euskaldún, el cooperativismo, la Universidad Vasca de Verano, la amplísima campaña de alfabetización, la aparición de una izquierda abertzale, el propio ETA, el vasco literario unificado, cada cosa a su nivel (...) son logros al margen de las instituciones oficiales.

269 Ibid.

No había, por consiguiente, ninguna prisa absoluta para aceptar cualquier cosa. Sí la había, y esto está ya claro, por parte de los que quieren acabar con el “desorden”; condición sine-qua-non para que los negocios vuelvan a prosperar (...)

El PNV, tras haber intentado aislar a ETA y a la izquierda abertzale, en aquella bochornosa manifestación del 28 de Octubre, intenta ahora aislar a Navarra (...) Y mal puede pretender ya el apelativo de abertzale un Partido puesto en manos de gentes cuya afiliación data de unos meses en muchísimos casos; y que además intenta edificar Euskadi aislando del proyecto a los gudaris de hoy, a los navarros, a los vascos del Norte, y a la izquierda abertzale²⁷⁰.

Handik laster aitortu zuen Txillardegik ezen desbideratze sozialinperialistekin asmatu zuen bezala, EAJrekin huts egin zuela, eta horregatik autokritika egin beharrean zela:

Nosotros, los nacidos bajo el franquismo, habíamos proyectado en el PNV algo que no estaba en el PNV (...) Nos hemos equivocado porque no le hemos reconocido suficiente importancia al factor de clase; no hemos hecho un análisis de tipo marxista que nos hubiera hecho sospechar, que los intereses de clase iban a ser más fuertes de lo que pensábamos nosotros; que el PNV se iba a vender por razones de clase. Para salvar sus negocios, pues en estos momentos la obsesión del PNV es salvar sus negocios (...) Si nosotros hubiéramos dado más importancia a los intereses de clase hubiéramos acertado. El análisis marxista era más certero y hay que reconocerlo. Nosotros habíamos pensado que el motor nacional del PNV iba a ser más fuerte de lo que ha sido, que el motor de clase iba a estar más disimulado. Ahora bien, también es verdad que un análisis marxista no lo hubiera explicado todo. Carrillo, por ejem-

270 Ibid.

plo, es un hombre que ha dedicado la vida al PC y debe tener unos planteamientos más o menos marxistas pero la actitud del PC es totalmente reformista. El PC es hoy “la oposición de su majestad”. Parece que habría que hacer consideraciones de tipo internacionalista o táctico u otras no estrictamente de clase porque un análisis marxista riguroso debe llevar necesariamente al rupturismo²⁷¹.

Hainbeste gudukatu fronte abertzalearen alde, eta hor eskuin abertzalea, eta hortaz, EAJ, behar-beharrezkoa zela sutsuki aldeztu ondoan, ez al zuen pena sentitzen galdeturik:

La conciencia nacional es todavía muy débil en Euskadi; y llena de inconsecuencias. De ahí que el frente abertzale sea de hecho imposible hoy. Tanto por la derecha como por la izquierda.

No obstante, esto tiene sus ventajas. Un Frente Abertzale táctico, como el que se propugnaba para el momento de la desaparición de Franco, era un frente interclasista y ambiguo. Ante el derrumbamiento abertzale del PNV, la izquierda patriota se convierte, o se puede convertir, si cabe unificar su acción, por encima de los enfoques ideológicos divergentes de sus componentes, en el Frente Abertzale de hoy.

La afirmación socialista y anticapitalista no tiene ya por que ser disimulada; no hay por qué andarse con tapujos para denunciar la mentira profunda de la democracia burguesa y del liberalismo que la fundamenta²⁷².

EAJ galduta, HBk ezkerterago jo zezakeen, edo argi-ago azaldu bere ezkertiaratasuna. Baina ez zen galera bakarra

271 “Txillardegi a tumba abierta” in *Punto y Hora* 1980-06-4-13.

272 Ibid.

EAJrena; Euskadiko Ezkerra geratzen zen auzitan, nora joko ote zuen zalantzan.

1981. urte hasiera gogorra izan zen. Otsailaren 4an, Gernikako batzar-etxean Espainiako errege Juan Karlos Borboikoa mintzo zela, eta HBkoek, S. Brouard, I. Gorostidi, X. Amuriza, A. Ibarguren, J.R. Etxeberria, J. Idigoras eta gainerako abertzale gogorrek Eusko Gudariak kantari ekitean, ertzainek ostikopetuak eta arrastaka atereak izan ziren. Otsailaren 6an, ETAk Lemoizeko zentral nuklearreko Jose Maria Ryan ingeniaria hil zuen; 13an, polizia espainolak eragindako torturen ondorioz hil zen Joseba Arregi zizurkildarra, eta 23an, Tejerok eta Armadak eta Milans del Boschek-eta estatu-kolpe ahalegina egin zuten. Gero LOAPA.

Ezker abertzaleak garbi ikusi bide zuen, Txillardegik zioskunez, EAJren benetako izaera:

Baina ezker abertzaleak, sumindurik, ezindurik, beste hau somatu du: berriro ere, “hypothese dechirante” [hipotesi lazgarri] famatu hori eginez gero, dena ulergarri bihurtzen dela. Eta hipotesia hau da: PNV-ari sigla kendu behar zaiola, eta, UCD-ren delegaziotzat ikusi. Arana-Goirik orain dela ehun urte euskal karlismoa biluztu zuen bezala. PNV karlismo berria da, errege-ta-guzti. Oso pozik dago “pacto con la corona” artxi-eskuindar horrekin, eta kito²⁷³.

PSOEkoen eta PCren jokabidea garbi zegoen: Mugica Herzog inperialista urdinengandik hurbilago zegoen inolako euskaldunengandik baino, eta PCK, sozialdemokraziaren

273 “Berandu iritsi ote Euskal Herria?” in *Punto y Hora* 1981-02-12-19.

bidea egiten hasia, antiabertzale jarraitzen zuen, eta aldaezin; baina, Euskadiko Ezkerra 1981. urte hasieran:

Talde bat urruntzen ari da gugandik, gero eta nabarmenkiago (...) Zeren “Euskadiko Ezkerrak”k, jatorriz ETA-tik sortua, eta garai batean ezker abertzalearen parte, argi-eta-garbi erabaki baitu, egun hauetan ikusi dugunez, PC-aren murrontzan sartzea (...) Inork ez dio ukatzen E.E.-ari hemengo PSUC edo PC bihurtzeko eskubidea. Baina bide hori hautatu badu, ondorio guztiak hartuko ditu bere gain. Tristuraz bada ere, beraz, hauxe da ezker abertzaleak galdu duen atala. Galdu, bai²⁷⁴.

Eta hortik, egiaztapen garbia: “*Ezker abertzalea, horretara, ‘bakarrik’ dago*”.

Eta beste puntu bat ezin garrantzitsuagoa:

Gaurko sailketa ez da eskuindarrak/ezkertarrak. Ezta burgesia/langileria ere. Zorionez edo zoritxarrez, eskema horiek ez digute balio. Zatiketa hau da gaur: iraultzaileak/erreformistak. Alde batean, instituzioen barruan eta bidetik aldakuntzak egin nahi dituztenak daude; eskuindarrak eta ezkertarrak horretan batera. Eta bestean, berriz, dituzten helburuak (helburu ezkertarrak, Bandres-en baimenarekin, eta “Ukabil” taldekoek besterik erakutsi arte) abertzale eta sozialista izanik, instituzioen bideetan eta “erreformismoan” sinesten ez dutenak. Ezker abertzalea, hitz batez. Hots, eta honetaz gero, galdera bakarra hau da: POSIBLE ahal da Euskal Herriak bide iraultzailetik bere buruaz nagusitzea? Hauxe da, ene ustez, ezker abertzaleak erantzun behar duen GALDERA BAKARRA²⁷⁵.

274 Ibid.

275 Ibid.

Galdera pisuzkoa! Jokabide iraultzaileen aurka erabil zitekeen argumentu nagusia zen beranduegi zela, Euskal Herria berandu heldu zela askapen nazionalerako gudua jokatzeraz; sistema indartsuegia zela eta jai genuela. Arrazoibide horretatik hona heltzen zen: salba ditzagun erreformismoaren bidez ahal direnak, eta utz ditzagun euskal estatu euskaldun bat sortzeko ametsak. Baina bera ez zegoen horretarako prest, honako arrazoi aberkoi hauengatik:

Instituzioen egoera, ordea, hau da:

–Iparraldea galduta, eta bihotzetan ere gero eta ahantzia-goa.

–Nafarroa berezita (edo gu Nafarroagandik berezita, berdin da); eta gure herria, beraz, txikia izanaz gain, hiru partetan zatitua.

–Euskara zapaldua, baztertua, telebistatik aihenatua, irratian bertan ukatua, edozein lekutan isilarazia eta diglosikoa; eta hiltzear.

–Indar ekonomikoak, UCD zahar eta berriaren eskuetan, kapitalismoaren zerbitzutan; eta errejionalismo eskuindarre-nean.

–Administrazioa, Euskal Herriko hiru parteetan, ia osoki, abertzale ez diren funtzionarioen eskuetan (frankistenetan ez gutxitan)

Panorama hori da²⁷⁶.

Eta panorama hura izanik, erreformismo bidez ezin zitekeen irauli, eta egia esan beharra zegoen argi eta garbi:

Hautaketa, beraz, hau da: edo “pertsianak jetxi”, esan ohi den bezala; edota, juxtu gure herriaren txanda etorri denean

276 Ibid.

atea hetsi dela sinetsi ez, eta ezker abertzale independentistak aurrera jo. Hautaketa hau da; eta ez besterik²⁷⁷.

Hautaketa zail horretan arrazionaltasunik bazegoen edo ez zegoen irakurleak juzga beza. 1981az geroztik, ezker abertzalearen hautuz bizi izan dugun hogeita hamar urteko borroka politiko-militarraren arrazoietakoz batzuk bederen, funtsezkoenak beharbada, hortxe daude emanak.

277 Ibid.

4. HERRI BATASUNAN

1984tik 1987ra hauteskunde-emaitzetan gora egin zuen HBk. Espainiarako bozetan 1979an, 172.000 boto lortu zituen, eta 1986an, aldiz, 232.000 boto inguru –bost diputatu eta senatari bat, Txillardegi hain zuzen–, eta 1987an Europako Parlamenturako bozetan 363.000; 112.000 Euskal Herritik kanpo; beraz, 250.000 boto pasatxo aberrian.

Senatari aukeratu berritan, emaitzen arrazoen galdera eginik, honela zioen:

Ezker abertzalea, gora. HB, gora. Euskal Herria ezagutzen ez dutenek ez dute konprenitzen (...) Ekainaren 22ko emaitzak, hitz batez, mirari huts iruditzen zaizkio askori.

Hala ere, atzo Bilbon azaldu nuenez, horretan guztian miraririk ez dago, hautaturik gertatu garenok hamaika lan eta sakrifizioren ondorioz gertatu bait gara hautaturik.

Ezker abertzalearen zerbitzutan bizia bera eman dutenak datozkit gogora aurrenik, jakina, baina niretzat hildako horiek ez dira izen abstrakto batzuk, ahots eta begirada bana zituzten. Eustakio Mendizabal, eta Garmendia Korta eta Aranguren “Iharra” eta Jon Goikoetxea (eta Mikel anaia beranduago) eta Gardoki eta Tomás Perez Revilla, eta Roque Mendez, eta beste mila, noizbait lankide eta lagun izanak²⁷⁸.

278 “Los electos de HB opinan” in *Punto y Hora* 1986-06-27. Adierazpen horiek *Exkixu* eleberria ekartzen didate gogora, handik laster idatzi baitzuen, eta eleberriri zer eskaintza paratu zion ohartzea nahikoa da jakiteko zer egin nahi izan zuen

Ez zituen ahazten “etsaiaren saizuloetan” hildako gudariak: Zabalza, Asensio... betirako galduak; eta, halaber, bazekien beren jaioterritik urrun bizi ziren preso eta deserrituek ere bultzatu zituztela hara: “*Nola ez jakingo, eta kontutuan hartuko, gartzela eta atzerria geure haragian ezagutu ditugunok?*”²⁷⁹

Horrek guztiak azaltzen zuen HBren arrakasta harrigarria, eta halaber, udaletxeetan, arranoetan –HBren tabernak–, euskararen aldeko mugimenduetan, gestoretan –presoen aldeko elkarteak–, kale-manifestazio arriskutsuetan, sindikatu eta alderdi abertzaleetan, ohorerik gabe borrokari urte luzeetan barrena eutsi zioten guztien ahaleginak. Eta betikoak ziren, eta betiko jarreran jarraitzekotan.

Horiek izan ziren duela kasik 30 urte izandako hauteskundeen ondoko adierazpenak, eta esan beharrik ez dago zein adierazgarriak gertatzen diren, zer-nolako kontrastea marrazten duten egun bizi dugun egoera politikoarekin alderaturik.

Idazten ari naizen honetan XXI. mendeko bigarren hamarkadaren erdialdean gaude; ETAk 2011ko urrian behin betiko su-etena eman arte, HBk, ezker abertzaleak, ez du politika konbentzionala egin –2003tik aurrera utzi ere ez, ilegalizaturik!–, hain justu politika instituzional konbentzionala eginez gero, autonomiaren kudeaketan eta botoen bilaketan oinarritzen den sistemak berak irentsi, asimilatu eta

eleberriarekin: “Euskal Herria bere buruaz jabeturik ikusi nahiz, beren bizia arriskatu duten, are eman ere, atzoko, gaurko eta biharko gudari guztiei”. 1988ko apirillean datatua. Gure lan honen xedea ez da literarioki aztertzea “ETAko gudariak” egindako gorazarrezko eleberririk hori.

279 Ibid.

lortu nahi zituen helburuak ezinezko bihurtuko zizkiola-koan, histu eta alferrik galduko zizkion uste sendoan, hots, autodeterminazioaren bitartez Euskal Herriaren independentzia, eta sozialismoa, edo klase zapalketarik gabeko gizar-tea, ezinezko bilakatuko zizkion konbentzimenduan.

1986an, eta 1987an halaber, HBk lortutako 250.000 boto inguru haiek Hegoaldean –Iparraldea ahortzi gabe, baina, lehenik, Hegoaldean– Espainiako estatu monarkikoari borroka politiko-militarraren bitartez autodeterminazioa erazteko egindako borroka suharrari emandako botoak ziren. Txillardegik hala zeritzon behinik behin.

Handik aurrera, Ajuria Eneko mahaia sinatu zen 1988ko urtarrilean, jeltzaleen eta EAEko eusko-espainiar sozialisten arteko ezkontza hamar urterako; 1990ean, Euskal Autonomi Erkidegoak autodeterminazio eskubidea bazuela aitortzen zuen deklarazioa –autodeterminazioa zinez aurrera eramateko inolako asmorik ez zuten alderdiek babestua: hauteskondeen bitartez Euskal Herria autodeterminatzen ari zelako lelo gezurtipean–; ber garaian Perestroika Gorbatxovekin, eta SESBen desegitea Jeltsinen gidaritzapean. Eta horrela, Lizarr-Garazi arte.

ETAren jardunari lehen kritika zorrotza Txillardegik 1997ko abenduan egin zion; urte hartan egin zituen hanka-sartzeak salaturik –Gomez Elozegi martxoan, Miguel Angel Blanco uztailean, eta abenduan bertan Jose Luis Caso Errenteriako zinegotzia Irunen–, *Qui prodest?* izenburu adierazgarriko artikulua bitartez. Infiltrazioa ote zegoen ETAn?, konspirazioa?, bestela ezin esplika baitzitezkeen atentatu kaltegarri haiek.

4.1. HBko senatari eta Mahai Nazionaleko kide independente

Bi legegintzalditan izendatu zuten senatari HBtik, Gipuzkoatik, Madrileko Kongresurako (1986ko ekaineko bozetan senatari bakarra bera, eta bost diputatu; eta 1989ko urrikoetan, lau diputatu eta beste bi senatarirekin batean; 1992ko ekainean uko egin zion karguari, eta unibertsitateko irakasle lanpostua atxiki, biak bateraezinak izaki, HBko Mahai Nazionalaren oniritziarekin²⁸⁰), eta HBko Mahai Nazionalan, 1986 ingurutik 1991ko urrira arte egon zen –bigarren data ziurra da–; data horretan dimisioa eman zuen, eta Mahai Nazionalak onartu²⁸¹.

Baina Txillardegi eta HBko gainerako parlamentari eta senatari eta Mahai Nazionaleko kideak, oro har, esan liteke ez zirela politika konbentzionalan aritu. Esaterako, puntu giltzarri bat zen erakundeetan parte hartu behar zen ala ez. Joxean Agirrek horretaz galdeturik, hona erantzuna:

Bost edo sei urtez izan naiz Mahai Nazionaleko partaide, baina kargu horretan nengoelarik ere beti sentitzen nuen erabaki funtsezkoak beste batzuek hartzen zituztela, nik ez nuela ezer agintzen, alegia. Adibide bat jarriko dizut. Ni ofizialki Iparraldearekiko harremanen arduraduna nintzen. Egun batez EMA²⁸²rekin harremanetan hasteko agindua jaso genuen. Nik ez nekien ezertxo ere horretaz, ez zergatik ordurarte ez, eta bat-batean bai. Uste dut Txema Monterok esan zuela alderdi

280 Irakur *Enbata* 1992-07-02ko alean, “Aller au-delà” artikulua azpian, ohar labur batean Txillardegik senatari karguari uko egitearen gaineko albisteak.

281 Irakur *Enbata* 1991-10-22ko alean, “La voie estonienne” artikulua azpian, ohar labur bat frantsesez. Data esanguratsua da, SESB desegin zen garaikoa.

282 Ezkerreko Mugimendu Abertzalea, 1985ean sortua. 1993an Abertzaleen Batasunean integratu zen, eta 2001ean desagertu. Bozeramailea Richard Irazusta.

militarizatu bateko partaide sentitzen zela. Nik ez nuke horrenbeste esango, baina erakunde militar bat indarrean dagoen bitartean, HB bezalako koalizio batean erakunde horren pisua oso nabarmena izango da ezinbestez. Gero ez dut uste hala izango denik, ez luke izan behar; baina borroka armatua dagoen bitartean ezinbestekoa iruditzen zait. Horregatik KASek edo nik ez dakit nork erabakitzen zuen Mahai Nazionalean, eta nik beti izan nuen mugimendua beste batzuek zaintzen zuten inpresioa.

Guk hauteskunde kanpaina nola antolatu erabakitzen genuen, baina hauteskundeetan parte hartu behar zen ala ez beste batzuek erabakitzen zuten. Kontuan izan Mahai Nazionalean erdia KASekoa zela. Orain esaten duten moduan, halako “defizit demokratiko” bat zegoen. Honetaz seguru zerbait badakiela Gerry Adamsek ere²⁸³.

Senatari kargua nola utzi zuen ere azaldu zuen elkarrizketa horretan: lehen legegintzaldian ez ziren joan kredentzialak hartzera ere, baina bigarrenengoan bai, eta orduan batezintasunen legea aplikatu zieten, eta hautatu beharra izan zuen unibertsitateko lanpostuaren edo senatari karguaren artean, eta: “*HBtik soldata bat ordainduko zidatela esan zidaten, baina ez nuen onartu nahi izan, eta neure kargua ondorengoari utzi nion, Eva Foresti; eta ni unibertsatera itzuli nintzen*”²⁸⁴.

Senatari gisa, zer egiteko nagusi izan zuen bere esku galdeturik, erantzuna hau izan zen:

Nire egiteko nagusia HBko ordezkari bezala hara eta hona bidaiatzea izan zen. Frantsesa eta ingelesa nola-hala men-

283 Agirre, Joxean: *Hitzza hitz Txillardegirekin solasean*, Elkar, 1996, 13-14 orr.

284 14 or.

deratzen nituelako aukeratu nindutela uste dut eginkizun horretarako. Europako herri zapalduetako jendearekin harreman estuak egin nituen, gero harreman horiek neurri handi batean utzi baditut ere, nolabait ordezkaritza politikoaren izenean egiten baitira zubi horiek. Hala ere, orduan ezagutu nuen Letoniako parlamentuburuarekin harremanak izan ditut geroztik ere eta Esloveniako jendearekin ere bai²⁸⁵.

Artikuluak irakurririk, honako bidaia hauek egiazta daitezke: Txomin Iturbe Aljerian hiltzean, hari omenaldia egitera joan zen HBko Mahai Nazionalaren ordezkari gisa, Iñaki Esnaola eta Xabier Bareñorekin batean (1987)²⁸⁶; 1988aren inguruan, Cabo Verdera eta Sao Tomera joan zen han zeuden etakideak bisitatzera: Tomas Linaza, Patxi Rementeria eta Alfonso Etxegarai (basaki torturatua azken hori, Kristiane Etxaluzen senarra), Jose Luis Elkororekin-eta²⁸⁷; eta, 1989ko azaroaren 20an, Madrileko Alcalá hotelean Josu Muguruza hil eta Iñaki Esnaola zauritu zutenean han zen, Gobernuaren eta ETaren arteko negoziazio politikoaren beharra aldarrikatzera joanak izaki, eta gutxigatik bizirik itzulirik handik. Bere esperientzia politiko gogorrena, behar bada.

Beste bidaia politiko-kultural edo kultural-politiko batzuk ere egin zituen iruzkintzen dihardugun garaian; esaterako, Irlandara joan zen Sinn Feinnekin bozetara aurkeztea erabaki zuenean (1986), Ipar Kataluniako Prada de Conflent-era (Universitat Catalana d'Estiu, 1989); Baltiko-

285 16 or.

286 Ikus "La actitud del Gobierno argelino fue de respeto a Txomin y a todo un pueblo" in *Punto y Hora* 1987-03-12-19.

287 Jose Luis Elkorok 2014-11-28an kontatua, bera ere han izan baitzen.

ko errepubliketara haiek 1940an galdutako independentzia berreskuratzen ari ziren garaian (1991ko apirilean); Rovaniemiko unibertsitatera (Aland Uharteak, Suomiko eskualde autonomoa politikoki, suedieraz bizi direnak, 1991ko ekainean); edota Esloveniako Mariborreko unibertsitatera 1992ko otsailean, independentzia lortu berritan.

80ko hamarkadaren hasieran, gorago jaso dugun bezala, Txillardegik adierazi zuen ezen egoera politikoa une hartan zegoen bezala, fronte abertzale posible bakarra HB zela, EAJk ez zuelako bere egitekoa betetzen, hots, eskuin abertzaleari zegokiona fronte abertzalearen barnean, abertzalea ez baizik eta karlista zelako, autonomista eta erregionalista, eta orduan, sozialismoaren aldetik gauzak libreago zeudela eta ezkerreko jo zitekeela EAJ galdua zutenek gero; alabaina, Perestroika aurrera zihoan heinean, eta bereziki SESB desegin zenetik, Ajuria Eneko Ituna, eta bereziki EAJko burukideak, Arzalluzengandik hasita, gogotik jorratzeaz gain, ardatzera jo behar zelako ideia hedatzen ahalegindu zen –jada Mahai Nazionala eta senatari karguak utziak zituenean–, ezker abertzaleak bestelako adjektiboak edo izenondoak utzi eta autodeterminazio eta independentzian zentratu behar zuelako ideia zabaltzen, horretarako HBko Mahai Nazionaleko edo parlamentarien gune gogor ezkertiarra kritikatu behar bazuen ere.

Hortixe hasiko gara, disidentzia ideologiko hori hain ezaguna ez delakoan, besteak beste, horri buruzko artikulak Baionako *Enbata* kazetan eman zituelako, gehienak frantsesez.

4.1.1. Sozialismo errealaaren krisia

Jugoslavian, 1988rako hasiak ziren istiluak. Txillardegik arretaz zelatatzen eta jarraitzen zituen Europako ekialdeko herrialde sozialistetan gertatzen ziren istiluak, bereziki nazio arazoak tartean baziren:

Prentsak azaldu duenez, egoera larria bi eskualdetan gertatu da segidan: Vojvodinan aurrenik, Iparraldean; eta Kosovon gero (“Kosmet”en), Hegoaldean. Bi lurralde horietxek dira Yugoslavian dauden bi Errepublika “autonomo” bakarrik (...) Galdera ziplo dator: zergatik autonomia bakarrik? zergatik elebitasuna bakarrik? Eta erantzuna garbi dago: Vojvodina, eta KOSOVO BATEZ ERE funtsean ESKUALDE ESLABIARRAK ez direlako. Bestela esanda, Vojvodinan, eta Kosovon batez ere, NAZIO-ARAZOA begi bistan dagoelako (...) Soluzioa? Ezaguna, nik uste: Serbia-ko magiartarrei eta albaniarrei autodeterminazio eskubidea aitortzea; eta mugak aldatu behar badira, eta Serbiak eskualde batzu “galdu” behar baldin baditu gal ditzala.

Eta ohar bat: Estatu FEDERAL bat (eta inon hitza azpimarra badaiteke, Yugoslavian egin zitekeen) horrela gertatzen bada, eta nazio arazoa han ere konpondu ezina bada, atera kontua Espainia eta Frantzia “une et indivisible” ezagunei gertatuko zaiena. Ezekiel izan gabe ere... Geroak erranen²⁸⁸.

Ekialdeko Europaren krisialdiaz, artikulua aski dokumentatua *Larrun*-en argitaratu zuen. Azken ondorio edo ohar gisa honela zioen:

Ekialdeko nazio-tentsioen azkarra, etni-aniztasun honetan funtsatzen da (hiru errepublika kaukasikoetan ere, harrigarritzko hizkuntz aniztasuna dago, hirukuntasun ofizialaren azpian).

288 “Yugoslabiako gertaerez” in *Enbata* 1988-10-27.

Nekez aurki daiteke eskualde zabal horretan bake egiazkorik eta iraunkorrik, Auto-Determinazio eskubidea han eta hemen ausarki aintzakotzat, are gidaritzat ere, hartu gabe.

Ohar hau, jakina, berdintsu egin daiteke Mendebaldeko sailkapenari begiraturik. Azken bi mende honetan Euskal Herriak jasan duen kondaira hits eta odoltsuak, honen egiaren sakona salatzen du bortizki. Geroak erranen²⁸⁹.

1989ko azaroaren 19an, Perestroika jada oso aurreratua eta Berlingo harresia eraitsi zela hamar bat egun igaroak zirela, eta Madrilera abiatzekotan zirela, Alcalá hoteleko atentatuaren bezperan, honako artikulua honetan, sozialismo errealearen krisia onartu eta ezkerreko beste alternatiba batzuk saiatu beharra aldarrikatzen zuen:

C'est vrai que la droite applaudit. C'est vrai que l'information qui nous parvient de l'Est est parfois douteuse (moins douteuse, quand même, qu'avant Gorbatchev). C'est vrai que les Européens orientaux se trompent lourdement sur les délices de la démocratie occidentale (...) C'est vraie que la "perestroika" a été possible parce qu'il y a eu 1917 auparavant. C'est vrai que la Révolution d'Octobre a été une victoire des opprimés face aux réactionnaires et que seulement la droite peut regretter le triomphe des révolutionnaires socialistes soviétiques (...)

Mais la crise du "socialisme réel", de dénomination "marxiste-léniniste", est flagrante. Il faut être aveugle pour ne pas reconnaître l'échec des partis communistes officiels en Europe (et en Pays Basque aussi, rappelons-le) (...)

Il y a deux problèmes de fond qui expliquent la crise:

1. Malgré la structure fédérale de l'URSS, l'éclosion des nationalismes estonien, lettonien, lituanien, moldave, arménien,

289 "Ekialdeko Europaren krisialdiaz" in *Larrun* 9. zenb. 1990-03, 11-17 orr.

etc., montre que le problème de l'autodétermination, non résolu, est le problème numéro un. Ce qui contredit, évidemment, les opinions de Marx qui avait minimisé de manière erronée les problèmes nationaux;

2. Tous les observateurs parlent d'un désastre économique sans précédent, provoqué par les excès bureaucratiques et par la passivité générale qui s'en est suivie.

Tout ceci rappelle Proudhon d'une façon automatique: les socialistes libertaires, qui sont aussi anciens que Marx et Engels, avaient raison sur tout un ensemble de problèmes, notamment sur deux points: autodétermination nationale et autogestion anti-bureaucratique (...) Il faut un certain courage pour refuser le modèle socialiste officiel. On va nous accuser de faire le jeu de la droite. Mais justement, se taire serait prêter un service inestimable à la réaction (...) Il faut relire Proudhon et les libertaires. Et il faut que les économistes basques de gauche se mettent au travail pour offrir un modèle de gestion économique valable. Quel pari devant nous!²⁹⁰

Handik urte eta erdira, Baltikoko errepublikak bisitatu ondoan idatzitako artikuluan, bere begiez ikusitakoak emandako ausardiarekin, izenburu deigarri hau “échec”, hots, sozialismo errearen porrotaren aldarrikapen ozena:

Voilà le mot qui vient inévitablement à l'esprit (...) “échec monstre, effondrement, surprise... Comment est-ce possible?” (...)

²⁹⁰ Izenbururik gabea, Amasatik igorria 1989-XI-19ko goizean, Madrilera arratsaldean abiatzekotan zirela gaztigitzen zuen mezu laburño batekin batean; bihar-munean gertatu zen Alcala hoteleko atentatua. Artikuluarekin batean igorritako mezuan sumatzen da beldurrez zihoazela Madrilera, eta arrazoiarekin. *Enbata-n* 1989-XI-23ko alean argitaratua.

Dans les Pays Baltes, il y a *unanimité passionnée sur un point précis, l'indépendance nationale*. Ils sont décidés à quitter l'URSS posant ce préalable à tout le reste. Ils sont strictement *séparatistes* et ils n'ont rien oublié de la période 1920-1940, lorsque les trois républiques baltes étaient indépendantes et reconnues comme telles en Europe. Deuxième unanimité: les Baltes ne veulent *rien* savoir du communisme, tel qu'ils l'ont connu du moins (...) Troisième unanimité: le socialisme bureaucratique ne fonctionne "pas du tout" et ils rêvent de privatisation. *Privatiser*, voilà leur mot-clé pour la réorganisation de l'économie (...)

Après avoir enseigné pendant soixante-dix ans que le capitalisme est le mal suprême, que les nationalismes sont une conséquence du mode de production capitaliste, que la religion est une aliénation, etc., les Baltes (et tous les Soviétiques, me semblerait-il) rêvent de privatisation, d'american way of life, de patriotisme, de religion (catholique en Lituanie, musulmane en Tadjikistan ou Kirghizie), de "Coca-cola".

J'appelle tout cela: *échec monstre d'un système*. Le capitalisme n'est pas un modèle. Le "socialisme réel" non plus. Et il faut le dire clairement et sans complexes. Et un conseil pour finir: que tous ceux qui peuvent le faire fassent un tour par là-bas. Cela *traumatise*, surtout nous, hommes de gauche, mais cela est *décisif*²⁹¹.

1991ko abuztuan, Janaiev eta beste konspiratzaile batzuek porrot egin zuen estatu-kolpea eman nahi izan zuten, komunismoa "salbatzeko". Horren aurrean, zer egin behar zen: estatu-kolpe hura laudatu ala gaitzetsi? Zalantzarik gabe txarretsi behar zen Txillardegiren iritzian; eta, halaber, ezker humanista, ez-burokratikoa, ez-estalinista, pluralista,

291 "Echec" in *Enbata* 1991-05-09.

internazionalista (terminoaren multinazionalitate zentzuan) asmatzeko zegoen, eta asmatu beharra; bestela, kapitalismo berdintasun gabea, irrazionala, ahularen zapaltzailea, zinikoa eta errotik bidegabea nagusituko zelako munduko gizaki eta herriez.

Mais nous ne pouvons nous nier l'évidence par peur d'être confondus avec les réactionnaires de toujours. *Condamnons le putsch* sans réserves (...)

La véritable gauche: une gauche humaniste non-bureaucratique, non-stalinienne, pluraliste, internationaliste (dans le sens multinationalitaire du terme) est à *inventer*. Sans elles tous les complots à la Ianaev, ne freineront point l'ascension accablante du capitalisme vers la domination mondiale avec tout ce qu'elle comporte d'inégalité, d'irrationalité, d'oppression du faible, de cynisme, de tragédie, d'injustice foncière, pour les hommes et pour les peuples²⁹².

4.1.2. Vitoria-Gasteizko Eusko Jaurlaritza delakoaz

Frantsesez eta euskaraz gogor arbuiatu zituen Ajuria Eneko Itunaren jokabideak, bi alderdi nagusiak PNV-PSE, EAJko burukideak...

1989ko urtarrilean, arbuioen zerrenda luzea tolestu zuen:

Je pense Au (ou à LA) “Jaurlaritza” de Vitoria-Gasteiz, au “Lehendakari”, au “Vice-Lehendakari”, et aux autres; dans la mesure où ce groupuscule (je ne dirai pas “bande”: je serai respectueux) représente encore, aux yeux d’une partie de no-

292 “Fallait-il condamner le putsch?” in *Enbata* 1991-08-29.

tre peuple (heureusement décroissante), une sorte de point de repère.

Et je ne rappellerai que quelques faits essentiels.

Lorsqu'un pays est divisé en trois parties, soumises par les légalités en vigueur, à des processus consciemment divergents et que son "gouvernement" se tait ou applaudit...

Lorsque les possibilités légales de réunification sont nulles, y compris au niveau élémentaire de sa partie Sud; parce que les dispositions constitutionnelles ont été soigneusement rédigées de façon à l'empêcher. Et lorsque le chef de ce groupuscule applaudit, et déclare que le cadre légal est "modelable"...

Lorsque les principes qui fondent cette "légalité démocratique", ne sont pas le résultat de l'application du droit inaliénable de notre peuple à son autodétermination; mais la conséquence de l'éhontée "loi de l'entonnoir" imposée par la force numérique et des armes. Et lorsque le "lehendakari" et son parti n'en soufflent pas mot...

Lorsque la langue nationale n'est plus le véhicule de communication du peuple, et devient ouvertement le symbole nécrologique d'un passé national qu'on estime révolu; et qu'on fustige cyniquement ceux qui soutiennent que la légalité linguistique actuelle ne mène, et ne peut mener, qu'à la liquidation silencieuse de ce qui donne l'être à notre peuple...

Lorsque l'Université, au lieu d'être le cerveau de la reconstruction nationale, tombe entre les mains d'irresponsables et d'anti-basques qui n'ont pas la moindre intention de basquiser le monde de la culture...

Lorsque les forces armées régionales, mal baptisées "Ertzan-tza", ne sont pas là pour défendre les droits du peuple basque, mais pour faire appliquer la légalité impérialiste espagnole aux prix de 15 milliards de pesetas par an (ce qui n'est pas rien!) et que ces forces armées sont commandées par les militaires espagnols de carrière, spécialisés dans la lutte contre la rébellion "du Nord"...

Jarraitzen zuen arazo ekonomikoei muzin eginik be-
rentzat bizi guztirako pentsio mardulez saritzen zutela eu-
ren burua kritikatu..., polizia espainiar eta frantsesek ETA-
ren aurkako borrokan izandako lorpenak txalotzen zituztela
Gaztela-Leon, Kantabria edo Murtziako gobernuek bezala-
xe, eta zerrendaren ondotik balioespenak:

Lorsque tout cela arrive... on n'est pas face à une équipe
gouvernante "faible". On est face à un pseudo-gouvernement
de vendus et de "harkis", face à un gouvernement "quisling"
véritable honte du pays (...) A Vitoria et à Pampelune on a
DEUX délégations du pouvoir espagnol, foncièrement iden-
tiques, et identiques aux 15 délégations restantes. Le seul fait
distorsionnant est la présence de P.N.B. couvrant l'opération.

Nous avons honte (je souligne le mot) de ce soi-disant
"gouvernement basque" (...) "Assez! Rentrez à la maison, au
couvent, au bureau! Rentrez chez vous! Retirez vous! Nous en
avons plus qu'assez"²⁹³.

1989ko urtean jarraiturik, nazioen eskubideen teoriari
buruzko artikulu batean zioen, ezen nazio batek autodeter-
minazio eskubidea ukatua duenean, askatasuna nahi duela
erakusteko oinarri objektibo bat borroka armatuaren irau-
kortasuna zela, "Herrien Eskubideen aldeko Ligak" Eritrean
eman bide zuen iritzian oin harturik:

Kasu hauetan, eta nazio askapen mogimenduak, izari mili-
tarrak ere iristen duenean, jurista internazionalak *nahiaren neu-
ritzat* hartzen dute borroka armatu horren iraupena.

Partidu *espanolistek*, beraz (bai *sukurtsalistek* eta bai *autono-
mistek*) euskal borroka armatuari buruz gure eskubidea "arris-
kutan" jartzen duela esaten dutenean, gezurra diote. Euskal

293 "Ça suffit largement" in *Enbata* 1989-01-19.

Herriak ez du inoiz autodeterminazio-referendumik galdu; eta horregatik diogu, berriro ere, hemen ez dagoela demokraziarik (...)

Balegoke beste bide bat: *batzutan ETAk hartu izan duena*, bortxarik-ez iraultzailea; Mahatma Gandhik Indian erabili zuena. Partidu espanolistek (sukurtsalistek eta autonomistek) ez dute sekula erabili. Garaikoetxea, Bandres, Arzallus, gose-greban ikustekotan gaude beti. Alferrik, jakina... Espanolistak aisago harrapatzen baititugu mahai “autonomiko” baten inguruan zanga-zanga, petate batean eliza zoko batean etzanda baino...²⁹⁴

ETAk borroka armatua atxikitzen zuen autodeterminazio eskubidea ukatua zitzaiolako Euskal Herriari. 1990eko otsailean, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen ebazpen baten bidez Euskal Herriak autodeterminaziorako eskubidea duela. Horri buruz zer esan zuen Txillardegik? Indarrean zen lege esparruan, Euskal Herriaren autodeterminazioa guztiz ezi-nezkoa zela, hura errefusatu beharra zegoela eta besterik esatea iruzur erabateko bat baino ez zela; eta, horretaraz gero, HBk ezetz esatea baino ez zuela:

L'ensemble du texte est constamment placé sous la tutelle de la Constitution espagnole qui n'a pas été acceptée par le peuple basque (...) Un autre point essentiel: la Constitution espagnole ne reconnaît comme sujet de droit que “le peuple espagnol”. Le peuple basque n'a aucun droit en tant que tel (...)

Dans ce cadre légal le peuple basque ne pourra jamais prétendre déterminer lui-même son propre destin. L'autodétermination implique le *rejet* de la légalité actuelle (...)

294 “Nahia, nagusi” in *Enbata* 1989-09-28.

La voie statutaire est *une voie de garage, une voie sans issue*, PNV-EE-EA prétendent le contraire, ce qui est un leurre total.

C'est pour cela qu'HB ne peut dire que "non" à ce texte²⁹⁵.

Nork zuen arrazoi? 25 urteko talaiatik ikusirik, Txillardegik-eta, esan behar! Ikusteko dugu Kataluniak zer lor dezakeen bide erabat demokratikoetatik...!

Labur-zurrean, 1990eko abuztuan, gertatu berri ziren zenbait albiste iruzkindu ondoan:

Il faut dire par conséquent que la libération nationale basque passe par la fin du Pacte et que tous les Basques qui, pour une raison ou une autre, collaborant encore au maintien dudit pacte, collaborent avec l'ennemi. Il faut être clair²⁹⁶.

Euskal Autonomi Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren laugarren legegintzaldia 1991ko otsailean eratzeko zegoela, Txillardegik hartaz zuen iritzia laburbidurik:

Nous aurons à Vitoria-Gasteiz un "gouvernement" basque-espagnol. Nous n'aurons pas un gouvernement basque (...) Mais je veux dire que nous n'aurons même pas un Jaurlaritza "non-succursaliste" (comme disent les Catalans), dont toutes les composantes seraient des partis dont la direction n'est pas en Espagne. Nous aurons, à nouveau, un gouvernement "vascongado" mixte, avec des partis non-succursalistes et des partis succursalistes "kunpaña hunian", comme diraient les Souletins. Ni le PNV, ni EE ne cherchent autre chose. Les "craintes" de Madrid devant l'éventualité d'un gouvernement

295 "Inacceptable quand même" in *Enbata* 1990-02-15.

296 "Coup sur coup" in *Enbata* 1990-08-02.

“nationaliste” (?) sont une blague. Ils savent bien que ni Arzallus ni Bandrès ne sont et n’ont jamais été “abertzale”²⁹⁷.

Gisa horretakoak, frantsesez eta *Enbata*-tik ez ezik, euskaraz eta *Egunkaria*-tik ere aditzera eman zituen, lehen euskarazko egunkaria –1936ko gerra garaikoa salbu– argitaratzen hasi zen unetik beretik. Hona hainbesteren artean auke-raturiko bat:

“Si Txomin viviera, se moriría de susto”. Ardanzak, saldua izateaz gain, zirtolari fama hartu nahi du oraingoan... Berriro ere burujabetzaren aurka mintzatu da Méxicon. Ez baita PNV-ko buruzagien artean lehenengo aldia (...) PNVak ez du independentzia nahi, *dependentzia* baizik. Madrilekiko morrontza, hain zuzen (Pariskoaz gogoratu ere ez da egiten). PNVa eroso senditzen da Espainia barruan, eroso gaztelaniaz mintzatzen, eroso bakantzak Espainian barrena pasatzen (...)

PNVa errejionalista espainola da, errege-zalea da, eskuindarra osoki (Guggenheim-en arazoan ezin garbikiago erakutsi duenez), anti-euskalduna (gure hizkuntza nazionalaren etsaia, bai; arazo hori ez baitago Marikarmen Garmendiaren eskuetan, Buesarenetan baizik), anti-abertzalea (zer da abertzaletasuna independentziaren aldeko borroka besterik?), anti-langilea (PNVak jauntxoak eta areto dotoreak maite ditu, eta bostere ekonomikorik gabeko jende xehea mespretxatzen), eta espainiar legekeria guztien zerbitzari tinko.

Hitz batez, berriro ere bestetan esandakoa errepikatuz, PNVa *1992ko partidu karlista da*; eta Arzallus, Tirso de Olazabalen semea (...)

Pitztuz gero Txomini zer gertatuko ote litzaiokeen ez daki-gu. Baina Arana-Goiri piztuko balitz, eta Arzallus eta Ardanza

297 “Le prochain ‘Jaurilaritza’” in *Enbata* 1991-01-17.

PNVren izenean mintzo entzungo balitu, karkaxa galantak botako lituzke jendillaje horien aurpegira²⁹⁸.

4.1.3. 1992ko krisian, autodeterminazioa eta independentzia ardatz zituen programa politikoa aldarrikatzen

Egoera politikoa ez zen alaitzeko modukoa 1992an, Euskal Herrian, Txillardegiren iritzian:

Affaire Buesa, chômage croissant, fermeture d'usines, division en trois administrations, trahison nette du PNV à la cause nationale basque, faiblesse opérationnelle d'ETA²⁹⁹, crise mondiale de la gauche socialiste, opportunité européenne perdue, etc. L'optimisme est impossible à courte échéance quoiqu'une partie importante de la population, autour d'HB, maintienne un niveau de lutte impressionnant³⁰⁰.

Deitoreak eta lantuak utzi, eta hein batean 50eko hamarkadan bezala jokatu beharra zegoen, noiz eta Mendebaleko demokrazia izenekoek Franco babestea erabaki, eta EAJren eta euskaldun gerra-galtzaileen usteek erreka jo zutenean bezalatsu. Lehenbizi, garbi utzi beharra zegoen PNVren trahizioa:

La *trahison* du PNV (j'emploi le mot à dessein et très consciemment) a fini par altérer le cours prévisible des choses. L'élan? La lancée "balto-catalane" a été stoppée à Lakua, et ce n'est plus la peine de se torturer jusqu'à la fin des siècles à

298 "Izuaz hil" in *Egunkaria* 1992-03-03.

299 Kolpe gogorra jasan zuen 1992ko martxoaren 29an Bidarten buruak atxilotu, eta dokumentuak eta armak aurkitzean Espainiako eta Frantziako poliziek elkarlanean egindako operazioan.

300 "Aller au-delà" in *Enbata* 1992-07-02.

ce sujet. Le PNV a boycotté toutes les initiatives abertzale, y compris la honteuse bataille rangée contre “Egunkaria” et le refus de condamner l’anti-basque Buesa (...)

Il faut classer le PNV avec le PSOE, et le traiter comme parti ennemi du peuple basque. C’en est assez du “parti frère”, et analogues. Le PNV est un *parti ennemi*. Plus question de compter sur lui pour aucun projet national basque³⁰¹.

Egun, 2015eko urrian, Kataluniaren azken bost urteotako ibilbide politikoa ikusita, eta EAJren ibilbidea zein izan den, ber gauzak adieraziko zituen hain segur.

Horrekin batean, eredu marxista-leninistaren porrot erabatekotik ondorioak atera behar ziren, eta harekiko distantzia ezarri, sozialdemokraziaz ez zuen merezi hitz egitea ere:

La gauche est en pleine crise et la gauche abertzale, comme la gauche tout entière, doit être consciente de cette crise profonde et ne plus centrer sa stratégie sur des valeurs et des projets surannés (...)

Ceci étant dit, je crois voir clairement que le moment est à l’autodétermination et l’indépendance. C’est l’heure de l’indépendantisme tel qu’ERC l’a compris très vite. Et il faut un programme purement indépendantiste sans dimension écologique, ni féministe, ni autres. Le programme doit être Euskadi askatua, sans plus. Il faut rejeter tout préalable et tout adenda³⁰².

Hiru urte lehenago, hots, 1989an, oraindik garai hobea izango zatekeen, baina 1992an ere, huraxe izan zitekeen biderik eraginkorra. 1989ko udan izana zen Ipar Katalu-

301 Idem.

302 Idem.

nian, hango udako unibertitatean, eta egona zen orduan ERCko bozeramailea zen Carod Rovirarekin. Garbi dago ERCren bilakaera politikoari begirik ez ziola kentzen.

Idea hura aurrera eramateko, eta sinesgarritasuna lortu beharrez, HBko Mahai Nazionalean azken urteetan ideia marxista-leninista jada garaiz kanpokoak aldeztu zituztenek dimisioa eman beharra zuten, eta beste batzuei lekua utzi. Hori egin gabe ezin zitekeen impasetik atera:

Un programme politique nouveau n'est pas crédible s'il n'est pas défendu par un groupe de personnes crédibles. Ceci veut dire d'une façon plus précise que les personnes qui se sont mouillées au long des dernières années sur des lignes d'action aujourd'hui dépassées doivent quitter le devant de la scène politique. C'est une condition de crédibilité politique (...) Je crois fermement que, sans cette clarification de la politique basque, l'impasse que nous subissons est insurmontable³⁰³.

1993an, Txillardegiren iritzian, areagotu egin ziren bide hori zela hartu beharrekoa aditzera ematen zuten zantzuak; alabaina, HBko gune gogor ezkertiarak ez zuen amore eman nahi. 2002an Aralarra igarotzea ekarriko duten arrazoiatariko bat hori ere izan zen, hain segur; ez bakarra, ETaren borroka armatuarekiko jarrera pisuzkoagoa zen, noski, baina aipatzen ari garen ikuskera-desberdintasun estrategiko honek ere ezin uka bere garrantzia izan zuela.

1993ko martxoan bozak Frantzian, eta eskuina gora –Chirac eta Giscard d'Estaing– eta sozialdemokraziaren

303 Idem.

hondamena. Txillardegik ondorioak ateratzen jarraitzen zuen:

Guri dagokigunez: Felipe Gonzalez-en gobernuia Mitte-rrand-ena baino askoz arrakastatsuagoa ez izanik (ustelkeri mailan, adibidez, Madrilekoa agertu bide da gailen), arrazoin handiak daude PSOE-ren deskalabroa somatzeko. (Ez Euskal Herrian bereziki, agian, nahiz porrota agian handiago izan hemen; baina PSOE-a Hego Euskal Herriko anti-abertzale guztien arragoa eta bilgunea delako).

Araza, ordea, hori baino sakonagoa da. Marxismo-leninismoaren porrot historikoaren ondoren, sozial-demokraziak bil zezakeen, itxuraz bederen, ezker etsituaren botoa (...) Frantziako deskalabro osoa ikusita, zer esango? Areago: zer pentsatuko? Sozial-demokraziaren porrota ez da marxismo-leninismoarena baino txikiagoa. Zer egin? (...)

Hitz batez: EZKERRAK EZ DAUKA, gaur egun, populua erakarriko duen EREDURIK (...)

Euskal Herriaren nazio-askatasuna, beraz, “sozialismoa”ren garaipenaren mende jartzea; edota “sozialismoan barrena” lortu nahi izatea, epe laburrean bederen, apostua galtzea da (...)

Beste batean ere idatzi nuenez: sindikalismoa azkartzea. Hori ikusten dut nik. Ez besterik. Eta adjektiborik gabeko aberrigintza eta anti-inperialismoa azkartzea. Ezker abertzalean, gertakari ezin larriago hauek errotik aztertzekeo garaia heldu zaigu³⁰⁴.

Baina denak ez zeuden nazio-askatasunaren, hots, autodeterminazio-independentiaren aldeko borroka lehenesten eta ezker ikuspegitik, euskal sindikalismoaren aldeko borroka eta anti-inperialismoarena soilik bultzatzearen alde ezker abertzalean.

304 “Adierazgarri” in *Enbata* 1993-04-01.

1993ko apirilean berean, Pablo Sorozabalek *Egin*-en argitaraturiko artikulu bat honela amaitzen zen:

Ahora sabemos ya que el mayor reproche que se le puede y se le debe hacer a José Stalin (y no digamos a sus sucesores) es el de haber sido demasiado blando y demasiado tolerante³⁰⁵.

Eta handik berehalaxe, orduan HBtik parlamentaria zen Gorka Martinezek, halaber *Egin*-en plazaratu zuen artikulua honela hasten zen:

El intento de golpe de Estado del 19 de agosto de 1991 remarcó la situación de grandes convulsiones en lo que fue la URSS. En el aire queda la cuestión de quiénes utilizaron el golpe para su provecho. Hizo desaparecer a un Gorbachov ya para entonces invalidado. Facilitó el ascenso de Yeltsin en Rusia. Pero sobre todo precipitó la desaparición de la URSS, objetivo de quien lideró a lo largo de la guerra fría el bloque occidental, EEUU. Desaparece, no un espacio, sino un modelo, para dar de este modo paso a otro, el capitalista³⁰⁶.

Bi artikulu horiek eztenkaturik, berehala idatzi zuen Txillardegik *Paradis perdu* izenburuko artikulua. HBren gune gogorak eguneratzeari buru egiten bazion ere, komunismoak agintzen zuen paradisia galdua zela aditzera ematen zuen, eta sinpleak izanda “Gora Euskadi askatuta”ren ikurri-nari heldu behar zitzaiola:

Lisons un éminent sociologue français: “Le socialisme est mort. Le mot figure partout dans les programmes électoraux, le nom des partis et même des Etats... La décadence

305 “El fascismo con rostro humano” in *Egin* 1993-04-19.

306 “Yeltsin, un ambicioso instrumentalizado” in *Egin* 1993-04-24.

ou la transformation des partis dits socialistes, socio-démocrates ou communistes vient avant tout de ce que notre société n'est plus animée par les rapports, les mouvements, les idées et les intérêts sociaux propres à l'époque où naquit et grandit le socialisme... Le socialisme fut la théorie du mouvement ouvrier"³⁰⁷.

Hitz horiek ez ziren Le Pen-ek idatziak, baizik eta Alain Touraine soziologoak, hamalau urte lehenago, Perestroikaren eta Mitterranden porrota baino askoz lehenago, beraz. Jarrai dezagun artikulutik baieztapen adierazgarrienak biltzen:

Or un “noyau dur” de la seule gauche basque qui mérite encore ce nom –de Herri Batasuna évidemment– résiste à se mettre à jour et complique inutilement les choses (nous les complique, dirais-je) (...) Ce noyau dur essaie en permanence de faire l'amalgame HB=marxisme-léninisme basque, gauche abertzale=rouge, etc. On colle des affiches dans les rues montrant un drapeau rouge à cinq branches à côté du sigle HB; on va à Cuba apprendre la construction du socialisme, etc. Et je dirai encore une fois ma sympathie pour ce pays, mais Cuba est un pays du tiers-monde, dans une situation sociologique qui n'a presque rien à voir avec la nôtre et que son système ne me semble pas désirable pour nous, Basques. Ce noyau dur n'a aucune sympathie pour le socialisme libertaire (je me demande pourquoi) et moins encore pour le doute radical par rapport au message de Karl Marx.

Or tout cela nous complique les choses inutilement. Je serai plus clair encore: ce noyau dur dogmatique facilite la tâche à la droite espagnoliste que dirige Arzallus. Et cet entêtement complique, en partie du moins, l'éclosion triomphante d'u-

307 “Paradis perdu” in *Enbata* 1993-04-29.

ne gauche abertzale critique, progressiste, non tiers-mondiste mais européenne³⁰⁸.

Gorago Gorka Martinezengandik jaso dugun iritziaz, honela zioen:

Ceci n'est pas le texte d'un penseur isolé [hala zeritzon Pablo Solozabali] mais l'avis d'une figure de ce que j'appelle ici notre noyau dur. Moi je pense, comme des milliers de militants de gauche à travers le monde, que l'URSS d'avant Gorbatchev ne représentait aucun "modèle socialiste". Le stalinisme et ses suites ne sont qu'un néfaste capitalisme policier d'Etat (...)

Certaines opinions "de gauche", tels que les articles que nous venons de citer, sont bel et bien tout simplement anachroniques et néfastes pour la cause basque. Et il faut avoir le courage de le dire publiquement. Malgré la peine que tout ceci provoque parmi certains militants abertzale (...) Nous sommes très simples. Aujourd'hui notre drapeau est l'ikurriña et notre cri "Gora Euskadi askatuta"³⁰⁹.

Hilabete batzuetara, zehazki, 1993ko irailaren 23an, Gurutze Iantzi Guardia Zibilaren kuartel batean "bihotzekoak jota" hil zen egun berean, Xabier Kalparsorok irekita zegoen leiho batetik bota omen zuen bere burua, bertsio ofizialaren arabera, poliziek hil hartan atxilotu eta Indautxuko komisarian zutela. Heriotza susmagarri horiek salatzekeo deitutako lanuzteak ez zuela uste zitekeen bezalako arrakasta izan iritzirik, atzera berriz ardatzera jo beharra aldarrikatu zuen

308 Ibid.

309 Ibid.

Txillardegik, bide batez, herria anesthesiak zurrunduta zegoe-la salatzen zuelarik:

Herri Batasuna, hitz batez, *bakar-bakarrrik* gelditu da Hegoaldean abertzaletasunaren defentsan (...) Eta nik orain abertzale gisa eta Herri Batasuneko kide gisa emango dut neure iritzia argi-eta-garbi. Komisarietan hildako bi aberkideen kasoan ikusi den bezala, gure bakardade politiko horri, euskal gizartearen “anestesia” erantsi behar zaio (...) bi hildakoen eskandalo historiko horrek, ez du herrian (aparato politikoetatik ez genuen deusik espero; eta pozgarri izan zaigu EAren jokabide parlamentarioa, basamortu betean) erantzun harrigarriegirik lortu. “Pakto”koen kanpaña lotsagalduaren ondorioz, jende gehiegik eutsi dio lanari; “violento”ei jokoa ez egitekotan (...) Baina herri honetan orain dela urte batzu gertatzen ari den eskandalo eta traizio ilara azkengabea, besterik espero zitezkeen komisarian gizaseme bat eta emakume baten heriotza asaldagarrien ondoren? (...) Herri hau, honenbeste zafrada eta ostikoren ondoren, anesthesiak zurrunduta dago. Eta ezintasun etsiari datzekion zinismoa ari da gailentzen, ondikotz, gero eta maizago (...) Ez da egia herri honetan abertzaleok nagusi garenik. Herri honetan abertzaleok ez gara sekula nagusi izan. Eta orain ere ez. Dauden abertzaleak Herri Batasunean daude, gutxi gorabehera (Hegoaldeaz ari naiz); Eusko Alkartasunean mordoska bat egon badaiteke ere. Eta horrek ondorio larriak ditu: Herri Batasunak ezin dezake jokabide alderdikoirik eraman (...) Herri Batasunak *ardatzera* jo behar du, praktikan Hegoaldeko indar abertzale *bakarra* delako. Eta ardatz hori zertsu den garbi dago. Telesforo Monzonek urte luzetan barrera nortu zuen abertzale ooren programa minimoa: *independentzia*³¹⁰.

310 “Ardatzera” in *Enbata* 1993-10-14.

Euskal Herria helburu deritzan liburua 1994an datatua dago³¹¹. Hemen azaldu ditugunak han, bereziki V. eta VI. kapituluetan daude adieraziak, hain zuzen “ezkerrari” eta “autodeterminazioari” eskainitako ataletan.

1994ko urrian egin ziren hauteskunde autonomikoetan HBk 166.000 boto izan zituen; beraz, boto-galera nabarmena. *Argia*-ko kazetari Jon Odriozolak Txillardegiri horretaz galdeturik, erantzunak honako hauek izan ziren:

Egiguzu HBk botoetan jasandako galeraren azterketa edo analisia. Eta zein litzatekeen hortik itzuri egiteko hartu beharreko norabidea.

Boto-emaileak ez du irakurtzen, eta telebista, aldiz, guztiz garrantzitsua da. Telebistako zuzendarien jarrera aldatzen ez den bitartean, botoa ez da aldatuko. Euren jokaera ikusirik, egoera nekez itzuliko da. Hezkuntza, telebista... dauden beza-la egonik jai dugu. Nola ez gara jaitsiko, beraz?

Euskal Herriko egoerari irtenbidea emateko ausardia eta formula berrien premia azpimarratzen ari da azkenon.

Indar harremanak nola dauden ikusirik, ez dago buelta emateko aukerarik. Formula berri bat Buesa dagoen lekutik kentzea litzateke. Eta HBrekin ez dute hitzik ere egin nahi. Telebista piztuz analfabetismo orokorra nondik datorren ikusten da.

Zer iritzi duzu presoen bergizarteratzearen inguruan?

Amore ematea da, eta ez dut uste ETAkoek hori onartuko dutenik. Preso kolektiboa batuta dago, ez dut dudarik. Nekatuta izan arren, ez dut uste amore emango dutenik.

Urriko hauteskundeen ondoren, areagotu egingo al du HBren parte hartzea Gasteizko Parlamentuan?

311 *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, 1994.

Ez dut uste. HBko jende askok ez du bide horretan batere sinesten, neu barne, irtenbiderik gabekoa baita. Gauzak dau-den bezala eta autodeterminazioa eta beste gauza batzuk argi eta garbi onartuak ez badaude, ez nuke ezertan ere parte har-tuko³¹².

Planteamendu orokorretan aldaketarik ez; berrietasunak: herriaren anestesia aipatu izana poliziaren errepresioaren au-rrean erreakzionatzeko orduan, eta telebistaren eragin gaitza botoen nondik norakoan.

4.1.4. Elkarriren hirugarren bideaz, eta 1997ko urte amaie-ran ETAn infiltrazioa zegoen susmoa

ETAk Alternatiba Demokratikoa plazaratu zuen 1995eko apirilean, eta HBk lagundu egin zuen hura zabal-tzen. Espainiako botere faktikoek ezker abertzalearen aur-ka hasitako errepresioaren espiralean gertaera giltzarria izan zen, 1997tik aurrera.

Elkarri-k 1996ko urtea oihartzun mediatiko handiz hasi zuen. Ajuria Eneko Itunaren eta Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren artean bazegoela beste espazio soziologiko-politiko bat, eta, ETAk 1995ean egindako atentatuak gogor salatzeaz gain, Ajuria Eneko Ituna ere ezdeustzat jo zuen euskal gatazkari elkarrizketa bidezko aterabidea emateko, eta

312 “Euskaltzaindikoeek askotan erakutsi dute ez dutela ni hor egoterik nahi” in *Argia* 1994-10-16. 1983an, “Euskal azentuaz” tesia aurkeztera zihoala Bartzelonako Unibertsitate Autonomora, *Argia* kazetak elkarrizketa egin zion, eta besteak beste, erakundeetan izan beharreko partaidetzaz galdeturik, erantzuna bestelakoa izan zen. 1983an, Txillardegí, Madrilen ez, baina hemengo erakunde guztietan parte hartzearen aldekoa zen (“Txillardegirekin Euskaraz eta Abertzaletasunaz” in *Argia* 1983-09-11).

horretarako, gizartearen konpromisoa eta nazioarteko babes-
a jo zituen ezinbesteko.

Txillardegik hirugarren bideari ez zion oniritzen, baina Ajuria Eneko Ituna politikaren oinarri bakartzat hartzen zutenen eta Euskal Herriarentzat burujabetza eskatzen zutenen artean hutsune politiko bat bazegoela aitortzen zuen, eta leku hori, honen aurreko atalean jaso bezala, hain zuzen honegatik zegoen:

Elkarri-ren oihartzunak, behin eta berriz batzuk aldarrikatzen dugunez, *hutsune politiko bat* adierazten du. Ajuria-Enekoen projektua Espainia da. Eta Ezker Abertzalearenak, *Aberri askatasunaz gain* beste izari *adjetiboak* itsatsirik aurkezten dituelako, murriztu egiten du bere oinarri soziologikoa. Tarte bat dago, zabala. Eta Elkarri-k hau ulertu du³¹³.

Handik berehala zutabe laburra ez baizik eta artikulua luzeagoa Elkarri mugimenduaz. Lehenik, errespetua adierazten zion:

Errespetu osoa diet nik Elkarriko kideei. Beste zenbait murtzo bakezalerekin gertatu izan zaidanaz bestaldera, Jonani eta gainerakoei dagokienez, ez dut inoiz zalantza izpirik izan. Elkarri-kideengan garbi dago xedea: gure sofrikario azkengabe hauetaz ok eginda, Zuzenaren gainean ezarritako bakebidea bilatzen dute, herri gisako eskubide kolektiboak ere onartuko direlarik³¹⁴.

Baina beti ezetz esan izan zion Elkarri mugimenduari, eta orduan ere bai, arrazoi hauengatik:

313 “Metaziria” in *Egunkaria* 1996-01-06.

314 “Bakerako bideak” in *Egunkaria* 1996-01-11.

Gaitzak sendatzeko bidea ez da inoiz izan, nik dakidala, gaitza bere horretan utzi, egoeraren larria disimulatu; eta osasun-arazoa, hitz batez, alboratu, geroko apartatu, eri denari aholku leunak emanez: “goazen lehendabizi oinazeei lotutako tema horiek ahaztera motel, eta mediku hiletariei bizkarra ematera. Lasai!”. Alderantziz, gaitza zehazki erreparatzen hasten da egitekoa, eta erremedioa zaurian bertan jartzetik. Prediku lasaigarriak, gero. Ez lehenago.

Distentsio bakarra hemen, kanposantuko sasi-baketik at, noski, nazio-eskubideen prozesuaren abiatzeari datxekio. Herri-zanpaketa onartzetik, ez dator, eta ez datorke, inolako distentsiorik.

Zergatik agertu eta ugaltu dira zapatista gazteak Euskal Herrian, eta ez Murcian? Zergatik kale-istilu hazkor horiek gurean, Palencian eta Badajozen bake saildian bizi direlarik? Nola uler daiteke zanpaketa bortitz eta pozoinketa guztiak saiatu ondoren ere, ETA osoki deuseztatuta ez egotea? Nola azal dezakete begizta urdinekoek 1875ean ere hemen desordenu gaitzak egotea, eta Madriletik zetozen trenek Mirandatik Iparrerantz ezin jarraitzea? Zergatik ez da sortu Espainian barrera violento/demócrata binomioa? Guk erantzun hau ematen dugu: hemen, Txetxerian bezala, inperialismoa/nazio-pizkunde arazo larria dagoelako. Gu ez gara espainolak, eta izan nahi ere ez. Horra hor gakoa.

Nazio-problema horri, bai hemen eta bai Kotxintxinan, erantzun hau dagokio: Independentzia. Burujabetza, helburu soil. Adjetibo guztiak sobera. Eta nahiz metropoli inperialistetan ikusmolde hau ulertezina izan³¹⁵.

Eta klase-helburuez zer?, galdetuz gero, beraren erantzuna hauxe zen:

315 Ibid.

Yankiak, Viet-Namen zeudenean, Ho-Chi-Minek amerika-
rrek Viet-Namdik aldegitza eskatzen zuen. Besterik ez. Gero
vietnamdarrek berek nahi zutena egin zezaten. Ideologiaren
mailan, eta sozialismo errearen porrotaren ondoren, itxaron
egin behar; Marx eta Bakunin berriak etorriko baitira. Artean,
eutsi diezaiozun sindikalismo abertzaleari (ELA-LAB).

Eta azkeneko ohar bat: abertzaleekin eraikiko da Euskal He-
rria, ala ez da eraikiko. Euskal Herria azkartu eta askatu nahi
duten gudariek eraikiko da gure Aberria. Madrilekin eskuz
esku eta eroso ari direnekin... Cibeles-Plazara.

Bi hitzetan, planteamendu berdintsuetan jarraitzen zuen
1996an.

Gatozen Lizarra-Garaziren aurreko urtera, 1997ra. Go-
gorra gertatu zen politikoki, hilketa eta atxiloketengatik.
1997ko otsailean, HBko Araiz eta Aoiz kartzelaratu zituz-
ten, Espainiako Auzitegi Goreneko epaile batek jarritako
bost milioi pezetaren fidantza ordaintzeari uko eginik. Eta
handik laster, HBko Mahai Nazional osoa. Txillardegik “Isil-
keriak” izenburuko artikuluan Ajuria Eneko itunkideen isil-
keria salatu zuen, lehenik:

Bi hilabete joan dira jadanik, bai. Are gehiago ere; Adolfo
Araiz eta Floren Aoiz, ilara hitseko bi lehenengoak, preso altxa
zituztenez geroztik (...) Egia baita Ajuria-Eneko edabeaz elika-
tzen direnei, bost axola zaizkiela HBkideei gerta dakizkiekeen
zoritar guztiak (...) Paktukideen etsaiak ez baitira espainolis-
tak, bertako salduak, eta katu epelak; gu geu, etsitzen ez du-
gun abertzaleok baizik³¹⁶.

316 “Isilkeriak” in *Egunkaria* 1997-04-11.

Horretaz gainera, leporatzen zien paktukideei ezen, beren arbuio horretan, borroka-moldeak ez zuela deusik ikus-tekori; izan ere, zinez bakezale izanen balira, Donostiako katedralean gose-greban ari zirenei txalo jo beharko zieketen, edo gandhiar proposamenak egin:

Gandhik borroka egin zuen bere biziera guztian barrena. Paktukideek sekula ez. Barka! Egiten dute, bai, borroka; are zikina ere. Bai. Baina... abertzaleon kontra bakarrik! Izenak emango nituzke pozik. Baina ez dut egingo.

Noiz proposatuko ote dute gandhiar *hartal* bat, Euskal Herriari dagozkion nazio-eskubideen alde? Noiz antolatuko *sit-in* ausart bat Gobernu Zibilaren aurrean presoek askatasuna eskatzeko? Noiz gose-greba bat onetsiko eta bultzatuko? (...)

Zuen sasi-bakezalekeriek, zeuen poltsikuetara erortzen dira *konddar* batzuen truke, gotorto egiten dute Euskal Herriaren kontrako zapalketa.

Inperioaren morroin leialak besterik ez zaretela erakusteko, egizue zerbait, otoi, sistematik at.

Gose-grebatxoren bat, adibidez. Noiz? Non?³¹⁷

Bere ildoan jarraitzen zuen.

1997ko martxoaren 11n, Donostiako Grosen, Martuteneko kartzelako psikologo eta ELA sindikatuko kidea zen F.J. Gomez Elozegi hil zuen ETAk, garondoan tiro bat emanda. 1997ko uztailaren 12ko arratsaldean azaldu zen, berriz, Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotzia buruan bi tiro zituela eta eskuak lotuta, Lasarte inguruan, artean bizirik; biharamunean hil zen. 1997ko abenduaren 11n, Jose Luis Caso PPko Errenteriako zinegotzia hil zuen ETAk Irungo Trantxe tabernan.

317 Ibid.

Txillardegik handik berehala idatzi zuen “Qui prodest?” izeneko artikulua.

Bi zatitan banatua bezala dago artikulua; lehenbizi, euskal nazioaren askapen ikuspegitik datu pozgarriak daude tolesturik –bereziki ELA eta LAB sindikatuen arteko elkarke-ta–; eta bigarren zatian, bereziki, hilketa horiek noren mesedetan gertatu diren galdetzen da hisiatuki, nola polizia ikertzaileek galdetu ohi duten delituzko ekintzaren bat iker-tzen dihardutenean:

Azkeneko hogeit hamar urte honetan Hegoaldean, Madrilen ones-penarekin, eraiki den *tramankulu autonomikoak* helburu hau dauka: trauma mingarririk gabe, poliki-poliki, ikurriña balkoi ofizialetan eskegita, Hego Euskal Herria Espainian integratzea. PNVa, Madrilen beharrezko laguntzaile bihurtu da (erdaraz, *el colaborador necesario*). Madrilek berak egin ez dezakeena, jelki-deek egiten diote (...)

ELA sindikatoa PNVtik eta estatutismo espagnolistatik urruntzen hastea, beraz, urrats ezin garrantzitsuagoa izan da. Batera UGT eta CCOO anti-abertzaleetatik urruntzearekin gertatu baita.

Honegatik, bestegatik ez balitz ere, errespetu osoa merezi-ko lukete Elorrietak eta beronen burukide ausartek. Baita la-guntza ere (...)

Sasi-ezkerreria xaharkitu eta hutsaletatik irten, eta ezker abertzalearen ildoan LAB irmoki kokatu duten gizonak (Ra-fa Diez Usabiaga mireagarriak, alegia, eta beronen burukidetz-a osoak) errespetu eta laguntza osoa merezi dituzte abertzaleon artean.

Gernikako ekintza bateratu eta esperantzagarriak, horretara, gerorako xirikitu edo bidexka bat baino, *bidea* erakutsi zigula esango nuke. Mundu osoko ezker politikoaren krisi betean, abertzaletasunaren oinarri soziologiko berria hasia baitzen ho-zitzen LAB-ELA elkarketa ederrean.

Aurtengo Martxoaren 11ko hilketaren deitoragarria, horrela (Martuteneko Gomez Seguraren [Elosegi zen] heriotzaz ari gara oraingoan), LAB-ELA hurbilketaren oztopatzaile nabarmen, ahanzten eta gainditzen hasiak ginen.

Elorrietaren “El Estatuto ha muerto” esaldi bortitzak, aberzale guztion kontzientziak astindu zituen. Koloka zegoen *Pacto de Ajuria-Enea*-ko baradera hilgarria.

Azkeneko asteotan ezagutu dugun goranzko eupada miresgarriak, zokoraturik zeuzkan, beldurturik, ezindurik, zer egin ez zekitela, errejionalista kolaboratzaileak eta espāñolistak oro.

Hots, mementu horretantxe hain zuzen, eta Bilboko manifestazioa historiko gertatzeko bezperan, Irungo berri hitsa zabaldu da bazterretan. Goranzko abiadura sendoa brauki moztu da, erabat eten; errejionalistak eta espāñolistak berriro harrotu. Ermuko mamua berriro gorpuztu, geure greba-deiak tarrapatka deuseztu, eta, hitz batez, militantzia abertzaleak ilusioz prestatutako lan gaitz osoa, bertan behera.

Nork irabazi du? Berek ala guk?

Erromatarren *qui prodest* famatua erabiltzeko garaia dugu. Nori gertatu zaio mesedegarri? Nori kaltegarri? Guri ala berei?

Etsaiak ez du ELA-LAB elkarketak inolaz ere irautea nahi. Hau garbi agertu da hasieratik. Guk, bai, ordea (...)

Gure arteko askok ez du aisa sinetsiko ekintza hau proposatu eta mamitu dutenen helburuak eta gureak, helburu berak direnik. Ez baitu hori ematen (...)

Interes gaitzak daude espainiar Estatuan eta tramankulu autonomikoan euskal mugimendu abertzalea hondatzeko. Kinka larri hauek jasan dituzten beste herrietan ere, gerra zikina (harmatua eta psikologikoa), infiltrazioa (pertsonea eta ideiena), eta mozorroketa sasi-radikala, sistematikoki erabiliak izan direla ikastea, hemen ere ausarki pentsatzeko beharra dugu. Erne, otoi!³¹⁸

318 “Qui prodest” in *Egunkaria* 1997-12-14.

Laster Lizarra-Garazi etorri zen, eta handik hamabost hilabetera, berriz ere, gatazka eta tentsio politiko enegarren aldiz areagotua. Txillardegiren artikulu hau, labur-labur esanda, inflexio-puntu bat izan zen.

5. LIZARRA-GARAZI; ARALAR ALDERDIAN (2002-2007), ETA BERRIRO EZKER ABERTZALE OFIZIALEAN

Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu 1998ko irailaren 12an Lizarran, Donibane Garazin berretsi, eta 16an, ETAk su-etena eman zuen; hamabost hilabete pasatxo iraun zuen su-eten horrek, 1999ko urtearen amaiera arte.

1999ko urtea hastearekin batera elkarrizketa egin zion *Egunkariako* Koldo Aldabe kazetariak, Amasan zuten base-rrian. Pozik eta kontent zegoen politikoki behingoz. Eraikuntza nazionalari buruz, Lizarra-Garaziko akordioak zer ekarriko zuen galdeturik, eta ea baikorra zen, hona erantzunak:

Nire ustez mugarri bat da, Lehenbiziko aldiz historian hemen antolatu da zerbait espainolik gabe. Eta hori izugarria da (...) Azkenean, Euskal Herria gauza izan da zerbait egiteko espainolak bazterrean utzita: PP, PSOE... IUk lagundu nahi baidu, ondo. Baina PP eta PSOE kanpoan izatea bistan da positiboa dela³¹⁹.

Ea Lizarra-Garazi Fronte Abertzalearen bidetik zihoan galdeturik:

319 “Intelektual konprometitua” in *Egunkaria* 1999-01-03.

Badirudi baietz. Batez ere fruituak ikusita, nik esango nuke hori egitez fronte abertzalea dela. Bere muga guztiakin (Nafarroa eta Iparraldea ez daude barruan), nahi den guztia, baina horrelako zerbait dela uste dut. Eta hori positiboa da³²⁰.

Urte hartako otsailean, Iruñean, Euskal Herriko 317 udalerritako 666 zinegotzi eta alkate bildu ziren: EAJ, EH, EA eta AB alderdietako kideak, eta independenteak. Aho batez onartu zen adierazpenean zehaztutako xede bat hauxe zen: “Euskal Herriaren zatiketa administratiboa gainditzea, Euskal Herriaren garapen osoa eragozten duelako, eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko beharrezkoa delako lurralde artikulazioa”.

Udalbiltza, instituzio bezala, Bilboko Euskalduna Jaurigian, 1999ko irailaren 18an, sortu zen. Eratze bilkuran zazpi lurraldeetako 1.778 hautetsik hartu zuten parte. Aho batez onartu ziren bost printzipio programatiko; haiek bitarra ekarrita: Euskal Herria nazio bezala aldarrikatzea eta, era berean, euskal herritarrak eskubide osoko subjektutzat onartzea; bestalde, lan instituzionalari esker, Euskal Herri osoko lurraldeetako udalerrien arteko garapen politika bateratuak sustatzea, herrialde ezberdinetako politikak kohesionatzearen, hizkuntza normalizazio, garapen sozio-ekonomiko, lurralde antolakuntza eta plangintza, eskubide demokratikoen defentsa, hezkuntza, kirol eta kulturaren sustapenaren alorretan.

Baina urtea amaitzean, politikoki gutxiegi aurreratu zela iritzirik, su-etena hautsi zuen ETAk. Horrek, Txillardegiren terminologia erabiliz, fronte espainola are gehiago batu, eta

320 Ibid.

estatuak, zigortzeko makina koipeztaturik, sekulako kanpaina mediatikoa hasi zuen ETAREN, oso urrun helarazten zuen ingurunearen, eta are EAJren nazionalismo moderatua deituaren aurka.

Hiruzpalau urtetan hainbat artikulu idatzi zituen Txillardegik, ETAREN su-etena eta Udalbiltzak gidatutako autodeterminazio prozesua behar-beharrezkoak zirela aditzera emateko. Artikulu bakoitzean unean uneko gorabehera politikoak aipatuz, eta haiek historikoki kokatuz 1839tik hona, baina aterabide gisa gorago esan duguna proposatuz.

Gogora ekar beza irakurleak Mayor Orejak eta gogai-deek, estatuko botere faktikoekin elkarlan estuan –epaileak, hedabideak, PP eta PSOEko buruak– eta ETAREN atentatuek lagundurik, zer-nolako estrategia politiko zigortzaileari eta, lehen esan bezala, mediatikoari ekin zioten. 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondotik, G. Bush eta AEBek gidaturiko politika antiterrorista deituak ere indartu egin zuen Espainiako gobernuaren eta Frantziakoaren estrategia.

Hona hemen ABCko kazetari batek Mayor Orejak, 2001eko urtarrilean, Madrilen, Historiaren Errege Akademian “Seguridad y convivencia en el País Vasco: balance de 25 años” izenburupean egindako hitzaldian oinarriturik egindako laburpenetik zati adierazgarri batzuk:

Comenzó Mayor Oreja destacando que el llamado “problema vasco” está determinado por tres elementos: la existencia de ETA, la falta de libertad y el déficit democrático que vive el País Vasco y el acuerdo de Estella, con el que los partidos nacionalistas construyeron un frente que tiene “por objetivo forzar a España a realizar una segunda transición desde la autonomía a la autodeterminación”. A partir de ese momento,

septiembre de 1998, “la estrategia del PNV –matizó– es parte importante del problema vasco” (...)

Junto al análisis sobre la evolución y objetivos de la banda terrorista, el otro pilar de la conferencia del ministro del Interior fue el Partido Nacionalista Vasco, única formación que, en su opinión, “no ha abandonado ninguno de sus dogmas y objetivos”. “La realidad –dijo– es que nunca ha tenido necesidad de cambiar porque los demás hemos buscado siempre su satisfacción política como panacea para resolver el problema vasco”.

Mayor, que acusó al partido de Arzalluz de deslealtad con la democracia española y con el Estatuto de autonomía, afirmó que la “radicalidad” puesta en la actualidad en escena por el PNV siempre ha estado “latente” en esta formación. En este sentido, puntualizó que su permanencia en el Pacto de Estella “es la confirmación de que el PNV no puede ni debe liderar hoy el País Vasco”. Por ello, pidió a los ciudadanos vascos que pierdan el “miedo reverencial al PNV, el miedo escénico a que su salida del Gobierno agrave los problemas de la sociedad vasca”. “El nacionalismo no sólo no ha dado la solución al problema, sino que lo ha enquistado y agravado, convirtiéndose en parte importante del mismo”. Para el ministro del Interior, “se ha agotado un ciclo político y podemos decir que, por primera vez, se ha abierto la posibilidad de sustituir democráticamente al nacionalismo. Ya no se puede descartar que en Victoria haya un gobierno no nacionalista y eso es un síntoma de higiene democrática”³²¹.

2002ko abuztuan, Espainiako Kongresuak Auzitegi Gorenari eskatu zion Batasuna legez kanpo uzteko, eta epaitegi horrek 2003ko martxoaren 28an eman zuen epaia, Batasuna, Euskal Herritarrok eta HB legez kanpo uzten zituen;

321 ABC. 18-01-2001.

ber denboran, Garzon epaileak Batasunaren egoitzak ixteko eta jarduera politikoa eteteko agindua eman zuen.

Koiuntura politiko hartan, Txillardegiri iruditu zitzaion politika egiteko garaia zela, borroka armatuari kaltegarri irizirik; erbestetik itzuli berritan, lehen hauteskundeak egin aurretik iruditu zitzaion bezalatsu, ESBren sorreran parte hartuz; alde nabarmen batekin, haatik: orduan ez zuen ETAREN borroka armatua kaltegarritzat jotzen, eta orain bai; izan ere, hark etsai politikoari mesede egiten zion, eta abertzaleen batasunerako, aldiz, oztopo zen.

Bestalde, ez zuen baieztatzen borroka politiko instituzionala bera bakarrik aski izango zenik; harekin batean gandhis-moa, desobediencia zibil masiboa sustatzea garrantzizkoa izan zitekeen.

Ezker abertzalearen barnean, 1990eko hamarkadatik ETAREN borroka armatuarekin kritiko zirenak, 2002ko ekainean, Gasteizen egindako Biltzarrean alderdi gisa eratu ziren, Aralar izenpean. Txillardegi ez zen joan biltzar hartara, baina ordurako afiliatua omen zegoen³²².

Izan zen bezain konprometitua eta engaiatua ez izatera, plaza publikotik erretiratu egingo zen, eta hala egitera, bere buruari eta hurbilenekoei nekeak eta istiluak saihestuko zizkien; baina ez, pauso psikologikoki gogor hori ematea erabaki zuen, eta bost bat urte egin zituen Aralarren, harik eta 2007ko maiatzean dimisioa eman zuen arte. Aralar alderdiak ETAREN aurkako manifestazioan parte hartu izana eta hauteskundeetara Ezker Batuarekin batera joan izana aipatu zituen dimisioa emateko arrazoitzat.

322 J.M. Elexpuruk emandako informazioa 2015-06-10ean. 2004an, Aralarrek Donostian egindako II. Biltzarrean bai, izan omen zen Txillardegi.

XXI. mendeko lehen hamarkadako beste gertaera garrantzitsu bat EAJren zuzendaritzan Josu Jon Imaz hautatu izana, eta haren gogaideen eta Ibarretxe EAEko lehendakariaren gogaideen arteko tirabirak izan ziren; eta bereziki Ibarretxe plana, ezker abertzalearen boto erdiekin doi-doi Gasteizko legebiltzarrean onartua izan ondotik, Madrileko kongresuan atzera bota zutena modu aski umiliagarrian –politikoki irri egin zioten EAEko lehendakariari eta hark ordezkatzan gintuen herritarroi–; handik denbora batera, zuzendari berrien eskutik bide autonomistara itzuli zen EAJ.

Txillardegik Imaz eta haren lagunak *sotismoarekin*, Engracio Aranzadi “Kizkitza”rekin parekatu zituen; Ibarretxe planari berari ongietorria egin zion, baina euskararen aldetik zituen mugak bistarazirik.

Ezkutuan Jesus Egigurenekin egindako elkarrizketen ondoan, ETAk 2006ko martxoan su-etena eman zuen, eta hautsi 2007ko ekainean, nahiz 2006ko abenduan Barajasko atentatua egin zuen.

Esan liteke Ibarretxe planak porrot egin eta ETAren su-etenaren porrotaren ondotik, eta bereziki Katalunian *estatutarekin* zer gertatzen ari zen ikusita, oster a galdu zuela fedea bide politikoetan gure herriaren autodeterminazioa lortzeko; eta bide instituzionalean sinesten jarraitzen zuen Aralarretik aldentu zen, ezker abertzale ofizial ilegalizatura itzultzeko.

2008ko urtarrilean, EAE-ANV alderdiko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean, Espainiako hauteskunderatarako hautagai-zerrenda erregistroan aurkeztera joan zirenean. Berehala hasi zen Garzon epailea alderdi hori ere legez

kanpo uzteko bidean, eta urte hartako irailean ilegalizatu zuten.

Mayor Orejak 2001ean seinalaturiko bidea 2009an gauzatu zen EAEn, ezker abertzalea ilegalizaturik zela, Patxi Lopez lehendakartzara heldurik. Besteak beste, hura salatzeko eta bere betiko ikuspuntu politikoak plazaratzen eman zituen mundualdi honetako azken urteak.

5.1. Lizarra-Garaziren eta meniaren alde

2000. urteko maiatzean zeri eman behar zitzaion lehen-tasuna galdetzen zuen “gaur eta hemen”. Zeri ez; oso garbi zeukan:

Hots, gaur eta hemen, eta Euskal Herriak mota guztietako espāñolistengandik jasaten duen eraso bortitz eta lotsagabea ikusita, ez zait bidezko iruditzen gure arteko (alegia, abertzaleon arteko) desberdintasunak azpimarratzeko une egokia (...)

Ez zait egoki iruditzen, garbiki, azkeneko hamarkadetan Europako (eta mundu guztiko) ezker zatitu eta mindu duen problematika, orain eta hemen, berriro geure artean piztea eta xaxatzea. Zauriak minbera daude oso oraindik; eta soluzioak, ilun. Ezker sozialistak dituen arazoak, ezin larriagoak dira (...)

Hots, orain eta hemen, Frente franco-espāñol anti-euskalduna gordinki indartzen den memento honetan, eta Euskal Herriaren azken hatsa itotzekotan ari direlarik, ezkerren eztabaida teoriko amaigabe eta antzu horiek (eta eskarmentuz mintzo gara) gerorako utzi beharko lirateke. Beste hamaika herritan gerorako utzi ziren bezala³²³.

Gauza berririk ez, esango du irakurleak, 1989tik horixe esaten ari baitzen, baina adierazgarria da esan beharra sen-

323 “Orain eta hemen” in *Egunkaria* 2000-05-28.

titu izana, eztabaida bazegoen seinale. Orduko hemeroteka aztertuz gero, polemikaren bat aurkituko genuke horretaz, bestela ez zuen aipatuko Txillardegik.

Gagozkion artikuluekin jarraituz, zer egin behar ez zen bezain garbi zeukan zer egin behar zen:

Orain eta hemen, behaztopa-harri guztien gainetik (eta ugari direna badakigu), Lizarra-Garazi izpiritua behar da sendotu; abertzaleon arteko ekintza-batasuna eginetan gauzatzuz.

Oso bereziki, beraz, Euskal Herri osoko Udalbiltza behar da azkartu. Nola, ordea? Funtsean, Udalbiltza bera, prozesuaren bultzatzaile nagusi eginez. Horretarako, eta alderdi eta sindikatu abertzaleak eginkizunean bihotz osoaz murgil daitezzen, meniaren (...) luzapena ezinbestezko baldintza dela dirudi (...) Eta meniarekin batera, eta abiapuntu, eta Irlandakoa eredu, presoen etxeratzea finkatu eta bideratu behar da (...) Menia eta presoen askapena batera datoz (...)

Udalbiltza, zertan, artean? Bestetan ere emana dut neure iritzia: Auto-Determinaziorako prozesua bideratu eta gauzatzeko lanetan. Nola antolatu behar da herri-konsulta? Nola zedarrituko boto-emaielen zerrenda?

Goazen behingoz mamira. Eta ondoko erabakizunen mamia hori da; eta ez besterik³²⁴.

Lizarra-Garazi hitzarmenaren aurreko ziklo politikoan adierazi zituenekin alderaturik, bi ezberdintasun nagusi: ETAk su-etena eman beharra, inplizituki aditzera emanaz borroka armatua kaltegarria zela une hartan, eta bestea, autodeterminazio prozesua bideratzea Udalbiltzari egotzi izana.

324 Ibid.

Urte bereko uztailen, PSOEk buruzagi berria hautatu zuen: Rodriguez Zapatero; eta, hark esan zuen terrorismoaren aurkako borroka izango zuela xede nagusi. Koiuntura hura ere baliatu zuen Txillardegik Lizarra-Garaziren balioa eta garrantzia azpimarratzeko, eta bide bakartzat agertzeko:

Nik, aldiz, aspaldi honetan Euskal Herriak egin duen urratsik garrantzitsuena Lizarra-Garazi dela uste dut; eta Udalbiltza dela gure tresnarik baliosena (...) Udalbiltza oso motel doa, Lizarra-Garazi oso orokorra da... Bai. Baina Lizarra-Garazi da bidea. Kale-borroka ez da bidea. Guri zailtzen digu eginkizuna, eta etsaiari errazten. Horregatik esan dut, eta orain errepikatzen, ez dudala kale-borroka ulertzen, eta ez onartzen (...)

Auto-Determinazio prozesu batera baldin bagoaz, bada garaia aldeko botoa eman dezaketenen iritzia eta joerak kontutan hartzeko. Politika, hori ere badela iruditzen zait. Ala herriaren nahiaren kontra mamituko dugu guk Auto-Determinazioa? (...) Ados naiz erabat Elorrietak egindako azken deklarazioekin: “goizago ala berantago, mamitu egingo da Lizarra-Garazi”. Hori baita, gaur eta hemen, dugun bide bakarra³²⁵.

Autodeterminazio prozesua bideratu eta irabazteko aldeko botoa eman dezaketenen ideiak eta iritzia kontuan hartu behar; ez, ni, ni eta ni, eta besteak nire atzetik, edo bestela uxa!

Ñabardura interesgarriekin batean, ideia nagusiak errepikatu egiten ditu Txillardegik, errealitate politikoa ere errepikatu egiten baita alderdirik funtsezkoenetan. Hurrengo artikulua honetan ere hala gertatzen da:

325 “Abertzaleok bat” in *Egunkaria* 2000-07-27.

“*El Estado de Derecho no está en tregua*” entzun dugu behin eta berriz. Eta errepikapen nekagaitzaren ondorioz, sinetsi egin dute azkenean gure arteko txepelenek.

Baina, lehenengo eta behin, eta euskal hiritarroi dagokigunez, Euskal Herrian ez dago *Eskubide Estaturik*, eta *Demokrasiarik* ere ez. Herri gisa bizitzeko eskubidea denoi ukatzen zaigulako.

“Le premier droit d’un peuple est d’être souverain”, dio Edmond Joue jurista famatuak. Alegia, herri ororen lehenengo eskubidea bere buruaren jabe izatekoa dela. Areago: “le droit des peuples et des nations à disposer d’eux mêmes est une condition préalable de la jouissance de tous les droits fondamentaux de l’homme”. Euskara arruntez: herrien Auto-Determinazio eskubidea dela funtsezko eskubide guztien alde-zurreko baldintza (*Le Droit des Peuples*, 79, 108)³²⁶.

Hori hala izanik ere –eta hala jarraiturik ere, erantsiko genuke geure aldetik–, hamabost hilabeteko su-etenaren ondotik, borroka armatura itzuli izana ez zen erabaki egokia izan politikoki:

Azken hilabeteotako zampaketa franko-espainol gupidaga-beak leherketara eraman ditu gudariak. Nola ez ulertuko? Nola ez konprenituko presoek trajedia? Eta gudariak amua irentsi dute. Eta menia hautsi. Baina 15 hilabeteko epea, luzea izan arren, ez zen aski, ene ustez, gero ikusi ditugunak ekartzeko eta bedeinkatzeko. Hozitzen hasia zen abertzaleon arteko el-karketak denbora hori eta gehiago merezi zuen. Gosta ahala gostarik, abertzaleon arteko elkarlana, Lizarra-Garazi eta Udal-biltza baitziren (eta baitira) ezinbestezko bidea.

Baina probokatzaila eta eskubideen zapaltzaila Espainia da, ez ETA. Hemen inor gaitzestekotan, Madrile behar da gai-

326 “Zenbait gogoeta” in *Egunakaria* 2000-10-01.

tzetsi. Eta Parise. Ez zapalketari ahal bezala, eta itsumustuka askotan (eta desegokiro azken bolada honetan), eta sofrikari ikaragarritan, erantzuna ematen saiatzen diren aberkideak.

Hori esan ondoren, ordea, hau ere esan behar da: hilabete hauetako ekintza ilarak ezinezko egiten eta egingo duela abertzaleon arteko elkarlana, eta Lizarra-Garazi koloka jartzen eta jarriko. Zeren truke dena hankaz gora? Hauxe da galdera. Gure arteko haserre hazkorren truke ote?

Fronte Abertzalea ezinezkoa da meniarik gabe. Egia. Baina Fronte Abertzalea ez da inoiz abertzaleen arteko lan-akordio sendorik gabe piztuko. Eta Lizarra-Garazi eta Udalbiltza ere ez³²⁷.

Gudarien gudaritasuna zalantzan jarri gabe, eta haien sufrikarioak aintzat harturik ere, erabaki desegokia hartu zuten su-etena haustean. Borroka armatua kaltegarria zen, hain zuzen, Lizarra-Garaziri eta Udalbiltzari, eta Euskal Herriaren autodeterminazio prozesuari kalte egiten zielako.

Garai bertsuan *Argia* kazetako Estitxu eta Ixiar Eizagirek egin zioten elkarrizketan, kazetariak Lizarra-Garazi zerk hautsi zuen galdeturik, hona erantzuna:

Abertzaletasunaren faltak. Herri honetan abertzaletasuna, oraindik ere, oso azalekoa da. Errua banatzen dabilta guztiak, errua PNVk duela, edo ETAk duela... Ez dago kontzientzia nazionalik. Hemen kontua da zer egin espainol eta frantsesekin, eta gure gatazka oso serioa izanda, gainerako guztia bigarren planoan jarri behar da, mundu guztian egin den bezala. Herri okupatuetan egiten dena da lehenbizi fronte abertzale bat osatu, herria askatu, eta gero ikusi bertan zer egin. Baina

327 Ibid.

hemen ez. Hemen gure artean hasi behar dugu eztabaidatzen abortoari buruz...³²⁸

Gose grebek balio zuten galdeturik:

Begira Arizkurenen kasua, 54 egun! Borroka modu polita litzateke, eta Indian badago tradizioa, baina hemen ez. Borroka armatuaren aurka daudenek, gose greba bezalako borroka ere ez dute onartu nahi eta! Hemen borroka armatua eta ez armatua ETAk bakarrik egin ditu. Azkenean, alde batean daude bizia arriskatzeko prest daudenak, bai armekin edo bai gose grebetan, eta beste aldean bizia arriskatzeko prest ez dauden beste guztiak. Hori da hemengo zatiketa. Batez ere erasoaren maila honetan³²⁹.

Bestalde, desobedientzia zibil masiboaren alde zegoen; ikus, borroka armatu eta kale-borrokari eutsi behar zitzaion galdeginik, nola erantzun zuen:

Nire ustez momentu honetan gauzak dauden bezala egonda, borroka armatuak ez du mesederik egiten. Hemen batzuk pentsatu dute (eta genuen, garai batean): gauden egoeran egonda, beste antzerako herrietan zer egiten dute? Borroka armatua, eta leku askotan esperientziak hori erakusten du. Baina horrek ez du esan nahi, nahitaez, eta mementu guztietan hori egin behar denik: malgutasuna izan behar da hor. Mementu honetan ikusten bada blokeo bat, Espainia guztia batura dagoela gure kontra, eta La Fontaine Europako presidenten nazkagarri hori berdin, zer egin egoera honetan? Noiz arte jarraitu beharko da atentatuak egiten etsaia mugiarazteko?

328 Eizagirre, Estitxu eta Ixiar: “Nik neure borroka ez dut geldituko” in *Argia* 2000-11-26.

329 Ibid.

Orain arteko panorama aldatu behar dugu, orain inpassa batean gaude. Nik uste garaia dela saio politiko bat egiteko; baina ez politika parlamentarioa (hori behar bada egin dezatela, baina nik ez dut horretan sinesten), baizik eta desobedientzia zibilaren politika, gandhismoa: masiboa, gogorra. Nik uste horrek desblokeatuko lukela arazoa, bestela borroka armatuaren bidez Espainia eta Frantziak iraungo dute nahi duten guztia, eta gehiago. Gure arteko batasunak kezkatzen ditu Madril: orain desobedientzia zibiletik joko ote dugun daude kezkatuta. Gandhismoa bultzatuko nuke. Eta Gandhik egiten dituen gauzak, egin egin behar dira, gero! Hemen jendeak Gandhi gizon inozotzat hartzen du eta Gandhi inork baino energia eta ausardia handiagoa zuen gizona zen, gogorra! Nik ez dut neurre borroka geldituko, nik tiroak gelditzea nahi dut, baina gainerantzeko guztia aurrera!³³⁰

Gorago aipatu dugun kulunka horretan koka daitezkeen artikulua honako hauek ere, unean uneko gertaera politiko axola handikoei begira, etxeakoak ala Espainiako nahiz nazioartekoak izan, eta aldi berean ideia politiko nagusiak finkatzea, sendotzea. 2001eko irailaren 11 igaro eta laster “Nagutean” izenburu argiko artikulua:

Lehen-lehenik, errealismo-dei bat egin behar dela iruditzen zait. Alegia, mingarri gerta badakiguke ere (eta mingarri gertatzen zaizkigu azken asteotako gauza asko eta asko, zalantzarik gabe), errealitate hits hori den bezala ikusi behar dugu; geure burua gezurtatu gabe.

Presoen eta deserriratuen tragedia hor dago (egun haue-tantxe arduradunen kartzelaratzek minberago utzirik), Nafarroako eraso lotsagarriak hor daude (espainiar agintari gorenen ahotan gure hizkuntzaren aurkako iseka eta laido toteletan

330 Ibid.

blaiturik), Euskal Unibertsitaterako ateka guztiak hesten dituen lege berria hor dago, AEK eta gainerakoen kontrako osti-koak eta mehatxuak hor daude, eta abar, eta abar (...)

Hots, hala ere, eta burua hotz atxikitzen baldin badugu, negutean gaude. Negu minean. Aspaldi honetan gure herriak pairatu duen neguterik gogorrean.

Zertan da gaur Katalunia? (...) Pujol da espainiar Estatuaren pilare bat.

Zertan da Galizia? Fraga laugarren aldiz segidan nagusi (...)

Borrokakiderik ez inguruan.

Baina, horrekin batera, *Frente Española* sendo eta tinko. PSOE PPren morroi leial bihurturik (...)

Frantzia aldetik, zer esango? Oraintxe ikusten ditugu frantsesak Korsikari esperantza izpiak oro erauztera deliberaturik. Italian ez dago Mussolini agintean; baina Berlusconi zer den badakigu. Eta Putinek ez du “terrorismoaren” trenaren kontrako Gurutzada horretan atzean gelditu nahi.

Eta, pasteleko ginga, Bush (Blair bereterraren eskutik) eta bere *Justizia Mugagabea* (...)

Orain *Lizarra-Garaziren mementoa* da. Orain Lizarra-Garazi lortzeko menia eman behar bada, *eman egin behar da menia hori*. “Lizarra-Garazi ala hil” idatzi nuen aspaldixko. Eta gaur, berriro ere, hor ikusten dut kinka honetatik irteteko ateka bakarra. Bakarra, bai. *Gaur-gaurkoz, Lizarra-Garazi edo hi*³¹.

Handik bi urtera, jada Aralarren zela, “Lizarra-Garazi berri bat” behar zela aldarrikatzen zuen:

Zeren-eta gaur egun beste Lizarra-Garazi bat behar baitugu. Orain dela bost urteko hura baino sendoagoa, osoagoa. Programa, zein? Auto-Determinazioa. Parte hartzaileak, nor? Indar politiko eta sindikal abertzaleak oro. Eta euskalgintzan

331 “Negutean” in *Egunkaria* 2001-11-13.

nola-hala diharduten kultur talde eta herri mugimendu euskaltzale osoak.

Beren burua abertzale aitortu ez arren, gurekin eskuz-esku “Maltzagaraino” etortzeko prest dauden guztiak ere bai. Barruan. Nork esan du ezetz? Hori lortzekotan, “suetena orain” eskatzen dute askok. Nik neuk ere bai, eta ez gaur lehenengo aldiz. Aitzitik, 1999ko menia-etendura hura, errakuntza historikoa izan zela idatzi baitut askotan. Euskal Herri osoak galdu zuen; eta erakunde armatuak ere bai. Urte hauetan ikusi duguna, bere buruz mintzo (...)

Lehen-lehenik, Lizarra-Garazi berri bat behar dugu. Gure arteko herrak eta etsaigoak piztutzen dituen guztia behar da gaitzetsi eta baztertu.

Mementu larri hauetan, hain zuzen, urteetan barrena beren abertzaletasuna frogatu duten militanteak eta taldeak mintzea (areago, gartzelaz eta deserriaz ordaindu dutenak); edo-ta baztertu nahi izatea, eskandalagarria litzateke.

Orain eta hemen, baztertu behar den bakarra, Lizarra-Garazi berri horren sorrera oztopatzen, edo “gerorako” utzi nahi omen, duten pertsonak eta taldeak dira³³².

Ezker abertzale ofizialari –eta ETari, jakina– egindako kritikatzat jo liteke artikulua, nahiz ziur nortaz eta zertaz ari den zehazki mugatzea gaitza den.

5.2. Ibarretxeren plana, eta zuzendaritza aldaketa EAJn

Atal honen sarreran Mayor Orejaren adierazpenak ekarri ditugu hona; haren arabera, EAJ alderdia ere euskal arazoaren parte bilakatu zen Lizarra-Garazi hitzarmena sinatu ondoan. Espainiako indar faktikoen eraso bateratu eta bortitzaren garaian, eta ETA atentatuak egiten ari zela, plazaratu

332 “Lizarra-Garazi berri bat” in *Berria* 2003-12-23.

zuen Ibarretxe lehendakariak Euskadiko Erkidegoaren Estatu Politikoa Eraberritzeko Proposamena. 2001eko irailean eman zuen horren berri Ibarretxe lehendakariak.

Kontrakotasun espainolista gogorra eta bere alderdiaren baitako zalantzak gorabehera, 2003ko urriaren 25ean, Eusko Legebiltzarreko politika orokorreko osoko bilkuran aurkeztu zuen, eta, 2004ko abenduaren 30ean, Eusko Legebiltzarraren gehiengoak onartu zuen –ezker abertzaleko hiru kidek bai; beste hiru kidek ez–. 2005eko urtarrilean Espainiako Kongresuan aurkeztu zen eta otsailaren leian atzera bota zuten. Aurka 313 diputatuk bozkatu zuten (PSOE, PP, IU, CC eta CHA); alde 29k (EAJ, ERC, CIU, Nafarroa Bai eta BNG), eta bi abstentzio egon ziren (ICV).

Txillardegik, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu berritan, bere mugak salatuz ere euskararen aldetik, ongietorria egin zion:

Estatutuaren eta Espainiar Konstituzioaren sakralizazioa jasan dugu azkeneko urte luzetan (...) Orain, Ibarretxe Planaren ondorioz, pikutara joan da idoloa. Estatutua eta Amejoramentua labur gelditu direla aitortzen dute autonomistek berek. Eureka! Taktika ote da bakarrik Alderdi jeltzalea aurpegia aldatu beharrera eraman duena? “Geroak erranen”. Baina alderdi positiboak dituela ezin uka.

Ur geldian zetzan euskal politika aspaldi honetan. Eta ur geldi horri kiratsa zerion, gero eta kiratsago.

Ongi etorria izan bedi, beraz, Ibarretxeren Plana (...)

Makina bat aldiz esana dugu lurraldetasunetik at euskarak ez duela irtenbiderik. Ibarretxeren Plana, alde horretatik, maingua da³³³.

333 “Proyecto secesionista-ri buruz” in *Berria* 2003-10-30. Beste artikulua batean ere jorratu zuen Ibarretxeren Plana “Ibarretxeren Plana euskararen aldetik” deritzan

Ibarretxeren planari ongietorria bai egin zion, baina etorkizunik ikusten al zion?

2004ko urtarrilaren 18an aldaketa gertatu zen EAJren zuzendaritzan. Jakina da Arzalluzek Imaz eta Egibarren arteko lehia Egibarren alde egin zuela, baina Imazek irabazi zuen %60ko babesarekin. Bilbotik idazten zuten *El País* egunkariko bi kazetarik ez zuten aldaketa handirik sumatu; aitzitik, kontinuitista eta soberanista iritzi zioten gehienbat:

El nuevo presidente del PNV, Josu Jon Imaz, deberá buscar la unidad de los partidos nacionalistas y mantener el rumbo soberanista marcado en la Asamblea General de 2000. La ponencia política, defendida ayer por Xabier Arzalluz y aprobada por aclamación en la IV Asamblea General, consolida el rumbo soberanista del PNV y asume el plan Ibarretxe como eje político para los próximos años. La defensa del derecho de autodeterminación y la existencia del pueblo vasco como sujeto político parecen impedimentos para acuerdos de fondo con los socialistas.

La ponencia fue aprobada ayer por “unanimitad, aclamación y aplauso”, en palabras del portavoz, Joseba Egibar. El texto, redactado y defendido por él mismo y Xabier Arzalluz, es continuista y ampliamente deudor del aprobado en 2000, y afianza la opción por el soberanismo. Prevé crear instituciones representativas “del conjunto del Pueblo Vasco” desde un Consejo de Partidos nacionalistas comprometidos con la autodeterminación y ejercitar ésta también en Navarra y el País Vasco francés, previa extensión allí de la “conciencia nacional”.

El plan Ibarretxe, el Consejo de Partidos y la ya existente Udalbiltza son los instrumentos para desarrollar esa estrategia que busca “superar las divisiones jurídico-administrativas ac-

artikuluan (*Berria* 2004-12-29).

tuales” y facilitar el ejercicio de la autodeterminación. El cónclave dio luz verde también a una ponencia de Educación igualmente deudora de los planes soberanistas, que proclama la “soberanía educativa”, preconiza un Acuerdo Educativo Vasco y prevé crear un organismo autónomo para la gestión de toda la red pública no universitaria (...)

Imaz, elegido por la tarde presidente del PNV con el 60% de los votos de la Asamblea Nacional (41 frente a los 28 cosechados por Egibar, en ausencia de dos representantes de Navarra), y un equipo directivo mayoritariamente afín a sus postulados, recibe un mandato claro del cónclave iniciado ayer en el Palacio Euskalduna, consistente en intentar reeditar la unidad nacionalista sellada en Lizarra en 1998 a través del Consejo Vasco de Partidos.

Las bases ideológicas sobre las que la ponencia sustenta el posible acuerdo limitan, en principio, el deseo expresado públicamente por Imaz, tras ganar a Egibar la pugna que mantenían por el control del partido. Imaz habló entonces de construir Euskadi entre nacionalistas y no nacionalistas³³⁴.

Haatik, Txillardegiri oso bestelako ideiak iradoki zizkion EAJn gertaturiko zuzendari aldaketak. Sabino Arana hil ondoan, EAJn gertaturiko biraketa politikoa ekarri zion gogora:

1903ko Azaroan hil zen Sabino Arana-Goiri. Ehun urte. Hots, berehalatik, *sotismo* deritzon politikabidea gorpuztu zen PNVn. Alegia, Sabinoren ospez jantzirik, guk ezagutzen dugun neo-karlismo ultra-eskuindar eta españolista nagusitu zen. Engrazio Aranzadi *Kizkitza* gipuzkoarra bihurtu zen PNVren ildo ideologikoaren zuzendaria. Artean eta atzean Ramon Sota

334 Aitor Guenaga/Isabel C. Martínez: “Imaz dirigirá el PNV con una ponencia que declara ‘prioritaria’ la unidad nacionalista” in *El País* 2004-01-18.

neguritikoak behar adinako diru-laguntza eta burgesiaren oniritzia eskaintzen zizkiolarik (...)

Pragmatismoaren izenean, oraintxe arte PNVn gidari izan diren moldeak finkatu zituen. Itxuraren mailan (hauteskunde garaian, adibidez) Arana-Goiriren hizkera *erradikalari* eustea. Baina egiazko praxi politikoan, bestetan esan izan dugun bezala, pase forala (*se obedece, pero no se cumple*) erabat ukatuz, *se obedece la legalidad española, y además se cumple y se hace cumplir*. Ertzantzaren jokabideak lekuko.

Zenbait mementutan bikeria iraunkor horrek, Alderdiko abertzaleen artean, barne-tirabira latzak sortu dizkio. Baina ideia eklesiastiko ezagunak baliatuz (...) goikoei men egiteko tradizio saldokoiari eutsi diote: guk ez diagu batere garbi ikusten zertan ari garen; baina goikoek bazekitek. Eta aurrera.

Orain ere, jakina, horretantxe daude gauzak. Josu Jon Imazek lotsarik batere gabe hartu ditu Sotismoa eta Kizkitza bere Aita Pontekotzat. Eta Euskal Herriak orain Sabinok euskal karlistekin izan zituen problema berak izango ditu PNV desmorrotzeko eta gainditzeko.

Salaketa hau eginez ez ditugu guk Auto-Determinazioa eta Bloke Abertzalea ukatzen. Baina Bloke Abertzalea indar abertzaleek osatu behar dute definizioz. Eta gaurko PNV, areago Urtarrilaren 18ko Estatu-Kolpearen ondoren, ez da alderdi abertzalea. Profeta aparta izan gabe esan daiteke Ibarretxeren Plana ez dela inoiz aurrera eramango.

Gauza hauek garbi ikusiko ez dituguno, jai daukagu (...)

PNV nora doan *aurki ikusiko dugu. Agian ba!*³³⁵

Profeta hobe gertatu zen Txillardegi *El País*-eko bi kazetariak baino.

335 “Asma zak, asma zak” in *Berria* 2004-02-19.

2005. urte hasieran, Ibarretxeren plana batere begirune-rik gabe Madrileko Kongresuan atzera bota orduko hasi zen J.J. Imaz, alderdiaren 110. urtemugaren ingurumarian, burujabetza partekatua-idea hedatzen; hots, azken urteotan Urkullu jaunari behin eta berriz entzun diogun jardunaren oso antzekoa plazaratzen: lehenik, akordioa hemen, EAEn, alderdi politiko guztien artean, eta gero Madrilek hemengo balizko akordioari bidea eman: *ez inposatu, ez debekatu* lelopean. Ibarretxek ez zuen berehala etsi, baina aterabiderik ez.

Diogun bezala, ingurumari hartan, EAJk bere sorreraren ehun eta hamargarren urteurrena ospatu baino pare bat egun lehenago, “Iratzar” deritzan artikulua plazaratu zuen Txillardegik:

Arana-Goiri oinarriztat harturik ari dela dioen Alderdiak, Independentziaren beharra isekatzen duenean, eta Euskal Estatua anakronikotzat salatzen; eta, horren ordez, Espainia barruan kokapen egoki bat proposatzen duenean (“nuestra meta es una solución tal que los vascos nos sintamos cómodos en España”, gogoratzen zarete?), iratzarri egin behar dugu denok. Eta gauzak gordinki esateko ausardia izan.

Zoritxarrez, zenbait urtez diximulutan ibili ondoren, PNV estatualismo espainolistan sartu da. Eta erregionalismorik merkeenean jokatu nahi duela aldarrikatzeko ez du lotsarik. Zer ondoriozta dezake barkoxtar batek, adibidez, ikuskari hone-tan? Zer Euskal Herri Askatuan eta Batuan amesten duen beste batek?

Hori bakarrik ez.

Gasteizko Legebiltzarrak onartu zuen Ibarretxe Planari agur. Zapaterok emandako ostikoa ahaztu. Eta “transferen-tziak” aipu. Alegia: Gora Ajuria Enea, eta itzul gaitezen Gerni-kako Estatutura.

Jakina. Madrilek berehala ulertu du egoera berria, eta pozkariotan dago ezin sosegaturik: “El PNV ha vuelto al lugar que nunca debió haber abandonado. Con el señor Imaz se puede hablar” (...)

Ezker abertzaleak (ofizialak eta besteak) pausoa emana du. EA zalantza nabarmenean dago, ezinbesteko urratsak zenbait ikaraturik. PNV barruan oraindik dauden abertzaleek (baldin badaude) orain dute mementoa “aski da” esateko.

Aski baita. Eta sobera ere bai³³⁶.

5.3. ETArekin 2006ko su-etena; Aralarren baja ematea; EAE-ANVrekin agertzea

Argitaratu zituen artikuluen arabera, esan liteke Ibarretxe Plana Madrilen mespretxatu eta EAJren alderdiko zuzendaritzak baztertu ondoan, eta bereziki ikusita Katalunian zer gertatzen ari zen Mas eta Zapaterok azken unean estatutu berriaren inguruan hitzartutako konpromisoarekin, hots, Espainiak ez zuela estatuaren nazio eta hizkuntza-aniztasuna inola ere onartuko, eta erreferendumik ere ez, Euskal Herriak autodeterminazioa bide politikoetatik lor zezakeelako ustea galdu zuen erabat, eta 2006ko martxoan ETAk su-etena ematean, itxaropenari zirrikitia ireki arren, ez zen aski izan itxaropena berreskuratzeko, eta 2007aren hondarrean ez zuen irtenbide politikorik ikusten bere biziko xedea inoiz gauzatu ikusteko.

2005. urtearen balantze politikoa egiten hasita, urte galdutzat jo zuen:

336 “Iratzar” in *Berria* 2005-07-29.

“Bakea, bakea, bakea” entzuten da bazterretan. “Bake-prozesua badator...” (...) Baina jai-ta-aste aldarrikatzen den “Bake” hori ekar dezaketen oinarrien aztarnarik ez da ageri.

Poliziak bere arrestoei eta zanpaketari eusten die. Hori bai. Nekagaitz eta etengabe.

Tarteka, nire adinekooi bederen, berriro 1961 urtean jasan genuen hitz betekada bera daukagula iruditzen zaigu. 25 años de Paz leloa errepikatzen zen orduan edonor itotzeko moduan (...)

Euskal Herrian, beraz, geure etorkizuna euskal herritarroi, kanpotikako baldinketarik gabe, geure gisara hautatzeko eskubidea aitortuko ez zaiguno, ordena publikoa eraiki daiteke behar bada gure kaleetan (oso nekez!); baina Bakea inola ere ez (...)

Herri guztiek dute Auto-Determinatzeko eskubide sakratua. Eta Euskal Herriak ere bai.

Hots, Bakea Zuzenbideari darraikio orpoz orpo. Bakea Zuzenbidearen ezarketaren ondorioa delako. Alegia, eta lehen-lehenik, A.D. eskubidearen gauzaketan (...)

“*Es que los vascos sois unos violentos –entzuten dugu– y el Estado de Derecho no puede ceder ante el chantaje de una banda de asesinos*”. Bego.

Eta Kataluñan zer? Han ez baitago “banda armaturik”. Hala ere katalanen Erabakimenaren ukazioa, Euskal Herrian bezain tinko dago (are tinkoago ez bada).

“*España Una e Indivisible*”-ari eutsi nahi zaio. Irribarrez, talantez, luzamenduz, jukutriaz, edo-ta... Armadaren bitartez; Mena Angulo Teniente Generalak gordinki aldarrikatu duenez.

Bakea nahi dugu guk. Noski! Espainiarrek baino gogozago.

Baina Zuzenbidearen ukaeraren gainean eraiki nahi diren egituraketei, inposaketa deitzen (eta deituko) diegu. Eta ez Bakea³³⁷.

2001a ezkeroztik Arnaldo Otegiaren eta Jesus Egigurenen, eta geroago Egigurenen eta Josu Urrutikoetxearen arteko harremanen ondorioz heldu zen, 2006ko martxoan, ETAREN su-etena. Zer eman zuen aditzera Txillardegik?

Martxoaren 22a mugarri agertuko da Euskal Herriaren kondairan. ETAk bere kabuz su-eten iraunkorra iragartzea berri ona izan da. Zeren-eta orain dela hilabete asko burutu-tako “ekintzek”, arazoak sortzen baitzizkiguten guri; eta Euskal Herriaren eskubideak ukatzen dituztenei, aldiz, mesedegarri gertatzen. Gure etsaiek bazeukaten aitzekia: “El Estado de Derecho no puede ceder al chantaje de los violentos”. Amaitu egin da aitzekia hori, ordea (...) ETAREN jokamoldeak desbideratu egiten zuen gure arazo nagusia (...) Baina ETA ez da euskal arazoa. Eta guk baino hobeto dakite. Euskal arazoa beste hau baita: orain dela bost mende, herri hau zapalduta bizi dela. Eta *vascongado/navarro/vasco-francés* zatiketa hirukoitzak geure hondamendira garamatzala. Ongi dakite, era berean, hemen hispano-frantses legetasuna gerra bidez inposatu zela behin eta berriz.

Euskal Herriak bizirik iraungo badu, Auto-determinazioa eta Independentzia behar ditugu (...)

Orain besteei dagokie “*fitxa mogitzea*”. Zapaterori bereziki.

Berei exijitu behar zaie: euskal presoak hurbiltzeko eta aske uzteko, Batasuna legezatzeko, eta abar luze bat (...)

Hots, Katalunian ikusi dugunak ez digu esperantza handitarako atekarik ireki. Bartzelonako Parlamentuak prestatutako testua “ezagutu ere ezina aldatu arte” itzuli dute Madriletik.

337 “2005: urte galdua” in *Berria* 2006-01-17.

Estatu plurinazionalik onartzetik urrun dago Madrileko gobernua. Eta honela eta ez bestela uler daiteke ERCren ezezkoa.

Aznarrekin lotsarik gabe eta luzaz elkarraditurik jokatu zuen CIU alderdi erregionalista eskuindarrak. Eta CIUren saldukeriaz baliatu da Madril Katalunia autonomismoan barrena itozteko. Eta Euskal Herrian bide bera hartuko du Zapaterok. Gurean ere CIUren saldukeria bera bere gain hartzeko prest dagoen alderdi erregionalista eskuindarra ez baita falta.

Aste eta hilabete zailak datozkigu. Eta guztiz erne ibili behar dugu. Egoera berriko arriskuez ongi jabetzen ez bagara, “estatutismo pragmatikotara” lerratuko gara. Eta kitto (...)

Agian gu ezkorregi agertzen ari lerro hauetan. Agian bai!

Baina oraingoz uzkur oso.

Azkenean badirudi-ta gure arteko batzuek ere, suetena lorturik, problema konponduta dagoela sinetsi dutela...³³⁸

Handik pare bat hilabetera, Kataluniako estatutuaren zoritxarra aipatzen zuen, ostera, eta hari gertatua gureari gertatuko zitzaiola iragartzen, eta erakunde armatuaren lorpena aditzera ematen zuen:

Gaur kezkatuta egoteko arrazoi mordoa dugu abertzaleok. Katalunian gertatu denak ez digu baikortasunerako zirrikitu zabalik uzten. Bartzelonako Parlamentuak ia-ia aho-batez onartu zuen Estatutua Madrilek “zepillatu” ondoren (Alfonso Guerraren “hitz historikoak” dira), ez da Isaiasen mailako profeta izan behar Ibarretxe Plana-ri zer gertatuko zaion sumatze-ko. Jadanik gertatua da behin.

Eta Nafarroa at utzita, eta hizkuntzaren alorrean guztiz suizida zen proiektu eskasa bera, errekarra joango da fite; Kataluniakoa bezalaxe. Hemen beste “zepillokada” bat datorkigu aurki. Ongi dakigu denok, baita irakurleak ere (...)

338 “Gertaleku berria” in *Berria* 2006-03-26.

Bidenabar, Katalunian ez da borroka armaturik egon. Zepi-llaketak, hortaz, ez datoz ETAtik (...)

Baina Lakuaren eta Madrileren arteko harremanak, guztiz “fluidoa” omen dira. Balzak lasai asko bidaltzen ditu “Gobernu Zentral”-era (hauxe da PNVren hizkera) HBko 40 Herriko Tabernari buruzko txostenak. Eta, ohi bezala, Grande Marlaskak erabakiko duena bete eza bidaltzen du Ertzaintza behin eta berriz: “*Las decisiones judiciales deben ser cumplidas, gusten o no*” (...)

Baina “no problem”. Hobeto esanda: “*el problema hoy es la banda*”. Sinets ezina da. ETAk orain dela bi hilabete suetena eman zuenez geroztik, inoiz baino maizago entzuten ditugu “*la banda*” hitz iraingarriak (...)

Baina “banda” horrek, izugarritzko prezioa ordainduz, Euskal Herriaren kondaira aldatu du: PNVk poltronismoan eta “*sentirse cómodos en España*” delakoen dotrina gorai patzen zuen urteetan³³⁹.

Handik beste pare bat hilabetera, ETAk su-etenean zira-
rauela, bake justua erdiesteko ezinbesteko jotzen zuen erabakitzeko eskubideaz idatzi zuen *Argia* kazetan, baina ez artikulu akademiko bat, baizik eta autodeterminazio erreferendumentan eta erabakitzeko eskubidearen gainean aditu zirenen esku-hartzea proposatzeko Euskal Herriaren afera politikoa konponbidean jartze aldera, ETA su-etenean zela baliatuz, eta haren aurka etengabe ari ziren politikari, tertuliakide eta gainerakoei kontrapisu xume bat egitearren nolabait, hots, iritzi publikoan eragin nahian autodeterminaziorako bidea urratzen joateko:

339 “La banda” in *Berria* 2006-05-17.

“Herri guztiek dute beren buruaz jabetzeko eskubidea. Eskubide hau dela bide, inolako mugarik gabe hautatzen dute beren antolakuntza politikoa, eta librok bermatzen beren garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala”, NBEn Batzarre Orokorrean, aho batez, 1966ko abenduaren 16an onartu ziren bi Itun Internazionaletako lehenengo artikulua.

Bi PIDH horien gauzaketaren amaieran edozein helburu da zilegi. Estatu beretan eta inolako aldaketarik gabe segitzea, Autonomia hau edo hura legeztatzea; edota askatasun osoan, Estatu askatu bat sortzea.

Zergatik ez da hau argi eta garbi aldarrikatzen? Eta Euskal Herriari, herri bat delako, autodeterminatzeko eskubidea daxeikiola.

Ohar garrantzitsu bat honetarako gero. Herriek dutela autodeterminazio eskubidea, ez eskualdeek, ez auzoek, ez probintzia puskek. Ez zernahik (...)

Bide beretik, ohiko hauteskundeetan erabakitako politikabidean ematen diren urratsak ez dira autodeterminazioa. Gure arteko batzuek batzutan esan izan dutenaren kontra: “Los vasos llevamos ya años auto-determinándonos todos los días...”

Autodeterminazioa erreferendum berezi batez obratzen da. Eta autodeterminatzen den subjektua herria da.

Eta herri baten faktore objektibo nagusia hizkuntza da; eta faktore subjektibo nagusia mendeetan barrena kondaira amankomuna egin izana. Alderdi nazionalen bidez eta borroka armatu abertzalearen iraupenean ikusgarri. Are gehiago, Estatu Nazional propioa mendeetan barrena ari izan denean –gure kasuan Nafarroa lekuko zalantzagabea delarik.

Guztiz beharrezkoa, era berean, ideien mailan oraingoan, herri eta populazioa ongi bereiztea. Adibide bakar bat ematekotan, Kanakiako kasua (Nouvelle Calédonie). Ongi aztertu ziren orduan kanakiarren eskubide politikoak eta han berriki finkatutako frantses etorkinenak. Eztabaida juridiko haiek berrikertzea interesgarri izan daiteke orain.

Gure artean sortzen ari den nahaste-borrastea argituz joateko, hitz batez, oso beharrezkotzat joko nuke nik orain, berriro ere, Herria 2000 Elizak 1985eko martxoan eta 1990eko martxoan antolatu zituen bi Kongresu gogoangarri haien errepikapena antolatzea. Orduan bezala gaur egun Iruñean, Gasteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan bilerak eginez.

Orduan, Guy Héraud irakasleak deitoratu zuenez, Europako Estatuaren presioaz, ez zegoen autodeterminazio prozesu adibiderik Europan aurkezterik. Etsenplu guztiak urrutikoak ziren, kolonietakoak, eta abar³⁴⁰.

Erronka hori bota nahi izan zuen. Loiolako elkarrizketek iraun zuten bitartean isilik egon zen; dakidala, ez zuela deus argitaratu, alegia. Imanol Murua kazetariak eman dizkigu irailetik azarora Loiolan egin ziren 12 bilera haiei buruzko xehetasunak. Ondorioen atalean, honela dio partaide bakoitzaren jokabideari buruz:

EAJko ordezkaritza lehentasun batekin joan zen Loiolara: bakea. Eta bigarren mailan utzi zituen alderdi abertzale bati dagozkion helburu politikoak. Aldez aurretik PSOERI aginduz hiruren arteko negoziazioan ez zela lerratuko Batasunarekin, mami politikoari buruzko negoziazioan ez zutela bi alderdi abertzaleek bat egingo, PSOERekin indar posizio batetik negoziatu ahal izateko. Eta mahaian eseri zirenean, bitartekari lana hartu zuen bere gain, PSE-EE eta Batasuna ados jartzeko zailtasunak zeudenean erdibideko irtenbideak proposatuz behin eta berriro (...)

EAJk ere bere merituak eta bere erantzukizunak izango ditu, noski. Baina Txillarren hasi eta, Loiolatik barrena, Genevaraino iritsi zen prozesua eraikitzeko eta garatzeko meritu nagusia ezker abertzalearena eta PSOERena izan zen bezala,

340 “Erabakitze eskubideaz” in *Argia* 2006-07-09.

porrotaren erantzukizun nagusia ere bi eragile horien artean banatu beharko litzateke. Bi hitzetan esanda, Batasuna eta PSE-EE ados jarri izan balira, EAJk izenpetu egingo zuen, eta kito (...)

Gorago ere esana dago: Loiolan negoziatzen ari ziren bi-deak gero Madrilen aurrera egingo zuen itxaropenarekin jokatu zuen Egigurenek, baina Madrilen aurrera egingo zuen bermerik gabe³⁴¹.

Liburu horretan agertzen denari jarraiki, akordioa hel-tzeaz zela –betiere Madrilek edo estatuak han erabakitakoa onartuko zuen bermerik gabe–, ezker abertzaleak Hegoal-deko lau herrialdeetarako Estatutuaren planteamendua egin zuen; eta hortik heldu zen haustura³⁴².

Handik laster, ETAREN atentatua Barajaseko aireportuan; 2007ko urtarrilean, ETAREN biktimen aldeko eta erakunde armatuaren aurkako manifestazioa Bilbon, eta han, besteak beste, Aralar alderdiaren ordezkariak. Txillardegirentzat, Aralarretik alde egiteko lehen arrazoi axolazkoa. Bigarrena, urte hartako maiatzean, Aralar udal eta foru hauteskundee-tara Ezker Batua-Berdeekin koalizioan joatea. J.M. Elexpu-ruk esaten zidan Txillardegiren Aralarreko aldiak mintzo, Nafarroa Bai-n Aralarrekin batera *Batzarre* egotea –LKI eta EMKtik zetorren jendea–, tira!, haiek –Joxe Iriarte *Bikila* eta– euskaldunak ziren eta ez Madrili lotuak; baina Ezker Batuaren atzean PCE ikusten zuela, hots, espainolista³⁴³, eta hori ezin inondik ere eraman!

341 Murua, Imanol: *Loiolako begiak*, Elkar-Berria, Donostia, 2010, 232-233 orr.

342 Ikus aip. lib 139. orritik aurrera.

343 Elkarrizketa 2014-12-05.

2007ko maiatzaren 21ean, honela zioen *Berriako* albiste batek:

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi idazle eta ezker abertzaleko politikari historikoak Aralar alderdia utzi du, Euskadi Irratiak esan duenez. Bi arrazoi izan ditu horretarako hark, irratiazen arabera: Aralarrek duela aste batzuk Eusko Jaurlaritzak antolatutako ETaren biktimen ekitaldian parte hartu izana eta maiatzaren 27ko hauteskundeetarako EB-Berdeekin koalizioa osatu izana.

Urte horretan bertan, *Argiari* emandako elkarrizketan, sakondu egin zuen Aralar uzteko arrazoietan:

Beno, azkenekoa Aralarrekoa izan da. Nik uste dut esplikazio bat eman beharko nukeela. Nafarroan ikusi dugun fenomeno oso inportantea izan da nire ustez, eta espero dezagun bere ondorioak izango dituela. Patxi Zabaleta baino politikoa-gorik ez dago munduan, eta hala ere ez du ezer lortu. Ni horregatik atera naiz Aralarretik: horiek politika konbentzionala egin nahi dute, eta nik uste dut politika konbentzionala herri honetan oraindik ez dela posible. Dagoen egoera, espainolismoa dagoen bezala... Giro honetan, “nik informe bat pasako dizut, zuk niri beste informe bat ematen didazu eta guk, gure abildadearekin...”. Keba. Ez gaude horretan. Hori oso polita litzateke egoera normalizatu batean. Orduan bai, Patxi Zabaletaren estiloko jendea, oso jende ona da dudarik gabe, orduan posible izango litzateke.

Lehen ere banuen susmo hori. Ni Aralarren sartu nintzen pentsatuz saiatu egin behar zela bide legaletatik ea zer egin zitezkeen. Baina ageri denez ez dago zereginik. Nafarroan ikusi dena... Patxi Zabaletak egin zituen proposamenak: “lau urtean ez dut ezer planteatuko, ez dut hau egingo, isildu egingo naiz asunto honetan, beste honetan ere bai”... eta hala ere

ezer ez. Nire ustez Aralar oso jende jatorra da, oso abertzalea dudarik gabe, jende ona, eta Patxi Zabaleta eta Aldekoa eta horiei nik errespetu handia diet zentzu horretan, baina nik uste dut ez daukatela zereginik. Hemen gauzak dauden bezala ez gaude fase horretan, hori beste fase batean segur asko bai, baina gauzak dauden bezala, egurra egunero, jai eta aste, beti egurra berberei...

Zerorrek ez duzu Aralar uzteko arrazoiez idatzi.

Nik ez nuen ezer esan nahi. Nik baja eman nahi nuen eta puntu. Baina enteratu ziren ez dakit nola eta deitu egin zidaten. Esan nien zergatik utzi nuen: Bilboko asuntoa, terrorismoaren biktimen omenaldia. “Badakigu partziala dela” esan zuen Aralarrek. Ezin dugu ETA kondenatzen duen adierazpen bat egin partziala dela esanez. Estatu terrorismoa ere kondenatu beharko da ezta? Bestela zer da hau?

EAE-ANVren agerraldi batean ere azaldu zara. Jendea beti dago begira eta...

Ez lukete begiratu behar...

Baina gaur egun horrela sentitzen zara, legez kanpo daudenen aldean egon behar dela pentsatzen duzu?

Nik uste dut borroka luzerako dela eta amets egin dugula. Neronek egin dut: ni Aralarren sartu nintzen pentsatuz posible izango zela zerbait egitea politika konbentzionalaren bidez. Urte hauek konbentzitu naute ez dagoela zereginik. Espainia hor dago, inperialismo espainola hor dago eta ez dago zereginik. Ez dakit nola bukatuko den auzia, baina bide konbentzionala eta burokratiko ez da konponduko.

Harritu egin zaitu ETAk su-etena hautsi izanak eta orain dagoen dinamikak?

Gauza bat esango dizuet, hemen beti zentratzen garelako ETAn. Goazen Katalunia begiratzera. Katalunian ez dago ETAririk. Zer esan diete? Joan ziren parlamentuko %88ren izenean Madrilera eta esan zieten “ya pueden ustedes volver” (“itzul zaitezke”). Kasurik ez. Gauza bera Ibarretxe. Joan

zen Madriler, oso umil, bera den bezala, oso firme baina oso moderatua... Kasurik ez. Ez dago zereginik. Problema hori da. Izango balitz hau nik ez dakit zer herri, beharbada, baina bide politikoetan badirudi nazkatu nahi gaituztela eta konbentzitu nahi gaituztela azkenean ETA bakarrik dagoela. Eta bide politikorik ez badago, eta garbi dago ez dagoela...

Baina 40 urtetan beste bidea ez al da agortu?

Egoera izugarri txarra da errealista izanda. Bide guztiak itxita daude, nire ustez hori da. Itxita daudela jakiteko neurgailurik onena Katalunia da. Katalunian ez dago biolentziarik, ez ETAririk ez ezer. Gaur [abuztuaren 31n] hain zuzen ere Puigercosek hitz egin du, eta lehengo egunean Carod Rovirak ere aipatu zuen, planteatzen dutela erreferendum bat egitea. Nik uste dut ez dagoela zereginik. Nik ez dut Espainian sinesten, ez dut ezer onik espero.

EBrekin lotu izanak ere inarrosi zaitu. Aralarretik ateratzeko beste arrazoi bat izan al da?

Ezker Batuarekin joatea astakeria da. Hori da beste motibo bat ni Aralarrekin konforme ez egoteko. Ezker Batua da soluzioa azkenean? Horierekin paktatzea? Nire ustez ez. Hemen egin beharko litzateke fronte abertzale bat, hori askotan pentsatu dut. Fronte abertzale horretan EAJ nire ustez ez dago. Partidu espainola da, erregionalista espainola. Imaz eta horiek –gainera esan egin dute– paktu autonomiko berri bat nahi dute hiru probintzientzat eta puntu. Hori da Urkulluk eta Imazek esaten dutena. Horierekin jai dago. Nire ustez EARekin, Aralarrekin –baina ez dakit noraino dauden prest borrokan sartzeko– eta Batasunarekin dudarik gabe osatu behar da frontea. Ez dago besterik. Lizarra-Garazi horien gainean eraiki berriz ere.

Nik uste dut HBkoek funtsean beti esperantza dutela EAJ behartuko dutela estrategiaz aldatzera, baina ez dut uste. Nik EAJ ezagutu dut txikia nintzenetik eta beti izan da hori. EAJ-rekin ez dago zereginik. Espainiarekin bezala da. Berdin. Ho-

rregatik impasse-a totala da orain nire ustez. Beharbada pesimista ni nago momentu honetan. Ez dut ikusten ezer³⁴⁴.

5.4. Gai funtsezkoenak argi uzten

Ezkor ageri zen, baina ez zuen etsi, eta ez zen erretiratu plaza publikotik. Gure herriaren borroka historian kokatu behar zen, 1839tik 2007rako historian, aterabiderik gabeko zuloa edo putzua zirudien orain etsigarritik jalgitzeko:

1839-2007. 168 urte joan dira Bergarako Besarkada famatutik honaino. Hots, badirudi 168 egun ere ez direla pasa! Hona hemen (on da egun hauetan gogoraztea) “Zazpi Urteetako” karlistada odoltsuaren amaieran, Espartero Jeneralak militariki lortutako garaipenaren bitartez, Hego Euskal Herrian inposatu zuena:

“Art.1 –Se confirman los fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía (...)”

Hots, egun hauetantxe, eta Ibarretxeren bigarren Planak harroturik, zer entzun dugu Madrile aldetik? Hona hemen hitzez hitz:

“No se hará nada que no respete La Constitución en su letra y en su espíritu”. (Jose Luis Rodríguez Zapaterok ostira-lean (IX-29) Errusiatik (...))

Beraz, denon gurraketa umila merezi duen Totema hor da go. *La Constitución*. Zein konstituzio, ordea? 1839an, armen poderioz Espartero jeneralak inposatu zuen Konstituzioa izan zen. 2007 honetan, berriz, gure herriak orain dela 28 urte onartu ez zuen Konstituzioa da. “Urteak joan, urteak jin”... eta beti puntu berean.

344 “Politika konbentzionala ez da posible oraindik herri honetan” in *Argia* 2007-09-30.

Guk geure Konstituzioa nahi eta behar.

Baina Madrilek ezetz (...)

Euskal Herriak ez du Autodeterminazio Eskubiderik. Nork eta zertan funtsaturik erabaki du ezetz? Irakurleak badaki. Denok dakigu, hobeki esan³⁴⁵.

Gorago ikusi dugu EAJn 2004. urte hasieran zuzendaritza aldaketa gertatu zen garaian, zuzendari berrien adierazpenek –Imaz, Urkullu– *sotismoa* edo Engrazio Aranzadi *Kizkitza* ekartzen zizkietela gogora, hots, pragmatismo autonomista. Patxi Lopez lehendakariak eta Jose Antonio Pastor bozeramaileak, berriz, Indalecio Prieto, *prietismoa* zekarrioten gogora.

Artikuluaren hasieran J.A.urmendiren *PSOE eta euskal abertzaletasuna* liburua gomendatzen zuen. Eta ondotik, baieztapen hau:

Aspaldidanik bilatzen zuena lortu du PSOEk oraingoa. Ajuria Enea[n] Madrilekin eskuz esku jokatu duen Jauriaritza bat ipintzea, otzan eta esanekoa. Alegia, aurrerakoan hor dago Gasteizen metropoliaren sukurtsala (...)

Lopez lendacari berria leunki mintzatu da: “denontzat” gobernatu nahi duela. Pastor bozeramailea, aldiz, zakar eta moztzorrorik gabe; Ibarretxe astinduz, PNVa irainduz, eta euskal abertzaletasuna bera goitik eta behetik gaitzetsiz. Eta honek atzera eraman gaitu, oso atzera. PSOE 1903az geroztik ari baita politikagintzan (...)

Guk ezagutzen dugun PSOE hau Indalecio Prieto Tuero asturiarrak antolatu eta gorpuztu zuen mende erdi baten barrera (...)

345 “Konstituzioaren dantza” in *Berria* 2007-10-03. Beste bat horren antzekoa: “Puztuaren zolatik” in *Berria* 2007-11-11.

Hots, hona hemen Azurmendik 1979an idatzi zuena: “PSOE Euskadin, orain nahi lukeen alderdi liberal, progresista, sozial hura izan ordez, alderdi españolista fanatiko, inperialista, anti-euskaldun eta anti-abertzale amorratua izan baitzen”.

Euskal Herri euskalduna mespretxatuz, Oviedotik ekarritako espainiartasuna aldarrikatzen zuen lotsarik gabe (...)

Baina bego horretan Prietorena, eta betorkigu José Antonio Pastor. Honen hitzaldiak (Gasteiz, maiatzaren 5ean) aipamen berezia merezi du. Urte mordoa pasata ere, PSOE prietismoan dagoela ulertzeko: “Los ciudadanos vascos no nos han elegido para que les digamos cuáles deben ser sus sentimientos, en qué idioma deben hablar, etc.” Hala ere Pastorri ahaztu egiten bide zaio inposatutako legetasunak dioena: “Todo español tiene el deber de conocer la lengua nacional, y el derecho a usarla”. Ala ez? Baina non adierazten da euskal Herritar orok jakin behar duela euskaraz, eta erabiltzeko eskubidea dugunik?

Gakoa hauxe da Pastorren ustez omen: “*La pretensión (de Ibarretxe) de imponer a toda costa su visión particular de lo vasco*”. Horra arazoa. Eta egon pixka batean: “*Lo cierto es que nunca supimos qué era lo que tenemos (los vascos) que no tuviesen los americanos, los alemanes, o el resto de los españoles*”. Bapo! (...)

Izan ere, zer da PP-PSOE ituna *frente nacional* huts-hutsa baizik? “*Hemos sufrido un intento de crear un auténtico frente nacional*”. Abertzalea... “*Es imposible y suicida tratar de imponer el uso de una lengua*”. Baina Pastorrek inposatzen du espainiera Legebiltzarrean. Esperantoz mintzo da Pastor?

Zertarako jarraitu? Aski da Prieto aitapontekoa berrirakurtzea³⁴⁶.

Urte berean, “Gaurtxe” deritzan artikuluan:

346 “Prieto eta Pastor” in *Berria* 2009-05-23.

Zeren zain gaude PP-PSOE Frente Espainolaren aurka guk geure Gune Abertzalea eraikitzeke? Gaurko helburu nagusia, hitz batez, Paco Lopez eta enparauak gure Instituzioetatik kanpora botatzea da³⁴⁷.

Argitaratu zuen azken artikuluetako bat Telesforo Monzoni eskaini zion. Haren ibilbide biografiko-politikoari errepaso azkar eta labur bat eman ondotik:

Telesforo eredu bat izan da abertzaleontzat. Olaso dorre ederretik zeharo hurbildu zen orduko gazteetara.

Pausu ausart hau gutxik eman dute. Jatorrizko mundutik, herri xehearekin bat egin arte³⁴⁸.

Txillardegi bera ere hein bertsuko abertzale eredugarri bat izan dugu euskaldunok.

347 “Gaurtxe” in *Berria* 2009-12-15.

348 “Telesfororen oroitzapenetan” in *Berria* 2011-03-12.

KRONOLOGIA POLITIKOA

- 1929:** Donostian jaio zen, irailaren 27an, Antigua auzoan.
- 1947:** Urte hartan euskal politikarako jaio zen. Lehen ekin-tza politikoa: Estatuko Buruzagitzarako Ondorengotza Legerako erreferenduma egin zen Espainian, uztailaren 6an (“reverendum” izenez ezagunagoa abertzale artean), eta bera erreferendumaren aurkako EAJren paper batzuk banatzen ibili zen.
- 1948:** Euskara ikasten hasi zen Iñaki Zubimendirekin. Gu-rasoak euskaldunak zituen, baina ez zioten erakutsi. Jon Etxaide erreferenteetako bat izan zuen gai honetan.
- 1950:** Lehenbiziko aldiz uztailean atxilotu zuten Donostian, polizia espainiarrak egindako sarekada batean. Martute-neko espetxean hilabete eman zuen. Besteak beste, Josu Arenaza eta EAJren inguruko beste hogeita hamar bat atxilotu zituzten.
- 1952-1953:** Ekin taldearen sorrera. 1949an joan zen Bilbo-ra ingeniari-tza-ikasketak egitera. Han ezagutu zituen F. Krutwig eta A. Ortueta, besteak beste. Ortuetak bi liburu oparitu zizkion; horietako bat, *Navarra y la Unidad*

Política Vasca. A. Campion, H. Oloriz eta J. Iturralde y Suiten liburuak ere irakurri zituen.

Gero ETA bilakatu zen Ekin-en sorrera: fundatzaile bazuentzat 1952ko udazkenean izan zen, eta Txillardegirentzat, 1953ko udaberrian, Bilbon, Benito del Valleren etxean, Elkano kalean, Merkataritza Eskolaren parean. *Gudari* aldizkariaren ale baten aurrean, Benito del Valle, Manu Agirre, Julen Madariaga, Alfontso Irigoien eta Txillardegi zutik jarri eta zin egin zuten zer gerta ere ez zutela erakundearen berririk emango. Handik laster Donostian gauza bera egin bide zuten beste sei lagunek. Guztira hamaika ziren.

1957-1959: Borroka-moldeari dagokionez eztabaida gogorrak izan ondotik, eta adar militarren sorrerak azken bultzada emanik, Euzko Gazteditik aldendu eta ETA sortu zutenetako bat izan zen. Izena berak proposatua. Adar politikoan gelditu zen.

1960-1961: Bigarren aldiz atxilotua 1960ko abuztuan. Berriz ere Martutenera ETAKoa izateagatik. Han bi hilabetez, azarora arte. Erakundeak hala erabakita, 1961eko urtarrilaren lehenean, Iparraldera ihes egin zuen Dantxarinetik. Orduan Aita Xarriton zenak eskaini zion aterpea Saint-Joseph ikastetxean.

1961-1964: 1961eko otsailean jada Parisen zen. Han ezagutu zituen bi Euskal ordezkariak (*espainola* eta *frantseza*). Espainieraz mintzo ziren euskal ordezkarietan egin zuen 1961eko urrian hitzaldi sonatua. Urte eta erdi inguru egin zuen Parisen. 1962ko udazkenetik 1965eko urtarrilaren 8an Frantziatik egotzi arte Iparraldean bizi izan zen. ETAK Belokeko abadian egin zuen lehen bil-

tzarra 1962ko maiatzean, eta han izan zen. 1964ko urrian, besteak beste, Espainiak Frantziako gobernuari egiten zion presioaren ondorioz, Frantziatik kanporatze-ko agindua jaso zuen, J.M.dariaga, Benito del Valle eta Eneko Irigaraik bezala.

1965-1970: Belgikan. 1965eko azarotik 1967ko martxo-ra arte, hots, ETAk V. Biltzarra egin zuen arte txosten mordo bidali zituen Bruselatik, eta 1966ko udan ETA-ko orduko hiru buruzagirekin ere egon zen. Bere taldeak ez zuen lortu bi ildo egotea erakundean, bata sozialista humanista fronte abertzalearen aldekoa, eta bestea marxista-leninista independentista, eta utzi egin zuten. *Bran-ka* taldearen eta aldizkariaren buruetako bat izan zen (1966tik 1971ra 14 ale).

1970-1976: Iparraldean gehienbat. 1970eko otsailean Bordeleko unibertsitatera heldu zen, baina denbora gutxi-rako. Fronte Abertzalea sortzeko xedez, erakunde aber-tzaleen arteko bileretan parte hartu zuen T. Monzonekin batean, 1971ko udaberrian. Urte hartako maiatzean, ber-riz ere, Ipar Euskal Herritik alde egiteko agindua. Mon-zonekin sei bat hilabete eman zituen Okzitaniako Noga-ron, Gers departamenduan, Salles d'Armagnac-eko etxe-tzarrean. Hiru gose-grebatan parte hartu zuen (1971, 1972, 1974): Baionako katedralean bi, eta bat Zokoako parrokiari, eta haietan etakide asko ezagutu eta tratatu zuen. 1973ko urrian datatu zuen *Proyecto de Manifiesto Vasco*. Testu politiko luze eta landuena. 1976ko abuz-tuan itzuli zen Donostiara, 16 urteko erbesteratze behar-tuaren ondotik.

1976-1978: Euskal Sozialisten Biltzarrean (ESB). Franco hil eta politika pragmatikoa egin behar zelakoan etorri zen. Hegoaldeko lau lurraldeentzat autonomi estatutu zabalaren aldeko. Ezker aldetik moderatu samar garai hartarako, EHAS bazterturik ESBren fundazioan parte hartu zuen. Baina 1977ko Espainiako hauteskunde orokorretan lortutako emaitzen ondotik, ESBk euskararekin eta ETArekin erakutsitako jarrerarengatik aldendu egin zen, eta 1978ko ekainean zuzendaritzak egotzi egin zuen fundatzaileetako beste birekin batean.

1978-2002: 1980-1981erako Espainiako trantsizioa deitua ildo nagusietan gauzatua zegoen (Konstituzioa, Autonomi Estatutua, Otsailaren 23ko estatu-kolpe ahalegina), eta Txillardegi kokatua politikoki Herri Batasunan independente gisa, EAJren eta Euskadiko Ezkerraren saldukeriak salatuz, eta fronte abertzale bakarra Herri Batasuna zela aldarrikatuz. 1981etik 1982ra, Kaliforniako UCLAn urtebete inguru egin zuen Linguistika ikasten, ondorio politiko nabarmenik gabe. 1986tik 1992ra bi legegintzalditan senatari izan zen Espainiako senatuan, eta Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kide urte bertsuetan. Kargu horiek zituela bidaiari mordoxka egin zuen, besteak beste, Irlandara joan zen Sinn Feinen biltzar batera 1986an: jarraitu behar ez genuen eredia zen Eire hizkuntza aldetik. Hurrengo urtean Txomin Iturbe Aljerian hil zelarik, bertan izan zen. Eustakio Mendizabal *Txikia* eta T. Iturbe miretsi zituen. 1989an, Madrilén J.M.guruza erail eta I. Esnaola larriki zauritu zituzteanean, haiekin zen.

1991n, SESB desegite garaian, Baltikoko errepubliketan eta Eslovenian (Mariborreko unibertsitatean hitzaldia

egin zuen) izan zen; haiek ziren jarraitu beharreko eredu; urte haietan kargu politikoak utzi zituen, eta autodeterminazioan eta independentzian zentratu beharra defendatu zuen, ezkerreko ideien aurretik, eta fronte abertzalearen ezinbestekotasuna era berean.

2002-2007: Aralar. Lizarra-Garazik sortutako ilusioaz (berebiziko pozaldia) eta hark porrot egin ondoko dezeptzioaz gero, Aralarera egin zuen, borroka armatuari une hartan kaltegarri iritzirik. Baina Ibarretxe planari eta Kataluniako estatutu berriari Madrilen emandako zafraldien ondoan, bide demokratikoetan jarritako esperantza galdu zuen.

2007-2012: EAE-ANV. Aralarrek ETArek aurkako manifestazioan parte hartu, eta boz autonomikoetara Ezker Batuaren eskutik joan ondotik, utzi egin zuen Aralar, eta EAE-ANV babestera igaro zen.

2012: Urtarrilaren 14an zendu zen Donostian, ETAk borroka armatuaren behin betiko etena iragarri eta hiru bat hilabetera.